

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA  
VASCA «JULIO DE URQUIJO»  
International Journal of Basque Linguistics and Philology

XLII-2

2008



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"  
*International Journal of Basque Linguistics and Philology*  
(ASJU)

*Sortzaileak / Fundadores / Founded by*  
Manuel Agud (†) - Luis Michelena (†)

*Zuzendariak / Directores / Directors*  
Joseba A. Lakarra (JUMI, UPV/EHU) - Ibon Sarasola (JUMI, UPV/EHU)

*Argitaratzailea / Editor*  
Joseba A. Lakarra (JUMI, UPV/EHU)

*Idazkaritza / Redacción / Board*

Gidor Bilbao (JUMI, UPV/EHU)  
Iñaki Camino (JUMI, UPV/EHU)  
Ricardo Gómez (JUMI, UPV/EHU)  
Joaquín Gorrochategui (JUMI, UPV/EHU)  
Iván Igartua (JUMI, UPV/EHU)

Miren Lourdes Oñederra (JUMI, UPV/EHU)  
Javier Ormazabal (JUMI, UPV/EHU)  
Íñigo Ruiz Arzalluz (JUMI, UPV/EHU)  
Blanca Urgell (JUMI, UPV/EHU)  
Koldo Zuazo (JUMI, UPV/EHU)

*Idazkaritza arduradunak / Coordinadores / Editor's Adjunts*  
Íñigo Ruiz Arzalluz (JUMI, UPV/EHU) / Blanca Urgell (JUMI, UPV/EHU)

*Aholku Batzordea / Consejo Asesor / Advisory Board*

Jacques Allières (Toulouse) (†)  
Patxi Altuna (Deustu, Donostia) (†)  
Jesús Antonio Cid (Complutense)  
Lyle Campbell (Hawaii)  
Joan Coromines (Barcelona) (†)  
María Teresa Echenique (Valencia)  
Ricardo Etxepare (Iker, CNRS)  
Jon Franco (Deustu, Bilbo)  
Jean Haritschelhar (Bordele III)  
José Ignacio Hualde (Urbana, Illinois)  
Bernard Hurch (Graz)  
Jon Juaristi (Alcalá)  
Itziar Laka (UPV/EHU)

Jesús María Lasagabaster (Deustu, Donostia)  
Francisco Oroz Arizcuren (Tübingen)  
Jon Ortiz de Urbina (Deustu, Bilbo)  
Beñat Oyharçabal (Iker, CNRS)  
José Antonio Pascual (Carlos III)  
Georges Rebuschi (Paris III)  
Rudolf P. G. de Rijk (Leiden) (†)  
Patxi Salaberri (UPNA)  
Iñaki Segurola (Orotariko Euskal Hiztegia)  
Larry Trask (Sussex) (†)  
Juan Uriagereka (Maryland)  
Myriam Uribe-Etxebarria (UPV/EHU)  
Charles Videgain (Iker / UPPA)

ASJU 1954an sortutako Euskal Linguistika eta Filologiako nazioarteko aldizkaria da, "Julio Urkixo" Euskal Filologi Mintegi-Institutuak (JUMI) argitaratua, eta iker-eremu horietatik edo horietarako ere interesgarri izan daitezkeenetatik goi mailako artikulua, ohar eta liburu-iruzkinak argitaratzen ditu. Urtero bi zenbaki ateratzen dira (orotara 750 bat orrialde). ASJU-k badu, orobat, *GEHIGARRI* sail bat, non artikulua formatuz gorako lanak argitaratzen diren, epe jakinik gabe (ikus zerrrenda zenbakiaren amaieran).

Originalei buruzko harremanetarako ikus bitez bukaerako EGILENTZAKO OHARRAK. Harpidetza eta eskarietarako: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, Leioa (luxedito@lg.ehu.es).

ASJU es una revista internacional de Lingüística y Filología Vasca fundada en 1954 y publicada por el Instituto-Seminario de Filología Vasca "Julio Urquijo" (JUMI). Se publican en ella artículos, notas y reseñas sobre los campos mencionados y afines, y otros de interés para los mismos. En la actualidad es de periodicidad semestral (unas 750 páginas). Sin regularidad preestablecida, ASJU publica en sus ANEJOS trabajos de formato superior al de un artículo (véase la lista al final del volumen).

Para correspondencia relacionada con los originales véase la INFORMACIÓN PARA LOS AUTORES al final del número. Para suscripciones y pedidos: Servicio de Publicaciones, Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Leioa (luxedito@lg.ehu.es).

ASJU is an International Journal of Basque Linguistics and Philology founded in 1954, and published by the "Julio de Urquijo Seminar of Basque Philology" Institute (JUMI). It publishes highquality papers, notes, squibs and reviews about the above mentioned and other related topics in two issues per year (up to a total of 750 pages). Longer works are published as SUPPLEMENTS to the regular issues of the ASJU (see the list at the end of the issue).

For correspondence about papers see the INFORMATION FOR AUTHORS at the end of this issue. For subscriptions and order: Servicio de Publicaciones, Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Leioa (luxedito@lg.ehu.es).

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA  
VASCA «JULIO DE URQUIJO»  
International Journal of Basque Linguistics and Philology

XLII-2

2008



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko  
Unibertsitatea

Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”  
*International Journal of Basque Linguistics and Philology*  
(ASJU)

*Sortzaileak / Fundadores / Founded by*  
Manuel Agud (†) - Luis Michelena (†)

*Zuzendariak / Directores / Directors*  
Joseba A. Lakarra (JUMI, UPV/EHU) - Ibon Sarasola (JUMI, UPV/EHU)

*Argitaratzailea / Editor*  
Joseba A. Lakarra (JUMI, UPV/EHU)

*Idazkaritza / Redacción / Board*

Gidór Bilbao (JUMI, UPV/EHU)  
Iñaki Camino (JUMI, UPV/EHU)  
Ricardo Gómez (JUMI, UPV/EHU)  
Joaquín Gorrochategui (JUMI, UPV/EHU)  
Iván Igartua (JUMI, UPV/EHU)

Miren Lourdes Oñederra (JUMI, UPV/EHU)  
Javier Ormazabal (JUMI, UPV/EHU)  
Iñigo Ruiz Arzalluz (JUMI, UPV/EHU)  
Blanca Urgell (JUMI, UPV/EHU)  
Koldo Zuazo (JUMI, UPV/EHU)

*Idazkaritza arduradunak / Coordinadores / Editor's Adjunts*  
Iñigo Ruiz Arzalluz (JUMI, UPV/EHU) / Blanca Urgell (JUMI, UPV/EHU)

*Aholku Batzordea / Consejo Asesor / Advisory Board*

Jacques Allières (Toulouse) (†)  
Patxi Altuna (Deustu, Donostia) (†)  
Jesús Antonio Cid (Complutense)  
Lyle Campbell (Utah)  
Joan Coromines (Barcelona) (†)  
María Teresa Echenique (Valencia)  
Ricardo Etxepare (Iker, CNRS)  
Jon Franco (Deustu, Bilbo)  
Jean Haritschelhar (Bordele III)  
José Ignacio Hualde (Urbana, Illinois)  
Bernard Hurch (Graz)  
Jon Juaristi (Alcalá)  
Itziar Laka (UPV/EHU)

Jesús María Lasagabaster (Deustu, Donostia)  
Francisco Oroz Arizcuren (Tübingen)  
Jon Ortiz de Urbina (Deustu, Bilbo)  
Beñat Oyharçabal (Iker, CNRS)  
José Antonio Pascual (Carlos III)  
Georges Rebuschi (Paris III)  
Rudolf P. G. de Rijk (Leiden) (†)  
Patxi Salaberri (UPNA)  
Iñaki Segurola (Orotariko Euskal Hiztegia)  
Larry Trask (Sussex) (†)  
Juan Uriagereka (Maryland)  
Myriam Uribe-Etxebarria (UPV/EHU)  
Charles Videgain (Iker / UPPA)

ASJU 1954an sortutako Euskal Linguistika eta Filologiazko nazioarteko aldizkaria da, “Julio Urkixo” Euskal Filologi Mintegi-Institutuak (JUMI) argitaratua, eta iker-eremu horietatik edo horietarako ere interesgarri izan daitezkeenatik goi mailako artikulu, ohar eta liburu-iruzkinak argitaratzen ditu. Urtero bi zenbaki ateratzen dira (orotara 750 bat orrialde). ASJU-k badu, orobat, *GEHIGARRI* sail bat, non artikulu formatuaz gorako lanak argitaratzen diren, epe jakinik gabe (ikus zerrenda zenbakiaren amaieran).

Originali buruzko harremanetarako ikus bitez bukaerako EGILEENTZAKO OHARRAK. Harpidetza eta eskarietarako: Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua, Leioa (luxedito@lg.ehu.es).

ASJU es una revista internacional de Lingüística y Filología Vasca fundada en 1954 y publicada por el Instituto-Seminario de Filología Vasca “Julio Urquijo” (JUMI). Se publican en ella artículos, notas y reseñas sobre los campos mencionados y afines, y otros de interés para los mismos. En la actualidad es de periodicidad semestral (unas 750 páginas). Sin regularidad preestablecida, ASJU publica en sus ANEJOS trabajos de formato superior al de un artículo (véase la lista al final del volumen).

Para correspondencia relacionada con los originales véase la INFORMACIÓN PARA LOS AUTORES al final del número. Para suscripciones y pedidos: Servicio de Publicaciones, Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Leioa (luxedito@lg.ehu.es).

ASJU is an International Journal of Basque Linguistics and Philology founded in 1954, and published by the “Julio de Urquijo Seminar of Basque Philology” Institute (JUMI). It publishes highquality papers, notes, squibs and reviews about the above mentioned and other related topics in two issues per year (up to a total of 750 pages). Longer works are published as SUPPLEMENTS to the regular issues of the ASJU (see the list at the end of the issue).

For correspondence about papers see the INFORMATION FOR AUTHORS at the end of this issue. For subscriptions and order: Servicio de Publicaciones, Universidad del País Vasco (UPV/EHU), Leioa (luxedito@lg.ehu.es).

ANUARIO DEL SEMINARIO DE FILOLOGÍA  
VASCA «JULIO DE URQUIJO»  
International Journal of Basque Linguistics and Philology

XLII-2

2008



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco    Euskal Herriko  
Unibertsitatea

© “Julio Urkixo” Euskal Filologia Mintegi-Institutua / Instituto-Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»

---

ISSN.: 0582-6152. Depósito legal / Lege gordailua: S.S.-400/1967  
Fotocomposición / Fotokonposizioa: Ipar, S. Coop. - Zurbaran, 2-4 (48007 Bilbao)  
Impresión / Inprimatzea: Itxaropena, S.A. - Araba kalea, 45 (20800 Zarautz-Gipuzkoa)

LINGVAE VASCONUM PRIMITIAE-REN  
PERITESTUALITATEAZ ETA EUSKARAREN  
GRAMATIZAZIOAREN PRIMIZIAZ\*

A. Arcocha-Scarcia

Michel de Montaigne-Bordeaux3 Unibertsitatea - IKER-UMR 5478

**Abstract**

*This article focuses on the epitextual and material elements of *Linguae Vasconum Primitiae* (Bordeaux 1545). By means of a new methodological reading of the first book printed in Basque, the paper aims to make the book «speak». On the basis of Genette's definition of epitext, it analyses the elements on the title-page, the dedicatory epistle in prose, the «Advertant» or warning about linguistic rules, the final sentence or colophon, the typographic Roman characters and the punctuation. Furthermore, the coat of arms on the contemporary leather cover indicates that the book might have been kept for some time in the library of Louis I of Bourbon, prince of Condé, who was Jeanne d'Albret's brother-in-law and the Calvinists' military leader. Therefore, the epitextual and material analysis confirms that LVP was printed in the mid-16th-century atmosphere of the humanists of Bordeaux and Aquitaine, and it is more than likely that educated Basques, in order to achieve that goal, might have begun to think about the grammatisation of the Basque language before 1545. LVP's author Bernard Echepare dedicated the book to Bernard Lehet (Lahet), lawyer of the parliament of Bordeaux and great lover of music and poetry, although it is not known to what extent Lehet was involved in the printing process of the book. In order to have a better grasp of the circumstances in which LVP was born, it can be said that of the different kinds of poetic texts in the book (love poems, autobiographic accounts, metalinguistic texts) it is the religious ones that better demonstrate Echepare's ideological position. According to these, the author would have been close to the Erasmian attitude of the beginning of the 16th century, and the religious poetry discourse of LVP would be the first printed «Christian Doctrine» written in Basque language. LVP has been recently digitalised by the «Bibliothèque nationale de France» and can be read online at the following address: <http://gallica.bnf.fr/ark:/12148/bv1b8609513p.r=Linguae+Vasconum.langEN>*

---

\* Eskerrak Joseba Lakarrari artikulu hau berrirakurririk, eta honen agertzean hartu duen artagatik.


*Linguae Vasconum Primitiae*-ren (LVP) testuinguruaren anakronismorik<sup>1</sup> gabe ulertzeko, XVI. mendearen lehen erdiko Europa gogoan behar da izan. Frantzian, frantsesak kultura-hizkuntza estatutua irabazia du xv. mende bukaeran (Cerquiglini 2004: 51).<sup>2</sup> Hain zuzen, «Humanisten Frantzian» 1511 eta 1525 artean «iraultza kulturala» gertatzen da (Preisig 2004: 44) Erasmoren, Budéren, Luther-en, Lefèvre-d'Étaples-en lan eta itzulpenen Parisen argitaratzeekin. 1529an, Parisen Geoffroy Tory inprimatzaile humanistak *Champ Fleury* agertzen duelarik, frantsesaren defentsa inprimatzearen bitartez egiten du baitaki teknologia berriari esker ortografia eta gramatikaren normalizazioen finkatzen ari dela eta frantsesak normak behar dituela latinak eta grekerak dituzten bezala. Teknikak dio frantsesari fabore handiena egiten. Tory inprimatzaileak ongi ulertua du teknika dela kultur-prestigioaren agente nagusia. Inprimatze-prentsen bitartez frantsesaren estatutua finkatzen da, kode baten beharra agertzen da.<sup>3</sup> Hain zuzen, XVI. mendeko lehen hamarkadetan Erasmo eta harekin Europa guzian harremanetan diren humanistek beren latinezko panfletoak, gutuneriak, Antzinateko eta Elizako doktoeren edizio berriak, hizkuntza zaharren gramatikak, itzulpenak, inprentari esker dituzte modu eragin-

<sup>1</sup> Anakronismo historikoaz ikus Febvre (1942) eta bereziki bertan D. Crouzetin Postfazioa «Rabelais et son double: l'historien en synergie».

<sup>2</sup> Ikus Cerquiglini (2004: 51): «(...) un discours neuf se fait entendre dans la génération des intellectuels nés aux alentours de 1450: celui de l'éminente dignité de la langue française. Ce qu'avaient illustré les œuvres littéraires par leur vigueur, et la graphie par son apparat, est maintenant clairement énoncé; Jean Lemaistre, Claude de Seyssel, Christophe de Longueil, etc. plaident aux alentours de 1500 une cause qui est déjà gagnée: le français devenu langue de culture. À l'efflorescence renaissante, chantée par Gargantua dans sa *Lettre*: «Tout le monde est plein de gens savants, de précepteurs très doctes, de librairies très amples» (*Pantagruel*, chap. VIII), l'épanouissement du français eut sa part. De cette montée en puissance de la langue vulgaire, commencée avant le siècle, maintenant formulée et louée, les causes sont diverses et connues. Ascendant italien: sans remonter à Dante, la dignité des langues vulgaires est une idée reçue dans l'Italie du xv<sup>e</sup> siècle. Progrès des sciences: celles-ci (en particulier la chirurgie, menée par des hommes qui n'ont pas fait d'études supérieures et ignorent le latin) requièrent un accroissement en vocabulaire et impliquent une réflexion en français. Un certain sentiment national, que renforcent les guerres extérieures et l'influence unificatrice de la royauté, laquelle joint la langue à ses attributs et prérogatives (ordonnance de Villers-Cotterêts, 15 août 1539). Innovations spirituelles: l'évangélisme, puis le calvinisme militent pour une universalité réelle de la Parole divine, mission que seules les langues vulgaires peuvent remplir».

<sup>3</sup> Ikus Cerquiglini (2004: 52): «... la presse, si elle est au service également du latin, répand la production française, conforte la langue et authentifie son statut. Animée par des professionnels de grand savoir acquis à l'humanisme comme à l'innovation religieuse, latinistes fervents mais amoureux des langues vulgaires, lesquelles témoignent de l'admirable diversité de la Création, familiers des écrivains, militants d'une culture laïque dont ils revendiquent la responsabilité, l'imprimerie est au carrefour de ce qui va porter en avant la langue française: l'Humanisme, la Réforme, les Lettres. Et de ce qui va susciter la première réflexion à son sujet, et le premier désir de normalisation. Le propos est à la fois moral et technique. Pour ces humanistes, lecteurs du grec, restaurateurs d'une latinité exacte, il est évident que sans la constitution de règles, voire l'établissement d'une grammaire, le français ne pourra acquérir la stabilité monumentale qui fait la grandeur des langues classiques. Pour ces imprimeurs, qui éditent avec soin, probité et élégance les textes anciens dont ils corrigent la langue, l'écriture gothique appartient au passé. Calligraphie mal lisible, elle est un obstacle; graphie surchargée, elle est inutile. À cet égard, l'introduction conjoint en France, autour de 1530, de deux innovations humanistes italiennes (les caractères «romains» et «italiques», très lisibles, et l'habitude, due à l'imprimeur vénitien Manuce, d'accentuer les textes latins) constitue une étape importante dans la fixation de l'orthographe française».





*Champ Fleury* (1529). *Linguae Vasconum Primitiae* 1545 (Urquijo 1933)

korrean eta laster hedatzen. Inprimatzaile garrantzitsuenak berak humanistak dira, Venezian 1494 eta 1515 urteen artean 150 liburu inprimatzen dituen Aldo Manucio; Basileon Amerbach, Froben edo Bade; Parisen Estiennetarrak eta Tory; Gryphe Lyonon (Blasselle 1998: 70-75). Inprimatzearen garrantzia handia izanen da sozialki erreformaren ideiak liburu inprimatuei esker zabaltzen baitira. XVI. mendearen lehen erdian, denbora guti barne inprimatzaile ofizioa gero eta kontrolatuagoa izanen da eta Europa guzian inprimatzearen kontrako errepresioa handituko. Bi urtemuga aipa daitezke: 1534 François I.aren erreinupean gertatzen den *L’Affaire des placards*-ekin eta 1558 Paulo IV aitasainduak zabaltzen duen lehen *Index librorum prohibitorum*-ekin.

Erreformaren ideiak dituen eta Margarita Nafarroakoak gerizatuko duen Marot poetaren lekua arras berezia izanen da garai gatazkatsu horietan. Clément Marot, «poeten printzea» deitu François I.aren *valet de chambre* («errege-mutila») denak, Parisen Tory inprimatzaile humanistaren prentsetan argitaratzen duen *L’Adolescence clémentine* (1533) poesia liburuak, leku garrantzitsua hartzen du garai haietako sorkuntzako testuetan. Tradizioko ildo berezi bat, Ertaro berantean frantsesez Villonek errepresentatzen duena, eraberritzen du Marot-ek bere «ni» poetikoa *L’Adolescence*-ko corpusean taulagainean ezarri, eta bereziki paratestuen bitartez, bere generazioko poetekin solasaldia sortuz (Preisig 2004: 49-51).

Frantziako erreinuko herri-hizkuntzetan —frantses herri-hizkuntzatik kanpo— arras titulu inprimatu guti kontserbatu dira (Gardy 2005: 226). Testuinguru horretan, eta gauzak horrela, Frantziako eta Europako XVI. mendeko lehen erdian herri-hizkuntzetan inprimatzen diren testuen estatusaren eta historiaren ikertzeko, *a fortiori* inportantea da *LVP*-ek uzten duen lekukotasuna. Herri-hizkuntzetan poesia bezalako sorkuntza-lanen inprimatzea bultzatzen dutenak inprimatzaile humanistak dira. Humanistak kultur agenteak direla ulertu behar da eta frantsesaren alde diren zirkulu intelektualetan aurki daitezkeela, beste Frantziako erreinuko herri-hizkuntzen alde direnak ere. Joseph Scaliger (1540-1609) humanistak jarrera hori ongi errepresentatzen du Frantziako mapa plurilinguistikoaren deskribapena egiten duelarik frantsesaren eta okzitanoaren aldaerak aipatuz, bai eta bretoiera eta euskara ere (Cohen 2005: 10). Modu horretan ulertzen da *LVP* XVI. mendeko lehen erdiko Frantziari lotu behar dela. Autorea, Etxepare, «Nafarroa Berrikoa» (Robert Lafon) delarik, prezeski François I.aren arreba den Margarita Nafarroakoa eta Henri II errege-erreginen erreinuko subdtoa. Eta, hain zuzen, Etxepare bera mintzo zaigu *LVP*-en frantses herri-hizkuntzak duen prestigio kulturalaz *Contrapas*-ean, aipatzen duen herri-hizkuntza bakarra *frantsesa* baita.<sup>4</sup>

Frantsesaren estatus kulturalaren eraikitze eta sustatzean inprimatze ekintza delarik gakoa, berdin *LVP* inprimatzea izanen da gakoa hizkuntz estatusaren ulertzeko: *LVP*, bere materialitatean «mintzo» zaigu bere inprimatze-ekintzaz. Beraz, XVI. mendearen lehen erdian, Akitanian, irits zitezkeen uhain modernoan «oihar-tzun leku» da *LVP*. Eta ondorioz ez da batere «akronikoa» idatzi izan den bezala (Juaristi 1987); ez zitezkeen idatz obra, hori, beraz «mende bat edo bi mende lehe-

<sup>4</sup> Ik. «Eceyn ere lengoageric / Ez francesa ez berkeric / Oray ezta erideyten / Heuscararen pareric» («Contrapas» in *LVP*).

nago”.<sup>5</sup> Akroniaren ideia hori, hain zuzen *LVP* Ernazimenduko modernitatetik bazter den obra dela, oraindik bizi da XXI. mende hastapeneko euskal literatura historiografietan (Salaberri 2002, Aldekoa 2004, 2008). Iritzi horren kontra doa hain zuzen, eta arrazoi guziarekin ene ustez, B. Oyharçabal (2008) dioelarik horren erroa K. Mitxelena zuela hedatu 1960an,<sup>6</sup> jarrera hori errepikatzen delarik geroztik euskal literaturaren historietan:

Etxepare Erdi-Aroko autore gisa hartzeko ideiak, Mitxelena plazaratu ondoan, arrakasta handia izan zuen, eta Hegoaldean ondoko hamarkadetan egin diren literatura historia liburu gehienetan errepikatua izan da, autore gutik, berriki arte bederen, funski auzitan jarri gabe (...). Etxepareren obraren erdi-arokotasuna, hizkuntza eta inprimatzearen gaiari zegokionean izan ezik, agerikoa baino agerikoagoa izan balitz bezala (2008: 497).

Ez da ahaztu behar ikuspegi horri Etxepareren amodio poesien “lizunkeria” zutartu izan zaiola. Beste ideia hau Oihenarten “l’honnête homme”-en *L’Art Poétique basque* (1665) eskuizkribuan aurkituko da lehen aldiz, baina iturri hau 1967 arte ez da jakinen<sup>7</sup> testua bukatu eta publikatu gabe gelditu zelako. Ordea, iritzia hor zen Etxepareren lanaren 1847ko berrinprimatzearen garaian (edizioa: Brunet; frantsesezko itzulpena: Archu): “Emazten fauore”-ren bi kopia ez ziren itzuli “gordinegiak” zirelako. F. Michelek ere *Le Pays Basque*-n dio Etxeparez “Il avait bien aussi brûlé quelque peu d’encens sur l’autel de l’Amour; mais l’aveu qu’il nous en fait doit nous rendre indulgent pour un péché vraisemblablement de jeunesse” (1857: 444). Vinsonek (1891: 3) seinalatzen du itzuli dituela Brunet-Archu edizioan zentsuratu koplak, komentatuz pasan, 1847ko edizioa ez dela ona testua “zuzendu” zelako (“on a ‘corrigé’ le vieux texte”) eta Archuren itzultzaile lana ez zelako zehatza (“Les traductions ne sont pas rigoureuses”). Vinsonek berak beste *LVP*-ren edizio bat agertzen du 1873an, P. Cazals-en hitzurrearekin; Etxepareren amodiozko poesiez duen ikuspegiaren XIX. mendeko ohiko moral burgesaren ispilua ikus dezakegu bertan:

... mais on ne sait sur notre Bernard que ce qu’il dit de lui-même, et c’est bien peu de chose, dans son livre. Nous y voyons que c’était un bon catholique très orthodoxe, mais aussi joyeux vivant, un de ces prêtres grands amis de la table et surtout des femmes, dont les allures scandalisaient si fort de Lancre en 1609, auxquels Axular reprochait tant en 1643 d’oublier le sixième commandement de Dieu, et que l’évêque Fouquet s’attacha à réformer de 1617 à 1643 (Vinson 1891: 2-3).

Lafitteren lumapean (1931) ideiak bere bidea egiten du eta ikusten dugu gero nola Etxaideren lumapean (1958) gorpuzten den, guziz anakronikoa den konparaketa baten bidez: Etxeparek baduela XIV. mendeko Hitako Arziprestearen *Libro de*

<sup>5</sup> J. Juaristik dioelarik Etxepareren liburuak ondoko mendeetan “endemikoa” bilakatuko den “akronia” agertzen duela ez naiz, argi da, batere akort: “...prefigura una acronia que sera endémica en la literatura vasca de los siglos posteriores» gehituz “podría muy bien haber sido escrita uno o dos siglos atrás” (Juaristi 1987: 37). Ikus B. Oyharçabal (2008).

<sup>6</sup> Ik. K. Mitxelena (1960): “... no hay nada en su obra [Etxepareren obraz ari da], salvo el entusiasmo por la imprenta de la que esperaba —si se han de tomar sus palabras al pie de la letra— que pusiera a la lengua vasca por encima de todas las demás, que sea propio de un hombre del Renacimiento. En realidad, se piensa en un autor medieval. El paralelo con Juan Ruiz resulta obvio” (Mitxelena [1960] 1988: 50). Harritzeko da nola inprentaren rola minimizatzen duen, ohartu gabe hor dagoela *LVP*-ren modernitatearen giltza.

<sup>7</sup> Lafittek eskuizkribu horren lehen transkripzioa 1967an du editatzen.

*Buen Amor*-ekin antzekotasuna. Funtsik ez duen ideia hori —Hitaren liburua irakurri duenak laster ikusten baitu ez dutela bi autoreen lanek deus ikustekorik— Mitxelena (1960) eta haren ondotik beste anitzek, errepikatuko dute. Halere, azpimarratzekoa da L. Akesolok 1968an, agertzen duen iritzi disonantea. Harek helburu linguistikoa du agerian ezartzen, Lafonek 1951ean plazaratua zuen ideia berrartuz, baina adieraziz enuntziatzearen ulertzean dagoela problematika:

Él [Etxepare] tomó el tema del amor como simple ejercicio literario. Eso dicen las propias palabras de Dechepare en su prólogo. Sus propósitos eran de entregar a los vascos, escritos en su lengua, algo de doctrina cristiana, de motivos para animar conversaciones o para ser contados. *Temas hay también que, por su mismo título, excluyen las posibilidades de ser un sacerdote su protagonista* (etzana nirea da).<sup>8</sup>

Euskal literaturako historiografoek Hitako Arziprestearen *Libro de Buen Amor*-ekin konparatu izan dute eta konparatzen dute *LVP* uste baita destenorekoa edo berantiarra dela azken hau eta garaikidea beste hura. Baina, hipotesi hori segituz nola esplika “Contrapas”-en “oray” denbora-adberbioak duen indar iteratiboa (Arcocha 1996: 216-226)? Euskal kritikak autoreak berak azpimatzen duen oraikotasunaren ez gehiago azpimarratzea anakronismoak berak du esplikatzen.

Beste topiko bat: Etxeparearen “herrikoitasuna” da —ik. Arcocha (1996: 224), Oyharçabal (2008b: 508-516)—, Altunaren artikulu batean, besteak beste, sustatua.<sup>9</sup> Egoera horrek agerian uzten du *LVP*-ez gaurko euskal literatura historiografian kurri dabilzan ideiak berrikusi behar direla:

Oro har, berant eta destenorez ibili bada euskal literatura, salbuespen gisa agertzen zaigu alderdi horretatik Etxeparearen kopia liburua (baita, berdín, sorkuntza literaturatik kanpo, Leizarragaren itzulpenak ere) (...) Etxeparearen erdi-arokotasunaren aldeko ikuspegia, ikusi dugunaz, euskal literaturaren berankortasunaren ideian funtsatua zen, eta handik abiatu egin ziren (...) Etxepare Euskal literaturaren gibelamenduaren eredu egiten zutenak. (Oyharçabal 2008: 491, 509)

B. Oyharçabalekin batera uste dut *LVP* ez dela batere gibelatua. Horren frogatzeko, liburua ardatz berri batzuetarik harturik aztertuko dut: paratestualitatearen aldetik eta materialtasunaren aldetik. Aitzina segitu aitzin, gehi dezadan, autoreak puntu batzutan tradizio zaharren segitzeak ez duela erran nahi *de facto* liburua atzeratua dela. Tradizio zaharrenetarik (adibidez, kantutegi liturgikotik) heldu diren oihartzunak baldin badira *LVP*-en, eta badira, horrek ez du erran nahi modernitatea zalantzan ezarri behar zaionik liburuari. Adibidez, Clément Marotek 1533an aurreko beste tradizio batekoa den François Villonen poetika eraberritzen du humanisten kriterio berrien jarrerak aplikatuz (ortografian, tipografian, etab). Villon modernitatean sartzen du. Ez da Marotendako, Villonen aipatzea atzeratzearen seinale, alderantziz.

<sup>8</sup> Ik. *La Gran Enciclopedia Vasca I El primer libro impreso en euskera (año 1545)*, 355-370. or. (Bilbo 1966), ikus Lino Akesoloren gaztelera-zko itzulpena ere in *Bernat Dechepare, Olerkiak* (San Sebastián 1968). Ene artikuluan zitatua den Akesoloren testua ondoko iturri honetatik hartua dut: *Lino Akesolo, Idazlan Guztiak*, edizio prestatzaile: Julen Urkiza, Karmel-sorta, Larrea-Zornotza, 1989, <http://www.euskerazaleak.biz>

<sup>9</sup> Ik. P. Altuna “Etxepare herri poeta” (1981: 321); ik. Oyharçabal (2008) eta Arcocha-Scarcia (1996: 224).

Modu palinpsistikoan aurreko autore baten testuen itxura aldatuz garaiko autoreak bereganatzen du testu hori eta garaikidetzen, “oraikotzen”.

Lan hau liburu inprimatze-ekintzan zentratzen da eta egia erran, XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen lehen erdian agertu ziren bi lanekin lotura aurki daitezke: Vinsonen *Essai d'une bibliographie de la langue basque*-ekin (= Vinson [1891-1898] 1984: 1-2), eta hor n.º Y-6194-A kodearekin BNFen katalogatua den *LVP unicum*-az egiten duen deskribapen materialarekin; Urquijok 1933an, lehen aldiz, argitaratu zuen *LVP*-ren faksimilearekin.<sup>10</sup> Testologiaren eta testuen historiaren ekarpenei esker, *LVP* bere munduratzearaz bera “mintza” dakigun saiatu naiz faksimilea izan delarik beti lan honen testu-oinarri beharrezkoa.

*LVP*-ren peritestualitatearen definitzeko Genettek *Seuils*-en ([1987] 2002) zabalitzen duen bide metodologikoa segitu dut. Horrela, *LVP* “testuaren inguruan, liburukia beraren espazioan”<sup>11</sup> kokatzen diren elementu paratestualek dimentsio berezia hartzen dute. Hain zuzen, peritestuari eta bereziki peritestu editorialari leku argia utziz. Azken eremu hau “inprimatzailearen eta editorearen, edo *edizioa*-ren ardura zuzen eta nagusia, baina ez eksklusiboan, den gunea da” Genetten ustez, hots, titulu-orriak, tipografiak, puntuazioak etabarrek markatzen duten gunea.<sup>12</sup> Kanpoko larruzko estaliaren armariaren jabeaz diren ohar ineditoak Pariseko BNFeko liburu inprimatu arraroen egotiztan den *LVP* liburu materialaz 2006ko azaroa/abenduan eta 2007ko martxoan egin obserbazio zuzenetarik datoz. Kanpoko larruzko estalia lehen aldiz erreproduzitzen delarik artikulu honetan.

Hiru atal nagusitan banatzen dut azterketa hau: 1) *LVP*-ren peritestualitatea; 2) *LVP*-ren peritestualitate editoriala;<sup>13</sup> 3) *LVP* euskararen lehen gramatizazioaren agerlekua.

\* \* \*

<sup>10</sup> Gertatu izan da ere aldakuntza bat faksimilearen fotokonposaketan. *LVP*-ren 1995ko Euskaltzaindiko edizioan, faksimileari kendu zaizkio zigiluak. Horrelako manipulazioa ezin ulertuzkoa da, ikusiz zein den inportantea, testuaren analisiarendako dokumentu orijinalaren erreprodukzioa den bezala uztea.

<sup>11</sup> Ik. Genette ([1987] 2002: 10-11): «... autour du texte, dans l'espace du même volume, comme le titre ou la préface, et parfois inséré dans les interstices du texte comme les titres de chapitre ou certaines notes; j'appellerai *péritexte* cette première catégorie spatiale, certainement la plus typique (...)».

<sup>12</sup> Ik. Genette in *op. cit.*: «J'appelle *péritexte éditorial* toute cette zone du *péritexte* qui se trouve sous la responsabilité directe et principale (mais non exclusive) de l'éditeur, ou peut-être plus abstraitement mais plus exactement de l'*édition* (...). Le mot *zone* indique que le trait caractéristique de cet aspect du paratexte est essentiellement spatial et matériel; il s'agit du *péritexte* le plus extérieur: la couverture, la page de titre et leurs annexes; et de la réalisation matérielle du livre, dont l'exécution relève de l'imprimeur, mais la décision de l'éditeur, en concertation éventuelle avec l'auteur: choix du format, du papier, de la composition typographique etc. (Genette [1987] 2002: 21).

<sup>13</sup> Bi ohar metodologiko egin behar ditut liburuaren estaliaz: i. Genettek liburuaren titulu-orria peritestu editorialaren kokatzen du, editorearen ardurapean delako baina liburuaren kanpoko «estalia» ez du aipatzen alor hori editorearen ardurapenetik kanpo izan daitekeelako, pentsatzen dut. Pundu horrek metodologiari dagokionez arazo bat sortarazi dit eta duda batzuen ondotik erabaki dut azkenean *LVP*-ren kanpoko estalia peritestualitate editorialaren barne kokatzea. Ene arrazoi nagusi eta bakarra izan da *LVP*-ren estalia *garaikoa* dela jakitea, hain zuzen XVI.eko mendearen erdialdekoa. Galdera batzuk erantzunik gabe gelditzen dira halere: *LVP* noiz estali zen? Liburuaren jabeak eginarazi ote zuen? Opari bat izan ote zen? Morpainen inprimategian estali ote? Edo inprenta lekutik kanpo zen beste eskulangile bati eskatuz eginaraziko?; ii. *LVP*-ren peritestualitatean sartzen diren elementuak testuaren ingurugiro urrunean kokatuak direnak dira. Lan honetan ez dira beraz aipatuko testuaren espazioaren ingurugiro hurbilenean diren koplen tituluak.

## I. *Lingvae vasconvm primitiae*-ren peritestalitatea

Erasmok 1530ean, Germain de Brie-ri igortzen dion gutun batean, Budé zuzendari duen “Letren Errepublikak” dela dio Frantziak (Preisig 2004: 45), erakutsiz mugimendu intelektual handi baten lekua dela garai hartan. Giro horretan, amarengandik okzitaniera dakien<sup>14</sup> Marotek, 1532an frantsesez argitaratzen duelarik *L'Adolescence*, giro kulturalki errefinatuenak —ingurugiro humanistakoak— ditu bere ikusmiran. Preisig-en ustez, Marotek 1532ko edizioan paratestuez egiten duen erabilera berezian ikus daiteke helburu horren frogetarik bat. Herri-hizkuntzetan 1532 baino lehen inprimatuak diren poesia liburuetan ez baita ardura aurkitzen hitzaurrerik eta epigrafia latinorik.<sup>15</sup> Preisigek Maroten *L'Adolescence*-i hiru funtzio ikusten dizkio: 1. “publiko humanistaren atentzioaren erakartzeko den bitrina” izatea; 2. Marot beraren balioztatze-tresna izatea; 3. elkar-ezagutze sistema bati esker espazio literario baten eraikuntzaren sortaraztea”.<sup>16</sup>

Ene ustez, 13 urte geroago Bordelen inprimatzeko pribilegioa ukan duen *LVP*, Frantziako kultura-humanistaren karakteristekin eta Marotek sustaturik 1532tik landa Frantzian eta “Nafarroa Berria”-n zabaldu zen giro literario berriarekin lotu behar da. Dinamika horren ondorioetarik bat dateke lehen aldiko liburu baten euskaraz inprimatzea. Gainera, peritestuaren azterketak agerian uzten du frantses humanismoak *LVP*-ren inprimatze-ekintzan ukan duen zereginaren arrastoa, falta direlarik dokumentuak rol horren zuzenki neurtzeko.

### I.1. Onimatasuna<sup>17</sup>

Autorearen izena titulu-orrian, letra kapitaletan idatzia den tituluaren ondokit aurkitzen da. Leku kanonikoan da, beraz, hizki minuskuletan inprimatua da eta modu honetan: «per Dominum Bernardum Dechepare, Rectorem sancti michaelis veteris» (Hots, Eihalarre). Autorearen (goi mailako) kokatze soziala, latinez diren «Dominum» partikularen, izen eta abizenen, karguaren (erretorea da) eta ofizio-lekuaren aipamenean bitartez agertzen da.

<sup>14</sup> Ik. *L'Enfer*-en Marotek bere buruaz dioena: «... Car une matinée, / N'ayant dix ans, en France fut mené; / Là où depuis me suis tant pourmené / que j'oubliai ma langue maternelle / Et grossement appris la paternelle, / Langue française ès grands Cours estimée, / Laquelle enfin quelque peu s'est limée, / Suivant le Roi François, premier du nom, / Dont le savoir excède le renom».

<sup>15</sup> «Les œuvres poétiques en vernaculaire qui sont imprimées à cette époque, souvent posthumes ou collectives, sont rarement précédées d'un prologue signé de l'auteur (...) Il faut en convenir, il n'y a guère d'équivalent dans les recueils de poésie française qui circulent dans les années 1520 à cette préface de Marot» (Preisig 2004: 53-54); cf. «L'épigraphie, a fortiori l'épigraphe latine, n'est pourtant pas une pratique si répandue dans la poésie vernaculaire. Son usage est lié à 'l'apparition du livre'. On se rapportera aux éditions contemporaines de Crétin, de Lemaire, de Gringore ou encore aux *Opere toscane* d'Alamanni pour se convaincre de sa rareté à l'époque» (Preisig 2004: 58).

<sup>16</sup> «... on dira que le paratexte de *L'Adolescence* constitue une vitrine destinée à attirer l'attention du public humaniste et à valoriser Marot. Il contribue également à la constitution d'un espace littéraire défini par un système de reconnaissance mutuelle» (Preisig 2004: 59).

<sup>17</sup> *Onymat*, ikus G. Genette ([1987] 2002).

per Dominum Bernardum Dechepare  
 Rectorem sancti michaelis veteris.

LVP: Onimatoaren agerpena

Inprimatze-zeinu horiek kontuan hartzekoak dira berriak baitira liburu inprimatuetan. Hain zuzen, liburuaren egilearen izenaren markatzeko beharra Ertaroetako garaietan aurkitzen ez den kezka modernoa da Febvre eta Martinek agertzen duten bezala:

(...) tandis que les hommes du Moyen Age ne se souciaient guère de mettre un nom sur une œuvre, les imprimeurs seront tout naturellement amenés à rechercher ou à faire rechercher le véritable auteur des œuvres qu'ils impriment —parfois aussi à l'inventer—. (...) Enfin, ne l'oublions pas, la possibilité pour les auteurs contemporains de faire désormais imprimer et répandre leurs œuvres à de multiples exemplaires, de faire connaître leur nom: *stimulant précieux et aussi indice d'un temps nouveau, celui où les artistes signeront leurs œuvres et les écrivains aussi* —où peu à peu le «métier d'auteur» prendra une autre forme—. Et très vite, devant le flot montant des œuvres nouvelles destinées à un public toujours plus vaste, l'héritage du Moyen-âge va perdre de son importance (Febvre-Martin [1958] 1999: 367-368; AAS-en etzana).

Inprimategia Parisen sartzan delarik 1470 urteetan, hasten da ere aldatzen autoreek beren lanei buruz duten ikuspegia. Eboluzio horren lekuko adierazgarria da André de La Vigne-n *Ressource de la Chrestienté*. Lan honen eskuizkribu eta edizioen bitartez agertzen da nola lehentasuna duen autoreak, mezenaren lekua bigarren mailara jaisten delarik. Prezeski, André de la Vigne-ren kasuan ohargarria da ikustea nola bere burua *hitz-joko* baten bidez aipatzen duen eskuizkribuan (*de La Vigne* = “mahastikoa”) poesiaren testuan

Se mon engin eust plus grant efficace,  
 J'eusse trop mieulx labouré et enté  
 La Ressource de la Chrestienté,  
 Qui a vous, sire, de presenter n'est digne,  
 Ne plus ne moins que le fruyt *De la vigne* <sup>18</sup>

eta nola gero bertsio inprimatuan, «de La Vigne» *autore izen* bilakatzen den tituluorrian (Brown 1991: 86, 167; Preisig 2004: 25-26). xv. mende bukaeran, Frantzian idazle ofizioaren baliospena tituluaren, ikonografiaren eta «sinaduraren»<sup>19</sup> bitartez agertzen dira (Preisig 2004: 25-26).

Etxepereren izenaren agertzean autoretasuna finkatzen da liburua modernitatean pausatuz, humanisten intelektual-munduari begira. Hain zuzen, izena latinez agertzen da, eta latinaren erabilera, kasu honetan, tituluaren erreferentzia zuzena, profanoa denez, humanisten ingurugiroaren seinale da, ez, adibidez, elizarena.

<sup>18</sup> Ik. Preisig (2004: 25). AAS-en etzanak. Ik. Brown (*Poets, patrons and business...* 1995: 86), Preisigek aipatua (2004: 25).

<sup>19</sup> «Sinadura», hemen autorearen izenaren inskripzio bezala.

## I.2. Titulua

*LVP*-en, liburuaren tituluzia liburuaren egilearen eta haren funtzio eta funtzio-lekuei lotua den *per* preposizioaren bitartez agertzen da latinez, multzo tipografiko baten itxurarekin: «LINGVAE VASCONVM PRIMITIAE per dominum Bernardum Dechepare Rectorem sancti michaelis veteris»:



*LVP*: Titulu-multzoa

Ordea, “multzo” itxura hori faltsua da ageri baita liburuaren «deitura» edo «nortasuna» *tipografia motak* bereizten duela. Titulu hori, «PRIMITIAE»-ren bukaera salbu,<sup>20</sup> karaktere erromatar edo humanistiko kapitaletan inprimatua da gainerako izen, ofizio eta ofizio-lekuak erromatar minuskuletan direlarik. Ohartzekoa da titulua eremu laikoan kokatzen dela, gai batez ari dela (baskoien hizkuntzaren hastapenez), beraz zabaltzen duen informazioa “tematikoa” (linguistikoa hemen) dela eta gai horren aipamena ahal bezain ekonomikoki, ahal bezain ximpleki, aitzinatua zaiola hartzaileari ongi irakur daitezkeen karaktereetan.

Tituluaren «ximpletasunak», hartzailearen irakurtzeko ahalarren zaintzeak salatzen dute iragurugiro humanistikoaren hatza da liburuaren modernotasunarena:

Pendant le premier tiers du xvte siècle, le titre garde encore souvent une composition compacte, ou disposée en lignes de longueurs décroissante, parfois imprimée alternativement en noir et rouge. Il offre souvent une sorte de sommaire de l'ouvrage mais il est rare qu'il contienne une adresse complète. (...) Chez les imprimeurs humanistes, le titre est plus simple et acquiert progressivement son aspect moderne (...) (Brun-Toulet 1968: 9).

Genetek elementu peritestal honi lotzen dizkion lau funtzioak aurki ditzakegu *LVP*-ren tituluari: 1. Izendatze funtzioa; 2. Deskripzio funtzioa (tematikoa da); 3. Bigarren funtzioari doakion balorapen konnotatiboa, adibidez «sobrietatea» edo biluztasuna (humanistek kultibatzen duten ximpletasuna); 4. Funtzio seduktiboa: liburuaren titulua erakargarria da, iragarki modura funtzionatzen du (Genette [1987] 2002: 85-98).

*LVP*-ren kasuan, hain zuzen, tituluak *errebindikatzan du* euskal letren «primizia» dela. Eta liburu horren kontsiderazioa eskatzen da titulu harrapatzailearen bitartez. *LVP*-ren nortasuna eta titulazio-multzoa latinez direnez, argi da publiko zabalenari zuzendua dela. *LVP*-ren harreraren kasuan, inprimatzaileak, eta ene ustez autoreak eta Lehetek ere beren «itxoite-horizontean» Erasmok aipatzen zuen Frantziako «litteratura errepublikako» («Res. Litteraria») humanistak dituzte gogoan, Europakoak halaber, ez bakarrik Bordelekoak. Hain zuzen, eskaintza epistolari aipatzen den espazioa den zabalena da “mundu gucietara” doa, humanistek European duten jakintza-sare zabalerara: “... eta scributan imeitera ceren ladin publica *mundi gucietara*... eta çure hatse

<sup>20</sup> Inprimategiko langileak ez duke tituluaren hondarra kapitaletan idatzi espazio-faltaz.



honetik dadin aitzinerat *augmenta continua* eta publica *mundu gucietara*” (AAS-en etzanak).

“Contrapas”-ean ideia bera aurkitzen da:

Oray dano egon bahiz  
Imprimitu bagueric  
Hi engoitic ebiliren  
*Mundu gucietaric*

(*Contrapas*; AAS-en etzanak)

Zabaltze unibertsal hori modernitateak dituen zeinuak harturik egin dateke bakarrik, hain zuzen, humanisten irizpide tipografikoak aplikatuz, karaktere «erromatarraz»-ez. Tituluak hori dena erakusten du, duen tipografiaren bitartez eta zabaltzen duen mezu errebindikatiboaren bitartez. Irakurle letratu modernoak berehala ezagutzen ditu liburuan diren kode eta zeinu berriak. Zentzu horretan dira ulertu behar hizkuntzaz diren balorazio antitetikoak LVP-en: «[orain] *ohore*<sup>21</sup> / [lehen] estimatze guti» (*Contrapas*), edo «[orain] beharduyen *thornuya*<sup>22</sup> / [lehen] lengoagetan azquena]» (*Sautrela*) edo geroari buruz «[euskaldunen] lengoagia iça-nenda *floria*».<sup>23</sup>

Alegorizazioaren bidez pertsonaia bilakatua den «Heuscara» entitate abstraktuari Etxeparek, garaian ohi den bezala, gorputza ematen dio erretorikoki indar gehiago emateko bere argudiaketari. Eta letra tradizioz gabeko herri-hizkuntza alegorizatu horren «ohorea» humanismoak du gauzatzen inprimatze prozeduraren bidez. Humanismoak zabaltzen dituen sare ideologikoei eta teknologikoei esker, zabalkunde gutikoa eta estatus literariorik gabekoa den euskara herri-hizkuntza, letra hizkuntza bilakatzen da lehen aldiz eta modernitatean sartzen.

### I.3. Eskaintza epistola<sup>24</sup>

Eskaintza epistolak leku berezia hartzen du liburuaren atarian eta «E» karaktere erromatar apainduak estetikoki markatzen du haren hastapena. XVI. mendearen lehen erdian, gorago erran bezala, herri-hizkuntzetan inprimatuak ziren poesia liburuetan autoreak sinatu “hitza aurre” edo “aitzin solas” baten aurkitzea gertakizun bakana zen. Normalean, leku liminario horiek liburu saltzaile-editoreek zituzten betetzen pertsonaia inportante bati eskainiz obra.


<sup>21</sup> AAS-en etzanak. Euskararen “ohorea” ez da bakarrik inprimatzearekin lortzen, ene ustez. Adibidez, gotikoz inprimatzea modu zaharkitu batean inprimatzea litzateke. Beraz, hizkuntzak “ohorea” lortzen du ene ustez, kodigo modernoenen arabera buruzen delarik inprimatze-ekintza, eta hala hartzen duelarik irakurleak. Kasu honetan, Frantziako kode-kultural aurreratuenen arabera, gotiko mundua zaharkituztat baztertera utzirik, karaktere erromatarrez inprimatuz.

<sup>22</sup> AAS-en etzanak. Idem, euskarari doakion *thornuya* ez da bakarrik inprimatze-ekintzari lotua, biazik eta inprimatze-ekintza «motari, hots humanismoaren irizpideen arabera egin den inprimatze-ekintzari.

<sup>23</sup> AAS-en etzanak. Idem, *floria* hori humanismoaren bideetarik da LVP-en agertzen eta giro horretan ikusten zaio geroa.

<sup>24</sup> “*Epître dédicatoire*”, ikus Genette ([1987] 2002).

Erroma zaharrerraino joan gaitzke bederen obra-eskaintzen aurkitzeko, nahiz, Genettek dioen bezala garai hartan ez diren kodifikatuak; gero, aro mediebaletako hainbat nobelatan edo kronikatan *incipit*ak hitzaurrearen arkeologian ere sar daitezke, printze baten enkarguaren lekukotasunak direlako.<sup>25</sup> Baina eskaintza epistolaren kodifikazioa berantago gertatzen da, hain zuzen, «eskaintza epistola» inskripzio ofiziala peritestuan sartzen den momentutik: Charles IX-i dedikatua den *la Franciade*-n aurkitzen den «eskaintza epistolan» bezala (1572) (Genette [1987] 2002: 121).



LVP: Eskaintza epistolaren *recto*-a

Genettek azpimarratzen du eskaintza epistola klasikoan dedikatioaren laudorioak aurkitzen zirela eta obraz informazioak ere, edo dedikatzaileak (“dedikatorea”) dedikatioaren hautuaz egin justifikazioak:

<sup>25</sup> «et bien des incipits de romans et de chroniques du Moyen Âge témoignent, comme nous le verrons en considérant la préhistoire de la préface, d’une commande princière dont la mention vaut pour une dédicace d’œuvre» (Genette [1987] 2002: 121).

... l'épître dédicatoire classique pouvait abriter d'autres messages que l'éloge du dédicataire, par exemple des informations sur les sources et la genèse de l'œuvre, ou des commentaires sur sa forme ou sa signification, par quoi la fonction de la dédicace empêche clairement sur celle de la préface. Ce glissement de fonction est même presque inévitable; pour peu que l'auteur veuille justifier le choix du dédicataire par une relation pertinente à l'œuvre (Genette [1987] 2002: 126).

LVP-ren kasuan aurkitzen dugun testu liminarioak ez du titulurik, ez da generoki identifikatua baina ondoko elementuak badituelako «eskaintza epistola» bezala izendatzen dut; autoreak sinatzen du:

- norbaiti eskainia da (gure kasuan Lehet da dedikatariora);
- obraren funtzioaz informazioak badira;
- dedikatoreak dedikatarioraren hautua justifikatzen du.

Segidan, aurtorialtasuna nola emana den aipatuko da eta “epistola” bezala definitzeko diren elementuak. Gainerako elementuak (Leheti den eskaintza; poetaren funtzioa...), lan honen hirugarren zatian aurkituko dira.<sup>26</sup>

### 1.3.1. Aurtorialtasuna

Eskaintza epistolaren edo beste LVP-ko edozein testuren aurtorialtasuna metodologikoki mugatzeko Lejeunek aipatu “itun autobiografikoa” (*le pacte autobiographique*) betea den bilatzen dut. Lejeuneren arabera, pakto autobiografikoaren aurkitzeko berdintasuna behar da autorearen (*identité de nom*), narratzailearen eta pertsonaiaren artean:

Pour qu'il y ait autobiographie (...) il faut qu'il y ait identité de l'auteur, du narrateur et du personnage. (...) L'autobiographie (récit racontant la vie de l'auteur) suppose qu'il y ait *identité de nom* entre l'auteur (tel qu'il figure par son nom, sur la couverture), le narrateur du récit et le personnage dont on parle (Lejeune [1975] 1996: 15, 25).

Bixtan dena, aurtorialtasunaren problematikaren erroan, enuntziatio problematika aurkitzen dugu: lehen pertsonan ari den 'ni'a (Genetten arabera narrazio «autodiegetikoa» dugu hor) autorea ote da? Hirugarren pertsonan aipatua den pertsonaia (Genetten arabera narrazioa orduan «heterodiegetikoa» da) autorea ote?

Nahiz artikulua honen gaia LVP-ren peritestiualitatearen inguruan datzan, erran dezadan halere, LVP-ren amodiozko poesien euskal literatura historietan gaizki ulertzeak (Etxepareren ustezko delako «lizunkeria» hura), hain zuzen enuntziatio problematikaren gaizki ulertzetik heldu dela. Dena den, Etxepareren testuetan itun autobiografikoaren funtzionamendua «Mossen Bernat echaparere[n] cantuya»-n da hobekien ikusten, autoreak tituluan bere burua eszenan ezartzen duelarik Maroten moduan.<sup>27</sup>

<sup>26</sup> Ik. gero datorren artikulua honen zatia: “III.1. Euskararen gramatizazioaren hatzak LVPen”.

<sup>27</sup> Ik. Marotek lehen aldiz Anberesen 1539an argitaratu zuen *L'Enfer* poemaren titulua: «l'Enfer de Clément Marot de Cahors en Quercy, Valet de chambre du Roi, composé en la prison de l'Aigle de Chartres, et par lui envoyé à ses Amis» (arg. Lestringant 1987).

Eskaintza epistolari, “Mossen Bernat echaparere[n] cantuya”-n bezala, itun autobiografikoa errespetatua da: titulu-orrian den autore-izena, hemen hirugarren pertsonan aipatua den izena berdina dira, eta ondoko lerroetan agertuko den «ni»a eta «hi»a ere autore-pertsonaiaren mintzoak direlarik.

### I.3.2. *Protokolo epistolarioaren markak*

Galda ahal dezakegu ez ote dugun begien aitzinean Etxeparek Leheteri igorri zinezko eskuizkribuzko epistola edo gutun pribatu bat inprimaturik, *a posteriori* peritestu bezala baliatu dena. Hasiera-protokoloan hierarkia argi bat bada lehen-dabizirik izendatzen dena Lehet baita aipatzen dituelarik igorleak haren ofizio ezaugarriak: «erregueren aduocatu videzco eta noblea», «noblea» adjektiboa zentzu propioan hartu behar delarik, ene ustez. Leheten gibeletik, bigarren neurrian, kokatzen du Etxeparek bere burua eta gainera hirugarren pertsonan ezartzen du «kris-tau humilitatearen eta xinpletasunaren» seinale bezala:<sup>28</sup>

Erregueren aduocatu videzco eta nobleari virthute eta honguciez compli-tuyari bere iaun eta iabe Bernard Leheteri bernard echeparecoac haren cert-bizari chipiac gogo honez goraynci baque eta ossagarri.

Etxepareren auto-aipamenak testu guzian ohidurazko *topos modestiae*-an eta *excusatio propter infirmitatem*-ean agertzen dira, ohartzekoa delarik «osasan formula»: «gogo honez goraynci baque eta *osagarri*».<sup>29</sup> Pertsonaien artean den hierarkia, Lehet destinatarioarendako diren laudoriozko adjektibo eta kortesia formulak, osagarriaren aipamena barne, eta igorleari lotuak diren humilitate kodeak ere *captatio benivolentiae*-an sartzen dira.

Ernazimenduan *Artes epistolandi*-ez diren irizpideak aldatzen dira eta polemika luzeak izanen dira *subscriptio*-aren (igorlearen izena) eta *superscriptio*-aren (destinatarioa) leku kanonikoaz:

- i. Non koka *subscriptioa* —kontuan hartuz haren kokatze soziala edo autore-sinadura?—? Gutunaren hastapenean? Bukaeran?;
- ii. Non koka *superscriptio*-a? Igorlearen izenaren aitzinean? Ondotik? Gutunaren azalean? (Gueudet 2004: 316-372).

Erasmok Ertaroan erabili epistola-kode pisua aldatu nahi du «antzinako xinpletasunera» berritzuliz, hain zuzen Quintilianus eta Cicero etsenplutzat hartuz (Gueudet 2004: 340-341). Antzinako epistola-kode biluziari nahasten zaiolarik «christiana sim-

<sup>28</sup> Ik. Lejeune ([1975] 1996: 16): «Parler de soi à la troisième personne peut impliquer soit un immense orgueil (...), soit une certaine forme d'humilité (c'est le cas de certaines autobiographies religieuses anciennes), où l'autobiographe se nommait lui-même «le serviteur de Dieu»). Erran gabe doa narrazio literarioarendako pentsatuak diren Lejeunen ohar metodologikoak literaturako beste edozein generotan aplikatu daitezkeela.

<sup>29</sup> AASek azpimarratua. Ik. G. Gueudetek osasan formulaz nota batean dioena: «Bastiaenssen note que la formule de santé, qui avait presque disparu sous l'Empire, réapparaît sous une forme chrétienne au III<sup>e</sup> siècle, mais s'efface au siècle suivant (...). Cette disparition, à partir du IV<sup>e</sup> siècle, est observée également dans les lettres grecques (cf. J. O'Callaghan (...)); cependant G. Karlsson suppose que la tradition a pu se maintenir dans des milieux plus modestes (...)» (2004: 292).

plicitas» ebangelikoa. Izan ere, Ernazimenduan humanistek editatzen eta irakurtzen dituzten Antzinateko greko eta latinezko gutunieretan —izan bitez literarioak ala ez— epistola-protokoloak aurkitzen dituzte eta modelotzat hartzen (Gueudet 2004: 292). Era berean, III. mendean geroztik grekerazko eta latinezko gutunieraren eboluzioan sartu den «zeremonialtasun epistoriala» baztertzeko dute. Garai horretatik landa, bereziki kristauen gutunetan, obserba daiteke, besteak beste, Gueudeten ustez, destinatarioaren izena lehenik ezartzen dela eta ondotik igorlearena LVP-en bezala.<sup>30</sup>

Eskaintza epistolaren destinatarioaren izena lehenik, igorlearen izena baino lehen, ezartzeko ohidura aspaldikoa zen, beraz, Etxeparearen garaian, baina egia erran, gutunaren hastapeneko hierarkia ordenuari dagokionez, askotariko jarrerak aurkituko dira humanisten artean. Vivesek, adibidez, indulgentzia eskatzen du «duintasun-ordenuaren» kriterioen arabera, hots, humanismo girstinoaren arabera, bi erabiltzeko moldeak onartzen dituela erranez. Erran nahi baita artearen arabera igorlearen izenak beharko lukeela lehenik, baina aitortzen duela (Vivesek) modestiaren arabera, birtute girstinoaren arabera, alderantziz egin behar litzatekeela, LVP-en bezalaxe, lehenik destinatarioa bere kalitateekin agerrarazi eta gero igorlea bere *topos modestiae*-rekin.

Bukaera-protokoloak ere aldakuntzak ezagutzen ditu. Gueudetek azpimarratzen du haatik formula horren eboluzioa ezezagunago dela, gutun ofizialetan ez delako aurkitzen gehienetan. Aldiz, herri-hizkuntzetan idatziak diren familia-gutunak kasik beti otoitz formula batekin bukatzen dira: LVP-ko eskaintza epistolaren bezala, igorleak destinatarioari ospatzen diolarik «[jainkoak] dizum (sic) mundu honetan (sic) prosperoqui vicia eta bercian parabiçuya, Amen». Ez lekurik eta ez datarik ez delarik agertzen. Ikusten da, beraz, LVP-en den eskaintza epistolaren direla Europako garaiko «epistola» generoan ezagutzen diren kode ezaugarriak. Epistolaren hastapenean marka hierarkikoaren errespetatzean, testuak jarrera teologiko tradizionala segitzen du.

Azken oharra eskaintza epistolaren erabilia den forma alokutiboari, zutanoari, doakio. Gueudeten ustez, hizkuntzen arabera bi usantza aurki daitezke. Latinezko Ernazimenduko gutuneria eruditoan lehen humanistek hitano klasikoa defenditzen dute zizeronismoaren izenean eta girstinotasunaren xinpletasunaren (Erasmus) izenean. Horregatik, Ertaroan inposatu den «gortesiazko plurala», zutanoa, kentzen dute. Aldiz, frantses herri-hizkuntzan diren gutunetan alderantziz gertatzen da, zutanoaren erabilera da zabaltzen dena:

<sup>30</sup> Ik. Gueudet (2004: 293-295): «Dès cette époque [III. mende], le nom du destinataire est souvent placé avant celui de l'expéditeur, et un déterminatif est ajouté à la formule de salutation; au siècle suivant, des épithètes et des titres honorifiques s'y intègrent (...) Parallèlement le vœu initial réapparaît dans les épîtres latines, puis se transforme; cependant que la formule d'adieu évolue chez saint Cyprien en «Opto te semper bene valere», sous l'influence grecque, puis se christianise et s'enrichit dans les deux langues. Enfin, dans la correspondance de Symmaque, fait son apparition le vouvoiement, qu'on explique généralement par le cérémonial impérial; il devient courant au Ve siècle. L'alourdissement et la diversification du protocole épistolaire sont un fait accompli à la fin de l'antiquité. (...) Longtemps subsiste une suscription des lettres latines, patentes ou closes, qui procède directement de la *salutatio* romaine, remodelée à la fin de l'empire. En tête du message sont nommés les deux correspondants; par humilité épistolaire ou chrétienne, les rédacteurs avaient adopté l'ordre destinataire-expéditeur (...). Ainsi l'inversion du sujet subsiste-t-elle comme une marque de déférence pendant tout le Moyen Âge; en fait, la société féodale impose sa hiérarchie aux correspondants et l'ordre suivi dépend de leur rang respectif».

En effet, des exemples français indiquent une double évolution; alors qu'à la fin du xve siècle, on pouvait observer dans des lettres familières un usage analogue du tu et du vous en français et en latin, au xvii<sup>e</sup> siècle, le retour au tutoiement classique s'impose dans la langue savante, tandis que le pluriel de politesse tend à se généraliser dans notre vulgaire. (...) Cette querelle du vous et du tu est donc caractéristique à plus d'un titre. La campagne menée par les humanistes reste fidèle aux mêmes objectifs de Pétrarque à Erasme et elle aboutit en effet à la restauration d'un tour classique en latin; mais ce succès aggrave le fossé entre le langage des érudits et la pratique contemporaine telle qu'elle se développe dans les langues vernaculaires. Et pourtant, au moment même où ils rétablissent la pratique classique, les humanistes n'ont pu ignorer que l'époque impose à l'épistolier des marques extérieures de déférence. Tout en respectant les règles classiques, ils doivent accepter dans leurs manuels deux entorses à la simplicité cicéronnienne, qui compensent en quelque sorte l'abandon du vouvoiement (Gueudet 2004: 402-403).

Horren ondorioz, «Contrapas»-ean ni auktoriala euskararen alegoriari zuzentzen zaiolarik hitanoa erabiliz («Heuscara ialgui adi cāpora») humanismoaren eragina ikusi behar da. Ohartzekoa da erlijiozko testuetan «Hamar manamenduyac»-en ni auktorial bera fededunari ere hitanoa erabiliz zuzentzen zaiola («Adoreçac iāgoycobat») ebangelismoaren “christiana simplicitas”-aren izenean (ik. Arcocha-Oyharçabal 2008). Bizkitartean Jainkoari mintzatzeko zutanoa da erabilia “Iaygoycua çuc veguira niri ere çucena” (“Mossen Bernat echaparere[n] cantuya”).

#### I.4. Bukaerako epigrafoa<sup>31</sup>

Epigrafo hori ez da, Oroz Arizcurennek uste duenaren kontra (2006: 353) *LVP*-ren “kolofoi latinoaren” parte bat. Ene ustez, arras funtzio berezia betetzen du *LVP*-en, paratestu independente bezala eta inondikan ere ez kolofoi bezala. Bukaerako epigrafo horrek letra erromatar kapitaletan dio *DEBILE PRINCIPIVM MELIOR / FORTVNA SEQVATVR* erran nahi baita: «hastapen xume honek fortuna ukan beza geroan».

*DEBILE PRINCIPIVM MELIOR  
FORTVNA SEQVATVR.*

*LVP*, Bukaerako epigrafoa

*LVP*-ren bukaeran den elementu peritestal honen ezaugarriak Genettek “obra-  
ren epigrafoaz” (*Épigraphe d'œuvre*) eta “erranaz” (*Devise*) dioenarekin baditu  
pundu amankomunak. Halere, duda batzuen ondotik (hastapen batean “bukae-  
rako errana” deitu bainuen), erabaki dut azkenean “bukerako epigrafoa” deituko  
dudala nahiz Genettek dion xvii. mendea baino lehen horren arrastorik ez duela  
aurkitzen.<sup>32</sup>

<sup>31</sup> «Epigraphe terminale», ikus Genette ([1987] 2002).

<sup>32</sup> Ik. Genetteren definizio osoa: «Je définirai grossièrement l'épigraphe comme une citation placée en exergue, généralement en tête d'œuvre ou de partie d'œuvre; «en exergue» signifie littéralement hors d'œuvre, ce qui est un peu trop dire: l'exergue est ici plutôt un bord d'œuvre, généralement au plus près

#### 1.4.1. Epigrafoaren ezaugarriak

Epigrafoari Genettek aurkitzen dizkion puntuak eta LVP-en den «errana» («devise»), «epigrafo» bezala definitzeko balio duten puntuak ondokoak dira. Lehenik, epigrafoaren testua autore-errana izan daiteke;<sup>33</sup> liburuan den testutik independientea da; epigrafo historikoa latinez da, gehienetan bezala; epigrafoa anitzetan titulua dagoen orrian kokatzen da, baina —LVP-en bezala—, testuaren bukaeran ere izan daiteke, gainerako *corpus*-etik zuri tipografiko batek bereizten duela, orduan betekizun berezi bat badu “bukaerako erran” bezala;<sup>34</sup> gehienetan ‘alografoa’ da, hots ez da obraren autorearena; funtzio bereziak betetzen ditu, ondoko lerroetan ikusiko den bezala.

#### 1.4.2. Epigrafoaren lau funtzioak

Genetten ustez, epigrafoak lau funtzio betetzen ditu:

1. tituluaren erranahia argitzen du;
2. testua komentatzen du “erranahia zeharka zuzenduz”;
3. agerian den mezua azpian beste mezu bat gordetzen du;
4. kultura zeinu bezala, “intelektualitate pasahitza”<sup>35</sup> bezala agertzen da.

##### 1.4.2.1. Lehen bi funtzioak: tituluaren eta bukaerako epigrafoaren arteko lotura

Lehendabiziko bi funtzioak aipatzerakoan argiki ikus daiteke titulua eta epigrafoa elkari semiotikoki lotuak direla tipografiaren bitartez (letra humanistiko kapitalean idatziak dira biak), hizkuntzaren bitartez (latinez biak) eta semantikaren bitartez (erranahi linguistikoa dute biak).

Kontsideratuz liburuaren arkitektura, erran daiteke LVP-ren eraikuntza zirkularra dela: epigrafoak tituluaren erranahia zehazten du, horrela liburu osoa geroari buruz irekiz. Lot bagenitza bi erranak, *rebus* humanistiko baten gisako erranaldia genuke: “Linguae vasconvm primitiae<sup>36</sup> debile principvm melior fortvna seqvatvr”. Bestalde, argi da ere eskaintza-epistolaren bukaerarekin lokarri zuzenak badituela gainera epi-

---

du texte, donc après la dédicace, si dédicace il y a. (...). Je n’en trouve aucune trace, au moins selon la définition susdite, avant le xvii<sup>e</sup> siècle. Mais peut-être faut-il en voir l’ancêtre dans une pratique plus ancienne, qui serait la devise d’auteur. Le texte de la devise peut bien être une citation, comme le *Ab insidiis non est prudentia* emprunté à Pline que Mateo Alemán intégra au frontispice d’au moins deux de ses œuvres: *Guzman d’Alfarache*, et son *Orthographe castillane*. Ce qui distingue la devise n’est donc pas forcément le caractère autographe, mais son indépendance par rapport au texte singulier» (2002 [1987]: 147-148).

<sup>33</sup> Kasu honetan *devise*-aren definizioarekin konkordantzian da (ikus Genettek dioena aurreko oharrean).

<sup>34</sup> «Un autre emplacement possible, comme pour la dédicace, est la fin du livre: dernière ligne du texte, séparée par un blanc (...) l’épigraphe terminale est en principe, après lecture du texte, d’une signification évidente, et plus autoritairement conclusive: c’est le mot de la fin, même si l’on affecte de le laisser à un autre» (Genette [1987] 2002: 152).

<sup>35</sup> Azken puntu honi buruz: «La présence ou l’absence d’épigraphe signe à elle seule, à quelques francions d’erreur près, l’époque, le genre ou la tendance d’un écrit» (Genette [1987] 2002: 163).

<sup>36</sup> Hitzaren muturra letra etzanez agertzen da espazio faltaz.

testu honek, ideia berdina aurkitzen baita bereziki pasarte honetan: “... eta çure hatse honetic dadin aitzinerat augmenta continua eta publica mundu gucietara (...) et eginen direnec çüero duten causa oboro haren abançatzeço”.

#### 1.4.2.2. Hirugarren funtzioa: mezu gordearen hipotesia

Genettek dio agerian den mezuaren azpian gordea den beste mezu bat bada: “De la troisième fonction, j’ai dit qu’elle était la plus oblique. J’entends par là, bien sûr, que le message essentiel n’y est pas celui que l’on donne pour tel” (Genette [1987] 2002: 161). Hipotesis bezala aitzina daiteke «Debile principium melior fortuna sequatur» bukaerako erranaldi horren mezu linguistikoaren azpian badaitekeela bigarren mezu bat, ebangelikoa dena: *Imitatio Christi*-a osoki bizitzeko erreformistek garai hobekoak ukanen dituztela geroan. Euskararen inprimatzeari esker, zabalitzen ari dela beti gehiago Kristo kurutzifikatuaren ele unibertsala (ik. Arcocha & Oyharçabal 2008). Ondorioz, jakinez ingurugiroa zaila dela garai hartan Frantzian eta bereziki Bordelen (ik. Baranova 2002) ebangelistendako (hain zuzen «debile principium»), geroa oparoa izan den dela Kristoren zinezko legea zabalduko baita lur guzian («melior fortuna sequatur»).

#### 1.4.2.3. Laugarren funtzioa: kultura seinaleak

Kulturaren seinaleetat hartu behar dira Erroma klasikoko epigrafien eran erabiltzen diren karaktere humanistiko kapitalen erabilera, eta epigrafoaren hautua bera. Epigrafo horren jatorria kultura humanistikoan kokatu behar litzateke dudarik gabe. Jadanik aipatu bezala, Ovidiok *Metamorfosiak*-etan erabili erran baten aldaera da, baina ene ustez ez du horrek erran nahi Ovidio ez zela aurreko beste iturri batzuek baliatu. Erran zahar edo sententzia moduan Ovidioren iturritik kanpo, modu paraleloan erabil zitekeelako.

Sententzia hori forma ezberdinetan aurkitzen bada<sup>37</sup> iturri ezberdinetan, dudarik ez humanisten artean arrakasta berezia baduela, *LVP*-ren garaian bederen beste bi lekukotasun humanistiko famatu identifikatzen ahal baitira letretan. Lehena ezaguna den Rabelaisek erabili “Debile principium melior fortuna sequetur”<sup>38</sup> eta bestalde, hitz-joko bat eginez, Julius Caesar Scaligerok erabiltzen duen aldaera antitetikoa: “Bona principium debile fortuna sequetur”.<sup>39</sup>

<sup>37</sup> Ik. Oroz Arizcuren (2008): “FleBILE principium melior fortuna secuta est”; “FleBILE principium melior fortuna sequetur”; “DeBILE principium melior fortuna sequata” [www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/69623.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/69623.pdf)

<sup>38</sup> Ik. Rabelaisek Margarita Nafarroakoaren memorioari eskaintzen dion *Le Tiers Livre des Faicts et Dicts Héroïques du bon Pantagruel Composé par M. Fran. Rabelais docteur en Medecine (...)*-en aurkitzen den bertsiio horietarik bat, *Comment naissent les procès, & comment ilz viennent à perfection* deitzen den XLII kapituluak: «La manière est telle que dict gl. p. q. j. c. Paulus DeBILE principium melior fortuna sequetur» (Rabelais, Michel Fezandat edizioan, Parise 1552). Ene erreferentzia F. Bon-en edizio numerizatutik heldu da. Edizio hau 1552koari aldakuntzarik ekarri gabe egina da [www.http://un2sg4.unige.ch/athena/rabelais/rab\\_tier.html](http://un2sg4.unige.ch/athena/rabelais/rab_tier.html)

<sup>39</sup> Ik. Oroz Arizcuren in *op. cit.* [www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/69623.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/69623.pdf)



## II. *Linguae vasconvm primitiae*-ren peritestualitate editoriala

### II.1. *Kahier eta orrialdeketa*

LVP zazpi kainerrez moldatua da, kaier bakoitza lau orrialdetakoa delarik, beraz *In cuarta* da. Kaier bakoitza, orriaren azpian eskuinetik agertzen den “sinadurak” ezberdintzen du. Horrek erran nahi du zazpi kaierrak bat bertzearen ondotik ezartzen direla gero elkarri josteko, bost orrialde guzietz honelako zazpi sinadurak agertzen direlarik: “Aij” (ik. Eskaintza epistolaren argazkia), “B”, “C”, “D”, “E”, “F”, “G”. Liburuak ez dauka bertze orrialdeketarik.

### II.2. *Titulu-orria*

LINGVAE VASCONVM PRIMI-  
tiz per Dominum Bernardum Dechepare  
Rectorem sancti michælis veteris.



LVP: Titulu-orria

Titulu-orrian bi gune berezi badira. Orriaren lehen eremua latinezko idazkiak hartzen du eta bigarrena grabatuak. Gorago seinalatu bezala, lehen gune horretan seinalatzeko zaizkigu: liburuaren titulua kapitaletan; autorearen nortasuna; autorearen kargua eta lan-lekua.

Bigarren eremua grabatuak hartzen du. Ohar horiek guziak frango berriak dira orduko liburu inprimatuetan. Komeni da hemen berriz gogoraraztea garai modernoan dela agertzen, autorearen izenaren finkatzeko kezka (Febvre-Martin [1958] 1999: 367); ik. *Onimatoaz* den zatia.

### II.3. Kolofoia



*LVP*, ezkerretik liburuaren azken testua (*Sautrela*) eta bukaerako epigrafoa eskuinetik, kolofoia

Liburuaren nortasunaren azpimarratzaile, zuzenbide tipografikoaren bilgune, eta faltsifikatzaileen kontrako justizia larderien kokagune den eremu berezi hori, 1550 urteetaraino iraunen duen ohidura baten arabera, bukaeran kokatzen da (Brun-Toulet 1968: 29). Ohidura den bezala, bukaeran agertzen da *LVP*-en ere.

Zergatik kolofoia frantsesez idatzia den aipatu behar da laburzki. *LVP* euskaraz inprimatua izanikan ere, Bordeleko Parlamentuan De Pontac funtzionarioak sinatzen duen kolofoia frantsesez (eta ez latinez) inprimatua da, François I.aren 1539ko agorriaren 15eko Villers-Cotterêts-eko ordenantzaren 110. eta 111.en artikuluen arabera,<sup>40</sup>

<sup>40</sup> Xehetasun gehiago urrunago artikulua honetan berean in “III. Euskararen gramatizazioaren lehen urratsak”. Villers-Cotterêts-eko ordenantzaren testuaz ikus <http://www.assemblee-nationale.fr/histoire/villers-cotterets.asp>; [http://fr.wikipedia.org/wiki/Ordonnance\\_de\\_Villers-Cotter%C3%AAts](http://fr.wikipedia.org/wiki/Ordonnance_de_Villers-Cotter%C3%AAts)

legezko arazoen frantsesez inprimatzeko obligazioa baita orain. *LVP*-ren kolofoiaren testuak dio:

Extraict des registes de Parlement

Svpplie humblement François Morpain, maistre Imprimeur de ceste ville de Bourdeaulx: que pour imprimer vn petit tracte intitule, Linguæ vasconum primitie, luy a conuenu faire plusieurs fraiz & mises. A ceste cause plaise a la Court inhibitions estre faictes a tous les Imprimeurs libraires de ce Ressort de imprimer ou faire imprimer ledict Tracte, & a tous march(an)s de nen vendre dautre impression dans troys ans a peine de milliures tourn(ois) & ferez iustice. Veue laquelle requeste la court fait les inhibitions requises par ledict Morpain a peine de mil liures tourn(ois). Faict a Bourdeaulx en Parlement le dernier iour Dapuril, mil cinq cens quarante cinq.

Collation est faicte.

De Pontac.

Kolofoiari frantsesez agertzen diren xehetasunek titulu-orrian latinez ezarriak ziren aipamenak ziurtatzen eta osatzen dituzte:

- i. Berriz aipatzen da liburuaren titulua, aldi honetan kolofoiari, erromatar minskuletan eta bariante ortografiko batekin (“primitie” “primitiæ”-ren orde): “Linguæ vasconum primitie”;
- ii. Testua frantsesez «petit tracte» («tratatu ttipi») edo “ledit Tracte<sup>41</sup>” (“tratatu”) bezala kalifikatzen da. Izendatze horrek “liburu”-aren erranahia du dudarik gabe. Kontsidera daiteke ere “tratatuaren” zentzua (ikus *Diccionario de Autoridades*) ukan dezakeela “euskararen primiziaz” ari delako;<sup>42</sup>
- iii. Zuzenbide tipografikoa agertzen zaigu inprimatzaile-editorearen eta behar bada liburu-saltzailea den François Morpainen izenarekin;
- iv. inprimatze-lekuarekin (Bordele);
- v. 1545eko apirilaren azken eguneko (“dernier iour Dapuril, mil cinq cens quarante cinq”) pribilegio datarekin.<sup>43</sup> 1545eko apirilaren azken egun horretan *LVP*-ren inprimatzea bukatua ote zen? Ez da segurantzarik.

<sup>41</sup> Bi hitzak AAS-ek azpimarratuak.

<sup>42</sup> Lehenago duda bat ukan nuen (ikus Arcocha-Scarcia 2005: 119). Argi da enetzat, orain, analisis peritestuala egin ondoan, *LVP*-ek badituela “liburu-objektuaren” marka guziak.

<sup>43</sup> Ik. Oroz Arizcurennek dioena:

En el texto que presentó Morpain para justificar un privilegio de la Corte en su favor, argumenta que, para imprimir ese libro, ‘luy a conuenu faire plusieurs fraiz & mises’ o habla mirando al futuro, de ‘fraiz necessaire à l’ouverture de ladictie impression’, sino de gastos que ha tenido ‘pour imprimer un petit tracte intitule, Linguæ vasconum primitie’

De esta información podemos deducir llanamente que, al solicitar el privilegio, el trabajo de imprenta de este libro estaba ya en una fase avanzada, casi a punto de concluir. Razón suficiente para que supongamos que en los meses que faltaban hasta el fin del año se podía terminar cómodamente la impresión, y para que admitamos consiguientemente para ésta el 1545, sobre todo si consideramos que ese año duró, según el calendario francés, hasta Pascua Florida de 1546, que fue el 25 de abril. Pero computemos según el calendario romano, a la moderna. Para que supongamos o admitamos, sí; para que estemos seguros, no. Pues era un lugar común en la solicitud del privilegio mencionar los ‘plusieurs grans fraitz et mises’, a veces con *despens*, invertidos en proyecto, lo que desvirtúa algo nuestra suposición.

Kolofioan irakur daiteke Morpaineek gastuak “inprimatzeko” *jadanik* aitzinatua kiztuela, hots, pribilegioa ukan aitzin: “que pour imprimer vn petit tracte intitule, Linguæ vasconum primitie, luy a conuenu faire plusieurs fraiz & mises”. Uler daiteke, beraz, LVP-ren inprimatzea edo bukatua dela edo bukatuxea, baina zorigaitzez azken ohar hori ez da zehazki ezagutzen. Ohartzekoa da Oihenartek ere nahasten dituela pribilegio-data eta inprimatze-data 1665ean frantsesez euskal arte poetikoaz idazten ari den zirriborroan 120 urte lehenago «poesia euskaldun bat» inprimatu zela aipatzen du. Lehenik, barratua duen pasartean: «Ie ne scay si Mossen bernad dEche- pare, En son Viuant curé d'Eyeralarre, au pays de Cize, qui Uiuoit, Il y a six Uingts ans, (...)» (Oihenart [1665] 1967: 35). Gero, barratua duena berriz garbira pasatzean: «Ie ne scay si Mossen bernad dEtchepare En son Uiuant Curé deyheralarre au pays de Cize qui Escrivoit Il y a six Uingts ans (...)» (Oihenart [1665] 1967: 37).

Bordeleko Morpain inprimatzaileak eskatu hiru urteko pribilegio-eskaera legez onartu zuen Parlamentuak (*A ceste cause plaise a la Court*), eta, beraz, hiru urtez kopia faltusuez zaindua zen liburua. De Pontac<sup>44</sup> funtzionarioak konsignatua zuen Parla- mentuan<sup>45</sup> (*Faict a Bourdeaulx en Parlement (...) Collation est faicte. De Pontac*).

1979an P. Altunak aitzinatu zuen hipotesian —Juaristik 1987an eta Kortazarrek 1997an errepikatua—, aditzera ematen zen pribilegio horren izateak adierazten zuela LVP-ek beste inprimatze bat ukan zuela lehenago. Ene ustez, frantsesez idatzia den kolofoiaren okerreko irakurketan eta garaiko inprimatze ohiduren ez ongi ulertzean oinarritzen da interpretatze hori.

---

Más seguridad nos habría dado un colofón en regla, una indicación expresa de la fecha (y del lugar) de la publicación, que solía acompañar al *Cum privilegio*, muchas veces con mención de la imprenta. (...)

Del análisis del Extraicts des registes de Parlement de Burdeos en su ámbito no es posible sacar conclusiones definitivas sobre la fecha de publicación de *Linguae vasconum primitiae*. Si suponemos que la impresión siguió por el cauce normal, y suponemos que el plazo de tres años de privilegio comenzaba el día 30 de abril de 1545. Sin embargo, debido al silencio del tipógrafo, barruntamos que han podido surgir problemas que retrasaron esa publicación.

“Que quede *sub iudice lis*.” (Oroz Arizcuren 2008: 443-457).

<sup>44</sup> Seguraski 1550 urtearen inguruan Bordeleko Parlamentuko kontseilari izan zen L. de Pontac (c. 1505-c. 1566).

<sup>45</sup> Formulazioa ohiturazkoa dateke. Marotek 1533an Villonen poesiez egiten duen edizio berrian iduriko formulazioa aurkitzen da. Lekua aldiz ez da berdina. Maroten edizioan hastapeneko paratestuen artean aurkitzen da eta ez kolofoiaren parte bezala, 1530 urteetarik landa gero eta gehiago inprimategiek liburuetan zuzenbide tipografikoari emanen dioten leku berezia hartuz (Brun-Toulet 1968: 27). Kasu honetan kolofoiak titulua eta inprimatze bukaerako data hartuko ditu soilik (Marotek Villonen poesiez egiten duen edizioan, adibidez, “1533ko irailaren ‘azken eguna”). Abisuak honela dio:

«A monsieur le Bailly de Paris, ou son lieutenant.

SVpplie humblem(en)t Galiot du Pre libraire iure de l’universite, qu’il vous plaise luy permettre faire imprimer & vendre les œuvres de feu François Villon, puy nagueres a la dilige(n)ce. de Cleme(n)t Marot valet de chambre du Roy nostre sire reueues, corrigees, & ordonner deffenses estres faictes a tous qu’il appartiendra, qu’ilz n’ayent a imprimer ne vendre lesdictes oeures selo(n) la coppie dudict supplia(n)t iusques a deux ans apres ensuiua(n)s, affin qu’il se puisse rembourser des impenses qu’il luy conuiendra faire pour l’impression dudict liure: & ferez bien. Il est permis avec les deffenses ce que requiert ledict suppliant. Faict le xxj Septembre, mil cinq cens xxxij.» I. Morin.» (*Les œuvres de François Villon...*, Maroten ed. Parise 1533).

Ezaguna da XVI. mendearen hastapenean inprimatzaile humanisten tailerretarik atera liburu anitz bertze inprimatzaile batzuk faltsifikatu zituztela papera eta tipografia arruntetan eta prezio apaletan inprimatuz (Febvre-Martin).<sup>46</sup> Ekintza horrek diru galtze handiak sorrarazten zituen inprimatzaile humanistendako. Horregatik, inprimatzaileek eta editoreek argitaratze garrantzitsu bat egiten zutelarik, botere publikoen pribilegioa eskatzen zuten. LVP-ren kasuan, pribilegioa hiru urterena izateak, eta jadanik aipatu den izunaren inportantziak agertzen ote dute inprimatze horri inportantzia ematen zaiola Akitaniako eskualdean? Ezin erran.

LVP-ren harreraz, bi aipamen labur baditugu XVII. mendean. Lehena, Isastirena. Isastik irakurria zuen eta baiezki baloratua.<sup>47</sup> Bizkitartean, ez dakigu irakurri zuen alea Morpainen ala Morront(z)en ediziokoa zen. Dena den, Isastiren bertsioan Etxepareren bertsioak aldatuak aipatzen dira.<sup>48</sup> Interesgarri den datua da, halere Isastiren lekukotasunak frogatzen baitigu LVP mugaz bertzaldeko euskaldeen ere ezagutu zela XVII. mendeko lehen bi hamarkadetan (ez dakigularik zer neurritan).

Beste datua Oihenarten jadanik aipatu dudana euskal arte poetikoaz 1665an idazten ari zen zirriborroan agertzen dena da. Bi aldiz datu berdintsua aipatzen du: lehen aldiaren barratzen du idatzi duen guziaz eta bigarren aldiaren berkopiatzen du barratu zuena. Zirriborro horietan bi edizio aipatzen ditu, 1545ean pribilegio ukan zuena, gaur ezagutzen dugun *unicum*-a, eta Erroango Morront(z) inprimategitik atera edizioa.

Oihenartek, 1656an, LVP-tik atera bertsio bat zitazten zuen 1656ko *Notitia*-ren bigarren edizioako XIV. kapituluari. Liburua aurki zitekeen, beraz, 1545tik (Oihenarten LPB-ren arabera “duela 120”) 1656-1665 urteak arte bederen. Oihenartek LVP-ren bi aleak, 1545ko pribilegio-data duena, Morronten inprimategitik ateraia dena “Arte poetikoa”-z idazten ari duen zirriborroan idazten baitu azken edizioa akatsez betea dela, bai barratua duen bertsioan, eta bai garbira pasatua duen bertsio

<sup>46</sup> Ikus Febvre-Martin ([1998] 1999: 339):

Les publications des imprimeurs humanistes furent (...) fréquemment contrefaites au début du XVII<sup>e</sup> siècle. A Paris, les impressions de Josse Bade sont souvent copiées par un groupe de libraires et d'imprimeurs, et l'imprimeur Des Prés va même, pour que l'imitation en soit parfaite, jusqu'à faire tailler un encadrement reproduisant l'un de ceux que Bade faisait figurer en tête de ses éditions. De même, à Lyon, on n'hésite pas à reproduire les éditions bâloises et vénitiennes. Si bien qu'à cette époque un Erasme ou un Despautère avaient sans cesse la surprise de voir paraître un peu partout des rééditions de leurs œuvres, pour lesquelles ils n'avaient nullement donné leur accord.

Pour éviter ces inconvénients, les éditeurs qui entreprenaient une publication importante furent de plus en plus amenés à solliciter des pouvoirs publics un privilège leur accordant pour un temps le monopole de l'impression et de la vente du texte qu'ils publiaient.

<sup>47</sup> J. de Urquijok dio: «Hubo, sin embargo, un escritor vasco, Lope de Isasti, que en 1625, dejó consignadas las siguientes palabras, en su *Compendio Historial de Guipúzcoa*: «Muchos años que M. Echepare de Navarra la Baja compuso un libro en esta lengua a lo divino»; pero, como dicho *Compendio* no se imprimió hasta 1850, esa curiosa noticia no trascendió, por lo visto, a los escritores vascos, hasta que, en 1847, Gustave Brunet, a quien Francisque-Michel habla del *Linguae Vasconum Primitiae*, publicó en *Actes de l'Académie royale des Sciences, Belles-Lettres et Arts de Bordeaux* la primera reimpresión del Dechepare (...). Ikus «Introducción a nuestra edición del *Linguae Vasconum Primitiae de Bernard Dechepare*», in <http://www.euskomedia.org>

<sup>48</sup> Nik Isastiren izkribuen XIX. mendeko edizioa dut ezagutzen. Eskuizkribuak ikusiak ez ditudanez, ez dezaket balora zein kanbiamendu ekarri diren ala ez diren ekarri XIX. mendeko izkribuan; ikus 74. oh.

honetan: “Une poesie basque quil fist Imprimer a bourdeaux chez françois morpain Et laquelle a esté depuis reimprimee a Rouen chez adrian morront, *Mais fort In-correcte*” (AAS-en etzana, Oihenart [1665] 1967: 37).

Morpain inprimatzaileaz dakizkigun xehetasunak Robert Desgravesenganik heldu direnak dira (Desgraves 1998). Parisetik Bordelen finkatzeko heldu zen Gaspar Philippe inprimatzaileak zuen lehendabiziko inprimatze leku finkoa ireki Bordelen 1520ean. Parisetik zekarren materiala letra gotiko eta letra apaindu «frango higatuez» egina zela dio Desgravesek. Philipperen segida Jean Guyartek hartu zuen (1520-1542), hau gero ezkontzen delarik Ginette Moline Philipperen alargunarekin. François Morpainen izena garai horretan agertzen zaigu. Guyarten langilea da lehenik eta gero honen inprimategia du hartuko bere gain 1542an, 1563 arte. Inprimategia hartzen duen urte berean, hots 1542an, karaktere tipografiko berriak, humanisten *lettera antiqua*-k sarrazten ditu lehen aldikotz Bordelen. Karaktere tipografiko berri horiekin inprimaturen da *LVP*. Morpainen heriotzaren ondotik (1563), “La Veuve Morpain”, haren alargunak, hartuko du bere gain inprimategia 1570 arte eta gero Pierre de Ladimek (1571-1587).

### II.3. “Aduertant...” Abisuaz

*LVP*-ren inprimatzaileei eta irakurtzaileei ezarria zaien abisua hau da:

“Aduertant Impressor, & lectores quod. z. nunquam ponitur pro. m. Neq(ue). t. ante . i. pronunciatu r pro. c. Et vbi virgula ponitur sub. ç. hoc modo quod fit dum prae ponitur vocalibus .a.o.u. Tunc. c. pronunciatu r paulo asperius quam z. vt in. ce. ci.”

[“Ohar bitez inprimatzailea, eta irakurleak z. ez dela sekulan *m.*-ren ordez ezartzen ez eta *i.*-ren aitzinean *t.* ez dela *c.* ahoskatzen. Eta modu honetan bezala *a. o. u.* bokalen aitzinean *ç*-ren azpian kakoa ezartzen delarik orduan *c.* ahoskatzen dela z. baino pixka bat latzago *ce. ci.*-n bezala.”]

**¶ Aduertant Impressor, & lectores quod. z. nunquam ponitur pro. m. Neq. t. ante. i. pronunciatu r pro. c. Et vbi virgula ponitur sub. ç. hoc modo quod fit dum prae ponitur vocalibus. a. o. u. Tunc. c. pronunciatu r paulo asperius quam. z. vt in. ce. ci.**

*LVP*: Abisua

Frantsesaren “gramatizazioan”<sup>49</sup> gertatzen diren fenomenoak inportanteak dira *LVP*-ko euskararen ortotipografiatze-sistemaz zerbait ulertzeko; “Aduertant”. (“Ohar

<sup>49</sup> Ik. Cerquiglini (2004: 52-53): «Plus généralement la langue française entre dans un processus de «grammatisation», selon de terme de Sylvain Auroux, qui désigne ainsi l'équipement technique dont une langue peut être dotée (grammaires, dictionnaires, etc.), et la conscience de cet équipement (politique linguistique, enseignement, etc.). Cette grammatisation du français que le Moyen Âge avait ignorée, et dont le latin était seul bénéficiaire, accompagne le rayonnement nouveau des langues vulgaires;» (etzanak AAS-enak).

bitez...”) “Abisua”-n “ç”-aren aipamenaren ikustea aski da gauza horietaz ohartzeko. “ç” edo “C buztanduna” 1530 urteetan sartu zen Parisen, eta LVP-ren garaietan sartu dateke Morpainen bidez Bordelen. Meigretrek *Traité touchât Le Commvn Vsage de L’Escritvre Françoise...* tratatuan pasarte luzeak eskaintzen dizkio “C”-aren grafia-ahoskeraren problematikari, azpimarratuz “C buztandunak” dakarren aitzinamendua ([1542] 1545).

LVP-eko «Aduertant...» abisua latinaren eta frantsesaren irakurtze kodeak ezagutzen dituzten irakurleentzat egina da eta haren egileek irakurle aditu horrentzat beharrezkoak diren puntu problematikoko guti batzuk dituzte bakarrik aipatzen. Gainerako punduetan, oharraren egileek suposatzen dute irakurle letratuak oinarrizko kodeak ezagutzen dituela. Badaki zer balio foniko eman ‘v’ grafemari balio kontsonantikoa duelarik, “vihoça” hitzean bezala, edo bokalikoa “Vnharçuna” hitzean bezala; badaki tilde zeinu diakritikoak laburdura balioa duela ‘ã’ bokalaren gainean delarik “cãpora” hitzean bezala, eta “campora” duela irakurri behar; badaki puntuaren funtzioa zein den (zergatik puntuaren ondotik maiuskulak erabiltzen diren, edo zergatik puntua koplen bukaeretan aurkitzen den), etab.

«Aduertant» abisua inportantea da euskararen gramatizazioa nola arrazoitzen den LVP-en agertzen duelako. Erakusten du bereziki euskal “ortotipografiaz”<sup>50</sup> izan zitezkeen eztabaidetan oinarrizko eztabaidetarik bat euskararen fonetikaren arabeko transkripzio egokiaren aurkitzea zela. Hain zuzen, garai hartan frantsesaren gramatizazioan puntu hori oinarrizkoa baitzen eta prezeski Meigreten “fonozentrismoan” (Cerquigliani 2004: 70-71)<sup>51</sup> ikus daitekeen bezala.

Berriz ere ohartzeko gara euskararen normalkuntza linguistikokoaren ulertzeko frantsesarenean zer gertatu zen behatu behar dela. Bertzalde, aitzinatu behar da ene us-tez, Etxeparek LVP-en egin hautu linguistikoen eta Leizarragarenean artean suma daitekeela *continuum* bat, eta are gehiago aitzinamendu bat. Morpainen inprimategian gauzatu den euskararen gramatizazioaren hastapenak itxura guzuen arabera jarraiki du 1545 eta 1571 artean Akitaniako inprimategietan.

<sup>50</sup> Hitza —N. Catach-ek sortua— Cerquiglianik bere gain hartzen du (2004: 53-54): «Les années 1530 paraissent à bien des égards fondatrices. Faisant émerger le thème de la fixation orthographique, proposant des linéaments d’une pratique, elles orientent ce qui deviendra plus tard un véritable courant réformateur. Moins pour l’inspiration générale (le phonocentrisme préoccupe peu des éditeurs désireux seulement de procurer une copie probe, régulière et lisible) que pour les méthodes, et les solutions proposées. La réforme orthographique naît dans ce que Nina Catach a justement nommé l’«*orthotypographie*» (AAS-ek azpimarratua). Elle s’inscrit dans le labeur éditorial, relève de l’activité humaniste qui apprête le texte: dessin et choix des caractères, mise en page, séparation des mots, majuscules, ponctuation. Elle est fondamentalement un toilettage de la graphie, et comme son édition; les réformateurs sont toujours des professeurs, des philologues émendant l’orthographe comme ils corrigent les textes, les pourvoient de signes diacritiques et de ponctuation, les annotent. De cette activité seconde, le meilleur exemple est la mise en œuvre d’une accentuation. Nouveauté dans la graphie française, les accents sont significatifs de cette orthographie des années 1530, ils constituent l’acquis principal de la modernité renaissante («le seul vrai progrès est ici»), fondent et illustrent le geste réformateur».

<sup>51</sup> Cerquiglianik Meigretrek bere *Traité*-an hartzen dion jarrerari, «idatz ahoskatzen duan bezala» («escris comme tu prononces»), «fonozentrismoa» deitzen dio, hitzaren ahoskatzean, soinuak, oinarritzen delako izkribu konbentzioen erabilera gramatikokoaren finkatzeko.

Abisuan ikusten da ortografiaren finkatzeko ahoskera oinarriztat hartu behar dela eta ortografia ahoskeraren menpe dela.<sup>52</sup> Meigreten gomendioaren arabera frantsesaren ortografiaren erreformatzeko:<sup>53</sup>

«& escrits comme tu prononces. (...) L'écriture secondement peut estre mauuaise, quant elle est composée de plus de lettres que ne requiert la pronôciation: par ce que telle écriture donne occasion de faire fausse lecture, & et de prononcer voix, qui n'est point au vocable» (*Traité... Des causes de Fausse Ecriture Avec leur blasme. Chapitre premier*)

«ayans tousiours comme ie vous ay dict la prononciation deuant noz yeux: car cest le vif, & le refrain de nostre écriture» (*Traité... Des diptongves. Chapitre III*).

LVP-eko «Aduertant»-en arazoak txistukari frikari ahoskabearen soinuarendako hautatu behar den grafiaren inguruan dabiltzala ikusten da. Kontua delarik hau: soinu batek ez ditzan grafia ezberdinak ukan. Helburuak arrazionala behar du, eta aterabideak ere bai. Kausitzen da hemen ere berriz humanismoaren “aztaparraren” seinale seguru bat xinpletasunaren erabilpenean datzala: Ciceroren, Quintilianusen, Erasmoren sinpletasuna jarrera linguistikoetan, eta Kristok Ebangelioan praktikatzuten sinpletasuna jarrera ebangelikoan.

Humanismoaren izpiritua eta zentzu praktikoa —ikus Toryren lanak, Maroten Villonen edizioa, Doleten gramatika, Meigreten tratatua— ortotipografia printzipio ahal bezain sinple eta argietan oinarritu behar da, letrak irakur errexak behar dira, ez gotikoak bezalakoak. Inprimatzearen bidez humanismoak sustatu «herri-hizkuntzen dantzara» lehen aldiz sartzen den “heuscara” ildo horretan sartzen da. Erran gabe doa, “herri” hitzak ene lumapean zentzu jakintsuena duela, XIX. mendeak sustatu duen “herri”, “populu” ikuspegi neo-erromantikoarekin ezer ikustekorik. Kontra-zentzu oso bat da Etxepare “herri” (= ez letratu) ildo horretan kokatzea.

Erran dut gorago euskararen ortotipografiatzeak pausatzen zituen arazoei aurre egiteko ikusten diren aterabideak, 1530-1545 inguruan frantses humanistek frantsesaren ortotipografiatzeko ukan zituzten saioetara hurbildu behar direla. Euskaraz txistukari frikari ahoskabearen ortotipografiatzeko «Aduertant»-en agertzen den oharra salatzen du “C” grafiak “nahasmenduak” ekartzen dituela euskararendako ere. Pundu horri doakionez, behe-rago ikusiko den bezala, Etxepare-Lehet-Morpainek euskararendako hautatu aterabidea Meigretrek bere “Traité”-an frantsesarendako proposatu aterabidea kontuan hartuz egina dateke “Ç”-ren inguruan zabaltzen duen solasaldiak erakustera ematen duen bezala. Horrek, halere, ez du frogatzen Meigret iturria zuzenean ezagutzen zutenik Etxepare-Lehet-Morpainek, Toryk 1529-1532 datetan, Doletek 1540ean, besteak beste, aipatzen baitzuten txistukari hortzkari gogorraren ortotipografiatzeko “C”-ak zekartzan arazoak. Dena den, frantsesaren ira-

<sup>52</sup> Ideia, ikuspegi aristoteliko zaharretik datorrelarik (arima/hitza/eskrittura) (Cerquiglini 2004: 72).

<sup>53</sup> Ik. berriz Cerquiglinik dioena: “Louis Meigret avait pourtant publié en 1542 (et conçu sans doute, d’après son aveu, dès les années trente) une réforme radicale, cohérente et qui fait l’admiration des historiens de la graphie. Pour la première fois, l’orthographe française traditionnelle était critiquée dans son principe et ses défauts, ses incertitudes examinées et dénoncées; pour la première fois, la fixation de cette orthographe était envisagée concrètement, par le biais d’une simplification, et assortie d’une formulation d’ensemble. Meigret énonce en effet une idée simple et qui fera fortune: il convient d’écrire comme on parle» (Cerquiglini 2004: 70-71).



kurlearendako “C”-aren grafiaren ahoskera zuzenaren inguruko arazoa eta “Ç”-k dakarren salbabidea problematika berria da oraino 1542an Frantzian, frantsesaren normalkuntza bidean. Frantsesarendako dio Meigretrek “C”-ren grafia bereizi beharko dela soinua “S” delarik eta “K” delarik —“Car il me semble qu’il est aussi raysonnable de diuersifier le C, quant il sonne en S, de celuy qui sonne en K— ikusiz “ahoskera ere dibertsoa dela” —“attendu mesmement que la prononciation est diuerse”— eta kontseilatzen du “ç”-ren sartzea, espainolen ohidurari jarraikiz, nahaskeria hori zuzen dadin:

Pour nous oster doncques de ceste confusion du C, i’ay aduisé que les Hespaignols ont vng ç crochu, ou à queue, dont nous pourrôs vser deuant toutes voyelles: deuât lesquelles nous vsurpôs le C, en S (*Traité... Des consonâtes. Chapitre III*).

Impressor<sup>54</sup> & lectores”-i «Aduertant» baten gehitzeak, agerrarazten du, izan ere, aipatuak diren hiru punduei ekartzen zaien aterabidea berria dela, eta ez dela ongi ezagutua, edo ez dela batere ezagun Bordeleko elite kulturallean eta Akitaniakoan. Alderantziz izan balitz, ez zen «Aduertant» baten gehitzeko beharrik izanen... «Aduertant»-en erredakzioa gobernatzen duen printzipioa, erran bezala Meigretrek 1542an aipatu sinpletasunaren bidetik doa, eta, hain zuzen, aitzinatu zuen printzipio oinarritzakoaren arabera: soinua da lehen, gero izkribua, “gure hizkuntzaren erabilerak bakarrik gobernatu behar duelako gure ahoskera”, “Car le seul vsage de nostre lague doit gouverner nostre prononciation”.

Abisuan letratuarendako berriak diren aldakuntzak ondoko lerroetan aipatuak dira.

### II.3.1. *M*-ren abrebizioaz

“quod. z. nunquam ponitur pro. m.” «z. ez dela sekulan m.-ren ordez ezartzen”.

Adibidez, “cuz”-ek ez du “cum”-en balioa izanen; ikus Oroz Arizcuren (2008: 453). Dirudienez, kasu honetan ere irakurketa erraxaz nahi da “Z” letra bezala erabiliz, ez zeinu diakritiko gisa. Beharbada arazo hau agertzen da gero aipatuak diren txistukarien ahoskatzearen grafiarekin lotua delako “Z” letra greko honen kasua.<sup>55</sup> Horregatik uler daiteke zergatik “Z” letra bezala agertzen den LVP-en eta nehoiz ez laburdura bezala, adibidez: “oroz”, “ezac”, “eztaguiten”, “partizia”, etab.

<sup>54</sup> Ohar hau barnekoendako (euskarafonoendako) bezainbat kanpokoendako (latin klasikoaren irakurle eta frankofonoendako) egina da. Oharrak informazio bat dakar liburuaren ofizioko jendeendako («Impressor») eta irakurle orokorrendako («lectores»): *Aduertant*-en adierazia zaigu liburu guzia nola behar den hartu, errezebitu eta kulturalki kokatu, bere materialitatean, eta nola irakur daitezkeen euskararen ahoskeraren arabera.

<sup>55</sup> Garai berean frantsesaren gramatizazioaren arloan ere, beste era batez hizkuntzek fonetika diferentak dituztenez, Z letraren inguruan arazoak badira, Meigreten oharrek agertzen duten bezala:

Car au lieu du z que nous prononçons souuent, nous escriuons vne s, mesmement entre deux voyelles, comme en disons, saisons, & ainsi de tous les autres. Au contraire aussi comme quasi pour recompense, nous escriuons vng z final, là ou souffiroit vn s. (*Traité... Des consonâtes. Chapitre III*).

### II.3.2. ‘TI’-ren / ‘CI’-ren ahoskatzeaz eta ortotipografiatzeaz

“Neq(ue). t. ante . i. pronunciatur pro. c.” “eta i.-ren aitzinean t. ez dela c. ahoskatzen”.

Etsenpluak, ahoskera eta grafiaren (“pronunciatur pro. c.”; “t. ante.i.”) arteko arazoa planteatzen du eta euskararendako egin den hautua zehazten du. Oharrak irakurle latinista eta frankofonoa latinaren eta frantsesaren ahoskatze/idazte ohiduretara bidaltzen du. Alegia, “-TIU/-TIO” grafia latinez “-CIO/-CIU” bezala ahoskatzeko ohidura bada txistukari frikari ahoskabe soinuarekin, “*dictio*”-ren (AASen etzana) kasuan bezala, baina Meigretendako ohidura hori okerra da “-TIU/-TIO” leherkari belare ahoskabe bezala ahoskatu behar bailirateke. Kasu hori du LVP-eko abisuak aipatzen. Ohar gaitzke Meigretrek latinarendako gomendatzen duen jarrera bera hartzen dela euskararendako LVPeko Abisuan: <t> zeinu grafikoa, horzkari herskari gogor bezala ahoskatzen da <i>-k segitzen duelarik.<sup>56</sup> Ez da txistukari horzkari ahoskabe bezala ahoskatu behar Meigreten ustez, frantsesez egiten den eran, latinezko ahoskera okerra hartuz etsenpluztat. Eta Meigretrek hartzen du etsenplu bezala, “-TIO” “*manifestation*” (AASen etzana) hitza frantsesez, “-CIO” bezala ahoskatzen baita txistukari baten soinuarekin eta ez “TIO” bezala herskari gogor bezala.

Frantsesez den ohitura hori salatzen du Meigretrek erranez “abusu” bat dela beti defendituko duen printzipioaren arabera: ahoskatzen den bezala idatzi behar da. Dio “latinoek [latinzaiek] berek latin hizkuntzan egiten duten ahoskatze okerretik datorrela” ohidura txar hori, eta frantsesean sarrarazi duten usantza okerrarengatik <t>-aren “korrupzioa” sarrarazi dutela “*diction, manifestation, malediction*” hitzen ortografian; “latinoak ez direnek” aldiz, ahoskatzen duten bezala idazten dutela, “*prononciacion*” idatziz adibidez <c> batekin, <t>-aren ordez.

LVP-en egina den oharrak erakusten du euskararen gramatizazioarako hartua den ikuspundua sinpletasunaren izenean egin dela. Ikuspundu hori hartuz aztertu behar litzateke hurbiletik obra guzira berifikatzeko ea aplikazioa beti zehazki obserbatu den. Baina jadanik ikus daiteke LVP-en agertzen den ahoskeraren arabera idazteko oharra, Meigreten filosofiarekin bat doala. Meigretrek beti argitasuna gomendatzen du, haren oharrak “fonozentrismoan” oinarritzen dira nahaskerien ebitatzeko, ximpletasunaren izenean. LVP-en tazitoki “abusuak” dira salatzen, ohartarazten delarik <ti> idazten delarik ez dela sekulan “ci” ahoskatu behar. Eta larderiako adbertentzia horietan den borondate didaktikoa (“*neque* pronunciatur” [AAS-en etzanak]) argi da. Irakurleari erakusten zaio latin korruptoan (eta frantsesez) segitzen den okerezko ohiduraren segitzea *debebatua* dela euskaraz.

Jadanik LVP-ren inprimatzea baino lehenago hasia zitezkeen euskararen idazteko normez gogoetak, eta jadanik bazitekeen euskaraz idazteko “ohitura” bat. Halere, pentsa daiteke humanismo garaian dela sustatzen eta finkatzen euskararen “gramatizazioa” LVP-ren inprimatze ekintzaren bitartez. Hori dukete frogatzen “Aduertant”-en fonozentrismoan zentratuak diren ohar ortotipografiko guziek. Pundu honen agerian ezarritzea oinarritzeko da hizkuntzaren historiarentzat.

<sup>56</sup> Seguraski ez da bakarrik “T + I” zalantzan baizik eta T + I eta bokal guzikiak, hain zuzen, “T + IA/IE/IO/IU”.

“Advertant”-en hiru hautu aipatzen dira:

1. ‘TI’-n den ‘T’ euskaraz ez da txistukari hortzkari baten soinuarekin ahoskatuko, baizik eta hortzkari herskari baten soinuarekin, latin klasikozaileen ahoskatze moldea hartuz;
2. Euskaraz soinua txistukari hortzkari gogorra delarik “C” grafia erabiliko da adibidez, “CI” etsenpluarekin gelditzeko, “reputacione” idazten da LVP-en;
3. Sekulan ez da grafia bera erabiliko bi soinu ezberdinendako. Eta hortzkari herskari gogorrendako “T” grafia erabiliko da bi ahoskerendako bi grafia erabiliz. “TI” eta “CI” etsenpluekin gelditzeko LVP-en “*ecitian*” aurkitzen dugu.

Anekdotaz bezala, aipa daiteke frantsesaren gramatizazioaren prozeduran Meigreti “CI” grafiaren ahoskatzearen inguruan agertzen zaion beste arazo bat. Kanona, Meigretrek kontuan hartuz latinaren ahoskatze/idazte prozedura dela, beti bezala salatzen du frantses latinistek “Cicero” hitzaren duten ahoskatze okerra. Obserba daitezke bi ahoskatze mota grafia berarendako eta hori ezinonartuzkoa da Meigretendako ikusi dugun bezala. Haren erabakia latinaren ahoskatze klasikoan finkatuko da humanismo puristenaren izenean (Erasmoren bidea segituz). Kikeroren izenaren ahoskatzea hautatzen du etsenplutzat. Ondorioz, “CICERO” frantsesez Meigreten ustez ahoskatu behar da “KIKERO”. Erran nahi da, herskari belare ahoskabea erabiliz, ez “SISERO”:<sup>57</sup>

Je laisse à pèsér aux Latins de quelle autorité ilz prononcent le c, en s, auant e, & i, & en semblable le g en i consonâte, & combien est estrange la pronôciation de Cicero en pronôçant Sisero, au pris de dire Kikero. Pensez comme nous trouueries estrange en nostre langue si quelqu’vng prononçoit Safet pour Caquet. Toutesfois quelque chose qu’en dye Quintilian, & Priscian: & apres eux Erasme, on y voyt point d’amendement. Et au lieu de prendre peine (qui ne seroit pas grande) de bien prononcer selon l’ancienne coustume des Latins, chascun s’excuse sur la faulte d’autruy, disant que les plus sauants en vsent ainsi» (*Traité... Des consonâtes. Chapitre III*).

Dena den, euskararen kasuan zalantzak badirela ikusten da LVPen, bereziki afrikatuen kasuan.<sup>58</sup>

### II.3.3. “Ç”-aren kasua

Et vbi virgula ponitur sub. ç. hoc modo quod fit dum prae ponitur vocalibus .a.o.u. Tunc. c. pronunciabitur paulo asperius quam z. vt in. ce. Ci, «Eta modu honetan bezala a. o. u. bokalen aitzinean ç-ren azpian kakoa ezartzen delarik orduan c. ahoskatzen da z. baino pixka bat latzago ce. ci.-n bezala”.

<sup>57</sup> Frantsesez “si” / “se” txistukari hortzkari ahoskabe bezala ahoskatzen dira eta Meigretrek idazten duelarik “Sisero”, euskaraz gaurko ortografian idatz genezake “Zizero”.

<sup>58</sup> B. Oyharçabalen ustez “euskarari berari (eta ez frantsesari) dagozkion arazoetan ez da hain argi LVP”. Bereziki afrikatuen kasuan: *ecitian/etzitian*, non ‘c’ = /tz/.

Ikusten da txistukari hortzkari gogorraren<sup>59</sup> ortotipografiatzeko frantsesaren bidea hartu dela eta, beraz, euskaraz “Ç” grafiaren erabiltzeko erabakia hartua da, frantses humanistek erabaki zutelako 1530 urteetan gaztelarren ohituraren segitzea. Tory bezalako frantses inprimatzaile humanistek, Marotek (1533), Doletak (1540) eta Meigretak (1542) azken 12 urteetan frantsesarendako egin gomendioak aplikatuz euskararendako.

Abisua egiten da “Ç”-aren usantza oraino arrotza delako. “Ç” grafiaren erabilerak abiguotasunak argituko ditu frantsesez. “C” erabiltzen zen *garçon* (“mutikoa”) eta *maçon* (“argina”) hitzetan “co” silaba txistukari balioarekin erabiliz “sso”, eta ez herskari “ko”. Hemendik aitzina *garçon*, *maçon* erabiltzen ahalko da soinu batentzat grafia bat erabiliz. Horregatik dio Geoffroy Toryk *Champ Fleury*n (1529):

C. deuant O. en prononciation & langage Francois, aucunesfois est solide, cōme en disant Coquin, coquard, coq, coquillard. Aucunesfois est exile, comme en disant Garcon, macon, francois, & aultres semblables.

Toryk ortotipografiaren erreformaz duen ideia zabaltzen duelarik Frantzia *Champ Fleury*-n, saiatzen da lehenik txiskukari hortzkari ahoskabearen grafiaren arazoaren zuzentzen frantsesez, ‘C’-ari ‘E’ bat, edo ‘Z’ bat, lotuz «piecza» edo «decza»-n bezala ([Tory 1529, 1931] Cohen: 1), Rabelaisek eginen duen moduan. Baina arazo hori konpondu «Ç»-ak du konponduko. Izan ere, 1533an Toryk berak zabalduko du ‘Ç’-aren erabilera Frantzia Maroten *L’Adolescence clémentine*-ren laugarren edizioa inprimatzen duelarik «azentu batzuk notaturik (*avec certains accens notez*) eta *Briesve doctrine pour deuement escrire selon la propriété du langaige françois* lanean (Febvre-Martin [1958] 1999: 447).

Ikusi dugu Meigretak, *LVP*-ren garaian, *Traité...*-an «Ç»-ren erabilera defenditzen duela. Meigretak, anekdota bezala agerrazten du «Frantziako emazteek» erabiltzen dutela Espainiatik heldu du grafia berria ere, «gure gizonen arteko sabantenek» baino zentzu gehiago erakutsiz. Meigretak «C»-ren «bereizkuntza» bat nahi baitu, «S» soinua eta «K» soinuarentzat:

Car il me semble qu’il est aussi raysonnable de diuersifier le C, quant il sonne en S, de celuy en K: attendu mesmement que la prononciation est diuerse, comme en façon, & facond, que de faire diuerse l’écriture de nous, primitif, & de noz deriuatif: qui ne sont en rien differens en leur prononciation. Pour nous oster doncques de ceste confusion du C, ont vng ç crochu, ou à queue, dont nous pourrōs vser deuant toutes voyelles: deuât lesquelles nous vsurpōs le C, en S, en escriuant de ça çęçy façon, non pas que ie veuille dire que S, ne s’y puisse bien mettre, quoy que les homes de france se moquent des Dames le faisant ainsi. Des quelles si nous recherchons la façon d’escrire, nous la trouuerōs<sup>60</sup> beaucoup plus raysonnable, & mieux poursuyuiu selon l’Alphabeth, que celle des plus sauās homes des nostres (*L’Ecriture François. Des consonātes. Chapitre III*).

<sup>59</sup> Ikus Toryk dioena: «Zeta comme dit Galeotus Martius (...) non est litera, sed duplex sibilus, Id est, duplex SS (...). C’est-à-dire, Z nest pas lettre, mais est vng siflement double, qui vault deux. SS.» (Tory [1529] 1931: lxiiii).

<sup>60</sup> Aurreko orriaren bukaeran: «trouuerons».

## II.5. *Tipografia/Ortotipografia*

Orain arte *LVP*-en erabilia den tipografiaren berezitasuna ez da azpimarratua izan, alta erran nahi handikoa da liburuaren sorkuntza-alorraren agerrarazteko. *LVP* “littera antiqua”-n, hain zuzen, humanistikoak diren “karaktere erromatarretan” idatzia da.<sup>61</sup> Bizkitartean, puntuazioa minimala da eta tipografiako aitzinamendu finenak falta dira, karaktere italikoak eta azentuazioa (Aldo Manuciok Venezian, 1501ean Virgilio-ren editatzeko erabiliak lehen aldiz).

Italikaren (gure “etzana”-ren) erabilera eta azentu tipografikoa<sup>62</sup> (ez bakarrik diakritioa dena) pundu garrantzitsuak izanen dira frantses humanistendako. Euskararen azentuazioa Pierre Haultin semearen inprimatzaile humanistaren prentsetan gauzatu da lehen aldiz Leizarragaren itzulpenen argitaratzearekin (Arcocha 2001). Humanismoaren barnean agertzen den euskararen azentuatzearen sarrera, berriz aurki-

<sup>61</sup> Ikus Febvre & Martin (1999: 113-114 eta 120-121):

Vers 1450, à l'époque où naissait l'industrie typographique, les textes étaient copiés selon leur nature ou leur destination dans des écritures très différentes. On pouvait distinguer quatre types principaux d'écriture, dont chacun avait sa destination propre.

D'abord la gothique des écrits scolastiques, la traditionnelle «lettre de somme», chère aux théologiens et aux universitaires.

Ensuite, la gothique plus grande, moins ronde, avec des traits droits et des brisures dans les caractères: la «lettre de missel» employée dans les livres d'église.

Puis un dérivé calligraphié de l'écriture cursive employée dans les chancelleries (dont chacune avait type traditionnel); la gothique «bâtarde», écriture courante des manuscrits de luxe en langue vulgaire, mais aussi de certains textes latins généralement narratif (...)

Enfin, une dernière venue, promise à un grand avenir puisqu'elle deviendra l'écriture normale des textes imprimée dans une grande partie de l'Europe occidentale: l'écriture humanistique, la «littera antiqua», la future «romaine» (...) mise à la mode par Pétrarque et ses émules, était seulement employée vers 1450 par de petits groupes d'humanistes et de grands seigneurs bibliophiles (...). Le caractère romain prend donc une place chaque jour plus grande à mesure que croît la faveur de l'humanisme. (...) Mais le nouveau caractère n'a pas encore droit de cité partout. Pour quelque temps encore les universitaires lui préfèrent la lettre de somme: celle-ci ne disparaîtra qu'au cours des décennies suivantes, d'abord des traités juridiques, puis des textes de théologie; elle se maintiendra plus longtemps encore dans les livres liturgiques. Surtout l'immense masse des bourgeois et des gens du commun, habitués à déchiffrer l'écriture manuscrite, restent longtemps fidèles à la gothique bâtarde qui s'en rapproche plus que le romain ou l'italique. (...) longtemps donc, on continue d'utiliser la lettre bâtarde traditionnelle pour imprimer les livrets populaires, almanachs et «plaquettes gothiques»; les typographes, d'ordinaire fort pauvres, qui tirent ces ouvrages à des milliers d'exemplaires, utilisent jusqu'à usure complète ces alphabets qu'ils rachètent à bas prix aux imprimeurs plus riches lorsque ceux-ci n'en veulent plus. C'est plus tard, dans la seconde moitié du siècle, qu'obligés d'acheter un matériel nouveau, ils se décident à adopter le caractère romain que leur public a, peu à peu, appris à connaître.

<sup>62</sup> Ikus Cerquiglini (2004: 54):

Les grammairiens latins faisaient des accents un usage didactique; les humanistes en font un signe typographique. Cette innovation est promptement adoptée par les imprimeurs français; significative, la position d'un Robert Estienne, très attaché à l'orthographe ancienne, et rétif à tout changement: dès 1526, pour son Térence, Estienne accentue ses textes latins exclusivement. Mais ses confrères, favorables dans leur ensemble à un progrès graphique du français, trouvent là une aide précieuse, et l'expression exacte de leur aspiration. L'accent est le signe de la réforme. Participant de la toilette du texte, de l'émendation de l'écriture, surajouté au mot et dominant la ligne, il est cette thérapeutique de la lettre que désire la pensée réformatrice.

tzen da, modu ezberdinean, Oihenartekin 1657-1665 artean bere poesien eta erran zaharren inprimatzerako eraikitzen duen azentuazio-kodearen bitartez.

### II.5.1. Karaktere erromatarrak

Lehenago erran bezala, karaktere tipografiko erromatarraren sartze ofiziala Frantziar Geoffroy Tory humanista eta inprimatzaileari zor zaio *Champ Fleury ou l'Art et Science de la Proportion des Lettres* deitu "tipografia tratatua"-ren ateratzearekin (ik. Cerquiglini 2004: 54) 1529an zabaldu zelarik liburu hori, oihartzun handia lortu zuen François 1<sup>er</sup>en gortean, eta erreinuko humanista eta letratuen artean. Toryk bere italiar kolegek biziberritu duten antzinako alfabetoa Frantziar sarrarazi nahi du. Dürer-en eta Leonardo da Vinciren bidea segitzen du alfabetoa geometrikoki eraikiz, laukiari eta haren eraikuntzari esker (diagonalak, medianak, zirkulua). Leonardoren-tzat bezala, gizakiaren gorputzarendako kokagunea da Toryrentzat laukia.<sup>63</sup>

...  
go iauna nola batere ezten affay atu  
briaren fauoretan heufscaraz ce rbait  
ributan imeitera ceren ladin publi  
a berce lengoagiac beçala hayn scri  
sta caufa honegatic gueldit zenda a  
putacione vague eta berce nacione  
denfere scriba dayteyela lengoage  
oroc baitu te scribatzen beryan Eta  
na noble et naturazcoac beçala bay  
orutzen eta ohorazzen heufcara gu  
bia beçala igortend arauritzut heu  
tzurene ignoranciaren araura egui  
hayec iqhuffiric eta correçituric pla  
irudi baçautzu imprimi eraci diçã  
ic oroc dugum ioya ederra Impri  
orano içan eztena eta çure hatse ho  
erat augmenta continua eta publica  
eta baçoec bercec beçala duten be

*Linguae Vasconum Primitiae*

### LE TIERS LIVRE.

**D**Ele I, toutes les autres lettres, côme iay dit, pres n'ont eue cōuenant a estre faictes & escriptes. Cest a scauoir, ou en estant garde en sa droite ligne, ou en estant resleue & courbe, ou en estant brise. Et iuy seul entre toutes les lettres garde sa droite ligne perpendiculaire, a limitation du corps humain, qui luy estât sus ses pieds tout droit la represente. En luy ouurat les bras & iambes peu ou plus montre la dite briseure, comme il peut estre facilement entendu en la sequente figure q' iay faicte apres celle que vng myen leigneu & bō amy Jehan Perreal, autrement dict Jehan de Paris. Variet de chambre & excellent Peintre des Roys, Charles hui tiesme, Loys douziesme, & François Premier de ce nō, ma communiquee & baillee moult bien pourtraicte de sa main.




Jehan  
Perreal,  
autremēt  
dict Jehā  
de Paris.

I.V.L.  
M.C.D.  
Q.X.  
Lettres  
seuuant a  
nombres

**P**ource que a lais de de Dieuie su is venu a propos de dire commant nostre dit I, est souuant mis en nōbre, il me semble neistre inutile dire aussi quelles autres lies font prises pour nombre, sans en Latin quez Francois.

**D**onques ie dis qui ya huit lettres qui seuuant a nōbre, Cest a scauoir, Deux vocales. I. & V. Deux Semi-vocales. L. & M. Trois Mutes. C. D. & Q. Et vne double Consonne. X. Le I. seul est mis pour vng. Quant il est double, il en vaut deux. Quant il est triple, il fait trois. Et quant il est quadruple, il figure quatre. Et notez quil ne se multiplie plus oultre avec soy mesmes. Il se multiplie avec les autres dites




*Champ Fleury*

<sup>63</sup> Cf. "Dans son *Champ Fleury* qui est d'abord un traité de typographie, Tory se propose d'introduire en France l'alphabet antique, restauré par ses collègues italiens; un alphabet que, suivant Dürer et Léonard de Vinci, il établit de façon géométrique, à l'aide du carré et de sa construction (diagonales, médianes, cercle), un carré où, comme Léonard, il inscrit le corps humain" (Cerquiglini, *ibid*).

Toryren ortotipografiaren helburuetan diren ardatz nagusiak:

- i. grafia tradizionalaren finkatzea;
- ii. konposizio-protokoloen erabakitzea;
- iii. episkripzio baten bidez foniarekin loturen egitea. Hitz batez, Toryrentzat oinarrizkoa dena da norma baten eraikitzea frantsesa herri-hizkuntzarendako. Horrela da hasi “frantsesaren lehen gramatizazioa” (Cerquigliani 2004: 55).


Frantsesaren gramatizazio prozedura oinarrizkoa denez, euskararen inprimatzeko orenean egiten diren hautu ortotipografikoen ulertzeko.<sup>64</sup> Etxepare-Lehet-Morpain-ek LVP editatuz euskararen lehen ortotipografia agertzen dute; euskararen finkatzeko eta normatzeko helburua LVP-ren agertzearekin eta publikatzearekin egiten da



M unduy áde  
langoycoa  
Bere irudi  
Memoriaz vorondat

S Vp  
pai  
de l  
pet.  
pri  
frái  
Court inhibitions e  
libraires de ce D. 1582

LVP: karaktera erromatarrak



Champ Fleury: karaktere tipografikoen mustra  
hemen gotiko bastardoaren minuskulak

<sup>64</sup> XVI. mende hastapenetik hasita Frantzia eta Alemania dira, Espainia eta Italia ez bezala, liburu inprimatuaren industria modu aktiboenean atxikitzen dutenak Europan (Febvre-Martin [1958] 1999: 271-272). Beti Febvren ustez, Espainian, nahiz 1514-1517an Biblia poliglota inprimatu zen, inprimategia ez da aitzinatzen eta denbora luzaz karaktere gotikoen erabilerak segitzen du, kontuan hartu behar delarik anitzetan kanpoan, Anberesen edo Lyonon, inprimatuak diren liburuen leitzen segitzen dela. Hiru zentru dinamikoak Salamancakoa, Barcelonakoa eta Sevillakoa direlarik (...) XVI. mendearen bigarren erdian dira ugaltzen hasten inprenta-tailerak Espainian. Madrilen, XVII. mendetik landa da liburuaren industria loratuko (Febvre-Martin [1958] 1999: 271-273).

eta, humanistek dutenez gauzatzen inprimatze proiektu hori garaiko bide modernoan obratu da. Azpimarra dezagun berriz hemen karaktere tipografiko erro-matar (kapitala eta minuskuletan) humanistiko berrian ortotipografiatua dela *LVP*, Akitaniako, Frantzia gainerakoko eta Margaritaren Nafarroako erreinuko poesia-zaleak gotika bastardoan inprimatuak diren liburuen irakurtzen ohituak direlarik. Modu horretan gauzatzen da, ene hipotesiaren arabera, euskararen gramatizazioaren hastapena. Kontuan hartuz, «Aduertant»-ek argi uzten duen bezala, euskararen gramatizazio hori Meigretrek, besteak beste, frantsesaren gramatizazioarendako defen-ditu zuen xinpletasunaren bidea segituz, ahoskerari pribilegioa emanez, egina izan dela.

### II.5.2. Puntuazioa

*LVP*-en diren testuei behako bat eginez, ohar gaitzke bost urte lehenago Etienne Dolet humanistak *La manie de bien traduire d'une langue en aultre* (Paris, 1540) lanean *Daduantage. De la punctuation de la langue Francoyse. Plus. Des accents d'ycelle* sailean puntuazioaz egin gomendioak ez direla aplikatzen. Doletrek dio puntuazioaz diren erregelek inprimatzea “aberasten dutela anitz” («car telles choses enrichissent fort l'impression») eta erakusten dutela “ez dugula deusik egiten ignorantziaz” («que ne faisons rien par ignorance») (Dolet 1540: 18). Humanistentzat, puntuazioaren berrikuntza hori garai berrien marka aurreratua da. Horregatik dio Doletrek “doktoki puntuatzea” (Dolet 1540: 24) «imitatio»-aren parte dela. Puntuazioa solasaldi oratorioaren edo solasaldi poetikoaren “periodoen” sailkatzeko modua da. Eta “periodoa”, bere aldetik «comprehensio uerborum» bat, puntuak nabarmentzen eta biderkatzen dutena (Dolet 1540: 19-21). *LVP*-ren kasuan bi puntuazio mota aipatu behar dira, koma eta puntua.

#### II.5.2.a. koma («point a queue»)

Doleten ustezkakoak “puntu kakodunak dikzioak eta lokuzioak elkarren artetik ezberdintzeko balio du” («Le point a queue ne sert d'autre chose, que de distinguer les diction, & locutio(n)s l'une de l'autre»), latinoek egiten zuten gisan («Il a pareillement tel usage en la langue latine»).

*LVP*-en, euskaraz, arras kako guti erabiltzen da: eskaintza-epistolaren bukaeran, «Amen» terminalaren aurrean, dirudienez erakusteko “punto eta aparte” bat izan den dela; «Sautrela»-ren aurreko leloan, «campora»-ren ondotik den hemistikioaren markatzeko («Heuscara da campora, eta goacen oro dançara»).

othoyz eguitera dizum mundu honeren prosperoqui  
vicia et a bercean parabiçuya, Amen.

*LVP*: kakoaren erabilera

Latinez den «Aduertant»-en, eta frantsesez den kolofioan puntuak, kakoak eta punto eta koma bat behin («Aduertant») aurkitzen dira. Obserba daiteke frantsesez den kolofioan, kakoaren erabilpenari doakionez, Doleten erregela errespetatzen



dela (Dolet 1540: 21), eta baita «&» perlueta<sup>65</sup> erabiltzen dela ere «et» juntagailu latinoaren zentzuan.<sup>66</sup> Ordea, bai euskarazko testuan, bai frantsesez den kolofoian falta dira Doleten manulean frantseserendako presente diren harridurazko eta galderazko puntua eta apostrofeak (LVP-en: “nen vendre”).

Ohartzekoa da nola agertzen den Doleten baitan, humanismoaren unibertsalismoaren eragina dioelarik puntuazio-sistema hizkuntza guziendako berdina dela: «Si toutes langues generalement ont leurs differences en parler, & escripture, toutesfoys non obstant *cela elles n'ont qu'une punctuation seulement*» (Dolet 1540; AASen etzana).

17

# LA PUN- CTVATION DE LA LANGVE FRANCOYSE.



**S**i toutes langues generalement ont leurs differences en parler, & escripture, toutesfoys non obstant cela elles n'ont qu'une punctuation seulement: & ne trouueras, qu'en ycelle les Grecs, Latins, François, Italiens, ou Hespaignolz soient differents. Donques ie t'instruiray briefuement en cecy. Et pour t'y bien endoctriner il est besoing de deux choses. L'une est, que tu congnoisses les noms, & figures des poincts. L'autre, que tu entendes les lieux, ou il les fault mettre.

*Toutes langues n'ont qu'une ne punctua-tion.*

Quant aux figures, elles sont telles, qu'il s'en suiuet.

*Les figures des poincts.*

- 1 , ou en ceste sorte / .
- 2 :
- 3 .
- 4 ?
- 5 !
- 6 ( )

c Le

Etienne Dolet: *La manie de bien tradvire d'une langve en aultre* (1540)

<sup>65</sup> Frantsesez *perluète* edo *espeluette* eta ingelesez *ampersand* deitu karakterea. Tipografia zaharrean “&” perlueta “et caetera” lokuzio latinoaren abrebiazioa zen. Ikus «perluète» in *Le Trésor de la Langue Française informatisé* (TLFI): <http://atilf.atilf.fr/tlf.htm>.

<sup>66</sup> LVP-en «&» «et» juntagailu latinoaren zentzuan erabilia da.

¶ Sautrela

**Heuscara da campora, eta goacen oro dançara**

O heuscara laudr ezac garacico herria  
 Ceren hantic vqhen baytuc beharduy an thornuya  
 Lehenago hi baitinçan lengoagetan azquena  
 Oray aldiz içaneniz orotaco lehena.

Heuscaldunac mundu orot anpreciatu ciraden  
 Bana hayen lengoagiaz berce oro burlatzen  
 Ceren eceyn scripturan erideiten ezpaitzen  
 Oray dute iccassiren nola gauça honacen.

Heuscaldun den guicõn oroc alcha beça buruya  
 Eci huyen lengoagia içanenda floria  
 Prince eta iaun handiec oroc haren galdia  
 Scribatus haibalute iqhañteco desira.

Desir hura conplitu du garacico naturac  
 Eta haren adisquide oray bordelen denac  
 Lehen imprimicãlia heuscara ren hurada  
 Basco oro obligatu iagoiticoz hargana

Eray lelori bailelo leloa çaray leloa  
 Heuscara da campora eta goacen oro dançara.

**DEBILE PRINCIPIVM MELIOR  
 FORTVNA SEQVATVR.**

*LVP*: koplak bukaerako puntuazio eta zuri tipografikoa

II.5.2.b. Hondarreko puntua («point final; point rond»)

Beti sententziaren hondarrean ezartzen da puntua, dio Doletek, eta puntu horren ondotik normalki maiuskula bat erabiltzen da (Dolet 1540: 23). *LVP*-en diren neurri ezberdineko «koplak», edo bertso edo ahapaldiak, aniztetan laukoak dira. Koplak, neurtitezko edo bertso-lerrozko multzoekin dira, koplak artean den zuri tipografikoak irakurtzea errazten duelarik. Zuri tipografikoak konposizioaren tempusean eginkizuna badu, eta funtzio praktikoaz gain, begien bistan den funtzio estetikoa.

Multzo hori azken neurtitzaren puntuak zerratzen du.<sup>67</sup> Neurtitz bakoitza maiuskularekin hasten da eta lerro tipografikoak markatzen du, gehienetan, batasun semantikoa eta gramatikala. Puntuatua den neurtitz bakarra multzoaren, bertso edo ahapaldiaren azkena da (ahazte tipografikorik ez baldin bada izan bederen).

<sup>67</sup> Kasu honetan, ikus daiteke beharbada humanismo italiarraren eragina espainol humanis-tengandik (Nebrija, Encina) pasatuz zabaldua (cf. Redondo 1976). Ikus, bereziki, Juan de Encinak (1468/1469-1533), "Arte de trobar", zatian koplaren puntuazioaz dioena: «en fin de la copla ha se de poner colu(mna) q(ue) es un pu(n)to solo» (Encina (*Cancionero* [1496] 1928: vj).

## II.6. Grabatuak

LVP-eko titulu-orrian eta eskaintza-epistolaren bukaeran diren zurezko grabatuak, kristikoak dira, Pasioko gurutzea delarik bi grabatuetan, zentrala, eta bereziki lehenean. Lehen grabatuan Kristo gurutzeratua ikus daiteke Golgotan, haren ama eta Jondone Joane gurutzepean eta Jerusalemeko herria zerumugan.



LVP: Lehen grabatua

Ttipiagoa den bigarren grabatuan, Kristo ikusten da eskuinera so, eskuekin atxikiz sorbalda ezkerrekoan pausatua duen gurutzea. Hura bera behatz indizearekin seinalatzen duten bi aingeruk inguratzen dute (Vinson [1891] 1984: 1).



LVP: Bigarren grabatua

Bi grabatuek “Imitatio Christi”-a seinalatzen dute ene ustez. Mota horietako ikonoak Frantziako ebangelisten gustukoak dira. Eta, nahiz ez daitekeen baieztza *LVP*-en deliberatuki erabiliak direla, azpimarratu behar da Kristoren itxuran zentratuak diren bi grabatu horiek Erasmoren erran kristozentrikoa gogorarazten dutela: «Batek Kristo koka beza bere buruaren aurrean helburu bakar bezala» (Erasmus 1992: xci-xcii). Bestalde, Kristoren presentzia honen azpimarratzeko moduak gogorarazten du 1527an edo 1530ean Margarita Nafarroakoari eskaini zitzaion *L'Initiatore Instruction* deitu katixima erreformistan den estampa iluminatua: Margarita eta Nafarroako Henrike errege-erreginak Pasioko Kristoren gibeletik ikus daitezke, haiek ere bizkarrean gurutzea daramatela eta haien atzean gorte osoak berdin egiten duela.<sup>68</sup>

Dena den, mezuaren aldetik *LVP*-ren titulu profanoaren eta grabatu erlijiozkoen artean den kontrastea nabarmena da. Genettek epigrafoaren erranahiaz aipatzen zuen hirugarren funtzioaren “oblikuotasuna” edo zeharkakotasuna<sup>69</sup> aplikatzen ahal genioke tituluari. Erran dut lehenago, bukaerako epigrafoan badaudela bi mezu, agerian dagoen linguistikoa, profanoa; eta belo batekin erdi estalia dagoen mezu ideologikoa, hots, mezu ebangelista. Horren arabera, grabatu hauen eginkizuna Kristoren pasioan oinarritzen den mezu ideologikoaren agertzeta litzateke: *Imitatio Christi*-arena.

## II.8. Estalia

*LVP*-ren estaliaz Julien Vinsonek egin zuen deskribapenean ondoko lerroak idatzi zituen:

Il [*LVP*] est relié en veau brun plein ancien, doré sur tranches; le dos porte dix doubles filets, dorés, groupés deux par deux avec un ornement doré en forme de S couché entre chaque double filet or avec une fleur de lys à chaque coin: au centre est un écusson ornementé d'azur aux trois fleurs de lys d'or avec la barre de gueules. Le livre vient donc de la Bibliothèque du prince de Condé. (Vinson ([1891]1984: 2)<sup>70</sup>

Y-6194-A kodepean, Tolbiac-eko BNF-eko egoitzako liburu bakanen erreserban zaindua den *LVP*-ren materialtasunaz jakin nahian gehiago, zuzenean etsaminatu nuen bi aldiz (2006, 2007). Liburutegi nazionaleko arduradunek abisatu zidaten *LVP*-ren larruzko estalia izigarri preziatua zela *testuaren garaikoa zelako*, xvi. mendearen erdialdekoa. Informazio kapital horrek pista ineditoak irekitzen zituen euskal literatura-historiografian. Hemendik aitzina *unicum* horren jabea identifika zitekeen lehen aldiz. Izen bat ematen ahal geniezaiokeen liburuaren garaiko jabeari, eta izen horren ezagutza bera liburu horren historiaz, autorearen ingurugiroaz behar bada, eta harreraz mintza zekigukeen.

<sup>68</sup> Ikus *Marguerite de Navarre, Poésies chrétiennes* (1996) edizioaren estalian den ilustrazioa.

<sup>69</sup> Ikus aitzinago «Bukaerako epigrafoan» errana.

<sup>70</sup> «Fer frappé sur: “Linguae Vasconum primitiae”. par B. Dechepare. Bordeaux, Morpain, 1545 (Bibl. Nat. Rés YO-Vitrine n.º 377)». Olivier, Hermal & Roton (1935)-ek zitazten ditu beste iturri hauek: «Guigard T.I. p. 46; La Chenay-Desbois, T.3. col. 756 et 757; Dussieux. *Généalogie de la Maison de Bourbon*. Paris Lecoffre, 1869, p. 68 et Bouillet. *Atlas d'Histoire et de Géographie*, tableau 90 et Hoefler».



*LVP*-ren estalian (aurkialdean) Louis 1.<sup>er</sup> Condé printzearen armarrria. Argazkia: BNF



*LVP*-ren estalian (infrentzualdean) Louis 1.<sup>er</sup> Condé printzearen armarrria. Argazkia: BNF



*LVP*: bizkarra. Argazkia: BNF

Armarriaren analisiak agertu zuen *LVP* Louis I<sup>er</sup> de Bourbon Condé (1530-1569) kalbindarrarena izan zela, haren liburutegietarik batean izan zela. Condé printzearen izenaren lortzea euskal literatura historiografiarendako datu interesgarria da, frogatzen baitu *LVP* (eta kasu honetan beharbada autorea) Nafarroako erregeen gortetik hurbil egon zela. Condé printzea, Frantziako errege leinukoa, Joana Labriten koinata, eta higanoten<sup>71</sup> burua baitzen. Hain zuzen, Joana Labrit, Margarita Nafarroakoaren alaba, Frantziako François I.aren iloba, 1548 geroztik Antoine de Bourbon Condé (1555-1562), Louisen anaiarekin, ezkondua zen.

Printze honek<sup>72</sup> erlijio gatazketan leku oinarrizkoa hartu zuen, higanoten buruzagitzara helduz:

Louis I<sup>er</sup> de Bourbon, prince de Condé, comte de Soissons, d'Anisy et de Valery septième fils de Charles, duc de Vendôme, et de Françoise d'Alençon et frère cadet du roi de Navarre, fut appelé successivement Monsieur de Vendôme, le prince de Condé et Monsieur le Prince; né le 7 mai 1530 à Vendôme, il fut nommé gentilhomme de la chambre du roi, pair de France, colonel général de la cavalerie légère en 1556 et général de l'infanterie en 1559; après avoir participé à la guerre contre Charles Quint, il prit part à la conjuration d'Amboise, fut emprisonné et condamné à mort (1560), mais la mort de François II le sauva, il fut mis en liberté et nommé gouverneur de Picardie par Charles IX; s'étant converti au calvinisme, il devint le chef du parti huguenot à Orléans en 1562 et se trouva mêlé aux guerres religieuses; blessé au combat de Jarnac le 13 mars 1569, le prince de Condé s'était rendu prisonnier lorsqu'il fut tué d'un coup de pistolet par Montesquiou, capitaine des gardes du duc d'Anjou. Il avait épousé en premières noces, le 22 juin 1551, Eléonore de Roye et, en secondes, Françoise d'Orléans-Longueville, fille du marquis de Rothelin.



*LVP*: saihetsa. Argazkia: BNF

Eugénie Drozek dio Longjumeau-ko bakearen ondotik (1568) Condé printzea Noyers-sur-Serein-eko bere gaztelura itzuli zela baina jakinik haren etsaiek haren kontra atentatu bat prestatzen zutela, Errotxelara buruz ihes joan zela 1568ko agorriaren 23an, bere familiarekin, Coligny, Andelot anderea eta etxeko jende guzietan. Condé helduko zen 1568ko irailaren 9an eta Labriteko Joana hilabete bat berantago, urriaren 15ean, Nafarroako Henri III.a bere seme gaztearekin. Errotxela, euskal literatura historiografian Leizarragaren itzulpenen argitarazearekin (1571) hain inportantea izan den portua, urte batzuz kalbinismoaren hiriburu bilakatzen da

<sup>71</sup> *Huguenot* («Higanot») hitza Frantzian xvi. eta xvii. mendean modu pejorativoan erabiltzen zen «kalbindar» errateko: «Surnom [péjoratif à l'origine] donné par les catholiques aux protestants calvinistes, en France, du xv<sup>e</sup> au xviii<sup>e</sup> siècle» *Le nouveau Petit Robert de la langue française* hiztegian. Gaurko frantsesean hitzak bere erranahi pejorativoa galduta du. Antonimoa: «papista»: «Catholique romain (spécialt. dans le langage des polémistes protestants, du xv<sup>e</sup> au xix<sup>e</sup> s.)».

<sup>72</sup> Hemen, Louis I<sup>er</sup> de Bourbon Condéren historiaz zabaltzen ditudan datuak Droz-en (1960) ikerketarik eta Olivier-Hermal-Roton (1935)-etik hartuak dira.


orduan,<sup>73</sup> buru politikoak direlarik, Joana Labrit Nafarroako erregina eta Condé higanoten zuzendaria.

1545ean Condé printzeak 15 urte zituen, badakigu 1545 pribilegio urtea dela eta ez inprimatze urtea, baina halere 1545 inguruan inprimatu zitekeela pentsatzen baita. Iduri luke LVP-ek printze Condéa baino lehenago beste jabe bat ukan zukeela. Norbaitengandik errezebi ote zuen oparizat liburua? Joanarengandik? Eta Joanak berriz Margarita *Heptameronen* autorea eta ebangelisten zaintzailea zenarenganik? Jakina da Margaritak liburutegi onak bazeuzkala Nafarroako bere lurretan, Pauen, Odosen, Nérac-en eta handik kanpo. Eta 1545ean LVP-ek pribilegioa lortzen duelarik Margarita bizi zen oraindik, 1549an hil baitzen.

LVP-ren aleak kurri ibili zirela pentsatzea, gorago erran bezala, arrazoizkoa da baitakigu bigarren edizio bat aurkitzen dela Erroanen, mugaz bestaldean [Espainiako Gortean] den Isastik 1620 urteetan ikusia zuela ale bat,<sup>74</sup> eta Oihenartek bi, Bordelekoa eta Erroanekoa. LVP eros zitekeen eta estali ere beharbada, Morpainen etxean pribilegioarekin 1548 arte. Imagina daiteke haren alargunak aleak bazituzkeela 1570 arte, 1563an Morpain hil ondoan 1570 arte alargunak baitu imprimategia beregain hartzen, gero Pierre de Ladime-ri utziz.

Beste galdera bat bada: noiz iritsi ote den liburua Bibliothèque Royale-ra, gaur Bibliothèque National de la France deitzen den lekura? Titulu-orrian den zigilu gorria<sup>75</sup> aztertu behar da horretarako. Zabaltasuna neurtuz (14 milimetro), erran daiteke LVP 1735 urtearen inguruan sar zitekeela «Bibliothèque royale» errege-liburutegian.

**LINGVAE VASCONVM PRIMIZ**  
**per Dominum Bernardum Dechepare**  
**Rectorem sancti michaelis veteris.**



LVP: Bibliothèque Royale-eko zigilua

<sup>73</sup> Ikus Droz (1960: 75): «Maintenant, les huguenots avaient «une capitale, un port, république marchande de l'ouest, où venaient les rejoindre l'indomptable Jeanne d'Albret, amenant avec elle son fils, le jeune Henri III de Navarre, roitelet de quinze ans, les Gascons et aussi les «vicomtes», c'est-à-dire les petits seigneurs terriens du Dauphiné et de la Haute Provence. Dans cette ville, qui devint en 1568 la capitale du calvinisme français, la souveraine arriva le 15 octobre».

<sup>74</sup> Joseba Lakarrak diostanez, gauzak poxi bat nahasiago izan litezke ahoz-aho zabalduak balira Isastik 70-75 urte beranduago gogoratzen zituen Etxepareren bertsoak; aipuaeren tankera gatik ez dirudi liburua edo idatzizko kopiaren bat begien aitzinean zuelarik egina.

<sup>75</sup> Vinsonek zigilu hori modu honetan aipatzen du: «il y a le cachet en rouge: 'Bibliothèque royale' avec la couronne simple et les trois fleurs de lys.» (Vinson [1891] 1984: 2). Ikus lanaren hasierako oharrean aipatu interneteko edizioa.

Ordea, ikusiz Frantses Iraultzako urteetan (1789-1790ko hamarkadaren hastapenak), izan nahaskerien ondorioz orgatraka Pariseko eta inguruetako abadia, komentu, nobleen jauregi eta gazteluetako liburategietatik hartu liburuak lehen deitu «Bibliothèque Royale»-en sartzen zirela eta edozein zigiluz markatuak zirela, *LVP*-ren data sartzea ene ustez 1735-1790 hamarkadetan kokatu behar litzateke.<sup>76</sup> XVIII. mendean «Bibliothèque Royale»-en sartu aitzin jadanik Parisen ote zen liburua? Ez ote zen Pouvreauren euskal liburu kolekzio barreaturik heldu? Badakigu hau Bidarteko erretor izanik, gero Parisera itzuli zela, han hil zela eta bederen 12 euskarazko li-



Condé printzea. Argazkia: <http://upload.wikimedia.org>

<sup>76</sup> Hemengo oharrak Tolbiac-en den BNF-ko egoitzako «Liburu bakanen Erreserban» diren ardura-dunek eman xehetasunak dira.



buru bazituela bere Pariseko liburutegian (Vinson 1921). Bizkitartean, Pouvreauk ez du Etxepare iturri bezala bere Hiztegian aipatzen.<sup>77</sup>

Jakitearekin Condé printzeak eskuratua zuela LVP, hobekiago uler dezakegu Etxeparek aipatu “Prince eta iaun handi”-ak nor zitezkeen. Etxeparek ezagutu izan ote zuen pertsonalki Condé printzea? Leheteren bitartez zituen harremanak ote ziren? Zer lotura Nafarroako gortearekin (Margarita, Henri II, Joana Labrit)?

Funtsean, liburuaren materialitateak eta paratestuaren azterketak salatzen dute ingurugiro fin eta letraduna, eta zehatzago, humanismoaren eta ebangelismoaren presentzia. Ingurugiro horretan ulertu behar da ene aburuz “iaun handi”ez eta hauek euskararen “iqhasteco» duten «desira”-z egiten den aipamena Sautrelan. Hizkuntza bakana zitzaielako beharbada.

### III. Euskararen gramatizazioaren lehen urratsak

Herri-hizkuntza baten “gramatizazioa” aipatzerakoan, Auroux-Cerquigliniren definizioaren arabera, hizkuntza batek ukan ditzakeen hornikuntza teknikoek ari gara (gramatika, hiztegi, etab.), eta hornikuntza horretaz den konzientziaz (politika linguistikoak, irakaskuntza, etab.) ere.

Cerquigliniren iritiz, frantsesaren ‘duintasunaren’<sup>78</sup> konkista hori 1400 urteen bukaeran suma daiteke. Diskurto berri horren iturrietan faktore ezberdinak aurki daitezke. Italiaren eragina elementu nagusia da, han xv. mendean herri-hizkuntzak ‘duinak’ direlako ideia jadanik sartua baita. Beste faktore bat datza zientzien eraginean eta bereziki zirujiarenean: latina ez dakiten gizonak eramaten dituzten arloak izanez geroz, beharrezkoak dira hiztegi espezializatuak herri-hizkuntzan. Aurreko bi elementuei gehitu behar zaie Frantzia sortzen ari den sentimendu nazionala. Erregetzaren boterea eta batasuna Frantziak kanpoan eramaten dituen gerlek sustatzen dute eta erregetzak, ber denboran, bere atributoen barnean kokatzen du frantses hizkuntza.

Gorago aipatu bezala, François I.aren erreinupean, 1539ko agorrilaren 15ean, Villers-Cotterêts-en sinatzen den ordenantzaren 110. artikulua dioen bezala, eta partikularzki 111.ak, engoitik lege ekintzendako frantses herri-hizkuntzaren erabilera obligazioa izanen baita erreinuan:

CXI. Et pource que telles choses sont souventtefois ad-venues sur l’intelligence des motz latins contenuz esdictz arrestz, nous voulons que doresnavant tous arrestz ensemble toutes autres procédeures, soyent de noz cours souveraines ou autres subalternes et inférieures, soyent de registres, enquestes, contractz, commissions, sentences, testamens et autres quelzconques actes et exploitcz de justice, ou qui en dépendent, soyent prononcez, enregistrez et délivrez aux parties en langage maternel françois, et non autrement.<sup>79</sup>

Ohar bezala erran behar da, ordenantza hori, anitzetan uste izaten denaren kontra, ez dela Frantziako beste herri-hizkuntzen erabileraren kontra mintzo. In-

<sup>77</sup> Ikus orain X. Etxagibelen lana ale honetan Pouvrearen hiztegiatako iturriez. Pouvreauk aipatu gabeko iturriak eta iturri ezagunetako aipurik gabeko pasarteak erabili zituen arren, Etxepare iturritzat hartzeko segurtasun urria da Joseba Lakarrak diostanez.

<sup>78</sup> Ikus «Une éminente dignité» atala, in Cerquiglini (2004: 51-52).

<sup>79</sup> Iturria ikus in *op. cit.*: <http://www.assemblee-nationale.fr/histoire/villers-cotterets.asp>

portantea da azpimarratzea bakarrik lege ekintzez ari dela eta latina dela ikusmiran. Ordenantza horrek bakean uzten ditu Frantziako beste herri hizkuntzetan idatziak diren sorkuntza lanak, adibidez eta *LVP* etsenplu ezin hobea da: poesiak euskara hutsean uzten dira, arazorik batere gabe, aldiz legearen menpean baita Parlamentuan inprimatzaileak egin duen akta, honen testua frantsesez agertzen da kolofoiari.

Cerquiglinik aipatzen duen bosgarren faktorea erlijioa da. Frantsesaren gramatizazioaren lehen urratsetan aurkitzen da hain zuzen Erreforma erlijiozkoa: espiritualitate berriaren bideek, ebangelismoak eta gero kalbinismoak, Jainkoaren hitza unibertsala dela diote eta haren hitzaren hedatzeko modu eraginkorra herri-hizkuntzetan hedatzea dela. Seigarren faktore nagusia inprentarena da. Cerquigliniren ustez, arrazoi tekniko hau da frantsesaren 'duintasunaren' lortzean izanen den elementu nagusia, inprimatzeari esker frantsesa denetan zabaltzen delako. Modu horretan, hizkuntza eta haren estatusa finkatzen eta "autentifikatzen" dira. Inprimatze-prentsak animatzen dituztenak humanismoari atxikiak dira. Badakite frantsesak ez dezakeela hizkuntza klasikoen "estabilitate monumentalak" lortu erregelarik gabe, kaligrafia irakurgarri bat gabe, gramatikarik gabe. Horrela dira sartzen Frantzian, 1530 inguruan, bi karaktere tipografiko: karaktere "erromatarra" eta karaktere "italikoa".

Ene ustez, alor kultural eta politiko konplexu horretan sortzen da *LVP*-ren inprimatzeko helburua eta hozitzen da helburu horren bukaeraino eramateko euskararen gramatizazioaren beharra. Ondoko lerroetan saiatuko naiz hipotesis horren zehatzago gauzatzeko. Alegia, *LVP*-ren inprimatzea gogoeta fase baten ondotik jin dela, ez dela fenomeno espontaneo bat izan, ez bakartasunean eraman daitekeen prozesu bat ere.

*LVP*-ren inprimatzeko, gorago erran bezala, argi da euskararen grafiaren finkatze «normalizatu» bat behar zela aitzinetik eta behar izan zela ere aitzinetik erabaki fonetika oinarritzat hartuko zela eta hautu hori irizpide humanistikoaren arabera izanen zela. Euskararen idazteko eta inprimatzeko moldeez izan zen ingurugiro horren lekuko da *LVP*. Aztarnak liburu osoaren epitestualitatean eta materialitatean aurki daitezke, baina bereziki hizkuntzari doakion diskurtsoan, hau da, Eskaintza epistolari, «Contrapas»-ean, «Sautrela»-n, azken latinezko epigrafoan, tituluan, Abisuan («Aduertant...»). Testu horiek euskararen gramatizazioaren, normalizazioaren prozeduraz XVI. lehen erdian izan zatekeen gogoetatze eta obratzearen ernamuinaren lekuko dira.

### III.1. Euskararen gramatizazioaren hatzak *LVP*-en

Eskaintza-epistola Bernard de Leheti zuzendua da, ordea, argi da autorearen «itxoite-horizontean» diren hartzaileetan hiru irakurle mota badirela: 1. Pertsonalki izendatua den Lehet; 2. «sciencia gucietan letratu»-ak direnak (humanistak eta beste letratuak), horietan barne direlarik euskara dakitenak eta ez dakitenak; 3. irakurle «xehea», alfabetizatuak diren «basco»-ak euskaraz irakurtzeko gai direnak latinez eta herri-hizkuntzetan irakurtzeko gai direlako; eta behar bada latina batere ez dakitenak baina irakurtzeko gai direnak lehenik frantsesez eta idazteko ere gai direnak batzuetan beste hizkuntzetan ikasia dutelako.

Ulertu nahi bada euskararen gramatizazioan egiazki zer den jokoan bi puntu etsaminatu behar dira:

- hizkuntzaren alor lexikaleko zenbait hitz aipatu behar dira. Bereziki, «scriptura» (lat. *scriptura*) eta «scriba» (lat. *scriba*) sustantiboak, gehi «scriba» aditz-erroa (latinez: *scrib(ere)*; «thornuya» (lat. *tornus*) eta «floria» (lat. *flora*) sustantiboak;
- aztertu behar dira eskaintza epistolaren diren helburu perpausak. Euskararen gramatizazioaren prozedura ikus daiteke Etxepareren erretorikan, bai lexiko berezi baten erabileran, bai eraikuntza sintaktiko berezietan. Analisis hori egin gabe ez daiteke uler ingurualor literarioa.

Azterketa honen espazioa horrelako funtsezko lan baten kuadroa ez denez geroz, ondotik heldu diren lerroak etorkizuneko gogoeta pistak bezala hartuak izan daitezten beraz.

### III.1.a. Lexikoan

#### 1. SCRIBUTAN IMEITERA / SCRIBADAYTEYELA / SCRIBATZEN / SCRIBUZ / SCRIBAÇAI-TEYEN / SCRIPTURAN / SCRIBATUS:<sup>80</sup>

Gramatikalki forma ezberdinetan (sustantibo/aditz konjugatu/aditz-izen/partizio) zortzi aldiz agertzen da eta beti hizkuntzaz diren hiru testuei lotua, eskaintza-epistola, “Contrapas” eta “Sautrela”:

- Eskaintza-epistolaren (bost aldiz): «miraz nago iauna nola batere ezten assayatu bere lengoage propriaren fauoretan heuscaraz cerbait obra egitera eta *scributan imeitera*<sup>81</sup> ceren ladin publica mundu gucietara berce lengoagiac beçala hayn *scribatzeco* hondela»; «eta berce nacione oroc vste dute ecin de[u]sere *scriba*

<sup>80</sup> P. Altunak horrela definitzen ditu (1979: 165):

«(ESKRIBATU) (du) (v): «escrito, compuesto»; «écrit»

—scriba (skriba): Pról.; XIV, 9

—scribatus (skribatuz): XV, 13

—scribatceco (skribatzeko): Pról.

—Scribatcen (skribatzen): Pról.

No figura en Azkue; sí en Lhande

(ESKRIBU) (n): “escrito”; “écrit”

—scributan (skributan): Pról.

- escributan imeni = poner por escrito  
No figura en Azkue; sí en Lhande

(ESKRIPATURA) (n): “escritura”; “écrit, écriture”

—scripturan (skripturan): XV, 8 (15)

No figura en Azkue; sí en Lhande»

Ikus ere ondoko oharretan biltzen ditudan OEH-an diren emaitzak.

<sup>81</sup> ESKRIBUTAN. «Eskributan emaittea, mettre en écrit» SP. \* Heuskaraz zerbait obra egitera eta skributan imeitera. E 5. Ioaiten ziraden guziak skributan iartera. Lç Lc 2, 3. (OEH <http://www.euskaltzaindia.net/leoh>)

- dayteyela* lengoage hartan nola berce oroc *baitu te scribatzen* beryan»; «eta bascoec bercec beçala duten bere lengoagian *scribiz*<sup>82</sup> cerbait doctrina (...)»  
 —«Contrapas»-en (behin): «Berce gendec vsteçuten / *Ecín scribaçaiteyen*»  
 —«Sautrela»-n (bi aldiz):

«Bana hayen lengoagiaz berceoro burlatzen  
 Ceren eceyn *scripturan* erideiten ezpaitzen  
 Oray dute iccassiren nola gauça honacen.»  
 (...)

Eci huyen lengoagia [euskaldunen] içanenda Floria  
 Prince eta iaun handiecoroc haren galdia  
*Scribatus* halbalute iqhasteco desira.»

Ene hipotesia da “scribu” inprimatze-ekintzaren prozeduran sartzen den eskribitzeari edo idazteari, zuzenki lotua dela. Ez dela soilik zentzu hertsian ikusi behar. Erran nahi dut idaztea jakitea hemen ez dela zalantzan ezartzen. Hain zuzen, “Contrapas”-en erraten delarik ordurarte bertze jendek uste zutela “Ecín scribaçaiteyen” hizkuntza zela euskara, ez da erran nahi uste zela ez zela “idazten ahal”, baizik eta uste zela ez zela “inprimatzeko duin”.

## 2. BEHARDUYEN THORNUYA/BEHARDUYAN THORNUYA:<sup>83</sup>

Bi aldiz erabilia da, bietan sustantibo bezala eta bietan testuinguru berean, hain zuzen solasaldia metalinguistikoa delarik.

- “Contrapas”-en:  
 “Garacico herria  
 Benedica dadila  
 Heuscarari emandio  
*Beharduyen thornuya.*  
 Heuscara  
 Ialgui adi plaçara”

<sup>82</sup> ESKRIBUZ (*eskiribuz* SP). Por escrito. \* *Duten bere lengoajian scribiz zerbait doctrina*. E 7. *Ethor baitzedin ordenanza bat Cesar Augustoren partez, scribiz iar ledin mundua oro*. Lç Lc 2, 1 (He *skribuz*; TB *iskribuz*). *Etzait iduri asko dela kadiratik predikatuz probetxu egitea baiña are uste dut eskiribuz ere behar dela enseiatu*. Mat XII. *Errezibitze hau eskiribuz bartuko da*. Harb 424. *Kortesia hura dute / eskiribuz ezarriko*. EZ Eliç 336. *Ezta edireiten egin zuela egundaino Iondone Paulok iuramenturik eskiribuz baizen*. Ax 255s (V 171). *Eskiribuz emazu orhoitu zarena*. SP Phil 24. *Nabi dut ene libruto hontan ezkiribuz ezarri*. Tt Onsa 125. *Gure agradamentia ezkiribuz emanik*. Mercy 43. *Berak ezkiribuz ezarri dutianak*. Egiat 179. v. tbn. Gy 114. *Itzez erakutsi ezin zien urrutikoai, eskiribuz gaztigatzen ziezten [...] ikasbide andiak*. Lard 532. *Atondu daiguzan eskiribuz / Al diran kantuzko lanak*. AB AmaE 147. *Ezkiribuz utzi derauzkiguten egiak*. Arb Igand 194. (OEH <http://www.euskaltzaindia.net/oeh>)

<sup>83</sup> Ikus P. Altuna:

«(THORNU) (n): „rango“; „rang“  
 —thornuya (thornuia): XIV, 5; XV, 3  
 No figura en Azkue con esa acepción; en Lhande sí” (EH/LLD 1979: 168)  
 “—Behar duyen thornuya: ikus XV, 3” (LVP *Edizio Kritikoa*, 1980: 251).

—“Sautrela”-n:

O heuscara laud[a] ezac garacico herria  
Ceren hantic vqhen baytuc *beharduyan thornuya*  
Lehenago hi baitinçan lengoagetan azquena  
Oray aldiz içaneniz orotaco lehena.”

Bi kasuetan “thornuya” hitza “behar duen thornuya/behar duan thornuya” forma berdinean agertzen da. Autorialtasuna hirugarren pertsona emana da subjektu bezala, metonimiaz, “garacico herria”-ren bidez “Contrapas”-ean (“beharduyen”), eta “Sautrela”-n hitanoan emana da “ni” auktorialaren bidez, “ni” hori euskararen alegoriari ari zaiolarik mintzo (“beharduyan”).

Altunak ez du hitza esplikatzeko, bakarrik informazio hauek ematen ditu: non agertzen den hitza testuan, Lhanderen hiztegian agertzen dela eta Azkueren hiztegian ez, itzulpena erdaretan “rango/rang” duela, dirudenez itzulpen hori Akesolori hartua diotelako eta honek Lafoni (“rang”).<sup>84</sup> Lafonek, ez du hitza esplikatzeko “rang” itzul-tzen du iduriz, ondotik heldu diren bi neurtitzekin analogia eginez: “Lehenago hi baitinçan lengoagetan *asquena* / Oray aldiz içaneniz orotaco *lehená*”.

Etxeparek herri-hizkuntzen konpetentzia, paralelismo, antitesia, eta hiperbolaren bidez agertzen baitu. Pouvreauren hiztegiak biltzen ditu *tornus/tornum*-ek latinez eta “tour”-ek frantsesez ukan ditzakeen zentzu konkretu eta figuratiboak, “itzuliaren” ideian eraikiak denak:

Tornua: tour.  
Tornuz eguina: fait au tour.  
Tornu eder bat eguin deraut: Il m’a fait un beau tour.  
Tornatzea: tourner. s’en retourner.”<sup>85</sup>

B. Oyharçabalen ustez<sup>86</sup> Etxepareren «thornu»<sup>87</sup> hitza «itxura, zerbaiti ematen zaion forma, manera» bezala uler daiteke: “euskarari egin behar zuen itzulia eginarazi

<sup>84</sup> Ikus Lafonen itzulpenak (1951ko itzulpenak berriz argitaratzen dira in *LVP* 1545-1995, 1995): [1951] 1995 (290-291): «Que le pays de Cize / soit béni ! / Il a donné à l’euskara / le rang qu’il doit avoir.» («Contre-Pas»). [1951] 1995 (292-293): «O euskara, loue le pays de Cize, / Parce que c’est de là que tu as reçu le rang que tu dois avoir.» («Sautrelle»): /292-293. Patxi Altunaren gaztelarazko itzulpenak in *LVP* 1545-1995, 1995: «El país de Garazi / ;bendito sea! / El ha dado a la lengua vasca / el rango que le corresponde» (“Contrapas”) (1995: 173-174). “;Oh euskara, ensalza el país de Garazi! / pues has recibido de allí el rango que mereces” (“Saltarel”) (1995: 175). AAS-en etzanak. Ikus Lino Akesoloren gaztelarazko itzulpena (1968) ere.

<sup>85</sup> BnF, FCB7. *Dictionnaire basque-français du diocèse de Bourges Anc.* Colbert 3104-Regius 7700, 3.

<sup>86</sup> B. Oyharçabalek emana didan ahozko informazioa.

<sup>87</sup> Ikus in *OEH* TORNU hitzaren zentzu konkretuak: “2 *tornu* (gral.; SP, Ht *VocGr* 321 y 419, Lar, Añ, Lecl, Arch *VocGr*; *th-* *VocBN*, Dv, H), *dornu* (V-gip; Lcc). Ref.: A; Lh (*thornu*); SM *EiTec* 2 130; Etxba *Eib* (*dornua*); *Elexp Berg.* ♦ **I.** Torno. “Rodaja, *txirrikea*, *dornua*” Lcc. “*Tornuz egiña*, fait au tour. *Tornu eder bat egin deraut*, il m’a fait un beau tour” SP. «Torno para labrar» Lar. «Tornátíl, *tornuan egiña*» Ib. «Machine à façonner les objets en rond. *Zango sagar*, *beso*, *esku*, *tornuan eginak*» H. «(S; Foix), rouet à filer, tour» Lh. «*Dornua* (armería), tornillo de banco. *Aberastu zalakuan*, *lelengo eñ eban gauzia*, *dornua ibaira jaurti*» Etxba *Eib*. \* [Indian] *itsuek ere*, *tornuan edo arrodan bedere*, *hari behar zuten*. Ax 33 (V 19) (Añ *GGero* 23 *tornuan edo errotan*). *Egiten bere tornuan onzibát lurréskoa*. LE *Doc* 235s. *Zure zila uraska tornuan egiña* (V, G). *CantCS* 7, 2 (Dv *thornuan*). *Lepo biribil diruriyena / egin berriya tornuan*. Bil 37 (v. tbn. Otag *EE* 1882c, 578 *tornuz egoki egiñak*, Azc *PB* 122 *tornuan legez eginik*).

dio autoreak, hala nola ‘giltzari itzulia eman’ erraiten baita, orduan kanbiamenduaren ideia azpimarratua bailitaike”. Hizkuntzari aplikatuz hitzak lortzen duen zentzu figuratiboa Etxeberri Sarakoarengan aurki daiteke *LVP* baino 160 bat urte geroago, xviii. mendearen lehen laurdenean. Baina Etxeberrirentzat euskarak ez du “tornu”-rik behar, jatorriz betegina baita, hizkuntzaz duen mitologia eta ideologiaren arabera: “Hizkuntza adi ahal ditekenez, bernizadurarik eta tornurik eman gabe, lanoki eta garbiki”.<sup>88</sup>

*LVP*-ren aldiz euskarak “tornua” behar du letra hizkuntza bilakatzeko. Hizkuntzak “behar duen thornu”-a, behar duen “itzuli”-a 1545 urte inguruan (“orain”) inprimatzeari esker lortu denez, aurreko mundu zaharrarekin den haustura markatzen du. Grafikoki erakusten den haustura da *LVP*-n: Bordelen garai hartan ziren karaktere tipografiko modernuenekin, erromatarrekin, egiten da. Kontuan hartzekoa da edizioa arta handiz, biziki huts gutirekin eta humanisten ikuspegiaren arabera egiten dela. Modu horretan du, Etxepareren ustez, euskarak behar duen “tornu/itzulia” lortzen. Ohartzekoa da ikuspegi hori garaiko humanistek Europan zabaltzen zuten ikuspegia dela. Beraz, Etxeparek diolarik euskarak “behar duen thornuia” lortu duela, erran nahi du *badakiela hizkuntza bat konbentzioz egina dela* frantsesaren normalizazioa daramatenek dakiten bezala. Rabelaisek gogorarazten duen bezala:<sup>89</sup> “Rien moins, répondit Pantagruel. C’est abus dire que nous ayons langaige naturel. Les langaiges sont par institutions arbitraires et convenence des peuples» (*Tiers Livre*, XIX. kap.)<sup>90</sup>

Kontzientziate linguistikokoaren seinalea ikusten da «behar den” tornu/itzuli-aren erabileran. *LVP* “behar den bezala” inprimatzeko euskararen ortotipografia eta gramatizazio gogoeta, arras kontzienteki eta metodikoki eramanak izan dira. Galderak eta hautuak eginak izan dira. Zein karaktere tipografiko hauta? Zer egin zeinu diakri-

---

*Urrengoan sarturik tornu baten / okelea erretako jirak emoten.* AB *AmaE* 204. *Tornu burdina berri bat.* HerVal 188. [Tallarrian] *ankiak in erainda ibiltzen zan tornu zar bat.* SM *Zirik* 106. *Kaikua, oporra eta abatza lantzeko, Santestebanek tornuan lotzen du zura lenbizi.* Garm *EskL* 1 98. *Ederki biribildurik, tornu-tik irten berriak bezala.* MEIG III 83» (OEH <http://www.euskaltzaindia.net/oeh>)

<sup>88</sup> Zitazioa ortografia gaurkotuan. Ikus in OEH: «2 *tornu* (gral.; SP, Ht *VocGr* 321 y 419, Lar, Añ, Lecl, Arch *VocGr*; th- *VocBN*, Dv, ● (Uso fig.). \* *Hizkuntza adi ahal ditekenez, bernizadurarik eta tornurik eman gabe, lanoki eta garbiki.* ES 396.» (EOH <http://www.euskaltzaindia.net/oeh>)

<sup>89</sup> Ikus Cerquiglinik dioena: «Cette grammatisation naissante du français, que le Moyen Âge avait ignorée, et dont le latin était seul bénéficiaire, accompagne le rayonnement nouveau des langues vulgaires; elle tient également à une pensée renaissante qui voit dans le signe linguistique une convention, et dont Rabelais dans son *Tiers Livre* se fera l'écho: «Rien moins, répondit Pantagruel. C'est abus de dire que nous ayons langaige naturel. Les langaiges sont par institutions arbitraires et convenence des peuples» (chap. XIX). Les langues peuvent être décrites (la grammaire est l'étude de cette convention) et nommées, voire guidées. Cette grammatisation, technologie de la langue, n'est pas étrangère (...) aux conditions matérielles et techniques de sa diffusion: des hommes de savoir et de métier la disposent sous la presse, fondant des caractères à son intention, élaborant sa lisibilité» (Cerquiglini 2004: 53).

<sup>90</sup> Zitazioa bere testuinguruan F. Bon-en ediziotik hartua:

Comment (répondit Panurge) l'entendez ? (...) Vous doncques ne croyez ce qu'écrypt Herodote des deux enfans gardez dedanz une case par le vouloir de Psammetic roy des Egyptiens, & nourriz en perpetuelle silence ? Les quelz après certain temps prononcèrent ceste parole Becus, laquelle en langue Phrygienne signifie pain ?

Rien moins, répondit Pantagruel. C'est abus dire que nous ayons langaige naturel. Les langaiges sont par institutions arbitraires & convenences des peuples: les voix (comme disent les Dialecticiens) ne signifient naturellement, mais à plaisir». Ikus Rabelais, *Le Tiers Livre* (1552: 44): [http://un2sg4.unige.ch/athena/rabelais/rab\\_pant.html](http://un2sg4.unige.ch/athena/rabelais/rab_pant.html)

tiko berriekin (“ç”) Orria nola molda? Hitzaurre bat gehi ala ez? Hondarrean epigrafoa ezar ala ez eta zergatik?

Inprimatze ekintzaren bere helburura eramateko jadanik hizkuntzaren idazteko ohidura bazitekeen, eta seguraski finkatuak ziren jadanik usantzak nola iskribatu behar ziren elementu gramatikalak, zergatik bereizi, edo zergatik lotu behar ziren hitzak, zein gramatika-irizpide bidez.

### 3. FLORIA:<sup>91</sup>

Behin erabilia da sustantibo bezala. Prolepsian geroari buruz irekia den “Sautrela”-n agertzen da hitza, hizkuntzaren estatus berriari lotua.

O heuscara laud[a] garacico herria  
 Ceren hantic vqhen baytuc beharduyan thornuya  
 Lehenago hi baitinçan lengoagetan azquena  
 Oray aldiz içaneniz orotaco lehena. (...)  
 Heuscaldun den guiçon oroc alcha beça buruya  
 Eci huyen (sic?) lengoagia içanenda *floria*<sup>92</sup>  
 Prince eta iaun handiec oroc haren galdia  
 Scribatus halbalute iqhasteco desira. (“Sautrela”)

Lehen ahapaldian, autoreak dio, euskarari buruz ari dela, duela guti (“vqhen baytuc”) euskarak “behar duen tornua” lortu duela eta ondorioz, behar duen “itzuli/tor-

<sup>91</sup> Ikus P. Altuna:

«(FLORE) (n): “flor”; “fleur”

—floria (floria): XV, 11. No figura en Azkue; sí en Lhande».

<sup>92</sup> AAS-ek azpimarratua. FLORIA/LOREA, ikus *OEH*: “1 *lore* (G, AN-larr-egüés-erro-ilarb-olza, L, Ae, Sal, R; Volt 79, SP, Urt I 142, Ht *VocGr*, Lar, Añ, Arch *VocGr*, *VocBN*, Dv, H), *lora* (V, G-nav; Mic 6v, Lar, Añ, Izt, H), *flore* (AN-ulz-ilarb-olza, R; Lcc, H). Ref.: Bon-Ond 146; *VocPir* 542; A (*lore, lora*); Holmer *ApuntV (lora)*; Iz *Als* y *ArOñ (lora)*, *Ulz (flore)*; Elexp *Berg (lora)*. ● *Tr.* *Lore* es la forma propia de la tradición guipuzcoana y oriental no suletina y *lora* de la vizcaína. Hay con todo *lora* en algunos autores guipuzcoanos de los ss. XIX y XX (en varios de ellos junto a *lore*), y *lore* en algunos autores vizcaínos modernos. La forma *flore* (documentada principalmente para la 2.<sup>a</sup> acepción) se encuentra al Norte en Dechepare, Leizarraga, Etcheberri de Ziburu, Axular, Haraneder, Mihura, *UskLiB*, Etchahun, Bordel y *ChantP*, y al Sur en Xenpelar y Aresti. En Leizarraga, Etcheberri de Ziburu (junto al más frec. *lore* para la 1.<sup>a</sup> acepción) y dos baladas suletinas recogidas en *ChantP*, hay *flore* tanto para la 1.<sup>a</sup> como para la 2.<sup>a</sup> acepción. El único ej. de Bordel corresponde a la 1.<sup>a</sup> (v. *infra* LOREAN). El resto de los ejs. recogidos pertenecen a la 2.<sup>a</sup>, alternando en los casos de Axular, Haraneder, Mihura (56) y Aresti con *lore* para la 1.<sup>a</sup>. Hay además (tbn. sólo para la 2.<sup>a</sup> acepción) *plore* en *AzpPr* y *flora* en *GAlm*. En *DFrec* hay 49 ejs. de *lore* y 13 (10 dialectales vizcaínos) de *lora*. *OEH*-aren arabera FLORIA hitzaren zentzu figuratiboak Etxepareren LVP-en, Leizarragan, Axularren...: “2. (V-gip ap. Etxba *Eib*; Urt, Izt, H), *flore, flora, plore*. (Lo) mejor. “Adolescentia flos aetatis, [...] *adinloréa, adinaren lorea, adin lorátua*” Urt I 215. “*Guzien lorea ta koroia ze*, del principal, como la flor nata, corona” Izt 52r. “*Berekin eraman du gure gazterien lorea, [...] la fleur de nos jeunes gens*” H. “*Adinaren lorea, la flor de la edad*” LE-ir. “*Arrate balleko loria izan zan bere gazte denboran*” Etxba *Eib*. v. IRIN-LORE. ● *Tr.* Documentado desde Dechepare en autores de todas las épocas y dialectos. \* *Heuskaldun den gizon orok altxa beza buruia / ezi haien lengoajia izanen da floria*. E 259. *Bere adin florea iragan*. «La fleur d’âge». Lç 1 Cor 7, 36 (TB *bere adineko lilia*). *Guztien gañetik izan / ezak karitatea / ezen berthutetan har[k] dik / eramaren florea*. EZ Eliç 120s. [Gizonak] *bere gaztetasuneko lorea eta berdetasuna iraganez gero [...]*. Ax 191 (V 129). *Florea, irina, hoberena, gaztetasuna, eramaiten du etsai gaixtoak*. Ib. 182 (V 123).” (*EOH* <http://www.euskaltzaindia.net/oeh>)

na” lortuz, estatus ez, heinez (“rang”-“rango”, Altuna/Lafon) aldatu dela. Ordea, hirugarren ahapaldian, gradazioa gero eta gorago doa: “Eci huyen lengoagia ičanenda floria”. Hiperbole horrek erran nahi du izan daitekeen itxura ederrenera, finenera heldu dela euskara. Jadanik azpimarratu bezala, mundu zaharraren eta berriaren artean amildegi bat bada.

Bestalde, Hizkuntzetan “floria” izatea, ez ote da elegantzia lortu delakoaren seinalea? Hizkuntza hortara heldu da “behar den bezalako tornua” lortu delako. Argi da “tornua” eta “floria”-ren lortzea hizkuntzarendako txanpon beraren bi alderdiak direla. Elegantziaren ideiak hizkuntzaren estetikaren ideia badakar. Elegantzia lortu du euskarak autorearen eta Leheten adiskidetasunaren bitartez (“adisquide oray bordelen denac”, “Sautrela”) obratu den inprimatze humanistikoaren bidez.

Euskara elegantea bilakatu da, hain zuzen, humanisten altzoan gramatizatu delako eta horregatik orain printzeen eskuetara hel daiteke, haien munduko kodeez jabetu delako: “Prince eta iaun handie oroc haren galdia / Scribatus halbalute iqhasteco desira” (“Sautrela”). Ulertzeko herri-hizkuntzek [grekerak eta latinak duten] lortzen duten “elegantzia” gramatizazioaren ondorioa dela, Lemaire de Belges (1473-1525?) aipa daiteke: “Plaise aux lecteurs supporter benignement la grosse tornure du langage peu elegant” (1509).<sup>93</sup> Lemaire de Belges herri hizkuntzaz mintzatzean antiesaldiz mintzo da. Hots, hemen ulertu behar da elegantzia guti duen hizkuntzaren (“*langage [peu] elegant*”) “tornu larria” edo “tornu arrunta” (“*grosse tornure*” [AAS-ek azpim.]), “elegantzia handiko hizkuntza”-ren “tornu fina” dela. LVP-n hizkuntza eta estetikaren arteko loturak argiki berbalizatuak agertzen zaizkigu “ioya ederra” metaforaren bidez (“oroc dugum (sic) *ioya ederra*” [AAS-ek azpim.]).

Azkenean, “behar den tornua” lortuz, “floria”ra iritsiko da euskara inprimatzearen bidez. Modernitatean sartuko da, modernitatean sartua da jadanik. Irakurleak hori du ulertzen liburu inprimatua ikustean eta/edo irakurtzean.

### III.1.2. *Sintaxian*

Eskributan emateak “ceren”-ek hasten duen helburu perpausak erakusten duen bezala, “mundu gucietara” publikatzea du ondorioztat: «miraz nago iauna nola batere ezten assayatu bere lengoage propriaren fauoretan heuscaraz cerbait obra egitera eta scribuban imeitera ceren ladin publica mundu gucietara».

“Mundu gucietara publikatzea” ez du eskuizkribuzko testu batek lortzen ahal, bai aldiz testu inprimatuak. Gainera, erranaldiari ongi begiratzen bazaio ikusten da ordenu progresiboan emana zaigula ekintza: lehenik “obra egin” (eskuz izkribatuz) eta gero «eskributan eman» (inprimatuz). Dударик gabe, eskributan ematea inprimatze ekintzaren prozeduran sartzen da.

Perpau horren paraleloa eskaintza epistolaren bukaera aldean aurkitzen dugu. Bi helburu perpausak klarki oihartzun egiten dute testuan, eta merezi du ene ustez konpara ditzagun LVP-ren ingurugiro kulturalaz zerbait erran baitiezagukete. Ohartzekoa

<sup>93</sup> In *Légende des Vénitiens...* TLFi <http://atilf.atilf.fr/tlf.htm>



da bi perpausek testuan duten lekua ez dela kasualitatezkoa, eta erretorikaren arkitekturari lotua dela. Badirudi halere dituela Etxeparek erabiltzen alde batetik iraganezko subjuntiboa (“*ladin publica*”) eta bestetik orainekoa (“*dadin publica*”), ondoko etsenpluetan ikusten den bezala:

- «miraz nago iauna nola batere ezten assayatu bere lengoage propriaren fauoretan heuscaraz cerbait obra egitera eta scributan imeitera *ceren ladin publica mundu gucietara*» (Hemengo eta ondoko etsenpluak AAS-ek azpimarratuak).

Dirudienez, iraganezko subjuntiboa erabilia da erakusteko ez daitekeela uler zer-gatik ordu arte inprimatze-helburua ez den kunplitu. Horrek erran nahi du inprimatzen ahal zela lehenago. Lehenagotik euskal testuendako inprimatze-ekintza bat obra-tzeko gai ziren euskal adituak, humanistak, bazirelako (“*Ceren bascoac baitira* abil animos eta gentil eta hetan *içan baita eta baita* ciencia gucietan lettratu handiric”); -“eta çure hatse honetic dadin aitzinerat augmenta [dadin] continua eta [*dadin*] *publica mundu gucietara*”.

Lehen aldiko, euskal liburu baten inprimatze-ekintza gauza daiteke. Helburu humanista obra daiteke orain euskararen faboretan, liburua inprimatuz. Horregatik, subjuntibozko oraina dugu hemen; -«eta berce nacione oroc vste dute ecin de[u]sere scriba dayteyela lengoage hartan nola berce oroc baitute scribatzen beryan».

Hitz hauek frogatzen dute liburu inprimatua euskararen gramatizazio prozeduraren ondorioa dela. Hausnarketa linguistikoak izan direla. Argi da autorea herri-hizkuntzek inprimatze ekintzari esker lortzen duten letra-estatusaz ari da, ez eskuz idazteko ahalaz. Era berean, autoreak “*Contrapas*”-ean diolarik: “*Berce gendec vs-teçuten / Ecin scribaçaiteyen*». Euskarari buruz zebilen ideia agertzen da: gramatikaliza ez zitekeen hizkuntza zela, hain zuzen, aurrerago erran bezala, inprimatzeko duin ez zen hizkuntza. Inprimatzen ahal izateko hizkuntzak lortu behar du kodifikazio linguistiko *inprimatua*.

2006an, André Thevet (1512-1590) kosmografo eta humanistaren *Description de plusieurs Isles par M. André Thévet* eskuizkribu ineditoaren irakurtzen ari nintzela Pariseko BNFe-an, ohartu nintzen Thevet-endako «gotiko» kalifikazioak garai zahar eta ilunak zituela izendatzen. Hain zuzen, karaktere gotikoak «zailak dira irakurtzeko» dio. Zentzu horretan, euskara eta bretoiera bezalako hizkuntzak gotikoak dira haren-tzat bertze hizkuntzetarik —oil eta oc hizkuntzak ote ditu gogoan?—: «le Breton bretonnant est incommunicable aux aultres. Le Basque de mesmes».

Argi da, xvi. mende bukaera aldean (1580 urteen inguruan gara), Thevet-endako euskara kuriositate-gabineteen gordetzeko objektu bat dela, humanismoak hunkitzen ez duen hizkuntza. Jakina zukeen Testamentu Berria euskarara itzulia zela, eta ematen ditu ondotik, irakurle argituak euskararen opazitatearen etsenplu bezala, bi otoitz: «*Gure Aita*» eta «*Sinesten dut*», Leizarragaren lanetan aurkitzen diren bertsiotze-erak arras hurbilekoak direnak, Jainkoaren tratatze hitano ebangeliko eta humanistikoarekin:<sup>94</sup>

<sup>94</sup> Ikus «*Oraison Dominicale en Basque*» eta «*Le Symbole des Apostres en Basque*» in Fonds français: ms. 17174 Bibliothèque nationale de France, Richelieu: *Description de plusieurs Isles par M. André Thévet* (folio 7 aurkia eta folio 9 aurkia/infrentzua).

«[folio 9 aurkia]

Estenduë de la France

(...) le Breton bretonnant est incommunicable aux aultres. Le Basque de mesmes: Voire qvâvcums se sont pour ce vould faire accroire, que c'ettoit vn Langage Gotthique, tant parce que Lon y trouve des monnoyës, Et medalles antiques fort di(s)filles à Lire, Et Le ditz pour en avoir deux vers moy dans mon Cabinet, marquées par des

[folio 9 infrentzua]

marquées par des Caracteres Gotthiques, que pour autant auSsy que le Biscain a vn fort bigerre idiome. Je vous propose en Sa Langue L'oraison Dominicale, et le Symbole de nostre creance, à celle fin de donner plaisir, et cõtatement au Lecteur.» (André Thevet)

Thevetek hemen idazten duena baino 40 bat urte lehenago dugu *LVP*-ren inprimatze ekintza. Pentsa dezakegu Theveten iritzi hurbila zuketela orduan ere batzuek *LVP*-i buruz: kuriositate gabinetean kokatzeko liburu bat. Ahatik, Etxepareri kasu egiten bazaio, autorearen ingurugiroan ziren kanpoko letradunek ez zuten euskara, hizkuntza bereizi eta «gotiko» bezala ikusten baizik eta erreforma humanistikoan koka zitekeen hizkuntza. Karaktere erromatarrez inprimatzen zen hizkuntza, latinetik itzul zitekeen hizkuntza (*LVP*-en den doktrina), eta ikas zitekeen hizkuntza zen. Ondorioz, ulertzen da erromatarrez inprimatzeak hizkuntzari ekartzen diola «floria»:

Eci hayen lengoagia [euskaldunen] içanenda floria  
Prince eta iaun handiecoroc haren galdia  
Scribatus halbalute iqhasteco desira.

Jadanik aipatu bezala, estatus altuko jende letradunek, kodifikazio horri esker, “har” dezakete *LVP*. Alde horretatik, *LVP*-ek justu Theveten kontrako ikuspegi baten fruitu da: euskara ez da gehiago “gotikoa”, mundu zaharrekoa: modernitatean sartua da inprimatu delako, eta inprimatu humanisten kriterioekin.

Azkenean, “scributan imeite”-a, “imprimi”-tzea, “publica”-tzea, “behar duen thornuia” lortzea euskararen estatusari lotuak diren ekintzak dira. Euskararen ortotipografiak euskararen gramatizazioaren esistentzia erakusten du. Eta hori frantse-sarendako 1530 urtetan gauzatu zen fenomenoaren ondorio zuzena da.

“Grafia da lehenik normara heltzen. Ortografia gramatika baino lehen” dio Cerquignin (2004: 52-53).<sup>95</sup> Erran nahi da hizkuntzak behar duen ekipamendu tek-

<sup>95</sup> Ikus Cerquignini (2004: 53).

C'est par une réflexion sur la langue écrite, dans son aspect le plus matériel (la pâte concrète de l'encre et des mots), que cette grammatisation a commencé. Le fait est d'importance: l'écriture est l'objet du premier regard savant. La graphie accède d'abord à la dignité de la norme, l'orthographe précède la grammaire; il en sera ainsi jusqu'à nous; L'établissement des règles pour la langue écrite est le préalable de l'analyse grammaticale: Meigret lui-même publie son pamphlet orthographique huit ans avant sa grammaire (...) Plus généralement, c'est dans le milieu des imprimeurs que s'entend d'abord l'appel à une normalisation de la langue vulgaire, et qu'un embryon de réforme est mis en œuvre, par le biais d'améliorations typographiques.

nikoz janzen dela. Azken batean, *LVP*-ren mundura sortzeak berak frogatzen du euskararen gramatizazioaren esistentzia.

### III.2. *Ebangelismoaren eragina*

Humanismoak herri-hizkuntzaren normalizazio prozeduran ukan duen eraginaren fruituetarik bat da *LVP*, baita ebanjelismoaren ere. Frantsesarendako gogoraraz dezagun berriz ebanjelismoak ukanen duen indar berezia Lefèvre d'Étaples-i esker, eta haren inguruan den Margarita Nafarroakoaren kofesaria den Briçonneti esker. Margaritak berak frantses letren eta ber denboran ebanjelismoaren zaintzaile bezala duen eginkizuna oinarrizkoa izanen delarik, Marotekin duen lotura bereziki.

Humanismoak, ebanjelismoak, unibertsalistak izanez, herri-hizkuntzen gramatizazioa sustatzen dute, bereziki XVI. mendearen lehen erdian: Kristoren mezua inprimatze-teknologia berriaren bidez, erregelak dituzten herri-hizkuntzen bidez eta katekizazioaren bidez zabalduko da.

*LVP*-ren *corpus*-ean euskaraz bakarrik —itzulpenik gabe— doktrina baten lehen aldiz tipografiatzea oinarrizkoa da euskararen gramatizazioaren hastapeneko prozeduran. Alderdi hori euskal literatura historiografian ez da kontuan hartu izan, Etxepareren erlijiozko testuak, oro har, baloratu ez diren bezala. Bizkitartean, testu erlijioezkoen hizkuntza euskaraz inprimatzea erreformazaleen keinu ideologiko marka azkarra zen garai hartan. Eta Etxepareren testu erlijioezkoen diskurtsoaren analisiak konfirmatzen du ebanjelismoaren presentzia (ikus Arcocha-Oyharçabal 2008).

Etxeparek berak azpimarratzen du Eskaintza-epistolaren bukaeran, geroari buruz prolepsian irekitzen delarik erranaldia, “duten” oraineko subjuntiboaren medioz; lehengo garaietan kunplitu ez zen helburua, orain kunplituko dela: euskaldunek euskarazko “doctrina” bat ukanen dutela:

([lehen]: “miraz nago iauna nola batere ezten assayatu bere lengoage propriaren fauoretan heuscaraz cerbait obra eguitera eta scributan imeitera deren ladin publica mundu gucietara”):

[orain]: “eta bascoec bercec beçala duten bere lengoagian scribuz *cerbait doctrina* eta plazer harceco solaz eguiteco cantatzeco eta denbora igaraiteco materia eta ginendirenec güero duten causa oboro haren abantçatzeco.” (AAS-en etzanak).

Etxeparek bere liburuari ikusten dizkion beste funtzio konkretu guziak, garaiko klase sozial altuko jendeek asti aldien betetzeko ukan zitzaketan espazioen betetzeko dira, *otium*-ari lotuak diren aktibitateak: solasaren artea, kantatzea bezalako aktibitate musikala, astiaren non nola pasa ibiltzea. Gogorarazten digute Margarita Nafarroakoak bere *Heptameron*-en eszenan ezartzen dituen aitoren seme eta alaben (denak ebanjelistak bestalde...) portamoduak.

Etxepareren aipamen horiek gogorarazten dute geroago berriz aipatuko dugun Eustorg de Beaulieu-ren (1500-1552) neurtitzezko epistola bat. Taula gainean ezartzen ditu “Bernard Lahet”, Janequin (1485-1558) musikari ezaguna eta bere burua, Leheten etxean gertatzen den soinu ekitaldi batean. Etxeparek liburuari jendearen distraitzeko ikusten dion funtzioa euskararen ohoretan ikusten du. Euskara neurri so-

zial altuko distrakzioetan presente izatea, printze handien estimuan, hizkuntzaren defentsaren egitea da.

Etxeparek aipatzen duen helburu-zerrendan, “solaz eguite[tik]”, kantatzetik, eta astiaren iragatetik kanpo kokatzen da klarki “lengoagian scribuz” emana den “doktrina”. Doktrina *LVP*-en da lehen aldiz inprimaturik euskaraz agertzen. “Bascoec” beren doktrina euskaraz lehen aldiko inprimaturik ukatea gertakizun nagusia da. Helburu hori lortu da normalizazio linguistikoaren prozeduran sartua zelako euskara, beste herri-hizkuntzak bezala (“bascoec berceç beçala duten bere lengoagian scribuz cerbait doctrina”). Latina eta frantsesa dituzke gogoan. Hain zuzen, Etxeparek aipatzen duen “doctrina” liburuaren *corpus*-aren hastapenean den “Doctrina Christiana” dateke baina beste erlijiozko poesiak ere bai. Titulu hori zati partikular batena kontsidera daiteke ala erlijiozko testu guziak biltzen dituen titulu orokor bezala.

Nafarroako Artxibategian den iturri historiko batek<sup>96</sup> konfirmatzen du Etxeparek ideia erreformatzaileak zituela. Mendikoaga Garaziko arzapezpikuaren gobernantza-pean kleroak egin zituen abusuen erreformartzeko izendatua izan baitzen eta hori Baionako apezpikuak egin baitzuen Garaziko “juratuek” eskaturik, informeak dioen bezala:

Que el Obispo de Vayona ultimo que fue a rogaría y por muchas inportunaçiones que le hizieron los jurados de la villa y tierra de Sant Johan, a causa de la mala ministraçion de la justicia y dissoluçiones de los ecclesiasticos y otras cosas no debidas que se hazian en tiempo de don Pedro de Mendicoaga exercitaba el Vicario Generalado de Sant Johan, me scribió tubiesse por bien que el hiziesse mutaçion en el dicho Vicariado por lo que convenía al descargo de su conçiencia y buena ministraçion de la justicia.

Y que así al dicho Obispo considerando la avilitat suficiencia y letras y otras virtudes y buena fama de Mossen Bernart de Chapare Rector de Sant Miguel proveyó a él del dicho Vicariado<sup>97</sup>

<sup>96</sup> Urquijok zitazten du Huarte (1927). Ikus Urquijo (1933).

<sup>97</sup> Ikus J. de Urquijo: «Introducción al *Linguae Vasconvm Primitiae de Bernard Dechepare...*» RIEV, 1933. J. de Urquijoren iturria J. M. de Huarte da (*Euskalerriaren Alde*, 1926). Dokumentuak aipatzen dituen zati inportanteenak zitazten ditut duten balore historikoarengatik:

Informearen izenak dio: «Instrucciones reservadas dadas al alguacil Bastida acerca de cuanto en nombre de S.M. debía manifestar al vicario general del Obispado de Bayona respecto a la confirmación del título de vicario general de San Juan Pie del Puerdo hecho en favor de Mosen Bernart Dechepare, rector de San Miguel y sucesor en el expresado cargo de don Pedro Mendicoaga». Urquijoren ohar hau egiten duelarik: “El pliego de este papel que contiene la instrucción precedente lleva al dorso y en letra de la época (comienzos del siglo xvi) el epígrafe que sigue: «Treslado de la Instrucción que levo Bastida sobre vicario generalado de Sant Joan».]

Dokumentuak dioena hau da: “Bastida mi agoazil: Lo que abeys de decir e infformar de mi parte al Vicario General del Señor Obispo de Bayona, es lo siguiente:

[hemen dator testuan eman dugun zatia] (...) dicho Vicariado General de Sant Johan lo qual yo tuve por bien por ser el dicho Mossen Bernart muy abil para el exerciçio del dicho offiçio y scribí y mandé a los de la dicha villa y a los otros del Obispado de Bayona que obediesçen y cumpliessen lo que el dicho Obispo mandaba pues hera en serviçio de Dios y para la buena ministraçion de la justicia.

Y que despues de muerto el dicho Obispo visto que el dicho Mossen Bernart exercitaba bien el dicho offiçio, yo scribí al Capitulo de la Yglesia Catedral de Vayona que no hiziesßen mutaçion en el dicho offiçio ni quitassen aquel al dicho Mossen Bernart lo qual así se hizo.

Euskal literatura historiografiak ez du testu historikoa *LVP*-en diren erlijiozkoekin gurutzatu eta ez du baloratu. Alta, Etxepareren erlijiozko testuetan agertzen den jarreraren informazio osatzaile inportante bezala. Datarik gabe den baina Orellaren ustez 1518ko urtea baino geroagokoa datekeen dokumentu horretan, “Bastida alguazilari” idatziak zaizkion sekretuzko gomendioek,<sup>98</sup> argirik uzten dute, gorago erran bezala, Garaziko kleroak ez dituela onartu Etxepareren erreformak eta nahi duela Bikario Jeneral kargua Baionako apezpikuak ken diezaion, beste norbait izendatuz... Gutunak agertzen du egin ahalak egiten dituela informearen idazleak, hots, Micer Juan Renak veneziar kapelauak (Orella 1987, Esarte 2001)<sup>99</sup> Bastidari argiki agerrazteko zer dioen erran behar Baionako Arzapezpikuari harek Etxepare berriz konfirma dezan bere karguan.<sup>100</sup> Beharbada Renaren Etxepareren aldeko jarrera kidetasun erlijiozkoak du bultzatzen eta ez, uste izan den bezala, politikoki oso konplexuak diren garai horietan, Etxeparek Carlos V.arentzat duen ustezko aldekotasunak:<sup>101</sup>

Y que agora parece ser an infformado a la Magestad del Rey nuestro Señor en nombre de la villa de Sant Johan, deziendo que la dicha villa tiene privilegio que el Vicario General que ha de ser en Sant Johan a de ser hijo natural y residente de la dicha villa y otras cosas, lo qual es contrario a la verdat porque no tiene la dicha villa tal privilegio y ququando lo tuviesen mostradolo a mi yo ternia forma como se les goarde y cumpla ququanto mas que el dicho Mossen Vernart vibe a media legoa de Sant Johan y sus audiencias tiene en Sant Johan. (...)

[Ondoko hiru ahapaldiak testuan aipatuak beherexego]

Y assi le rogat de mis partes que no haga mutacion en el dicho officio de Vicario General, mas antes le dé nuevo título al dicho Mossen Bernart, que en ello servirá a Dios, y a mi hará singular complazimiento y descargará a su conciencia.

Y que en las cosas que tocaren al Señor Obispo siendo requerido por él yo lo haré y mandaré con mucha voluntad como lo verá por obras, y cobrad respuesta del.

Y si por caso no quisiere hacer esto que le ruego, le dezid que no se dará lugar a otra cosa ni es cosa que cumple al seruijio de Su Magestad que otro sea Vicario General en Sant Johan sino el dicho Mossen Bernart, ni se consentirá que en el dicho officio ni en otro alguno en este Reyno se pongan perssonas sino que sean acceptas al seruijio de Su Magestad. Esto ultimo le direys ququando mas no pudieredes hazer, y sea bienf dicho de manera que conozca que otra cosa no se dará lugar.»

<sup>98</sup> Ikus Orella (1987: xii-xiii): “De fecha posterior a 1518 debe ser la información que nos propone el segundo documento o memorial, redactado a juzgar por el fondo en que se halla por Micer Juan Rena con acuerdo del Virrey y consulta del Real consejo de Navarra”.

<sup>99</sup> Renaren lanetarik bat da nabartar legitimisten helburuen eta mugako joan jinen zaintzea espioiak bilatuz eta pagatuz 1513-1515 urteetan bereziki, François Iaren tronura igatearekin beldur baita Carlos V, Nafarroako legitimistei (Labriteko leinukoei) Frantziako errege berriak laguntza militarra ekarriko diela galdu duten erreinu historikoaren errekupeatzeko. Espioi lana Nafarroa Beherean biziki intentsoa izanen da urte horietan (Esarte 2001: 261). Veneziakoa den Juan Rena, Carlos V-k 1520ko urtarrilaren 23an naturalizatuko du (Esarte 2001: 347).

<sup>100</sup> Ikus Orella (1987: xii-xiii):

En el nombramiento de este cargo [Bikario Jenerala kargua] intervenían en primer lugar el Obispo de Bayona y en su caso el Vicario General del obispo el Capítulo de la Iglesia Catedral de Bayona; además debían ser atendidas las exigencias del rey, ya que se le consulta en la sustitución del que ejerce el cargo, lo mismo que los privilegios de la villa y tierra de San Juan y sus presiones ejercidas por medio de sus jurados. El ámbito de actuación de esta autoridad judicial era San Juan, en su villa y tierra, y “otros del obispado de Bayona”.

<sup>101</sup> Orellak plazaratzen duen galdera zentzuzkoa dela iduritzen zait, hain zuzen: “...es verdaderamente curioso el que se edite esta obra en prensas francesas si, como luego hablaremos, el autor fue un «súbdito» del rey español y era además de mentalidad beamontés” (1987: vii).

(...) Y que el dicho Mossen Vernart ha seydo y es muy buen seruidor de Su Magestad y que yo infformaré a Su Magestad de su persona y virtudes como se aya descargo de la carta que Su Magestad ha scripto al Señor Obispo.

Y si os dixiere el Vicario General de Vayona que la clerecía le suplica que quite del offiçio al dicho Mossen Vernart, vos le dezid que no es la clerecía en general sino algunos particulares a quien *el ha corregido y traydo de mal y desonesto vivir al bueno, y porque les ha bedado los juegos y otras dissoluciones lo quoyal se consentia en tiempo de don Pedro de Mendicoaga.*

Y assi le rogat de mis partes que no haga mutaçion en el dicho officio de Vicario General. (AAA-en etzanak)

Garaziko eskualdeko kleroaren kexuek aditzera ematen dute zer motakoak izan ziren Etxepareren erreformak. Eta ohar guziek, baina bereziki argiki aipatzen den jokoaren kontrako jarrera karakteristikoak, salatzen dute Etxepareren ebanjelismoa. Dokumentu horri esker, bestalde, ageri da Arzapezpiku izateak, kargu inportantea zenez, letrak eskatzen zituela, eta Etxeparek eginbarrekin betetzen zuela:

Y que así al dicho Obispo considerando la avilitat sufficiencia y letras y otras virtudes y buena fama de Mossen Bernart de Chapare Rector de Sant Miguel proveyó a él del dicho Vicariado General de Sant Johan lo quoyal yo tuve por bien por ser el dicho Mossen Bernart muy abil para el exerciçio del dicho offiçio.

Orellak aditzera ematen du unibertsitate batean zuzenbideko graduazio bat ukana zukeela.<sup>102</sup> Aitzina daiteke teologian izan daitekeela graduatua, ez dakigu zer unibersitatetan (Akitanian? Tolosa aldean, Lehet bezala?).

### III.3. Lehet eta LVP

B. Lehetek, edo Lahetek, Sarako leinu noble izen bereko familian zituzkeen oinarririk (Oihenart [1665] 1967, Urkizu 1999). 1514ean Tolosan zegoen legegintza ikasten. Bordelen erregeren abokatu izan zen Guyenne-ko Amiralgoan (1524-1529) (Baranova 2002) eta abokatu jenerala 1529-1560 urteetan. Antonie de Guilloche, izen bereko Kontseilariaren arrebarekin ezkondu zen (Baranova 2002) eta hil Bordelen 1562ko urriaren 10ean. Bordelen mezena baten rola betetzen zuen poetak eta musikariak ukanez bere inguruan. Eustorg de Beaulieu poeta eta musikariari esker ezagutu zuen Clément Janequin musikari famatua.<sup>103</sup> Hain zuzen, Eustorg de Beaulieu-ren neurtitzeko epistola eder bati esker (Urkizu 1999: 110-111) Lehet errepresentatua

<sup>102</sup> “De Mossen Bernart se afirma su habilidad, suficiencia y letras, lo mismo que otras virtudes y buena fama. Ciertamente no erraríamos demasiado, si dijéramos la necesidad de tener «licentia ubique docendi in utroque iure», impartida por una facultad en derecho, para poder ejercer este cargo. Además el documento nos notifica que Bernart fue nombrado para este cargo por el obispo de Bayona, refrendado por la autoridad del virrey, confirmado en el cargo por el capítulo de la Iglesia Catedral de Bayona en sede vacante.” (1987: xii-xiii).

<sup>103</sup> «[Clément Janequin] s’était lié avec le poète Eustorg de Beaulieu qui l’introduisit dans le cercle de l’avocat Bernard de Lahet, lequel jouait les mécènes.» [http://www.universalis.fr/encyclopedie/K100801/JANEQUIN\\_c.htm](http://www.universalis.fr/encyclopedie/K100801/JANEQUIN_c.htm)

zaigu 1529 urtean, modu bizian Eustorg berarekin eta momentuz identifikatu ez den “Blaise” batekin hiru bozeko kantu polifonikoaren interpretatzen, Clément Janequin (Jennequin) Europan fama handia lortuko duen akitaniar musikariarekin kantari, eta mezena rolean bere egoitza artistei eta intelektualei irekitzen diela. Eustorg 1539tik landa eliza erreformatuan sartzen da eta Suizara joaten bizitzera. Ez dakigu zuzen Lehet zer ideiatako zen, garai horietan ez dira oraindik alderdiak katoliko eta ebanjelisten artekoak bortizki zatituak Bordelen Montmorency Konetableak han egin sarraskien kontrako satira den “Pasquille” baten irakurketak erakusten duen bezala (Baranova 2002: 489). Baranovak transkribatzen duen “Pasquille”-ean (<http://www.persee.fr/web>), “Lahet”-i ahoan ezartzen zaizkion leak arras anbiguoak dira Salmo 55aren erabilpenak gogorarazten baititu erlijio polemikak eta erreformatuen “fede justifikazioa”<sup>104</sup> iduri baitu, hain zuzen, afera horretan Lehet kalomniatua izan dela, eta ez da, itxura guzien arabera, topiko baten erabilera (ikus ere LVP-en, Etxepareren gartzelatze episodioa beste kontestu batean).<sup>105</sup>

Bordele xvi. lehen erdian, “Ernazimenduko zentro handienetarik bat da”, Italia-tik zuzen heldu dira hango Guyenako Kolegiara Europako humanista handiak (ik. Baranova 2002: 487). Lehetek mezenas bezala eginkizun inportantea du hirian eta dirudienez Parlamentuan badira beste Letra ederren maitaleak, horien artean Rabelaisen adiskide den Briand de la Vallée bat, eta baita Zuberoako jatorria salatzen duen deitura duen Jehan d’Ybarolle bat ere (Gaulleir Baranovak aipatua 2002: 487).

Etxepare eta Leheten artean den adiskidetasuna esplizituki aipatua da “Sautrela”-n. “Adiskidetasun” hori, beharbada, antzinako moduan ikusi behar delarik (Kikero: *De amicitia*), eta euskararen gramatizazioaren proiektuan delarik gauzatzen, agian Guyenako Kolegioko eta Parlamentuko ingurugiro intelektualean mugitzen diren beste pertsonaia batzuei ere lotu behar zaielarik horrelako proiektu baten existentzia.

... à scientifique & Tres-prudent Seigneur. Monsieur Maistre Bernard de Lahet  
aduocat du Roy, en sa court de parlement à Bordeaux. (...)

Le pense fort si ton cueur se delecte  
Comme iay veu, au ieu de lespinete  
Et j’ayme tant le doulx bruyt organique  
Comme autresfois, & la douce musique

<sup>104</sup> Gogorazi behar delarik mendearen bigarren erdian prokuratore jenerala izanen den (1564) Leheten seme Joanes protestanta zela eta “eliza erreformatuko Guilloche kontseilariaren lehengusua (...) katoliko zenbaitek salatu egin zute[la] haren jauregia erreformatu iraultzaileen babeslekua bilakatua zelako” (Urkizu 1999: 107). Nahiz ikerketa honen denbora-mugak gaintzen ditugun Leheten semearen ingurumen ideologikoa aipatuz, iduritzen zait merezi duela puntu horren markatzea, behar bada bade-lako hor xvi. mendearen hastapenetik badabilan ideia berrien aztarna.

<sup>105</sup> «Quels rôles ont joué ces personnages dans la révolte ? L’auteur [Pasquilla-ren autore edo autoretak anonimoa(k) d(i)ra] L’auteur parle de tentatives d’ennemis visant à accuser l’avocat Bernard de Lahet d’un comportement indigne» (Baranova 2002: 487). Hona Lehet aipatzen duen «Pasquilla»-ren zatia: «L’advocat du Roy Lahet. Adversum me susurrabant omnes inimici mei adversum me cogitabam mala mihi» (Baranova 2002: 492). Ohartzekoa Lehet pertsonaia eszenifikatzen duen fikzionalizazio honetan, aurkitzen dugun iturri bibliko berdina aurkitzen dela Etxeparek bere gartzelatzeaz egiten duen testuan. Iturria, erran bezala: 55 Salmoa, 40, 8.

Ou ie tay veu prendre tant de plaisir  
 Que bien souuent, ains que t'aller gesir  
 Pour de soucy, & peyne, estre deliure,  
 Si tu trouuoys de musicque aucun liure  
 Toy, Blaise: & moy, chantions iusqu'a mynuict (...)  
 Tu t'acointois de Clement Iennequin  
 Et d'autres mains, tous gens d'experience  
 Et ou gisoit musicalle science.  
 C'estoit, en lan mil cinq cens vingt & neuf (...)  
 Tu tins maison ouuerte, à plusieurs gens  
 Ien suis tesmoing qui ne le puis nyer  
 (...)

Leheten presentzia oinarrizkoa da Eskaintza-epistolaren autoreak hari dedikatzen baito salatuz ber denboran haren eginkizuna zuzena izan delako iduriz *LVP* osoaren inprimatze-ekintzan.<sup>106</sup> “Ni” auktorialak argitzen du hautuaren arrazoa: «baytuçu estimatzen goratzen eta ohoratzen euscarā». Subordinatu kausatibo horren egitura hirukoitz sinesten badugu, deduzitzen da Lehet *LVP*-ren inprimatze-proiektua baino lehenagotik sartua dela euskararen gramatizazio gogoetan, Etxeparek horren berri badauela, eta biak euskaraz alfabetizatuak direla *LVP* baino lehenagoko garaietan (hots, irakurtzen eta idazten dutela euskaraz).

Agertzen da Lehetek duela liburuaren inprimatze-ekintza bideratu, bi fase ikus daitezkeelarik. Lehenik Etxeparek eskaintza epistolaren proiektu bezala aipatzen du inplikatzeko hori “...inprimi eraci diçaçun” subordinatu finala erabiliz, helburua ez baita gauzatua. Lehetek *LVP*-ren testu liminariotzat hartu badu Etxeparek igorri dion zinezko obraren aurkezpen-gutuna logikoa da helburu bezala aipatzea. Aldiz, “Sautrela”-n, ekintza bukatutzat emana da, baina prolepsia bat da “Lehen imprimiçalia heuscararen hurada” idazten duelarik Lehetendako, Etxeparek inprimatu-ekintza aitzin duelako hori idazten, eskuizkribuan bien arteko lankidetzaren ekintza kunplitu aitzin:

Desir hura conplitu du garacico naturac  
 Eta haren adisquide oray bordelen denac  
 Lehen imprimiçalia heuscararen hurada  
 Basco oro obligatu iagoiticoz hargana

Beraz, Leheten presentzia liburuaren edizio inprimatuari lotua agertzen da. Etxeparek Lehetez egiten dituen bi aipamenak inprimatzeko prest den aitzin-testua bukatu ondoan eginak dirateke Lafonen arabera, hiru testu horiek, eskaintza-epistola, “Contrapas” eta “Sautrela”, liburu guzia bukatu ondoan idatziak dirateke forma linguistiko amankomunek aditzera ematen duten bezala.<sup>107</sup> Gehitzen dut eskaintza-

<sup>106</sup> Ikus artikuluan, protokolo epistolarioaren markak § I.3.4.

<sup>107</sup> Etxeparek eskaintza-epistolaren erabiltzen duen arrazoibidea (inprenta herri-hizkuntzen zabalbide), bi azken piezetan, «Contrapas»-ean eta «Sautrela»-n aurkitzen da. Zubiak nabarmenak dira. Lafonek agertzen ditu hiru testu horien artean badirela amankomun linguistikoak. Adibidez: «bague» eskaintza epistolaren (Lafonendako «Préface»), eta «Contrapas»-ean bakarrik agertzen dela; «tz» grafia soilik eskaintza epistolaren, «Contrapas» eta «Sautrela»-n. Horregatik, Lafonek dio eskaintza-epistolak, «Contra-



A scientifique seigneur. Monsieur  
 maistre Bernard de Lahet advocat  
 du Roy, en la court de parle-  
 ment, à Bordeaux.  
 ¶ Epistre premiere.



**C**ombien que craincte en t'escrepant  
 s'auance  
 De m'appeller, fol, plain d'oultrecuidance  
 Esvoir me pouille, & me dict, tu fais mal  
 Si tu te crainctz qu'un cœur noble, & loyal  
 Tant enrichy de vertus à souhait  
 Comme celuy de Bernard de Lahet  
 Aye en desdain la teneur de la lettre  
 Quoy qu'elle soit en rude stile, & metre  
 Et que plus est qu'il soit en dignité  
 [ Non sans merite ] & grande auctorité  
 Car la pour ce ne t'en tiendra mespris  
 Et n'en feras aucunement repris  
 Joint, que les biens, & les honneurs du monde  
 N'ont rien changé les meurs & sa faconde  
 Et ne fut onc plus doux, & liberal  
 Auant qu'il fust advocat general

Eustorg de Beaulieu-k Lehet-i eskaini neurtitzezko epistola<sup>108</sup>

(*Les Diuers rapports...*, 1540)

epistola egiterakoan argi dela autoreak liburuaren ikuspegi globala baduela, doktrina idatzia duela, astia iragaterko diren beste testuak idatziak dituela. Eta ikuspegi global

pas»-ek eta «Sautrela»-k batasun linguistiko bat formatzen dutenez garai berean idatziak izan daitezkeela, hain zuzen, beste testu guziak bukatu ondoan:

Ainsi les deux poèmes en l'honneur de la langue basque et la Préface paraissent bien former un ensemble à part du reste et ont dû être écrits à la même époque et après le reste. Les deux poèmes développent l'idée maîtresse de la Préface, prouvée et illustrée par le reste du recueil: le basque qui n'avait pas jusqu'ici de littérature, peut et doit en avoir une, car il est «aussi bon à écrire» que les autres langues. Il est probable que Dechepare, après avoir montré par le fait que sa langue maternelle était aussi apte que les autres à exprimer les sentiments les plus élevés et les plus profonds, le sentiment religieux, la passion amoureuse, l'amour de la justice et de la liberté, a tenu à célébrer la langue basque elle-même et sa promotion au rang de langue littéraire (Lafon [1951] 1999: 731-732).

<sup>108</sup> Eskertzen dut P. Urkizu, Eustorg de Beaulieu-k Bernard Leheti (Lahet bezala izendatzen duela-rik), eskaini epistolaren erreprodukzio inprimatua aipatu eta helarazirik. Epistola inprimatu horren lehen orria erreproduzitzen dut artikuluan. Azpimarratzekoak dira orrialde horretan humanismoaren seinaleak. Adibidez, liburuaren omnipresentzia, ikasketa eruditoez egiten den alusioa, idazlearen eszenifikatzea, tipografia erromatarra eta 'C' letra apainduaren elegantzia.

berdinaren arabera dituela “Contrapas eta “Sautrela” idatzi, liburu osoa duelarik perspektiban, ohartzekoak delarik *oray* denbora-adberbioaren indarra: (“orai” garai berriak dira bukatua baita liburua) eta inperatiboaren erabilpenak markatzen duelarik (“orai” manatzen ahal zaio euskararen itxura alegorikoari atera dadin kanpora —hots, inprimatua izan dadin— bukatua baita).

Autoreak eskaintza-epistolari ongi sailkatuak diren informazioak ematen dizkigu eskuizkribuak inprimatu aitzin eraman duen ibilbidearen ulertzeko preziatuak direnak:

1. *“igorten darauritzut heuscarazco coplabatzu ene ignoranciaren araura eguinac”*: Etxeparek eskuizkribua Bordelera doan posta-bidez edo Baionako portutik ateratzen den ontziz helarazi du eskuizkribua. Orainean idatzia izateak ageriarazten ahal du, besteak beste, postaz igorri pakete hori laguntzen zuen gutuna dela gero eskaintza-epistola bezala erabilia;
2. *“Ceren iauna hayec iqhussiric*: “ikus” hemen “irakurri”ren zentzuan erabilia da, irakurtze hau zuzenketan sartzen den prozesua da;
3. *“eta corregituric plazer duçun beçala”*: “hutsen” “zuzentzeak” gramatizazioaren prozesuan dela euskara frogatzen du. Hain zuzen, zeinu linguistikoa kontentzio bat delakoaren kontzientzia bada, hori Ernazimenduko pentsamendu karakteristiko delarik (Cerquigliani 2004: 53). Lehenago aipatu bezala, Rabelaisek ongi adierazten du kontzientzia hori dioelarik hizkuntzak ez direla “naturalak” baizik eta “instituzio arbitrarioak eta populuaren konbenientziak”. Nolabait euskararendako norma batzuk finkatuak daitezke bestela ez baitaiteke LVP-ren eskuizkribua “korregi”. Euskararen ortotipografiaz bada ideia bat. Toryk hartu erabakiak zabalduak dira. Hain zuzen, erabakia da euskararen grafia frantsesaren grafia bezala latinaren arabera moldatu behar dela latina aspalditik finkatua den (gramatizatua den) hizkuntza delako,<sup>109</sup> eta ahoskeratik deduzitu behar dela eskritura “foniarekin den harremana unibokoa bilakaraiz” (Cerquigliani);<sup>110</sup>
4. *“irudi baçautzu inprimi eraci diçaçun eta çure escutic oroc dugum (sic) ioya ederra Imprimituric euskara orano içañ eztena”*: euskararen ortotipografiaz Lehet dateke arduratzen inprimategiko jendearekin (“inprimi eraci deçaçun...”-“çure escutic oroc...”); “irudi baçautzu” *topos modestiae*-a izan daiteke, zeren itxura guzieren arabera LVP-ren inprimazteko erabakia Etxepare-Lehet-en artean aurretik erabakia den gauza da; “ioya ederra”-k hizkuntzaren estetika materialera igortzen gaitu (“Imprimituric euskara orano içañ eztena” zatiak ongi frogatzen du euskararen etikotasuna ez dela pentsa daitekeen bezala abstraktutasun huts bat). Hizkuntza gauza “ederra” eta “preziatua” izan dadin inportantea da ortotipografian (ikus Tory). Inprimatze karaktere erromatar tinta, orri antolakuntza, hitzen mozteko ala ez mozteko moldea, abrebizazioa, zeinu diakritikoa, puntuazioa, azentuazioa, etab. elementu material horiek dute egi-

<sup>109</sup> Ikus, osagarri bezala, Leizarraga, «Hevscaldvnei» in *Iesus Chist Gure Iavnaren Testamentv Berria* [1571, 1900] 1990: 254).

<sup>110</sup> «les années 1530 voient l'équipement progressif de la langue française en traités et manuels; quelques innovations».

- ten ortotipografia, erran nahi da hizkuntzak *begia hunkitzen* duela, *gorpuztu dela*, inprimatzearen bidez. Inprimatzeak du hizkuntza apaintzen.
5. “*eta çure hatse honetic dadin aitzinerat augmenta continua eta publica mundu gucietara*”: subordinatu honen ekibalenteak dira ondotik heldu den “eta ginendire nec güero duten causa oboro haren [“çure hatse honetic”] abançatzeo”] eta *LVP*-ren bukaeran den azken latinezko epigrafoa “*Debile principivm melior/fortuna seqvatvr*”. Lehetek lehen aldiz inprimarazten duen euskarazko liburuarekin (“çure hatse honetic”) inprimatze prozedura geroari buruz irekitzen da etorkizunean jinen diren beste euskarazko testuendako. Hemen ere agertzen da badakitela Etxeparek eta Lehetek herri-hizkuntzaren bizitzea “populuen konbenentzia” dela, modernitatean sarturik egon nahi badu euskarak hautu kulturalak eta instituzionalak egin beharko direla modu kolektiboan. Badakite *LVP* lan pioneroa dela orainean (*oray*), eta gerorako. Gerorako desiratzen denak pisu berezia hartzen du hiru subjuntiboen presentziarekin “*dadin aitzinerat augmenta*”, “[*dadin*] *continua*” “[*dadin*] *publica*”. Anitz aldiz bederen errepikatua delarik ideia bera (azken epigrafoak dioena eta “*Contrapas*” eta “*Sautrela*” kontuan hartuz): autoreak idatzi duenari (aipamen hori hemen *topos modestiaez* gordetzen du autoreak berak), eta Lehetek inprimarazi duenari segida eman beharko zaio anplifikatuz (anplifikazioaren figura erretorikoaren eta klimaxaren erabilpenekin): “*dadin augmenta*”, normalizazio linguistikoari esker, gramatizazioari esker euskarazko obren presentzia inprimatua sustatu behar da geldigabe lan kolektiboari esker (hirugarren pertsona pluralak dudarik ez du uzten: “ginendire nec güero”), etorkizunean (“*aitzinerat*”) idazte-inprimatze-publikatze ekintza etenik gabe eramanez (“[*dadin*] *continua*”) “*mundu gucietara*” publikatzeko. Gradazio horren bidez subjuntiboan diren hiru aditzek Etxepare-Lehetek euskararendako pentsatua duten programa humanista zaigu hemen erakutsia. Anplifikazio maximal horrekin da bukatzen euskararendako Etxeparek eskaintza-epistolaren elaboratua duen programa linguistikoa. Gero, pietate-formula heldu da epistolaren zerratzeko: “*eta obligatu guiren guciac geyncoari othoyz eguitera dizum (sic) mundu honeten (sic) prosperoqui vicia eta bercian parabiçuya, Amen*”.

\* \* \*

Etxepare, itxura guzien arabera, *LVP* idatzi aitzin Lehetekin euskararen gramatizazioaz gogoetatzen hasia zen ortotipografiatzen protokoloen eraikitzeo. Beharbada Etxeparek, Leheten bidez, Bordeleko Guyenako Kolegioaren inguruko eta Parlamentuko sare humanistikoarekin harreman intelektualak bazituen. Bestalde, Condé printze kalbinistaren liburutegitik heldu den *unicum*-a dela kontsideratuz, pentsa daiteke “*Nafarroa Berri*”-ko gortean ezaguna zela liburua bederen, eta beharbada autorea.

Dena den, peritestualitatean oinarritzko lekua duen Eskaintza-epistolak, konfirmatzen du Etxepare ez zela zoko batean isolatua, *LVP* komunikazio baten fruitu dela eta modernitate osoaren lekukoa dela. Argi da humanismoak hunkituak zituen goi mailako aristokratek, “*Prince eta iaun handi*”-ek (“*Sautrela*”) sustatzen zuten frantse-saren gramatizazioaren urratsak hartu direla etsenplutzat *LVP*-ren inprimatzeko ore-

nean. “Contrapas”-ean Etxeparek dio: “Eceyn ere lengoagerik / Ez francesa [AASen etzanak] ez berce ric”.

Eskaintza epistolak *LVP*-ren inprimatze aitzineko urratsen berri ematen digu. Bereziki, testu inprimatuaren aitzin-testuaren mugimenduen berri. Ikusi da zirriborroak egin bidaia geografikoaren lekukotasun bakarra eskaintza epistolan dela aurkitzen.

Ez ote da *LVP*en hasten den euskararen gramatizazioa gizaldi bat geroago 1571ean segitzen eta zabaltzen Haultin-en prentsetan, Leizarragaren itzulpenekin, karaktere tipografiko erromatar kapital eta minuskulei, italikoa (etzana) eta azentu tipografikoak euskal hitzei gehitzen zaizkielarik? Continuum bat ez ote daiteke ikus bi obren gramatizazioan? Ene ustez erantzuna baiezkoa da. Bestalde, hari ideologikoa hor da. XVI. mendearen lehen erdian zen erreforma mugimendua Lefèvre d’Etaples-ena, Margaritarena, erreformen aldekoa dena baina ez zismatikoa, 1571an arras erradikalizatu da. Margaritaren alaba Joana Labriten erregetzapean erreformak kalbinismoaren itxura du, Europan su pindarretan dira orduan bazterrak, “papisten” eta “protestanteen” arteko erlijio gerlak hasiak Frantzian. Louis I<sup>er</sup> de Bourbon Condé Frantziako kalbinisten zuzendaria, *LVP*-ren jabea, Joana Labritekin zegoen Errotxelan, Haultin han zelarik (eta Leizarraga?). Hipotesi bezala aitzina dezakegu Leizarragak ezagutzen zukeela urrundik hala hurbiletik *LVP*-ren esistentzia eta Joana Labritek berak, Condé printzea haren koinata zenez... Hain zuzen, Leizarragak Joana Labriti zuzentzen dion hitzaurrean den eranaldi lakoniko batean, Leizarragak beste inprimatze ekitaldi bat izan dela bere “traslazioa” aitzin, aditzera ematen du. Ene ustez ez da dudarik, kasu honetan, Leizarragak “scribatu”/”escrit” Etxeparek erabiltzen duen zentzuan duela erabiltzen: inprimatzeaz ari dela:

cembatez nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetarie eta diuersenetarie: eta oraino, *tráslationetá behinçat*, vsatu gabea. (Leizarraga [1571; 1900] 1990: 252)

que la langue en laquelle i’ay escrit est des plus steriles & diuerses, & du tout inusitee, *pour le moins en traduction*. (ib 246)

Argi da Etxepare ez dela nehondikan ere “herrikoia”. Arras erraturik ibili zela, —etsenplu bat hautatzeko beste anitzetan—, Aristimuño zioelarik, neo-erromantiko-tasunez betea den iritzi honekin:

Ni la inspiración, ni el ropaje de las poesías son dignas del ideal que canta. Aquella pobre, éste tosco. Pero late el alma de un enamorado en esas humildes composiciones. Es por eso, precisamente, por lo que apreciamos los sencillos versos de Etxepare (Aristimuño 1933: 17).

“Sencillos versos” dio Aristimuñok. Letragabearen zentzua ematen bazaio “sencillo” adjektiboari, erran daiteke arrunt kontrazentzuan zebilela, eta hain zuzen “sencillo” “ximple”-ren zentzuan erabili behar baldin bada Etxepareengan, humanismoaren eta ebangelismoaren seinale bezala behar dela ikusi, eta jarrera linguistiko hori garaiko Akitaniako giro errefinatuenetarik heldu dena dela, euskararen gramatizazioaren seinalea dela. Hori da hemen zabaldu nahi izan dudana hipotesia.

Frantziako, Akitaniako, eta Nafarroako erreinuetako humanistek eta haien inguruan ziren letratuek, Europako edozein humanistak bezala, liburuaren ikustera heltzen baziren, ulert zezaketen istantean, herri-hizkuntza horretan gramatizazioa-

ren seinale argiak bazirela, liburua bera zeinuen ekarle zelako bere materialtasu-nean. Uler zezaketen berehala liburuaren titulua eta azken epigrafoa irakurriz, grabatu kristikoa eta tipografia mota ikusiz, ideologikoki eta kulturalki non eta nola kokatzen zen. Hots, *christiana simplicitas*-arekin bazuela zer ikus. Frantziako eban-gelisten artetik jalgia zela eta pentsa daiteke beharbada Condé printzeak LVP bere liburutegian zuela, hain zuzen bazekielako filosofia ebangelista iturritik heldu zela.

Aristimuñok aipatzen duen neurtitzen «xinpletasuna», Lafonek beste modu ba-tez espresatzen du «monotonia» aipatuz; ordea, Lafon konturatzen da anakronismoz duela gaurko irakurleak inpresio faltsu hori (ik. Orpustan 1996: 32-33 ere). Etxepa-রেরen koplak «arte seguru»-aren lekuko direla, hizkuntzaren jabe den poeta dela, eta beraz letratu fina:

Si la suite de ces vers qui presque jamais n'enjambent les uns sur les autres pro-duit au premier abord une impression de monotonie, on s'aperçoit vite qu'un art déjà sûr préside à leur composition et à leur mise en place. Le poète utilise avec adresse les procédés variés, anciens ou plus récents, que la langue lui offrait (Lafon [1951] 1999: 756).

Mitxelenak azpimarratu izan du Etxepareren obra gehienik ikertuenetarik dela idazle klasikoetan (Altunaren 1979ko hitzaurrean), baina ene ustez, hori egia baldin bada ere, bizkitartean ausarta ninteke aitzinatzeraz paradoxalki gutienik “irakurria” den testua dela *Linguae Vasconum Primitiae*, eta gutienik ulertua haren sortzea posible egin zuen ingurugiroa. Etxepareren obra euskal kritikaren anakronismoaren biktima da, dudarik gabe.

## Bibliografia

- Akesolo, L., 1968, *Bernat Dechepare, Olerkiak*, Txertoa, Donostia.
- Aldekoa, I., 2008, *Euskal literaturaren historia*, Erein, Donostia.
- Altuna, F. M., 1979, *Versificación de Dechepare, Métrica y pronunciación*, Mensajero, Bilbo.
- , 1979, *Etxepareren hiztegia, Lexicón dechepariano*, Mensajero, Bilbo.
- , 1980, *Linguae vasconum primitiae (Edizio Kritikoa)*, Patxi Altunak paratua, Mensajero, Bilbo.
- , 1981, «Etxepare herri poeta», in ZZEE, *Euskal linguistika eta literatura bide berriak*. Deustuko Unibertsitatea, Deustu: 321-341.
- Arcocha-Scarcia, A. (Arkotxa, A.), 1996, «Bernat Etxeparekoaren maitasunezko kopletaz», *Sancho el Sabio* 6, 211-234.
- , 2001, «Deux imprimeurs rochelais du xvii<sup>e</sup> siècle: Pierre Haultin imprimeur du *Testamentu Berria* (1571) traduit par Jean de Liçarrague, et Jean Portau, imprimeur de l'édition 1579 des *Voyages aventureux du capitaine-pilote Martin de Hoyarsabal de Cibouze*», Eusko Ikaskuntza, «Lankidetzan bilduma», Donostia, 53-83.
- & B. Oyharçabal, 2008, «Siglo xvi. Las primicias de las letras vascas», in *Historia de la literatura vasca*, [www.http://basqueliterature.com](http://basqueliterature.com)
- Aritzimuño, J. (de), 1933, «El primer renacentista y poeta euskeldun», *Yakintza* 1, X 13-20.
- Baranova, T., 2002, «Le discours anti-tyrannique dans la France d'Henri II: un des sens multiples du Pasquille sur la rébellion de Bordeaux et la conduite du connétable (1548)», <http://www.persee.fr/web/revues/>

- Beaulieu, E., 1537, *Les Diverz rapportz contenantz plusieurs Rondeaux, Huictains, Dixains, Ballades, Chansons, Epistres, Epitaphes et aultres joyeusetez*, Le tot composé par M. E. de Beaulieu, On les vend à Paris en la rue neufue nostre Dame à l'enseigne de l'escu de France, Par Alain lotrian.
- Blasselle, B., 1998, *À pleines pages, Histoire du livre, Volume I*, Découvertes Gallimard, Paris.
Fidagarritasun maila handiko lekukotasunak dira. Noski, kronologiaren eragina hartu beharko litzateke kontuan, hau da, besteak beste, *Erbaltasuna* Etxeberriari esleitzeak egia izateko probabilitate handiago du Harizmendiri *Berasca* baino, zeren Pouvreauk azken hori hartu ahal baitzezakeen esate baterako, Etxeberriaren *Egunerozco*-tik, edo Arginaratzen *Avisu...* liburutik.

— «*Gainerako erabiltzaileak*» multzoaren ondoko azpimultzoak

a) Pouvreau gainerako erabiltzaile bakar gisa agertzen denean, esaterako:

*Bada eta ezpada*

Axularrez gain (Ax., 197), Pouvreau agertzen da lokuzio horren gainerako erabiltzaile bakar gisa. Hemen ia ziurtzat jo dezakegu Pouvreauk Axularri kopiatu ziola.

b) Pouvreauz gain gainerako erabiltzaile guztiak 1666az geroztikoak direnean, adibidez:

*Beguiramendua:*

Etxeberriaz gain Pouvreau, J. B. Agirre, Lardizabal, eta Larreko izan dira termino horren erabiltzaileak.

c) gainerako erabiltzaile guztiak 1666az geroztikoak direnean, esate baterako:

*Bere presunaz*

Axularrez gain (Ax. 380), Etxeberri Sarakoak eta Larregik erabili zuten.

2) *Fidagarritasun maila ertainekoak (aurrerantzean FEL)*

— «Erabiltzaile bakarra» azpimultzokoak. Adibidez, azterketa denbora tartean *Iurgoa* soilik Leizarragak (*Othoitz*, 1288) erabili zuen.

Fidagarritasun maila ertaineko lekukotasunak dira. Izan ere, erabiltzaile bakarra izateak ez du esan nahi, ezinbestean, Pouvreuren iturria denik. Esate baterako, Harizmendi *Laquetgarria* terminoaren erabiltzaile bakar bezala agertzen da, baina Pouvreauk gorago esan dugun bezala gaur egun galdutako testuren batetik hartu ahal izan zuen.<sup>9</sup>

3) *Fidagarritasun maila apalekoak (aurrerantzean FAL)*

— «Gainerako erabiltzaileak» multzoko «azterketaren denbora tarteko beste autoreren bat da gainerako erabiltzaileen artean» azpimultzokoak. Esate baterako, *Egundainoticacoa* Etxeberri Ziburukoaz gain (*Manual* II, 14) Argainaratzek eta Duvoisinek erabili zuten. *Guibelatçaillea*: Etxeberriz gain Axular eta Pouvreau izan dira euskal literaturan hitz eratorri horren erabiltzaile bakarrak. *Behingoaz*: Leizarragaz gain, Etxeberri eta Axular izan dira gainerako erabiltzaileak. Horrelako kasuetan, oso zaila gertatzen da aipu horiek esleitzea beste irizpiderik gabe.

— «Ondorengo erabiltzaileak» azpimultzoko lekukotasun guztiak. Adibidez, *Aihercundea* Leizarragaz gain (*Regueri*, 1356) Etxeberri Ziburukoak, Haranburuk, eta Axularrek baliatu zuten.

FAL motako lekukotasunak fidagarritasun maila apalekoak dira, zeren eta ez da erraza jakitea zein izan ote zen Pouvreuren benetako iturria. Kontuan hartu behar dugu azterketaren denbora tarteko idazlan gehienak erlijiosoak direla, eta horrenbestez, gauza normala lirudike idazleek hitz eta aipu berak edo berdintsuak erabiltzea. Gainera, badakigu idazle batzuek beste zenbaiten idazlanen aprobatzaile gisa jardun zutela bai eta hainbatetan haietariko baten goraiapmena egin ere. Esate baterako, Axular Materrenen eta Etxeberri Ziburukoaren idazlanen eliza oneslea izan zen, Argainaratzek akrostiko bat eskaini zion *Noelac* liburuan Etxeberriri, Harizmendik ere poesia bat idatzi zuen *Debo-cino escurra* liburuan Haranbururen laudoriotan, etab. Horrek ere erraztu ahal lezake termino zenbait elkarri kopiatzea.

2.3.1.2. *Lekukotasunak esleitzeko erabilitako irizpideak*

Aurreko azpiatalean ikusitako lekukotasunen mailakatzek agerian uzten du delako lekukotasun batek iturri anitzetan jatorria izan ahal izateak dakarren auzia. Horrelakoetan, eta soilik corpora antolatzeke asmotan delako lekukotasun hori kronologikoki lehenbiziko iturriaren taulan jarri dugu, aipatuz orobat azterketa denbora tartean zein izan diren gainerako iturriak. Adibidez, *Çure favorearequin batean*, Materrenen taulan jarri dugu, aipatuz zein izan ziren ondorengo erabiltzaileak: Etxeberri Ziburukoa, Haranburu, eta Axular.

<sup>9</sup> Hala ere, esanguratsua da *Marfilla*-ren kasua. Izan ere, FEL da Etxeberririk bakarrik erabili zuelako, baina, Pouvreauk Oihenarti «27 juin 1665» data duen bidalitako eskuizkribu batean «Du dictionnaire du Sr. Etcheuerri et autres» atalean (Urquijo 1909: 515) *marfilla* agertzen da, hots, FEL izatetik FHL bihur liteke.



Hala ere, batzuetan, zenbait irizpidek ahalbidetzen du esleitzea nolabaiteko ziurtasunez egitea:

#### A) Iturriekiko koherentzia

Badirudi Pouvreauk koherentzia apur bat gorde zuela delako sarrera bat idazle bakar baten lekukotasunen sortez betetzeko, hau da, lekukotasunak autorez autore biltzen zituela irakurketaren hurrenkeraren arabera. Esate baterako, *Berretcea* sarreraren agertzen dira *Berretura* A, *Berrexapena* H, *Berretçapena* O erreferentziadun lekukotasunak eta FHL-ak diren *Berretçaillea* (Etxeberri Z.) eta *Berretasuna* (Argainaratz). Orobat, *Çucia*, *haroa* sarrera Etxeberriren lekukotasunez bete zuen: *Fedearen çucia* (FHL, *Noelac*), *Leinburutsu çucia* (FHL, *Manual*) eta *Haroa* (FEL, *Eliçara*).

Irizpide hau hainbatetan eraginkorra izan daiteke ondoko adibideek adieraziko luketen bezala:

#### *Aldea*

*Aldea* sarrera Axular eta Haranbururenak bide diren erreferentziarik gabeko lokuzioz osatua da:

Axularrenak: *Aitcin aldea* (FHL); *Aldez damu*, *aldez atsequin* (FHL); *Alde çaquitça* (FHL); *Etsaiari alderatcea* (FHL); eta *Alde guztiz conplitua* (FAL).

Haranbururenak: *aldez edo moldez* (FAL). Haranbururen ondoren, kronologikoki, Axularrek erabili zuen.

Kontuan hartuz, zazpi lokuzio Axularrenak direla, eta gainerakoa Haranburuz gain Axularrek erabili zuela, errazena eta logikoena guztiak Axularri esleitzea izango litzateke.

#### *Aisea*

*Aisequi* (FAL) bai Etxeberri bai Axularrek erabili zuten; berriz, *Aisetasuna* (FHL) Axularri dagokio.

Beraz, koherentziaz, pentsa liteke Pouvreauk bi azpisarrerak Axularrengandik hartu zituela.

#### *Alcifrea*

*Alcifrea* (FAL) sarrera burua Etxeberri erabili zuen, eta geroztik, gainerako erabiltzaile bakarra Harizmendi izan da. Berriz, *Alcifredia* (FHL) Etxeberriena da.

Ondorioz, probabilitaterik handienaz Pouvreauk sarrera burua eta azpisarrera Etxeberrirengandik hartu zituen.

#### *Arraya*

*Arrayatasuna* (FAL) Etxeberri gain Axular eta Harizmendi izan ziren erabiltzaileak azterketa denbora tartean. *Arraiqui* (FAL) Etxeberri gain Axularrek erabili zuen, eta *Arraitsua* (FHL) Etxeberri dagokio. Logikoena izango litzateke Pouvreauk azpisarrera guztiak Etxeberrirengandik hartzea.

#### *Hotza*

Sarrera horretan Pouvreauk Axularren ondoko balizko lekukotasunak sartzen ditu: *Hotz da* (FHL), *Hotzberatcea* (FHL), *Hotzqui* (FHL). Horietaz gain, *Hotzatasuna* (FAL) lehendabizi Materrek eta gero Axularrek erabilia.

Beraz, badirudi Pouvreauk lekukotasun horiek guztiak Axularrengandik hartu zituela.

*Ifernua*

*Ifernucio sua* (FEL) eta *Ifernuraco da* (FHL) aipuen erabiltzaile bakarra Axular da; berriz, *Ifernuratcea* (FAL) aditzaren erabiltzaileak euskal literaturan Etxeberri, Axular, Argainaratz, eta Duvoisin izan dira. Ondorioz, ematen du Povreauk Axularrengandik hartuko lituzkeela.

*Mendea*

*Mendez mende* (FAL) Haranburuk erabili zuen lehen aldiz, Axular, Harizmendi eta Argainaratz izanik «Ondorengo erabiltzaileak».

*Ez gara bi mendetaco* (FHNL) Axularren aipu bat da.

Horren arabera, ematen du Axular izan zela Povreauren iturria, zeren bi aipuen erabiltzaile agertzen baitzaigu.

*Ona*

Sarrera honetan literatur lekukotasunen bat duten azpisarreraren artean ondokoak agertzen dira: Axularren *Onguien dena ere on behar da* (FHNL) eta *Ongueguia* (FHL); Beriainen *Ongui eguitea* (FAL); Materreren *Ongui eguillea* (FAL).

Beriainen eta Materreren aipuen «Ondorengo erabiltzaileak» Axular izan zen. Horren arabera, badirudi Axular izango litzatekeela azken bi aipu horien iturria. Gainera, kasu honetan esan daiteke hori egiaztatua geratzen dela, kontuan hartuz, Povreauk bere hiztegian hurrenkeran jarri zituela lau aipuak, alegia, liburu berberetik hartu balitu bezala.

*Primeça*

*Primeça* (FAL) hitzaz Leizarraga baliatu zen lehenengo aldiz, Etxeberri, Harizmendi eta Argainaratz «Ondorengo erabiltzaileak» izanik. Berriz, *Primeçaz* (FAL) Etxeberriz bestalde, Argainaratz eta Goietxe izan dira «Gainerako erabiltzaileak». Azkenik, *Primeçazcoa* (FHL) Etxeberrirena da.

Beraz, logikoena da, hala *primeça* nola *primeçaz* Etxeberriri esleitzea.

*Valiatcea*

*Valio du* (FAL) Leizarragak eta Axularrek baliatu zuten.

*Guti valioa* (FAL) Etxeberrik, Axularrek, eta Tartasek erabili zuten.

*Valiosa* hitzaz (FAL) Leizarragaz gain, Etxeberri, Haranburu, Axular eta Harizmendi baliatu ziren.

Balitzko lekukotasun horiez bestalde, A. laburdura duen hitz bat agertzen da: «*Valiostasuna* A. 136». Hau da, ematen du Axular izan zela lekukotasun guztien iturburua.

B) *Lekukotasunen arteko hurbiltasunaren irizpidea*

Koherentzia irizpidearen kasu berezitat har daiteke. J. Lakarrak irizpide horren aurrekari bat ezarri zuen Larramendiren *Hiztegi Hirukoitzeko Eranskina*-ren iturriak aztertzerakoan, literatur iturrien aurretik hiztegi iturrien lehentasuna aldarrikatu zue-nean:

[...] Nabarmena iruditzen zait honelakoetan hiztegi batek edozein testuren aitzinean duen azalpen botere handiagoa; hara segidan adibide bat edo beste:

370. Libertad, *escudancia*, *lchoa*

Ax. 143 lehendabizikoarentzat eta Ax. 43 (baina adj.) aurkezten ditu M-k. Bi berbak ziren Ax-ek erabilien artean (bigarrena baita Leiz., Chourio, Etx. Zib., Etx. Sar.,

Pouv., Materre zein Gazteluzarrenetan ere) eta, beraz, L-k bere E-rako eskuragai zitu-  
tuen; halere nahiago dut H «liberté, *escudencia*»; «il a pris la liberté, *escudencia hartu du*;  
«libre, *lachoa*; il est en liberté, *lachoa da*». *Ohar bedi jarraian direla hitzok oro H-engan, hartzaileak mantentzen duen batasunen* (Lakarra 1994: 60) (Etzana gurea da).

Irizpide hori literatur lekukotasunak esleitzean erabiltzeko oinarritzen gara Pou-  
vreaux testuetan pasarte berekoak edo elkarren artean hurbil diren erreferentziadun  
lekukotasunak jasotzeko zuen joeran, eta, erreferentziarik gabeko balizko lekukotasu-  
nen iturriak identifikatzeko extrapolatu dugu.

Joera horren adibiderik paradigmaticoenak Axularrengan aurkitzen dira, ondo-  
koak besteak beste:

*Bethacorra (Bethatcea), Çuhaitz bethacorra (Çuhaitza), çuhaitz alferra, fauna, hu-  
tsa (Fauna) < Ax. 38, 22., «çuhaitz bethacorra, eztu nehor ebaquitcen. Baiña, alferra,  
fauna...»*

*Enganatic (Enganatcea), Erdizcatcea (Erdia) < Ax. 169, 22., «Guiçon gaixto odol-  
isurle, guerlati, maliciati, eta enganatic, ezituzte bere egunac erdizcatuco...»*

*Erremental deguiian (Errementa), Harotzaren suteguiian (Harotza) < Ax. 325,  
10. Erremental deguiian, harotzaren suteguiian*

*Edateco (Edalea), Edateco kurca guztietan (Kurtcea) < Ax. 342, 12. «Bertce hegasti-  
nac edateco curca guztietan»*

Beste autore batzuegandik lekukotasun hurbilak jasotzeko joera bera ere ager-  
tzen da:

Etxeberrirengandik:

*Suac eguitentu çarçoac eta mortuco chirripac gurguraia <E. p.19> (Çarçoa), Mortuco  
chirripac eguiten du gurguraia, <E> (Gurguraia) < Etx. (Manual II, 17), «Suac ere ha-  
rengatic eguitentic çarçoac, Bai halaber gurguraia chirripa mortucoac»*

Haranbururengandik:

*«Murmuriça H. 66»; «Nasaitasuna H. 66»; «Iondone laurendi casacaldua H. 76»;  
«Laur çaldiz catratua H. 76»; «Çornez eta sarnez maldatua H. 77».*

Leizarragarengandik:

Apostol. Acteac-en XVI. kapitulutik ateratako *Ezbalimba (37)* eta *Eyec congit  
guiçon horiey (38)*

Askotan, Pouvreaux hiztegian pasarte beretik jasotako erreferentziadun eta erre-  
ferentziarik gabeko lekukotasunak aurkitzen dira:

Axularrengandik:

*ez behin ere (FAL); amore emaita A. 292 ; Amainatcea A. 292 < Ax. 292. «eta ez  
behin ere amoreric eman eta ez amaiñatu ».*

*Eztut deusen escasic, eztut guerocoen perilic A. 75; Ethorquiçunecotçat» (FHL), < Ax.  
75: Orai atseguin har deçadan, ian deçadan, edan deçadan, ceren berdin eztut deusen es-  
casic, eztut guerocoren perilic, badut ethorquiçunecotçat beharden complimendu guztia.*

*Eritoquitcea* (FHL); *Incirinatsua* A. 250» < Ax. 250 «*Nola gure lehenbico aita harc, gure naturaleça haur, bere beccatuaz narriatu, arraçatu, eta eritoquitu baitçuen, handic gara hain arrencuratsu, incirinatsu, eta on behar.*

#### Etxeberrirengandik:

*Charho biztagarriak*, <E> (*Charhoa*); *Chauqui* (FAL), (*Chaua*); *Arrain iguelduria* (FHL), (*Arrain*) < Etx. *Manual*, 1. 88, «*Claro berce Ceruaren charho bistagarriac, [...], Ceña presentatcen baita chauqui mahañean. Vrean ere ezta içanen arrain iguelduriric...*»

#### Leizarragarengandik:

*Fedetic erauzgarri eta aldaragarri bat* (FHL), (*Erautstea*); *Eritheitcea* conf. 24); *Ezeztaçalea*, *Liz. Confes.* 23 < Leiz. *Fedeco Confessionea*, 1367, «*...neboren erauz eta aldaragarri baicen. Eta halaber [...] ezeztaçale beçala, [...] fundamentic gabe eritheitzebat...*»

*Cossiratcea*, *Liz*; *Deabruaren iauquimenduez* (FHL) (*Iauquitea*) < Leiz. *Othoitz Ecclesiasticoen Forma*, 1291, «*... haren escuaz afflictionez visitatzen eta cossiratzen denean du, [...], nola deabruaren iauquimenduez...*».

#### Horrenbestez, irizpide hori erabilgarria izan daiteke zenbaitetan:

— *Lekukotasun bat esleitzerakoan iturri anitzen artean*

*Guciarequin ere* (FAL)

Berriain izan zen aditzondo horretaz baliatu zen lehendabizikoa, eta «Ondorengo erabiltzailea» Haranburu izan zen.

Kontua da, Haranburuk pasarte berean erabili zituela *Guciarequin ere* eta Leizarragaz gain azterketaren denbora tartean berak bakarrik baliatu zuen *Artheguia* (FAL): *baina guciarequin ere ceure pietate gatic arçain onac beçala ni ardi errebelatua ceure artheguian sar naçaçu* (*Deb.* 1635: 186).

Horren arabera, Pouvreaurentzat errazena izango zen *guciarequin ere*, eta *artheguia* aldi berean Haranbururengandik ateratzea.

*Heyagora, oyua*

Sarrera honetan Pouvreauk *Heyagora*-ren euskarri bezala, Oihenarten pr. 528 sartzen du. Berriz, Corpus Arakatzaiaren arabera *Heyagora*-ren lehenbiziko erabiltzailea Leizarraga izan zen, baina, Axularren aipu batean: «*oihuz, heiagoraz*» biltzen da (*Ax*, 517), horrenbestez, Axularri esleitu beharko genioke.

*Naguiia*

*Naguitasuna* (FAL) Materrez gain Etxeberri, Haranburuk eta Axularrek erabili zuten; *Naguiqui* (FHL) Axularrez gain Duhalde eta Duvoisinek erabilia izan da.

Gertatzen dena da, Axularren ondoko aipuan biak batera agertzen direla: *Hasuiñac significatcen du naguitasun, baldin malguqui, leunqui, emequi, naguiqui eta balacuz beçala hazcatcen* (*Ax*. 41)

Hortik, errazena izango litzateke bi eratorriak Axularrengandik etortzea.

*Notha, cutsua*

*Nothatcea, cutsatcea* azpisarrera konplexu honetako *nothatcea*-ren lehenengo erabiltzailea Materre izan zen Etxeberri, Haranburu eta Axular direlarik «Ondorengo erabiltzaileak»; *cutsatcea* (FAL) Haranburuz gain, Etxeberri, Axular eta Harizmendik erabili zuten.

Alabaina, Axularrek bi hitzak biltzen diren pasarte bat idatzi zuen: *eta bertce guz-tiec ez tutelala hala desbistatcen eta ez bere ohorean nothatcen nola emaztequin ibiltceac eta cutsatceac* (Ax. 362). Ondorioz, Pouvreaurentzat errazena izango litzateke bi aldaerak Axularrengandik ateratzea.

*Plegua* (FAL), *berenez* (FAL)

Bi terminoak Haranburuk eta Axularrek erabiliak ziren. Baina Haranburuk biak pasarte berebanean erabili zituen: *bataz barurcea berenez guça* [sic] *ona baita eta berceaz guerocotz ere goizdanic plegu ona harceac hainitz valio baita* (Deb. 1635: 175) logikoena da pentsatzea Pouvreauk pasarte honetatik hartu zituela.

*Perfccionea*

*Perfeta* hitzaz (FAL), Etxeberri, Haranburu, Harizmendi eta Argainaratz baliatu ziren. Baina, Haranburuk *Perfeta*, *Perfetuqui* (FHL) biltzen duen pasarte bat idatzi zuen: *ceren eta perfetac perfetuqui behar bailuque cervitçatu* (Deb. 1635: 205). Horrenbestez, ematen du Haranburu izan zela Pouvreauren iturria.

*Sequeretua* (FAL)

Hitz hau euskal literaturaren historian Haranburuk, Axularrek, Pouvreauk, Etxeberri Sarakoak eta Decreptek erabili zuten. Pouvreauren iturritzat Haranburu jotzea ahalbidetzen du, Haranbururen pasarte berebanean bi lekukotasun aurkitzeak. Izan ere, *cofesiotic lekhora lekhu sequeretu baten iar çaittea* pasartean (Deb. 1635: 154) *cofesiotic lekhora* (FHL) eta *sequeretu* aurkitzen dira, beraz, errazena izango litzateke Pouvreauk aldi berean bi aipu txikiak hartzea.

— *Iturri bakar baten lekukotasunen fidagarritasun maila indartzeko*

*Nabicaria, Satsuia*

Corpus Arakatzaillean begiratu gero aurkitzen dugu Etxeparek *Nabicari* (FEL) eta *Saxuia* (FHL) idatzi zituela *Amorosen gaztiguya*-ren 13. ahapaldiko bertso berebanean:

*Andre honac vqhen dici ederretan gracia*  
*Ehorc hura gayxteriaz ecin leçan inbia*  
*Bana vistaz hilcençuyen nabicari saxuia*  
*Figuraren eqhustiaz daquiqueçu eguia.*

Horrek indartuko lituzke *Nabicari* eta *Satsuia*-ren fidagarritasun maila

*Herexa, Ugaz aita*

*Herecha* (FEL) azterketaren denbora tartean soilik Tartasek erabili zuen, *Ugazaita* (FHL) Tartasez landa Mogel izan da gainerako erabiltzaile bakarra euskal literaturan zehar. Bi lekukotasun horiek *Onsa hilceco bidia*-ren 1. orrialdean hiru lerroz banatuak dira:

*Çure aippamena ohoratuda orotan ongui gin da baina ené soldadoac placer baduçu iarraiqui haren batçari, haren herechari [...] Ené soldadoa eztu oraino bathe-yatu, haren vgazaita behar duçu içain placer baduçu* (Tartas 1666: 1).

Irizpide honen aplikazioan arazoak sortzen dira delako hurbiltasun hori bi iturritan gertatzen denean. Esate baterako, Etxepare da *Hiretaco* (FAL), *Guerthez* (FAL), eta *Mesura* (FAL) lekukotasunen lehenbiziko erabiltzailea. Hirurak *Amore gogorraren despita*-ren 10. eta 11. ahapaldietan aurkitzen dira. Beraz, hurbiltasunaren irizpidearen arabera errazena izango litzateke hirurak Etxepareri esleitzea. Hala ere, *Trebuca-*

*tcea* (FHL) soilik Leizarragak erabilia, *Escu escuina* (FAL) Leizarragaz gain Haranburuk erabilia, eta *Hiretaco* Leizarragaren *Testamentu Berria*-ren S.Matt. V30.ean agertzen dira: *Eta baldin escu escuina trebuca eraciten bahau [...] ecen hobe duc hiretaco...* Horrenbestez, zeini esleitu *Hiretaco*? Gure ustez, kasu honetan ia dudarik gabe Leizarragari, kontuan hartzen badugu, lekukotasunen ehunekoan arabera, Leizarraga ~%22z Pouvreauren iturri nagusi bat dela, eta, ostera, Etxepare ~%1ez iturri txikia-goien artean sailkatu dugula. (ik. § 4.3.)

### C) Erraztasun maila iturrien testuen erabileran

Pouvreau euskaldunberri zelarik, erraztasunez, hiztegia prestatzen hasi zenean eskura ahal izan zituen euskal testuen artean berarentzat ulerterrazenak zirenak lehenetsi bide zituen, hots, itzulpenak. Ikuspuntu horretatik Leizarragaren *Testamentu Berria* izango litzateke erraztasun maila gorena zuena. Izan ere, apaiza zelarik «Vulgata»-ren edizioak latinez edota frantsesez, ezinbestean, ezagutu behar zituen, eta ezagutza horrek lagunduko bide zion Leizarragaren euskal terminoak ulertzen; orobat gertatzen da Oihenarten *Les Proverbes Basques*-ekin; Harizmendiren *Officioac* eta Beriainen testuak, nahiz zabaleraz edo garrantziaz askoz xumeagoak izan, maila berberetan izango liriateke.<sup>10</sup> Bigarren mailan izango liriateke Haranbururen 1635eko *Debocino*-a, Axularren *Gero*-a eta Tartasen *Onsa*,<sup>11</sup> Izan ere, *Debocino*-n Vulgatako *Çazpi Salmo Penitencialac* euskaratuak baitira, *Gero*-ren kapitulu bakoitzean jorratutako gaiarekin zerikusi duen Bibliatik edota eliza-autoritateen testuetarik jasotako latinezko pasarteren bat aurkitzen baita eta halaber gertatzen da *Onsa*-n. Gertakari horrek erraztuko lizkioke zenbaitetan testuen irakurketa eta ulergarritasuna. Mailakatzeko horretan hurrengo mailan Etxeberriren *Eliçara* eta hiztegi galdua, eta Harizmendik moldaturiko *Debocino*-ren edizioa izango liriateke. Izan ere, Etxeberriren hiztegi galdua euskara-latinezkoa bide zen arren, eta Etxeberriren *Eliçara*-ren eta Harizmendik moldatutako *Debocino*-ren edizioan *Çazpi Salmu Penitencialac* euskaratuak badira ere, antza denez, Pouvreauk zenbaitetan zailtasunak izan zituen euskal baliokideak ulertzeko. Kontua da, Pouvreauk Oihenarti eskatu ziola laguntza «D'Harismendi et du dictionnaire du Sr. Etcheuerri & autres» delako hitz zerrendaren hitzak azaltzeko (ik. § Etxagibel 2010), hau da, ematen du bi autoreen zenbait hitz ulertzeko zailtasunak izan zituela.<sup>12</sup> Azkenengo mailan kokatu beharko liriateke gainerako testuak, ale-

<sup>10</sup> Izan ere, Beriainen *Tratado* eta *Doctrina*-ren testuak euskara-gaztelaniaz idatziak dira zenbait latinezko aipurekin eta, dirudienez, Pouvreauk gaztelaniaz bazekien, Harizmendiren *Officioac* Vinsonen arabera frantsesezko «L' Office de la Vierge Marie»-ren itzulpena da.

<sup>11</sup> Tartasi dagokionez Pouvreauren hiztegian bada testuen erabilera-erraztasunaren aldetik *Onsa* bigarren mailan sailkatzeko adibide bat: «*Gutiche, gutixe*. Fort peu» azpisarrera. *Gutiche* FHL da euskal literaturan zehar soilik Tartasek erabilia eta agertzen den esaldia aldamenen duen latinezko aipu baten itzulpena da: «Minus est mala non agere. *Gutiché dela gaizquiric ez eguitia*» (*Onsa*, 74). Argi da kasu honetan Pouvreauk *Gutiché*-ren esanahia ulertzeko oso erraz zuela.

<sup>12</sup> Erraztasun mailakatzeko Etxeberriren *Eliçara* eta hiztegi galdua eta Harizmendiren testua maila horretan kokatzeko frogatzen da Pouvreauren jarrera desberdina ondoko adibideetan:

Etxeberriri dagokionez argi dago *Eliçara*-n diren *Çazpi Salmu Penitencialac* ezagutu eta erabili zituela. Izan ere, «*Hintz choria*. nycticorax» sarrera dudarik gabe Etxeberriren itzulpenetik jaso zuen: *Hala nola pelicano Tristea oihanera Edo hintz choria nola Ohatce urrunera < Similis factus sum pellicanus solitudinis; factum sum sicut nycticorax in domicilia (Psalm. 101, 7), Hintz choria* FHL da Etxeberriz gain

gia, euskara hutsez idatziak: Etxepareren *Linguae*, Etxeberriren *Manual* eta *Noelac*, Argainaratzen *Deuoten Breuiarioa* eta Materreren *Doctrina*.

Irizpide horren oinarria Pouvreauren joeran datza. Izan ere, badakigu Leizarragaren hainbat kasutan erreferentziadun lekukotasunen aldamenean dagozkien latinezko baliokideak agertzen direla, bai eta Axularren zenbaitetan ere, esate baterako:

Leizarragarenak:

- «*Maguinchac* Lu. 15, 16. siliquae»;
- «*Mihistoihalac*, Io, 19, 40. lintea»;
- «*Onhasuduna*, Lu, 18, . possessiones habens».

Axularrenak:

- «*Arraçadura urthatua*, A. 9. annosa passio (Ax. 93);
- «*Odol isurleec eztituzte bere egunac erdizcatuco*. A.164 viri sanguinum non dimidai-bunt dies suos«.

Irizpide honetaz zenbait lekukotasun esleiri liteke:

- «*Alea, aleguia, alleguia*. C'est ce qu'on dit en latin quasi vero, comme si, vrayement, voire»
- Alea* FAL da Haranburuk eta Axularrek erabilia, baina, Haranburuk latinetik euskaratu zuen bitartean Axularren kasuan ez da latinezko aipua:

---

soilik Aranbilagak erabilia euskal literaturan zehar. Halaber, «*Carraio bakarra*. passer solitarius» azpisarrera Salmu berbereko hurrengo ahapaldiari dagokio: *carraio bakarra nola Hegatztegui gorean* < sicut passer solitarius in tecto (*Psalm*, 101,8), baina, oraingo honetan Pouvreaux ez zuen ulertu «passer»-en baliokidea den Etxeberrik erabilitako *Carraio*-ren esanahia —ziurrenik, beheraxeago azaltzen dugunez, Haranburuk «passer» itzultzeko *Eliça choria* terminoa erabili zuelako— eta Oihenarti galdetu zion» D'Harismendi et du dictionnaire du Sr Etcheuerri & autres» hitz zerrendan (Urquijo 1909: 515) nahiz eta Oihenarten erantzuna O SP [du 30 May 1665]: «*Carraioa*. Charroy» hiztegian ez bildu.

Bestetik, ezaguna da Haranburuk 1635eko edizioiko *Çazpi Salmu Penitencialac*-en euskal itzulpena aldatu zuela bigarren edizioan bertotan jarritz (ik. § Etxagibel: 2010). Esate baterako «Tu autem Domine in aeternum permanes & memoriale tuum in generationem & generationem» (*Psalm*. 101, 15) Haranburuk 1635eko edizioan ondoko itzulpena eman zion: *Ordea çuc, iauna bethi estante batean irauten duçu: eta çure orhoitçapena generacinoz generacino* (Haranburu 1635: 341), berriz, bigarren edizioan ahapaldi bihurtu zuen: *Ordea çure cozçara / Ezta nidor edatcen / Berdin castaric castara / Ezpaita mudatcen [sic]* (Haranburu 1690: 206). Pouvreaux ez zituen ulertu ahapaldi horren lehenbiziko bi bertsoak —latinez baliokide zuzenak ez zituztelako— eta Oihenarti galdetu zion: *Çure crozçara ezta nihor hedatcen* (Urquijo, 1909: 507). Ondoren, Oihenarten azalpena: «*Çure crozçara ezta nihor hedazen*. Personne ne s'auance jusqu'a vostre conte ou mesure» (O SP [Du 30 May 1665]) bere hiztegian horrela bildu zuen: «*Çure crozçara ezta nihor hedatcen*. Personne ne s'auance iusqu'a vn compte ou mesure. O.». Halaber gertatzen da «Ne revoces me in dimidio dierum meorum: in generationem & generationem» (*Psalm*, 101, 25) latinezko esaldiaren moldaketa den *Bada duçun urricari, / Ene gazte flaqueça / Eta mende luçacari, / Iudaçu fortaleça* ahapaldian (Harizmendi 1690: 208). Pouvreaux *luçacari*-ren esanahia ulertu ez zuenez Oihenarti bidalitako eskuizkribu berebean galdetu zion (Urquijo 1909: 507). *Luçacaria* euskal literaturaren historian soilik Harizmendiren testuan agertzen da eta Pouvreauren hiztegian Oihenarten azalpenaz biltzen da: «*Luçacaria*. O. Longueur, lentitude, dilayement»

Ostera, «sicut passer solitarius in tecto» (*Psalm*. 101, 8) Haranburuk horrela euskaratu zuen 1635eko edizioan: *eta teilla gainean suelto dagoen eliça-choria beçalatu naiz* (Haranburu 1635: 340), berriz, bigarrenean *Eliza chori baccarrac / Hegatztegui nola* agertzen da (Harizmendi 1690: 205). Kasu honetan Pouvreaux ez zuen zailtasunik izan «tecto»-ren baliokidetzat *Hegatztegui* hartzeko. *Hegatztegui* FHL da eta Pouvreauren hiztegian *Hegatzina*-ren azpisarrera gisa agertzen da.

*Ordea nic alea ni gor ez nuen deus aditcen* (*Deb*: 1635, 329) < Ego autem tamquam surdus non audiebam (*Psalm*, 32, 14).<sup>13</sup>

Pouvreauk bere hiztegiaren «tamquam»-en ordez haren sinonimoa den «quasi vero» jaso zuen.

Halaber gertatzen da ondoko adibideetan:

«*Bahea*. sas, tamis, crible, van»

FAL da Leizarragak (*Mat*. III, 12) eta Etxeberriek baliatua. Pouvreauri errazena izango litzaioke Leizarragak itzulitako pasartea frantsesezko itzulpena edota latinezko jatorriarekin erkatzea:

*Bere bahea bere escuan du*  
il a son van en sa main.<sup>14</sup>  
cuyus ventilabrum in mamu sua

*Billuzgorria*

«Billuzgorritasuna. nudité»

FAL da Leizarragak (*Apoc*, III, 18) eta Materrek erabilia. Materren kasuan ez da latinezko aipua, berriz, Leizarragaren kasuan:

*aggueri eztençat hire billuzgorritasunaren laidoa*  
que la vergogne de ta nudité n'apparoisse point  
non appareat confusio nuditatis tuæ.

*Çamaria, çaldia*

«*Çamalduna, çalduna*. cavalier, homme de cheval».

*Çamalduna* FAL da Leizarragak (*Act*, XXIII, 32) eta Tartasek erabilia. Tartasen lekukotasuna den pasartean ez da latinezko aipurik, berriz, Leizarragaren kasuan:

*Eta biharamunean vtziric çamaldunac harequin loacencât.*  
Et le lendemain ayans laissé les hommes de cheval pour aller avec lui.  
Et postera die dimmisit equitibus.

*Gain*

«*Espata magina*. fourreau d'épée». Leizarragak (*Io*, XVIII, 11) eta Axularrek erabili zuten (*Ax*. 540, 570). Axularren lekukotasunak diren pasarteak ez dagozkie inolako latin aipuei, berriz, Leizarragaren kasuan:

*Erran cieçon bada Iesusec Pierrisi, Eçarrac cure ezpatá maguinán* (*Testamentu Berria*)

Jesus donc dit à Pierre, Remets ton espée au fourreau  
Dixit ergo Jesus Petro: Mitte gladium tuum in vaginam.

«*Herdoilla*. rouille. herrumbre»

*Herdoilla* FAL da Leizarragak (*Matt*, VI, 19) eta Haranburuk (*Deb*, 419) baliatua. Haranbururen lekukotasuna ez dagokio inolako latinezko aipuri, berriz, Leizarragarena:

*Eztitzaçuela eguin çuen thesaurac lurrean, non cerrenec eta herdoillac ezpaitu goastatzen*

<sup>13</sup> Latinezko pasarte hori eta hurrengo adibideetan direnak ere Van Ess-ek 1822an argitaratu zuen «Vulgata»ren 1590eko edizioari dagozkio.

<sup>14</sup> Frantsesezko pasarte hori eta hurrengo adibideetan direnak ere Pouvreauren garaian «Bible de Genève de 1669» Elzevier-ek argitaratutako edizioari dagozkio.



Ne vous ammassez-vous des tresors au ciel ou, ni la tigne ni la rouille ne gasten rien  
Nolite thesaurizare vobis thesaurus in terre, ubi aerugo et tinea demolitur .

#### D) *Lekukotasunen erabilera maiztasuna*

Batzuetan, irizpide hau baliagarria izan daiteke. Esate baterako, *Sentitcea* sarrerako *Senticorra* (FAL) azpisarrera Haranburuk eta Axularrek erabili zuten, baina Haranburuk aldi batez baliatu zuen bitartean, Axularrek hamasei aldiz erabili zuen. Horrek esan nahi du, Povreauk probabilitate gehiago izango zukeela Axularrengan aurkitzea, Haranbururengan baino. Halaber, gertatzen da hainbat adibidetan:

##### *Hastantcea*

*Hastandua* (FAL) Etxeberri 14 aldiz erabili zuen, berriz, Axularrek 1, Harizmendik 2 eta Argainaratzek 3. Beraz, probabilitate ikuspuntutik Etxeberri izango zen iturria.

##### *Chehero, cheheroqui*

*Chehero* Etxeberriren idazlanetan 6 aldiz agertzen den bitartean Axularren *Gero*-n behin bakarrik da. Bien arteko hein horren arabera Etxeberri izango zen iturria.

##### *Pentsatcea*

*Pensua* azpisarrerako (FAL) Axular eta Haranbururen arteko erabilera maiztasunaren heina 16:2 da.

##### *Sacramendua, sagaramendua*

*Sagaramendua* (FAL) Materrek 41 aldiz erabili zuela, eta hitz horren «Gainerako erabiltzaile» bakarra izan den Axularrek aldi bat. Horrenbestez, Povreauk bi idazle horietatik iturria izateko probabilitate gehien duena Materre da.

##### *Tarritacea*

*Tarritamendua* FAL da. Euskal literaturaren historian zehar Leizarragak 4 aldiz, Etxeberri aldi batez eta Povreauk aldi batez erabilian. Horrenbestez, arrazoizkoena izango zen Leizarraga iturritzat esleitzea.

##### *Trufa*

*Trufatcea* (FAL) erabileraren maiztasunak ondokoak dira: Leizarragak 15 aldiz, Etxeberri 1, Haranburuk 1, Argainaratzek 5 eta Tartasek 6. Horren arabera Leizarragak izango zen iturria.

##### *Urriquitcea*

*Urricalquiçuna* (FAL) Axularrek 16 aldiz erabili zuen, ostera Haranburuk behin.

Lau irizpide horien eraginkortasunari dagokionez, nolabaiteko lehenetasuna ezarri beharko litzateke. Alde batetik, lehenbiziko hirurek Povreuren halako joeratan oinarria dute, berriz, laugarrena probabilitate hutsean oinarritzen da. Ondorioz, erabileraren maiztasunaren irizpidea soilik gainerako hiruren osagarritzat hartu beharko litzateke.

Batzuetan, aipatutako lau irizpide horietatik zenbait bat etortzen dira lekukotasuna idazle jakin bati egotzerakoan:

*Alea*

Goraxeago ikusi dugunez erraztasun maila iturrien testuen erabilera delako irizpidearen arabera Haranburu izango zen iturria Axularren orde. Lekukotasunen arteko hurbiltasunaren irizpidea ere bat dator iritzi horrekin. Izan ere, 1635eko *Debocino-n Psalmus* 32-ri dagokion itzulpenean biltzen dira *Miserabletu naiz* (FHL), *Lilluramenduz* (FEL) eta *Alea* (FAL) (*Deb*, 1635: 327, 329).

*Sostengatcea*

*Sostengua* (FAL) Materrez gain, Etxeberri, Axularrek, Pouvreaux, Etxeberri Saraokak eta Añibarrok baliatu zuten.

*Sostengatcea* (FAL) Etxeberriz gain, Haranburu, eta Axular dira «Ondorengo erabiltzaileak»

- a) Koherentziaz, Axular da bi lekukotasunak darabiltzan autore bakarra.
- b) Lekukotasunen arteko hurbiltasunaren arabera, Axular agertzen zaigu iturri fidagarrien. Izan ere, *Gomendiozco Carta*-n, 5. eta 7. orrialdeetan, hain zuzen, sartu zituen bi lekukotasunak.
- c) Erabilera-maiztasunez: *sostengua* Materrek 3 aldiz, Etxeberri aldi bat, eta Axularrek 6 aldiz baliatu zuten. Berriz, *sostengatcea*, Haranburuk aldi bat eta Axularrek 6 aldiz.

Ondorioz, hiru irizpide horien arabera zilegi izango litzateke Axular Pouvreauxen iturritzat jotzea.

*Tarritatcea*

*Tarritamendua* (FAL) goraxeago ikusi dugunez, lekukotasunen erabilera maiztasuna irizpidearen arabera Leizarraga izango zen iturria. Lekukotasunen arteko hurbiltasunaren irizpidea ere baieztape honen alde da. Izan ere, FAL den *Nahastecamendua* —euskal literaturaren historian Leizarragaz gain, Axularrek eta Pouvreaux erabilia— *Tarritamendua*-ren aldamenen agertzen da ondoko pasarteetan:

*Ecen non baita inuidiaric eta tharritamenduric, han nahastecamendu eta obra gaichtogucia* (*Jac*, III, 16).

Ondorioz, bi irizpide horien arabera Leizarraga izango zen iturria.

*Travaillua*

*Travaillutsua* (FHL) eratorriaz Axular baliatu zen.

*Travaillaria* (FHL) Axular eta Etxeberri Sarakoa izan dira erabiltzaileak.

*Travaillatcea* (FAL) Leizarragak, Materrek, Voltoirek, Etxeberri, Haranburuk, Axularrek eta Tartasek baliatu zuten.

- a) Koherentziaz, ematen du Axular izan zela Pouvreauxen iturria.
- b) Lekukotasunen arteko hurbiltasunez: Axularren bi pasartetan aurkitzen dira sarrera horren bi lekukotasun aldi berean:

*Ezta gaixtatasuna baiño gauça travaillutsuagoric, eta ez hartaco travaillua baiño* (Ax. 515)

*Ceren travaillariac bere travailluan baiño anhitzetan ere alferrac, bere alferquerian travaillu guehiago edireiten baitu* (Ax. 49)

*Urricaltea*

*Urricaria* (FAL) eta *Urricalmendutsua* (FAL) Materrez gain, Etxeberri, Haranburuk eta Axularrek erabili zituzten.

*Urricalmendua* (FAL) Etxeberriz gain Haranburu eta Axular izan ziren «Ondorengo erabiltzaileak».

- a) Koherentziaz: irizpide hori ez da eraginkorra, kontuan hartuz, hiru eratorriak Etxeberrik, Haranburuk eta Axularrek erabili zituztela.
- b) Lekukotasunen arteko hurbiltasunez: Etxeberriren aipu batean biltzen dira *Urricalteea* sarrera burua eta *Urricalmendua* azpisarrera: *Eta ezterrala launaren urricalmendua handia da urricalduco çaiçco ene bekhatu handiac*
- c) Erabilera maiztasunaren irizpidearen aldetik, hona hemen zer aurkitzen dugun Corpus Arakatzailan:

*Urricaria*: Materre 1; Etxeberri 40; Haranburu 7; Axular 1;

*Urricalmendutsua*: Materre 1; Etxeberri 13; Haranburu 5; Axular 1;

*Urricalmendua*: Etxeberri 2; Haranburu 1; Axular 3;

Horren arabera, badirudi probabilitate ikuspuntutik Materre eta Axular direla probabilitate gutxien dutenak Povvreauren iturria izateko. Beste aldetik, Etxeberri eta Haranburu artean probabilitateak Etxeberriren alde doaz. Ondorioz, lekukotasunen hurbiltasunaren eta erabilera maiztasunaren irizpideek adierazten digute Etxeberri izan litekeela Povvreauren iturria.

Berriz, beste kasu batzuetan badirudi irizpideen eraginkortasuna kontuan hartu behar dela:

#### *Sequeretu*

Izen horren erabilera maiztasunaren heina Axular eta Haranbururen artean 16:4 bada ere, gorago ikusi dugun lekukotasunen arteko hurbiltasuna irizpidearen arabera, Haranburu agertzen zaigu Povvreauren iturri fidagarritzat.

#### *E) Grafia eta «Usus Escribendi»*

Nahiz eta geroago azalduko dugunez (ik. § 3.2.1.) Povvreaurekin irizpide arrisurtsua bada ere, batzuetan baliagarria izan daiteke lekukotasunen bat esleitzera-koan:

#### *Hortz*

Sarrera horretako *Hortz carrascotz*, Leizarragak *hortz garrascotz* eta Axularrek *hortz carrasc-hortz* idatzi zuten. Horren arabera, ematen du, probabilitate handiz, Povvreauk Axularrengandik hartuko zukeela aipua.

#### *Lana*

*Lanapeça*, *lanhabeça* azpisarrera konplexuan, Etxeberrik *lanabesa* (FAL) idatzi zuen, berriz Axularrek *lanhabesa*, beraz kronologia alde batera utziz, badirudi Axular iturritzat hartu zuela Povvreauk.

#### *2.3.1.3. Lekukotasunak esleitzeko proposatutako irizpideen erabileraz*

Lekukotasunak esleitzeko proposatutako irizpide horiek zurruntasunez baino gehiago zuhurtasunez erabili behar dira. Dagoeneko adierazi dugunez, zenbaitetan eraginkorrak izan daitezke, baina ez, ezinbestean, kasu guztietan. Izan ere, irizpide

horiek ahozkoak izan daitezkeen hitz arruntei edo erlijiozkoei aplikatu baino lehen delako lekukotasunaren testuingurua aztertu behar da. Adibidez, latinetik jasotako eliza-kultismoak arruntak ziren Pouvreauren euskal idazle garaikideen artean, baina, baita elizkizunetan ere, horrenbestez, Pouvreauk bildutako zenbait erlijio hitz ez dira nahitaez testu-hitzak izan behar. Esate baterako, «*Sacramendua, sagaramendua*» hiztegioko sarrera erlijio hitz arruntaren bi aldaerek osatzen dute, beraz, funtsean, bali-teke elizkizunetan erabilitako hitzak izatea, baina, *Sagaramendua* —Materrek 41 aldiz eta Axularrek aldi batez erabilia— berezi egiten duena <gr> kontsonante taldea apurtzeko <a> anaptitikoa erabiltzea da.<sup>15</sup> Horrenbestez, kasu honetan arrazoizkoena da pentsatzea Pouvreauk literatur iturri batengandik, Materrerengandik, hain zuzen, jaso zuela eta ez elizkizunetatik. Ostera, *Artiçarra*-z azterketaren denbora tartean Etxepare, Leizarraga, Etxeberri, Axular, Oihenart eta Harizmendi baliatu ziren. Funtsean, pentsa liteke autore hauen artekoa izan zela Pouvreauren iturria, baina, kontuan hartuz, apaiz guztiek —Pouvreauk barne— latinetik euskaratuak ziren Birginaren Letanietan «*Stella matutina*»-ren baliokide den *Artiçar goiztiarra* eguneroko elizkizunetan errezatzen ohi zutela Pouvreauk azken hauetatik jasoko zuela da egiantzekoena.

### 2.3.2. *Hiztegi iturrietako azterketan erabilitako metodologia*

Pouvreauk ikuskatu ahal izan zituen euskal hiztegien artean —Leizarraga eta Oihenarten idazlanen hiztegitxoak alde batera utziz— gaur egun, bakarrik, Voltoirerena ezagutzen dugu (ik. § 0). Berriz, iturritzat har zitzakeen erdal hiztegiei dagokienez, badakigu Pouvreauk Oudinen *Trésor des deux langues espagnolle et française* erabili zuela (Kerejeta 1991: 869, 12. oh.).

Literatur iturriekin gertatzen den bezala, Pouvreauren hiztegi iturriekin ere iturri anitzen auzia agertzen da. Izan ere, Pouvreauren hiztegia eta Voltoirerena erkatzerakoan gertatzen da zenbait lekukotasunek iturri bat baino gehiagotan izan lezakeela jatorria. Kasu hauetan, iturria esleitzeko asmotan ondoko irizpideak erabili ditugu:

#### A) *Hiztegi iturrien lehentasuna literatur iturrien aurretik*

Irizpide hori J. Lakarrak proposatu zuen Larramendiren *HH*-ren Eranskinetako iturriak aztertu zituenean (ik. § 2.3.1.2.B). Hainbatetan, delako lekukotasun bat aldi berean Voltoireraren hiztegian eta literatur testu batean agertzen denean, Voltoireri esleitu diogu. Esate baterako, Leizarragaren bide diren *Chiquiratcea* eta *Quilicatcea*, edo Axularren *Sapataguina* eta *Urdaya* Voltoireri egotzi dizkiogu.

#### B) *Hiztegi elebidunaren lehentasuna*

Irizpide hori aurrekoaren ondorioa da. Hau da, erosotasunez, Pouvreauk literatur iturri baten aurretik hiztegi iturri bat erabiliko zuen, are gehiago, hiztegi iturri hori

<sup>15</sup> Berriz, azterketa denbora tarteko gainerako autoreek anaptisi gabeko aldaerak baliatu zuten: Etxeparek *Sagramenduia*, Leizarragak eta Tartasek *Sagramendua*, Beriainek eta Etxeberrik *Sacramentua* eta Axularrek *Sagaramendua*-z gain *Sacramendua* eta *Sacramentua*.

elebiduna bazen. Zenbait lekukotasun esleitu ahal izateko, hala nola *Acusatcea*, *Anayatasuna* Oudinen frantses-gaztelaniazko hiztegiaren aurretik lehenetsi dugu Voltoireiren frantses-euskarazko hiztegia (ikus Etxagibel 2011).

### C) *Koherentzia*

Irizpide hau literatur lekukotasunetarako proposatu dugun irizpide bera da (ik. § 2.3.1.2.). Oihenarten *Oten Gastaroa Nevrthizetan* liburuaren amaierako euskara-frantseseko hiztegitxo elebiduna eta Voltoireiren frantses-euskarazko hiztegia Pouvreuren iturriak izan ahal direnean, koherentziaz, iturri nagusia den Voltoire lehenetsi dugu, adibidez, *Beruna*, eta *Igueltsua* kasuetan.

### D) *Egituraren irizpidea*

Irizpide hori Lakarrak ezarri zuen Larramendiren *HH*-ren Eranskinetako iturriak aztertzerakoan:

...testu baten, orobat hiztegi baten, eta haren iturriaren arteko erlazioa ez dela nahitahiez zuzenbide bakarrekoa; simetrikoa izatera heltzea ezinezko bada ere, egokitasun sistemaren ezagutzak bata izanaz bestearen alderdi zenbait deribatzea dakarkigu inoiz (Lakarra 1996a: 32).

Voltoireiren hiztegiko egituraren zantzu zenbait Pouvreuren hiztegian aurkitzeak ahalbidetzen digu iturritzat bermatzea. Izan ere, Voltoireiren sarreren artean beste batzuk tartekatua izan arren, oro har, Pouvreauk Voltoireiren hiztegiko euskara-frantseseko ordenari eusten dio, esate baterako, hiztegiaren hasieran: *abadea* [x,x,..], *aberatsa*, *abrea*, [x,x,..], *absolvatcea*, *acabatcea*, etab. Ez hori bakarrik, Voltoireiren hiztegiko ordena berbera gordetzen diren bizpahiru sarrerek osatutako hainbat hurrenkerak aurkitzen dira Pouvreuren hiztegian, hala nola: *bessoa*, *besta eguna*; *carnaceria*, *çarpa*; *dohatsua*, *doblea*, *dohacabea*; *egoitea*, *egoitstea*, *egostea*; etab. (ikus Etxagibel 2011).

## 3. Azterketa

### 3.1. Azterketaren aurkezpena

Etxagibel (2010)-en banakako iturriek eskainitako ataletako eranskinetan lekukotasunak biltzen diren taulak bi zutabetan banatu ditugu, ezkerrekoan Kerejetaren edizioko euskal sarrerek biltzen dira, eta eskuinekoan beren itzulpenak, frantsesez, gaztelaniaz, edo latinez. Horrez gain, bigarren zutabe horretan, eta Pouvreuren lekukotasunen egiaztagarri gisa, *armiarma.com*. Corpus Arakatzailan aurkitutakoak bildu ditugu. Esate baterako, Pouvreuren *Alhatcea* O sarrera Axularren lekukotasunei dagokienez honela agertzen da:

Euskal sarrera	Itzulpen eta aipuak
ALHATCEA O. <i>Ifernuan alha çayen eta alhaco çayen harra</i> A. 595	Paistre, manger Le ver qui les ronge & les rongera en l'enfer Kap. LVII, 595: <i>Eta haur da, gau eta egun, behin ere asse gabe, sosegatcera utci gabe, alhaçayen eta alhaco çayen harra</i>
<i>Bere buruari alhaturic</i>	Kap. VIII, 98: <i>eta bere buruari alhaturic, ethorquiçunaz gogoeten iartcenda</i>
<i>Ahalpidea, ahalbidea</i>	Corpus Arakatzailan dagoen lekukotasun bakarra
<i>Ardi lagunen alhapidetit aldaratua</i> A. 78	Kap. VI, 78: <i>eta bere ardi lagunen alhapidetit aldaratcen, eta hastantcen da</i>

Ezkerreko zutabeen sarrera burua eta azpisarrerak Kerejetak prestaturiko edizioan bezala agertzen dira hemen ere. Sarrera burua versalitatez izateak adierazten digu sarrera honetan balizko lekukotasunen bat aurkitzen dela, kasu honetan *Bere buruari alhaturic*. Balizko lekukotasun honen lerro berean eta eskuineko zutabeen Axularren aipua agertzen da: *eta bere buruari alhaturic, ethorquiçunaz gogoeten iartcenda* eta aipuaren hurrengo lerroan bere identifikazioa: «Corpus Arakatzailan dagoen lekukotasun bakarra», hots, aipua «lekukotasun bakarra» multzoari dagokio.

Gure aurkezpenean eguneratuak diren Corpus Arakatzailaren grafien ordez Pouvreurenekin erkatzeko jatorrizkoak jarri ditugu (ik. § 2.1.)

### 3.2. Iturrien azterketa

Bi talde bereizi ditugu: literatur iturrietakoa, eta hiztegi iturrietakoa. Bien problematikak ezberdinak direnez, bereiziz aztertu behar dira.

#### 3.2.1. Literatur iturrien azterketa

Literatur iturrien ikerketan bi pausu eman behar izan dugu. Alde batetik, Pouvreuren erreferentziadun lekukotasun guztiak egiaztatzen saiatu gara, eta honetaz azpimarratu behar da —geroxeago, idazle bakoitzari eskainitako ataletan zehazten denez— identifikatzeko geratu direla Axularri egotzitako A. laburduradun 7 lekukotasun; Etxeberri Ziburukoaren hiztegi galduari, eta, agian, *Egunorozco* liburuari legezkiekeen 53 lekukotasun; Haranbururen *Debocino escuarra*-ren Harizmendik mol-datutako edizioari legezkiekeen 22; O. laburduradun 109 lekukotasun —ziurrenik Oihenartek Pouvreauri bidalitako eta gaur egun desagertutako zerrenda zenbait legezkiekeenak—.

Bestetik, balizko lekukotasunak biltzen saiatu gara. Pouvreauk —frogatuta geratu denez— (ik. § 1.3.) bost idazle erabili zituen iturri gisa, bere hiztegian berak laburdura batzuez markatu zituenak: Leizarraga: L., Liz., Leiz.; Etxeberri Ziburukoa: E.; Axular: A.; Harizmendi: H, eta Oihenart: O. Hala ere, eta ez dakigun zioagatik, bost

autoritate horien aipu asko eta asko erreferentziarik gabe ere sartu zituen. Horietaz gain, beste idazle batzuenak izan litezkeen zenbait aurkitu ditugu: Etxepare, Materre, Beriain, Haranburu, Argainaratz eta Tartasenak hain zuzen ere.

Lekukotasunen kopuruaren arabera, bi mota bereizi ditugu: iturri nagusiak, eta iturri txikiagoak:

Lehendabizikoaren artean aurkitzen dira Axular ~%24z, Leizarraga ~%22z eta Etxeberri Z. ~%21ez, eta Oihenart ~% 20z. Bigarren taldean Haranburu ~%5ez, Materre ~%4z, Etxepare ~%1ez, eta %1 baino gutxiagoz Harizmendi, Tartas, Beriain, eta Argainaratz. (ik. § 4.3.)

Horrezaz gain, identifikatzeko geratu zaizkigun balizko literatur lekukotasun zenbait bi taldetan bildu dugu:

#### A) Aipuak

Oraingoz, identifikaezinak geratu zaizkigun 91 aipu, ia guztiek erlijio kutsurik dutenak, bildu ditugu (ik. §. Etxagibel 2000). Pentsatzekoa da, Pouvreaux gaur egun galdutakoak diren idazlanetarik atera zituela. Noski, litekeena da ere, berak asma-tuak eta inoiz ez erabiliak izatea. Baina, alde batetik, Pouvreaux aipuekiko zuen joera biltzailea ezagutuz gero (ik. § 4.3.), eta bestetik, kontuan hartuz, bere itzulpenetarik aipu hainbat eta hainbat hiztegiari hartu zituela (ik. § 4.4.), ez du ematen oso egiantzekoa denik. Hala ere, Etxeberriri eta Haranbururi egotzi dizkiegun gutxi batzuk alde batera utziz, gainerakoak identifikaezinak dira. Horren harira, baliteke Olzek 1651n *Pregariac Bayonaco Diocesacotz* (lapurteraz) eta *Pregarioac Bayonaco Diocesacotz* (behenafarreraz) izenburuez argitaratu zituen testuetarik zenbait ateratzea. Dagoeneko Vinsonek iradoki zuen Pouvreaux argitalpen bi horiek ezagutu beharko litzukeela, bere hiztegiari *Pregariac* eta *Pregarioac* aldaerak sarrera berean bildu baitzituen: «*Pregariac*. prosne. *pregarioac*» (1891: 91-92).<sup>16</sup>

#### B) Errefrauek

Oihenarten atzotitzez gain Pouvreaux C. Oudinen errefrauegitik ateratako frantses-gaztelaniazko errefrau asko inolako erreferentziarik gabe sartu zituen bere hiztegiari —zenbait berak euskaratuak— (Lakarra 1995: 24). Kerejetak prestaturiko Pouvreauxen hiztegiaren edizioan 180 inguru egiaztatuak agertzen dira. Gure aldetik 88 gehiago egiaztatu ditugu.

Horiez gain, gure azterketan zehar identifikaezintzat har daitezkeen 61 errefrau aurkitu dugu, hiru taldetan banatu ditugunak:

- A) Pr. laburduraz markatutako 13 errefrau, normalki frantseseko bertsioarekin (ik. Etxagibel 2010).
- B) Oudinen liburutik ateratakoekin antzekotasun formala duten bi errefrau, hau da, euskarazko bertsioaz gain frantsesekoa eta gaztelaniazkoa dituztenak eta latin-frantseseko bat. (ik. Etxagibel 2010).
- C) Gainerakoak: euskara-frantseseko 27 errefrauek eta euskaraz idatzitako 18 (ik. Etxagibel 2010).

<sup>16</sup> Gure ikerlanean aukera hori ezin izan dugu egiaztatu Olzeren testuak eskura izan ez ditugulako.

Errefrau horien paremiologia iturriak izan litezkeenei buruz hona hemen oraingoz esan dezakeguna: dagoeneko M. J. Kerejetak aipatu zuen Zalgizeren errefrau bildumaren batekiko antzekotasun handia zuen ondoko errefraua:

*Çu handi ni handi norc erranen dio gure astoari, arry: tu fais le grand, moy le grand qui dira a l'asne avance < Zalgize, 147. Hi handi ni handi, norc erranen du gure astoari, harri (Kerejeta 2003: 43, 513 oh.).*

Gure aldetik, Zalgizeren errefrau batekiko ia antzekotasun osoa duen beste bat aurkitu dugu, *Errota* sarreran hain zuzen ere: *Errotan berant deçanac, bidean laster*, pr. < Zalgize, 93., *Eyberan berant deçanac vidian laster*. Atsotitz hori eta Pr. laburdura duten gainerakoak legezkioko argitaratu gabe geratu zen Oihenarten bildumako zenbaiti (ik. Etxagibel 2010). Gainerakoei buruz zer esan daiteke? Noski, ematen du guztiak Pouvreauk moldaturikoak direla, baina zein izan ote litezke jatorrizko iturriak?

Balizko lekukotasunak jasotzerakoan Pouvreauk erreferentziadun lekukotasunak biltzeko eran ondoko hiru ezaugarri aintzakotzat hartu dugu:

— *Parafrasia*

Askotan ez ditu hitzez hitzeko aipuak erabiltzen, baizik eta bere erara moldaturikoak sartzen ditu hiztegian, Axular eta Etxeberriren ondoko adibideek erakusten dutenez:

Axularrenak:

*Tiratcen bagaitu asco den beçain bertce* A. 102 < Ax. *Eta thiratcen gaitu [...] eta oraîno orduan ere deitzen bagaitu ere, asco den beçain bertce.*

*Guibel beldurtia da maliciatia.* A. 448 < Ax. *Conciencia gaixtoa, maliciatia, eta fede gaixtoz dabillana, bethi da nequez, eta travailluz, bethi da goan behartsu, iduricor, guibel, veldurti eta sosegu gabe.*

*Eria iraulcatcen da ohean.* A. 598 < Ax. *Eriac gau lucean iragaiten duen travaillua, guztiz ere eritasuna çorrotza, eta bortitza denean: nola iraulcalcenden.*

*Tigre arrac bere nabardurac, colore picardatuac ecin alda.* A. < Ax. 93 *eta Tigre arrac ere, bere nabardurac, colore picardatuac alda, vtz eta muthaditçanean*

Etxeberrirenak:

*Suac eguintentu çarçoac eta mortuco chirripac gurguraia* E. P. 19 < Etx. *Suac ere harengatic eguintentic çarçoac, Bai halaber gurguraia chirripa mortucoac.*

Leizarragarenak:

*Hainitzez gueyagoc cinetsi dute.* Io. 4 < Lç. *Eta anhitzez guehiagoc sinhets ceçaten bere hitzagatic.*

— *Grafia aldaketak*

Maiz, Pouvreauk ez die idazleen jatorrizko grafiei eusten, batez ere, txistukari eta hasperendunen kasuetan<sup>17</sup> ondoko erreferentziadun lekukotasunetan ikus dezakegunez:

<sup>17</sup> Are gehiago, Pouvreauk ez ditu bere itzulpenetan eta bere hiztegian grafia berdinak erabiltzen. Esate baterako, Haranbururen *Barkhacinoa*, *Barkacino* bihurtzen du hiztegian, baina gero *Barkhacino*



- *b-*, *-b-* > *v*: *balio* (*aralde*) > *valio*; *irabacia* (*asmatcea*) > *irauasia*;
- *-ns-* > *-ntz-*: *ceraunsón* (*bulharra*) > *cerauntzon*;
- *-s-* > *-z-*: *burguesía* > *burguezía*;
- *-th-* > *-t-*: *beguithartean* > *beguitartean*;
- *-tz-* > *-tc-* (ia sistematikoki): *aitzumenic* > *aitçumenic*;
- *-z* > *-tz*: *borz* (*berrogoy*) > *bortz*;
- *-zt-*, > *-tzt-*: *bekaizteria* > *bekaitzteria*;
- *-zt-* > *-tst-*: *erauzten* (*bidea*) > *erautsten*;

#### Etxeberrirenak:

- *-b-* > *-v-*: *habarrotz* (*açantça*) > *auarrotz*;
- *h-* > *ø*: *habarrotz* (*açantça*) > *auarrotz*; *hazcuntça* (*aztea*) > *azcuntça*;
- *-ntz-* > *-nç-*: *açantza* > *açança*;
- *-ph-* > *-pp-*: *aiphuric* > *aippuric*;
- *-tsq-* > *-tzq-*: *aberatsqui* > *aberatzqui*;

#### Axularrenak:

- *-b-* > *-v-*: *abiadura* > *auiadura*;
- *v-* > *b-*: *veltçuri* > *beltçuri*; *viltcen* > *biltcen*; *vorondatea* > *borondatea*;
- *-cc-* > *-k-*: *beccatuac* > *bekatuac* (*afentcea*); *baccotchean* > *bakotchean*; *bir-iccusi* > *bir-icustea*; *iccusten* (*aztura*) > *icusten*; *barccatcecoetaric* > *barkatcecoetaric*; *beccaitzcoa* > *bekaitzcoa*;
- *h-* > *ø*: *haiotza* (*ayotza*) > *ayotza*;
- *-nç-* > *-ntç-*: *añçatsutu* > *antçatsutu*;
- *-ntc-* > *-nc--*: *ardantcetic* > *ardancetic*; *conciencia* (*autemaitea*) > *consciencia*;
- *-nts-* > *-ns-*: *darauntsanean* (*athea*) > *daraunsanean*;
- *-st-* > *-sts-*: *sinbeste* > *cinhetste* (*bakkuna*);
- *-tc-* > *-ts-*: *vtciric* (*ardura*) > *vtsiric*;
- *-tz* > *-ts*: *erdietz* (*buthoitceas*) > *erdiets*;
- *-zt-* > *-st-*: *buztan* > *bustan*;

Argi da Pouvreauren grafia-aldaketak ez dagozkiela grafia-arau orokorreari eta zaila da ulertzea zergatikoa.

#### — Gramatika jokabideak

Askotan, Pouvreauk erreferentziadun lekukotasunetarik sarrera buru edo azpi-sarrerak eratortzeko bi jokabide erabili zuen ondoko tauletan erakusten den bezala:

---

idatzi zuen *Philorbea* liburuan; halaber, berak asmatutako hiztegiko *Iaustiri*, *Iaustiri* bihurtzen du *Philo-tea*-n. *Iesusen Imitationea*-n *Herzcaillua*, *Hertscaillua* bihurtzen da, etab.

## Deklinabide kasuak &gt; Absolutibo

Leizarragaren deklinabide kasuak <i>Testamentu Berria-n</i>	Leizarragaren deklinabide kasuak Pouvreuren hiztegian
<i>Arrauberiaz</i> (Matt. XXIII, 25)	<i>Arrauberia</i> , Mat. 23, 25
<i>Cobrezco uncienac</i> (Marc. VII, 4)	<i>Cobrezco untciac</i> , Mar. 7, 4
<i>Presoindegui çolan</i> (Ac. XVI, 24)	<i>Presondegui çola</i> Ac. 16,24
<i>Ezti orrace batetatic</i> (Luc. XXIII, 42)	<i>Ezti orrasea</i> , Lu. 24, 42
<i>Halsarretan</i> (Cor. II, VI, 12)	<i>Halsarrac</i> , 2 Cor. 12

---

Axularren deklinabide kasuak <i>Gero-n</i>	Axularren deklinabide kasuak Pouvreuren hiztegian
<i>Athea bere erroetan eta uhaletan</i>	<i>Athearen erroac eta uhalac</i> A. 45
<i>Çafardarraco eder bat</i> (Ax. 45)	<i>Çafardacoa</i> A. 467
<i>Escutoquiric</i> (Ax. 153)	<i>Escutoquia</i> A. 153
<i>Ezti-berazcatic</i> (Ax. 356)	<i>Ezti berazca</i> A. 356
<i>Harotzaren suteguiian</i> (Ax. 325)	<i>Harotzaren suteguiia</i> A. 325
<i>Horniçoïnaz</i> (Ax. 36)	<i>Horniçoïna</i> A. 36
<i>Valiostasunetic</i> (Ax. 136)	<i>Valiostasuna</i> A. 136

## Adizkiak &gt; Aditz izena

Leizarragaren adizkiak <i>Testamentu Berria-n</i>	Leizarragaren adizkiak Pouvreuren hiztegian
<i>Nigar uriz arrogatzen</i> (Luc. VIII, 38)	<i>Arreagatcea nigar uriz</i> Lu 7, 38
<i>Bandatoz trocha ceçan</i> (Luc. II, 7)	<i>Bandatoz trochatcea</i> Lu. 2, 7
<i>Biribilgatua</i> (Io. XX, 7)	<i>Biribilgatcea</i> Io. 20
<i>Empara eçac</i> (Matt. XXVII, 40)	<i>Emparatcea</i> Mat. 27, 40
<i>Eressiz cantatu drauçuegu</i> (Luc. VII, 32)	<i>Eressiz cantatcea</i> Lu 7, 32
<i>Hatzaman livoiten hitzean</i> (Matt. XXII, 15)	<i>Hitzean hatcemaitea</i> , Matt. 22, 15
<i>Adulterio iauquiten du</i> (Luc. XVI, 18)	<i>Adulterio iauquitea</i> , Lu. 16, 18

---

Axularren adizkiak <i>Guero-n</i>	Axularren adizkiak Pouvreuren hiztegian
<i>Amainatu</i> (Ax. 292)	<i>Amainatcea</i> A. 292
<i>Bulharca iarri</i> (Ax. 460)	<i>Bulharca iartcea</i> A. 460
<i>Çabartcetic</i> (Ax. 188)	<i>Çabartcea</i> A. 185
<i>Comparaitçacu</i> (Ax. 320)	<i>Comparatcea</i> , A. 320

Baliteke Pouvreauk bi jokabide horiek Leizarragarengandik hartuak izatea. Izan ere, Leizarragak ebangelioetarik horrelako sarrerak eratorri ohi zituen *Testamentu Berrico Materien Erideiteco Taulá* delakoan. Esate baterako: «*Aserretzea* matt. 5. 22» < S. Mateoren ebangelioan «*aserretzen baitzayo*»; «*Magistratua*, rom. 13. 1.» < S. Pauloren epistolari «*Magistratuaganaco obedientia*»; «*Paradisoa* luc. 23, 43» < S. Lukasen ebangelioan *Paradisoan*, etab.

Horrenbestez, guk ere horrelako jokabideak aintzakotzat hartu ditugu balizko lekukotasunen bilaketan. Esate baterako, hiztegiko *Venturazcoa* ez da agertzen Corpus

Arakatzailan, baina bai *Venturazco* (FHL) soilik Leizarragak erabilia, eta ondorioz, berari egotzi diogu. Orobat, *Trebucatea* (FHL), Leizarragaren testuetan *Trebuca*, *Trebucatu* eta *Trebucetzen* bezala agertzen da, eta dudarik gabe Pouvreauk Leizarragaren-gandik hartu eta bildu zuen bere hiztegian *Trebucatea* bezala.

Lekukotasunen bilketan aurkitutako hiru ezaugarri horiez gain azpimarragarria da —nahiz eta erreferentziadun lekukotasunetan ez aurkitu— Pouvreauk izan zuen joera garbizalea. Izan ere, aldi behin izan arren, idazleek erabilitako zenbait maillegu garbitu bide zuen:<sup>18</sup>

Axularrenak: *Escata* sarreran, *Beztitu* > *Estali*; *Pagatcea* sarreran, *Content* > *Boz*

Etxeberrirenak: *Hautetstea* sarreran, *Patroin* > *Nausi*

Leizarragarenak: *Baldia* sarreran, *Arca* > *Cutcha*; *Berria* sarreran, *Resuscitatu* > *Pitsuric*; *Bulcatea* sarreran *Bortharen bulcatea* > *Athearen bulcatea*; *Gabea* sarreran, *Alchagarri* > *Lemami*; *Othia* sarreran, *Vianda* > *Iaquia*.

Materrerenak: *Ez* sarreran, *Creatu* > *Athera*

### 3.2.2. Hiztegi iturrien azterketa

Lekukotasunen kopuruaren arabera bi mota bereizi ditugu: hiztegi iturri nagusietakoa, eta hiztegi iturri txikiagoetakoa. Ustekabean, Voltaire agertzen zaigu Pouvreauren hiztegi iturri nagusien gisa. Izan ere, bere sarrerak eratzeko «Spece de Grammaire» ataleko barruan dagoen «Dictionnaire Alphabetiq» delako frantses-euskarazko hiztegia hustu zuen ia sistematikoki bere grafiara bihurtuz. Gure kalkuluen arabera Pouvreauren hiztegiko 704 sarrera buru edota azpisarrera Voltairerenerari legoz-kioke. Letraz letra, Voltaireren sarreraren heinak ondokoak dira:

A: 95 / 507 ; B: 77 / 384; C: 73 / 521; D: 23 / 128; E: 69 / 358; F: 7 / 73;  
G: 53 / 251; H: 44 / 241; I: 60 / 257; K: 3 / 31; L: 36 / 183; M: 33 / 252; N: 15 / 61; O: 26 / 146; P: 24 / 212; Q: 1 / 13; S: 34 / 206; T: 7 / 114; U: 24 / 133;

Hiztegi iturri txikiagoen multzoan ondoko hiztegian bildu ditugu: Etxeberri Ziburukoaren hiztegi galdua (ik. Etxagibel 2010, 2011), eta oraingoz bederen, Oudinen *Tresor...* delakoa, kontuan hartuz, oraindik ez dagoela argi Pouvreauren erabilera zenbaterainokoa den. Horiez landa, Leizarragaren *Testamentu Berria*-ren amaierako *Çuberoaco Herrian Vsançatan...* izenburuko hitz bilduma, Oihenarten *Notitia*-ren XIII. kapituluko gaztelania-euskara hiztegitxoa, «Index Rerum Et Verbum» delakoa, eta *Oten...* liburuko hiztegitxoa.

## 4. Hiztegi gintza

Iturrien azterketak ahalbidetzen digu Pouvreauren hiztegi gintzaz ikuskera orokorra izateko:

<sup>18</sup> Berak ere, aldi batez behintzat, bere burua garbitzen du: *Guiristinoaren Dotrina* liburuko *Bat banacaco combatac* asmatutako aipua, hiztegian, *Bat banacaco guduac* bihurtzen du.

#### 4.1. Hiztegiko egituraketa

Pouvreauk bere hiztegiko hezurdura eratzeko Voltoireren hiztegia eta Oudinena erabili zituen, nahiz eta esan dugunez azken honen erabileraren hedadura, oraingoz, aztertu gabe izan (ikus Etxagibel 2011).

Hezurdura hori osatzen zuten sarrerak betetzeko ondoko estrategia erabili bide zuen: alde batetik, ahal izan zuen guztietan iturrien hitzen eta aipuen bitartez edozein sarrera buru edota azpisarrerari eusten saiatzen zen, eta behar izanez gero, delako sarrera horren etimologia hutsuneak betetzen zituen bere kabuz, askotan, bere itzulpengintzarako asmatu behar izan zituen termino eta lokuzioez, hori bai, euskal idazleen irizpideei jarraituz. Estrategia horren erakusgarri dira ondoko adibideak:

Voltoireren «Capitaine: *Capitaine*» sarrera honela bete zuen:

*Capitaintcea* azpisarreraren *Nola capitainduco da?* <A> Axularren aipua sartu zuen. Horrez gain, eta sarrera betetzeko berak asmatu bide zuen *Capitaintasuna* eratorria agertzen da.

Voltoireren «Cuivre, airain: *Cobrea*» honela hedatu zuen:

*Cobrea*: Cuivre, airain

*Cobrezco untciac*, Mar. 7, [4]: aramenta

*Cobreztatcea*: garnir de cuivre

Alegia, *Cobrezco untciac* Leizarragaren aipu txiki bat, eta ziurrenik berak asmatu-tako *Cobrestatcea* termino etimologikoa sarrera osatzeko.

Voltoireren «Pourpoint: *Iaka, guipoina*» sarrera konplexua:

Axularren aipu bat sartu zuen: «*Oyala iakataco*» A.

Voltoireren «Gouvernail, peautre: *Lema*» sarrera, Etxeberriren lekukotasunez bete zuen:

*Lema*: Gouvernail, peautre

*Lemacoa, lemaria, lemean* [toa] E.

*Lemeada*: gubernaculi motus

*Lematcea*, E.

Ez bakarrik hori, literatur lekukotasunetarik ere sarrera buru asko deribatu zituen. Leizarragaren ondoko bi adibideek erakusten dutenez:

*Aldiria* sarrera burua *Aldirietaco hiriac* eta *Haren aldirí gucietan* aipuetarik deribatu bide zuen

*Baldia* sarrera burua *Arkaren baldia* azpisarreratik deribatu zuen.

Azkenik, ez da zalantzatan jartzetik Pouvreauk ahozko jardueratik sarrera asko bilduko zituela. Esate baterako, «*Garmendia*: sorte de pomme»; «*Garioa*: sorte de oiseau»; «*Espalda*: epaule de viande»; ez dira agertzen inolako testutan, eta herrikoitzat har genitzake. Horren harira azpimarratzekoa da itsas arloko hainbat hitz biltzea, hala nola: *Amarratcea*, *Bocal çabarra*, *Mazcorra*, *Norta*, *Sequera*, *Masta*, *Suduesteco çarra*, etab. Hauetarik lehenbiziko bostak soilik Etxeberri Dorreren liburuan agertzen dira.

## 4.2. Pouvreauren hiztegitza motez

Ikusi dugunez, orain arte bi jarrera eman dira Pouvreauren hiztegitza motari buruz. Alde batetik, Mitxelenaren ustez hiztegia autoritate hiztegi bat zen. Oстера, Lakarrak hiztegia etimologikoa zela frogatu zuen (ik. § 1.3)

Gure iritziz, Pouvreauren hiztegitzatan bi jarrera horiek biltzen dira, alegia, autoritate hiztegia izateko baldintzak bete ez arren,<sup>19</sup> Pouvreaurengan joera biltzailea eta aldi berean, bere garaiko euskal corpusaren urritasunak behartuta, joera sortzailea aurkitzen dira.

## 4.3. Pouvreau biltzailea

Pouvreauren joera biltzailea kuantifikatzeko hiztegiako letretako lekukotasunen kopurua neurtu dugu, hau da, lekukotasunen bat, nahiz erreferentziaduna nahiz balizkoa duten sarreraren kopurua neurtu dugu. Zenbaketa egiterakoan ondoko irizpideak erabili ditugu:

- Askotan, Pouvreauk sarrera konplexuak errepikatzen ditu. Esate baterako *Beltçuria* azpisarrera *Bekaitzea* eta *Beltza* sarreretan sartzen du. Horrelakoetan, delako lekukotasun hori soilik sarrera batean zenbatu dugu, bestean lehenengoari erreferentzia eginik. Adibidez, aipatutako kasuan *Beltza* sarrerako *Beltçuria* azpisarrera «cf. *Bekaitzea* sarrera» esapideaz markatuta dago.
- Oihenarten lekukotasunei dagokienez gure zenbaketan alde batera utzi ditugu Oihenartek Pouvreauri bidalitako hitz zerrendetan agertzen direnak, eta O. laburdura izanik ere, identifikaezinak geratu zaizkigunak zeren ez baitira Oihenarten benetako lekukotasunak, baizik eta, beste iturri batzuetatik ateratakoak.
- Voltoireren «Colloques et Dialogves»etik ateratako lekukotasunak zenbaketa honetatik kanpo utzi ditugu, hiztegi lekukotasuntzat hartuz. Emaitzak ondoko taulan agertzen dira:

*Letraz letrako lekukotasunen banaketaren taula*

Letra	Sarr.	Arg.	Ax.	Ber.	Etz.	Etp.	Hb.	Hm.	Leiz.	Mat.	Oih.	Tart.	Guzt.
A	507	2	120	4	124	4	22	3	58	19	87	3	446
B	384	1	100		56	5	15	3	95	11	76		362
C	521	2	65		60	1	13	1	58	11	55	3	269
D	128		25	1	28	5	13	1	43	2	13		131
E	358	1	125	3	70	4	16	2	92	16	72		401
F	73		5		9		2	1	11	5	2		35
G	251		70	2	35	1	14	4	62	8	50	1	247
H	241	1	69		73	3	19	2	69	10	77	1	329

<sup>19</sup> Lépinettek «de autoridades»-erako ondoko definizioa eman zuen Covarrubiasen hiztegia aipatzekoan: «ce concept d'autoridades —tel que nous l'entendons aujourd'hui [...] i.e. phrases exemplaires dont le rôle lexicographique est celui d'adjuvant dans un processus d'explicitation sémantique de la langue —espagnole ici— et en même temps, celui de réalisation modélisée dans un discours valorisé, est dans tous les cas, totalement étranger à Covarrubias» (Lakarra 1995: 13, 8. oh.).

Letra	Sarr.	Arg.	Ax.	Ber.	Ext.	Etp.	Hb.	Hm.	Leiz.	Mat.	Oih.	Tart.	Guzt.
I	257		87		51	3	11		62	9	65	1	289
K	31	1	6		8		3		8	1	6		33
L	183		27	1	56	3	8	3	41	9	32		180
M	252		44		43	4	9	3	43	7	21	2	176
N	61		19		19	1	5		15	3	25	1	88
O	146		29	4	38	5	10	1	41	5	72	1	206
P	212		39	1	49	4	12	3	32	7	15	2	164
Q	13		2		2		1		1				6
R	2								2				2
S	206	1	37		36	5	9	1	26	9	37	2	163
T	114		15	1	20		3	1	20	3	9	2	74
U	133		29	2	25	2	8	1	37	3	44	1	152
X	3										2		2
Guzt.	4.076	9	913	19	802	50	193	30	816	138	760	20	3.750

Sarr.: Sarrerren kopurua; Arg.: Argainaratz; Ax: Axular; Ber.: Beriain; Ext: Etxeberri Z.; Etp.: Etxepare; Hb.: Haranburu; Hm.: Harizmendi; Leiz.: Leizarraga; Mat.: Materre; Oih.: Oihenart; Tart.: Tartas; Guzt.: Lekukotasunak Guztira.

Hau da, batez beste, sarrerren % 92-k dute lekukotasunen bat.

Iturriko lekukotasunen banaketa fidagarritasun mailaren arabera ondoko taulan agertzen da:

*Iturriko lekukotasunen banaketaren taula*

	ER L	F H N L	F H L	F E L	F A L	Iturriko Guztira	Iturriko %
Axular	350	95	355	90	23	913	24,35
Leizarraga	270	34	187	41	284	816	21,76
Etxeberri Z.	120	61	312	101	208	802	21,39
Oihenart	698	2	49	10	1	760	20,26
Haranburu	41	5	83	23	41	193	5,15
Materre		5	18	6	109	138	3,68
Etxepare			5	1	44	50	1,33
Harizmendi	3	1	16	7	3	30	0,80
Tartas		1	15	4		20	0,53
Beriain			4	1	14	19	0,51
Argainaratz			7	1	1	19	0,24
Lekuk. Guztira	1.482	204	1.051	285	728	3.750	
Lekuk.%	39,52	5,44	28,03	7,60	19,44		

ER L: Erreferentziadun lekukotasunak

F H N L: Fidagarritasun maila handieneko lekukotasunak

F H L: Fidagarritasun maila handiko lekukotasunak

F E L: Fidagarritasun maila ertaineko lekukotasunak

F A L: Fidagarritasun maila apaleko lekukotasunak

Nabarmentzekoa da FHNL, FHL eta FEL artean ERL-en kopurua gaintzen dela. Zenbaki esanguratsu horiez gain, Pouvreuren joera biltzailea erakusteko baliagarriak izan daitezkeen zenbait adibide jaso ditugu:

*A) Hitz elkarketa eta eratorrien biltzailea*

Mitxelena Pouvreuren horrelako joera aurreratu zuen dagoeneko 1961ean:

Maiz gertatu zait, alaz guztiz ere, nik asmatutzat neukan itz erakarri bat liburuetan aurkitzea, bai Axular'engan eta bai Etxeberri Ziburu'koagan. Baditeke, beraz, geiago ere jasoak izatea, ez osatuak (Mitxelena 1961: 18, 19).

Ondoko adibideak nahikoa dira jarrera hori azaltzeko:

*Adatsa, cherloa, illeac*

*Adatsdun* (FHL) Leizarragaz gain soilik Pouvreauk erabili zuen *Adats izpiac* (FHL) Etxeberriri dagokio.

*Aratza*

*Aratzqui* (FHL) eta *Aratztasuna* (FHL) Etxeberriri dagozkio.

*Arina*

*Arinqui* (FAL) Etxeberriri dagokio, *Arintasuna* (FAL) Leizarragari, *Arintçaillea* (FHL) Materreri, *Arintcarria* (FHL) Axularri, eta azken honen aldaera *Aringarria* Pouvreauk erabili zuen lehen aldiz euskal literaturaren historian.

*Desira*

Materrenak: *Desiramendua* (FHL)

Haranbururenak: *Desirapena* (FAL) Haranburuz gain Etxeberrik erabili zuen.

Axularrenak: *Desircundea* (FAL); *Desirosa* A. 312.

*Erremusina, aumoina, limosna*

Axularren *Gero* liburutik atera zituen azpisarrera guztiak: *Erremusinaria* (FHL), *Erremusinalaria* A., *Erremusinaguillea* (FHL).

*Iduria*

Axularrenak dira ondoko eratorriak: *Iduricorra* (FEL), *Iduricortsua* (FHL), *Iduricortcea* (FHL). Horietaz gain, Etxeberriren *Iduripena* (FEL) biltzen da.

*Manua*

*Manatçaillea, manaria*. Azpisarrera konplexu honen bi sinonimoak Etxeberriren *Manual Devotionezcoa*-n aurkitzen dira: *Manaria* (FHL), eta *Manatçaillea* (FEL).

*Miracuillua*

*Miracuilluro, miracuilluz, miracuilluzqui*

Haranbururena da *Miracuilluro* (FHL) eta Axularrena *Miracuilluzqui* (FHL).

*B) Aipuen biltzailea*

Pouvreau ez zen hitz elkarketa eta eratorrien biltzailea izatera mugatu, aipu osoez gain bere iturrietarik «aipu txiki» asko bildu zuen, bai eta xumeenak ere. Batzuetan,

autore bakar baten aipua sartzen ditu sarreretan; berriz, bestetan, autore askorenekin betetzen ditu:

— *Autore bakar baten aipua dituzten sarrerak*

*Aldatzea*

Axularrenak diren *Alda nahia* (FHL) eta *Alda nahitcen da* (FHL) aipu txikiak bildu zituen.

*Arma*

*Armaçoina* (FHL) *armaçoñ* idatzia soilik Etxeberrik erabilia izan da.

*Eredua*

Sarrera honek dituen hiru azpisarrerak liburu berberetik atera zituen, *Manual Devotionezcoa*-tik hain zuzen: *Ereducoa* eta *Ereduzcoa* azpisarrerak (FHL), eta *Eredura* azpisarreraren aipua *Haren eredua* (FHL) Etxeberriz gain Pouvreaux *Philothea*-n eta Etxeberri Sarakoak erabilitakoa da.

*Hobia*

*Urbobia* (FHL) eta *Haraitcina hobiratu cen* (FHNL) Etxeberriren *Manual Devotionezcoa* liburutik atereak dira.

*Hondarra*

Lekukotasun bakarrak (FHL) diren Axularren hiru aipu biltzen dira sarrera honetan: *Bertceren hondarrak*; *Lurraren hondarrean*; eta *Mahatz hondar-mondarrac*.

*Salutacionea, salutancia*

Sarrera konplexu honen *Salutacionea* (FHL) eta *Salutancia* (FAL) Etxeberrirengandik hartuak bide dira.

— *Iturri anitzetako aipua dituzten sarrerak*

*Bidea*

Leizarragarenak: *Çoazte bide cantoinetara*; *Bidetic aldaratcen eta erautsten gara* (FHNL); *Bide çavala* (FAL), *Bide hersia* (FHL); *Bidezco da emaita?*; *Etçayon bidezco idurritcen berequin har leçaten*; *Bide den humilitaterequin*.

Etxeberrirenak: *Bide chuchena* (FEL)

Axularrenak: *Bide huts eguinac* (FHL); *Bide meharra* (FHL); *Ezta bertce bideric* (FHL).

Oihenartenak: pr. 99; pr. 495.

*Dembora*

Leizarragarenak: *Dembora gaitza* (FAL) eta *Demboratacotz* (FHL).

Etxeberrirenak: *Demborazcoa* (FHL).

Axularrenak: *Cembait demboratacoa* (FHL).

*Gutia*

Leizarragarenak: *Gauça gutian leyala hainitzaren gainean eçarriren da* (FHNL).

Beriainenak: *Gutienean* (FAL).

Haranbururenak: *Hitz gutiz* (FAL); *Gutitanago* (FHL).



Axular: *Gutiac dira salvatcen direnac*, A; *Falta gutitagatic ere* (FHL).

Oihenartenak: pr. 205.

#### *Iduria*

Leizarragarenak: *Hura dirudi* (FHL).

Axularrenak: *Iduria du eta ez içana* (FHNL), *Ez icusi iduri eguitea* (FHL), *Elkarren idurica dute* A.155, *Iduriz* (FEL).

Etxeberrirenak: *On idurian* (FHL).

#### *Lamboa edo lambroa*

Etxeberrirenak: *Lamboa* (FAL) Etxeberriz gain Axularrek eta Pouvreak erabilia, eta *Lambroa* (FEL).

Axularrenak: *Beguiac lambotcen çaiizquit* (FHNL).

### — *Sarrera edo azpisarrera konplexuetan bi idazle*

#### *Eheinatcea, errecaitatcea*

*Eheinatcea* (FHL) Oihenarti dagokio, berriz, *Errecaitatcea* (FAL) Haranbururi dagokio, ondoren soilik Axularrek eta Pouvreak erabilia.

#### *Handia*

*Handiqui, handiro, handizqui.*

*Handiqui* (FHL) Axularri dagokio; *Handiro* (FAL) Etxeberriz gain Haranburuk, Harizmendik eta Pouvreak erabili zuten; *Handizqui* (FAL) Harizmendik eta Tartasek baliatu zuten.

#### *Herrautsa, erhautsa*

Sarrera konplexu honen *Erhautsa* (FAL) Leizarragari dagokio, eta *Herrautsa* (FAL) Etxeberriri.

#### *Iaincoa*

*Iaincoakez igorria* (FHL) / *Iaincoaren partez* (FAL). Lehenbizikoa Leizarragari dagokio, bigarrena Axularri.

#### *Iraiquitcea, eraiquitea*

Leizarragak *Eraiquitea* (FAL) erabili zuen eta kasu honetan gainera, iturria egiaztatu geratzen da zeren eta *Eraiquitea* ondoan TA letrak agertzen baitira (Kerejeta 2003: II, 59, 437 oh.), alegia, *Testamentu Berrico Acteac*-en laburdura bide dena. Etxeberrik *Iraiqui* (FHL) erabili zuen.

#### *Lebena*

*Lehen bai lehen, lehen baino lehen.* Etxeberrik *Lehen bai lehen* (FAL) erabili zuen eta Tartas da ondorengo erabiltzailea; berriz, Axularri dagokio *Lehen baino lehen* (FHL).

#### *Titcha, dixá 2 <pr.>, heldea*

Sarrera honetan biltzen dira «*Heldea, Titcha E.*» sarrera konplexua eta *Proverbes*-en behin baino gehiagotan agertzen den Oihenarten aldaera: *Dixá* (hortik, pr. laburdura agertzea).

#### 4.4. **Pouvreau sortzailea**

Dagoeneko 1995ean Lakarrak frogatu zuen Pouvreauren joera sortzailea (ik. § 1.3). Joera horren erakusgarri, euskal literaturaren historian berak bakarrik erabilitakoak eta horrexegatik, —gure lanabesen mugak ahaztu gabe— ziurrenik, berak sortutako 250 bat aipu txiki bildu ditugu (ik. Etxagibel 2010).

Hitz eta lokuzio berrien sorkuntza ez bide zen gelditu hiztegia bukatzerakoan. Izan ere, *Iesusen Imitacionea*-n hiztegian agertzen ez diren bi termino aurkitu ditugu:

*Noizpaiterainokotz*, (*Iesusen Imitacionea*, 3. 7 kap.) ez da agertzen hiztegian, berriz, hiztegioko *noizpaiteraino* eta *noizpaiterainoko*, *Guda espirituala* liburuan erabili zituen.

*Putruzatcea*, (*Iesusen Imitacionea* 3. 13, 20 kap.) ez da agertzen hiztegian. Ostera, *Putruza* sarrerako *Putruztea* —*Putruzturik* forman— *Iesusen Imitacionea*-ren 3. 5 kapituluan agertzen da.

Vinsonek iradoki zuen Pouvreauk *Iesusen Imitacionea*-ren lau liburuak garai ezberdinetan itzuli zituela: «Les quatre livres sont de diverses époques. Le troisième est plus «brouillon», le quatrième plus net que les autres» (Pouvreau 1979: 20).

Kontuan hartuz hiztegian agertzen ez diren aipatutako bi termino horiek 3. liburuan aurkitzen direla, eta halaber gertatzen dela gaztelaniazko pasartearekin (ik. § 4.5.), ondoriozta genezake 3. liburu hori izan zela, hain zuzen ere, hiztegiari lan-tzen utzi ondoren itzuli edota zuzendu bide zuena, 1666?, 1667 ?- 1669 tartean.

#### 4.5. **Pouvreau itzultzailea**

Bi joera horiez bestalde, Pouvreauren hiztegegintzan bada alde azpimarragarririk, bere itzulpengintzarako gaitasuna, hain zuzen ere. Kerejetak Pouvreauren itzulpen-gintzan huts baten ondorioz iradoki zuen Pouvreauk agian ez zekiela ondo gaztelaniaz:

batean behintzat harrapatu dut Pouvreau tokatzen ez dena kopiatzen ere: *Alaba* sarre-ran, «fille» da ematen duen frantseseko kidea, eta Oudinek *fille*-ren ondoren dioen gutzia aldatzen du, hau da: «hija, moça, doncella», begi bistan dago azken biak ez da-gozkiola *alaba*-ri. Ez dakigu Pouvreauk ez ote zekien gaztelaniaz uste izan den bezain ongi, edota «automatismo» hutsaren ondorio ote den (Kerejeta 1991: 869, 12. oh.).

Gure aldetik, Kerejetaren zalantzak deusezta litzakeen pasarte bat aurkitu dugu Pouvreauren itzulpengintzan. Kontua da, *Iesusen Imitacionea* liburuan bi paragrafo-ren artean gaztelaniazko pasarte bat agertzen dela bere euskal itzulpena izan nahi lu-keenaren alboa:

[...] *eta campotic bilhatu duçun baque harc guti irauenen du çure bibotzezco estatua permatua ezpada eguiazco cimenduaren gainean, erran nahi da, ene baitan egoiten eta fincatcen ezpaçaude. Ezpaçare.*

«Quiero dezir que si non estuvieres en mi bien te puedes mudar mas no mejorar por que venida la ocasion hallaras lo que huyas y mas adelante»

*Lecuz alda deçaqueçu, cein ordea hobe çaitesque largatic: ceren ocasionec guertaturic eta hura çu harturic aurkituko duçu ibesi cindoazcon gucia eta gueyago [...]* (Pouvreau 1979: 167-168).

Gure ustez, pasarte hori itzulpen ariketa baten zirriborroa da. Pouvreau zalantzan bide zegoen *ezpaçau*de ala *ezpaçare* «si non estuvieres» gaztelaniazko euskal kidea aukeratzeko; halaber, *erran nahi da* forma inbertsonala «quiero dezir» formaren orde, etab.

Horrek esan nahiko luke Pouvreauk Kempisen liburua euskaratzeko, latinezko orijinala —J. M. Satustregik uste zuenez— (Pouvreau 1979: 17, 18), eta gaztelaniazko itzulpena biak batera erabili zituela, edo bakarrik azken hori. Bide batez, gaztelaniazko pasarte hori hitzez hitz egokitzen zaio Fray Luis de Granadaren 1536. urtean argitaratutako itzulpenari (Fray Luis de Granada 1871: 158).

Alabaina, Pouvreuren euskararekiko gaitasun eta ezagutzari buruz zalantzak dira. Vinson izan zen horrelakoak iradoki zituen lehenengoa:

Certains détails de l'orthographe de Pouvreau, par exemple le confusion qu'il fait entre *s* et *z*, me font supposer qu'il ne parlait pas très couramment le basque et qu'il devait le prononcer assez mal. (Vinson 1891: 120, 1 oh.)

Gure aldetik, hona hemen aurkitu ditugun zenbait itzulpen akats:

*Artiçarra*, *art-urratcea*, *arguiçarra*: étoile du matin

Axularren *art-urratcea*-k, noski, ez du «étoile du matin» esan nahi.

*Hondarra*: le fonds, la lie, le reste

«*Lurraren hondarrea*»: au centre de la terre» Axularrengandik hartzen du: «*Lurrean barrena gure azpian, lurra duen leccuric beherenean, centruaren alde, lurraren hondarrea*».

*Iabaltcea*, *beheititcea*: s'adoucir & temperer: defervere

Axularrengan du etorkia: «*Hango succarra, eta berotasuna, ezta behin ere iabaltcen eta ez beheititcen*». Pouvreauk *beheititcea iabaltcea*-ren sinonimotzat jotzen du.

*Ohia*

*Ohicunde*a, *usança*, *sequientça*, *hazcuntza*: acoutumance

Axularren aipuan batean agertzen diren sarreraren lau hitzak aldaera bezala hartzen ditu: «*iccusaçue iaunac, cer eguiten duen usantçac, cein indar handia duen hazcuntça, lehenbicio sequientçac, eta ohicundeac*».

*Vicia*, *bicia*: la vie, vif

*Erleec viciaiçac garrayatcen tuste*: les abelles amassent leur provision

Axularren aipuan *garrayatcen* aditzak ez du «amasser» esanahia:

*Erleac* [...] *nola çaharrac cofauean barrena, etheco lanen eguiten, egoiten dira; eta gazteac, bere mantenuaren eta viciaiçen garraion*.

Alde batetik, itzulpen akats hauek, eta bestetik, gorago ikusi dugun *Iesusen Imitacionea*-ren gaztelaniatik itzulpen ariketak adieraz litzakete urrats ezberdinak Pouvreuren euskararen ezagutzan, eta ondorioz bere hiztegi gintzan ere.

## 5. Ondorioak

### 5.1. Iturriez

Iturrien azterketak metodologia berezia eskatu digu. Izan ere, lekukotasun corpusaren eraketa bi eragilek zaildua suertatzen da. Batetik, gaurko euskal literaturaren

corpusa —testu eta ediziori dagokienez— Pouvreauk ezagutu zuen edota ezagut zezakeenarekiko mugatua dagoelako, besteak beste, eta garrantzitsuenak aipatzeagatik galduta dauden Etxeberri Ziburukoaren hiztegia eta *Egunorozcoa* liburua, Argainaratzaren *Avisu eta Exortacionea* edo Haranbururen *Deboçino escuarra*-ren bigarren edizioa erabili ahal izan zituen. Bestetik, gure azterketarako erabili ditugun lanabesak mugatuak direlako. Esate baterako eta idatzizko iturriei dagokienez, gure lanabesik nagusiena izan den «Corpus Arakatzaillea»-n ez dira biltzen gure analisisian inplikatuak diren autoreen testu edota edizio ezagun guztiak.

Hortik, erreferentziadun edo balizko lekukotasunak egiaztatzerakoan agertzen den zailtasuna. Horregatik guztiagatik, soilik fidagarritasun-maila aipatuaz mintza daiteke.

Iturriak bi multzo nagusitan bildu ditugu: hiztegi-iturriena, eta testu-iturriena. Bata eta bestearen problematika desberdina izateagatik, beren azterketa banan-banan egin behar izan dugu.

### 5.1.1. Hiztegi iturriez

Hiztegi iturriei dagokienez, bi mota bereizi dugu lekukotasunen kopuruaren arabera:

#### A) Hiztegi iturri nagusiak

Ustekabean, Voltaire agertu zaigu hiztegi iturrietan nagusiena ikusi dugunez (§ 3.2.2). Voltaire Pouvrearen iturria dela frogatzeko (cf. Etxagibel 2011) bi hiztegien arteko erkaketa zuzenaz gain, J. Lakarrak formulatutako egitura irizpidea erabili dugu (Ik. § 2.3.2). Izan ere, Voltaireren sarreraren artean beste batzuk tartekatuak izan arren, oro har, Pouvreauk Voltaireren hiztegiiko euskara-frantseseko ordenari eusten dio, esate baterako, hiztegiaren hasieran: *abadea* [x,x,..], *aberatsa*, *abrea*, [x,x,..], *absolvatcea*, *acabatcea*, etab. Ez hori bakarrik, Voltaireren hiztegiiko ordena berbera gordezten diren bizpahiru sarrerek osatutako hainbat hurrenkera aurkitzen dira Pouvrearen hiztegian, hala nola: *bessoa*, *besta eguna*; *carnaceria*, *çarpa*; *dohatsua*, *doblea*, *dohacabea*; *egoitea*, *egoitstea*, *egostea*, etab.

Zenbaitetan aurkitu ditugu, Voltaire ez ezik, beste autore batzuk ere izan litezkeen delako lekukotasun baten iturria. Horrelako kasuetan auzia askatzeko 2.3.2 atalean ikusitako irizpideak erabili ditugu:

#### — *Hiztegi elebidunaren lehentasuna*

Zenbait lekukotasun esleitu ahal izateko hala nola, *acusatcea*, *anayatasuna* Oudinen frantses-gaztelaniazko hiztegiaren aurretik lehenetsi dugu Voltaireren frantses-euskarazko hiztegia.

#### — *Hiztegi iturrien lehentasuna literatur iturrien aurretik*

Hainbatetan, delako lekukotasun bat aldi berean Voltaireren hiztegian eta literatur testu batean agertzen denean, Voltaireri esleitu diogu. Esate baterako, Leizarragarenak bide diren *chiquiratcea*, eta *quilicatcea*, edo Axularren *sapataguina*, eta *urdaya* Voltaireri egotzi dizkiogu.

— *Koherentzia*

Oihenarten *Oten Gastaroa Nevrthizetan* liburuaren amaierako euskara-frantsezko hiztegitxo elebiduna eta Voltoireren frantses-euskarazko hiztegia Pouvreuren iturriak izan ahal direnean, koherentziaz, iturri nagusia den Voltaire lehenetsi dugu, adibidez, *beruna*, eta *igueltsua*.

B) *Hiztegi iturri txikiagoak*

Multzo honetan bildu ditugu Etxeberri Ziburukoaren hiztegi galdua, eta oraingoz bederen, Oudinen *Tresor...* delakoa, kontuan hartuz, oraindik ez dagoela argi Pouvreuren erabilera zenbatetarinokoa den (ikus Etxagibel 2011).

Horiez landa, Pouvreauk Leizarragaren *Testamentu Berria*-ren amaierako *Çuberoaco Herrian Vsançatan...* izenburuko hitz bilduma, Oihenarten *Notitia...* eta gorago aipatutako *Oten Nevrthiz...* liburuetan agertzen diren «hiztegitxoak» usu erabili zituen.

5.1.2. *Testu iturriez*

Literatur iturrien ikerketan bi pausu eman behar izan dugu. Alde batetik, Pouvreuren erreferentziadun lekukotasun guztiak egiaztatzen saiatu gara, eta horretaz azpimarratu behar da —idazle bakoitzari eskainitako ataletan zehazten denez— identifikatzeko geratu direla Axularri egotzitako A. laburduradun 7 lekukotasun; bai eta Etxeberri Ziburukoaren hiztegi galduari, eta, agian, *Egunorozco* liburuari legozkiekeen 53 lekukotasun; Haranbururen *Debocino escuarra*-ren Harizmendik moldatutako edizioari legozkiekeen 22, eta O. laburduradun 109 lekukotasun, ziurrenik Oihenartek Pouvreari bidalitako eta gaur egun desagertutako zerrenda zenbait legozkiekeenak.

Bestetik, erreferentziarik gabeko lekukotasun balizkoak biltzen saiatu gara. Gure kalkuluen arabera, hiztegian guztira 2200 bat pasatxo balizko literatur lekukotasun dira, hau da, lekukotasun guztien ~%60, eta bere fidagarritasun mailaren arabera bi multzo nagusitan banatu dugu:

Lehendabizikoan bildu ditugu literatur testuetatik ateratako aipu osoak, hau da, beren osotasun edota luzeraz identifikagarriak diren literatur testu pasarteak, hala Pouvreuren iturri ezagunekoak nola balizko iturri berriagoetarikoak. Gure analisieren aipatutako mugengatik beren egiazkotasun erabatekoa ezin izan arren, fidagarritasun mailarik handienetariko lekukotasunak (FHNL) direla balioets dezakegu. Esate baterako, *Kaillua* sarrerako «*Larrua caillutcen çaiça, loditcen, gogortcen*» aipua Axularri legokioke: «*escuetaco larrua ere loditcen gogortcen, eta khaillutcen çaiça*» (Ax. 90), edo *Alea* sarrerakoa «*Egotu naiz alleguia ni hilla*», Etxeberri legokioke: «*Gau guztian egotu naiz alleguia ni hilla*» (*Manual* II, 33).

Bigarrean, «aipu txikiak» izendapenez bildu ditugun zenbait lokuzio, izen, deklinabide kasu, hitz elkarketa, hitz eratorri, aditz, adberbio, etab., Pouvreauk literatur testuetatik atera ahal izan zitzakeenak. Adibidez: *Adisquidea* sarreran «*Adisquide mami bat*» Axularrena bide da: «*adisquide mami batequin beçala*» (Ax., 325), edo, *Arrain* sarreran «*Arrain iguelduria*» Etxeberrirena bide da: «*Vrean ere ezta içanen arrain iguelduririç*» (*Manual* I, 88).

Multzo hori eratzeko Pouvreuren joeran oinarritu gara, zeren mota hauetako aipu txiki erreferentziadun asko sartu baitzuen bere hiztegian. Multzo horren fidaga-

rritasun maila lehenengoarena baino txikiagoa da, batetik, eta aldakorra ere, bestetik, ez bakarrik edozein aipu txiki berez zailagoa delako identifikatzeko orduan, baizik eta egiletasuna zehazteko probabilitatea aldatzen delako azterketaren denbora tarteko autore batek edo batek baino gehiagok erabilia izan. Ondorioz, lau azpimultzo bereizi behar izan dugu:

«Lekukotasun bakarra»: azpimultzo honetan biltzen dira azterketaren denbora tarteko autore bakar batean diren lekukotasunak, geroztik, euskal literaturan zehar inoiz gehiago erabili ez direnak. Esate baterako, *Escadroina* sarrerako burua Etxeberriri legokioke: «*Escadroñac ordenantçaz, ordenantçaz pausua*» (*Manual* I, 84), edo *Harroina* sarreraren, «*Harroinean 6666 colpe*» soilik aurkitzen da Haranbururen *Debocino escuarraren* 1690eko edizioan: «*Harroinean açoiatu çuten Pilatus baithan; sei milla sei heun hirurogoi eta sei açote colpez cruelqui*» (*Debocino*, 369).

«Gainerako erabiltzaileak»: hemen biltzen dira azterketaren denbora tarteko autore bakar batez gain, geroztik euskal literaturan zehar autore gutxiak —lauzpabostek— erabili dituzten lekukotasunak. Azpimultzo honetan beste azpimultzo batzuk bereizi behar izan dira aintzakotzat hartuz gainerako erabiltzaile horiek zein izan diren: a) Pouvreau izan da gainerako erabiltzaile bakarra, b) Pouvreau eta 1666az geroztikoak, c) 1666az geroztikoak, eta d) azterketa denbora tarteko beste autore bat da gainerako erabiltzaileen artean. Adibidez, *Cofauea* terminoaren lehen lekukotasuna Axularrengan aurkitzen da: «*nola çaharrac cofauean barrena*» (Ax., 35), geroztik soilik Pouvreau eta Etxeberri Sarakoak erabili zuten. Halaber, *Charrantcha* lehen aldiz Etxeberri erabili zuen: «*Orrace, eta charrantchac baita orratz meheac*» (*Manual* I, 103), ondoren Arxu eta Duvoisinek baliatu zuten.

«Erabiltzaile bakarra»: azpimultzo honetakoak dira azterketaren denbora tartean erabiltzaile bakarra izan duten lekukotasunak. Adibidez, *Doillorra* sarrerako *Doillorqueria* azpisarrera Axularrengan soilik aurkitzen da: «*eta ahalquea [...] doillorqueriaz preçatcea*» (Ax., 96), edo *Bandera* sarrerako *Banderaria* Etxeberriren *Manual*-ean soilik aurki daiteke: «*Eta hain ordena deuot baten banderaria*» (*Manual* II, 31).

«Ondorengo erabiltzaileak»: azpimultzo honetan sartzen dira kronologikoki azterketaren denbora tartean lehendabiziko autore batez gain beste erabiltzaile batzuk izan dituzten lekukotasunak. Esate baterako, *Billuzgorria* sarrerako *Billuzgorritasuna* Leizarragarengan aurkitzen da: «*aggueri eztençat hire billuzgorritassunaren laidoa*» (*Apo* III, 18), eta ondoren, Materrek erabili zuen. Halaber, *Urruna* sarrerako *Urrundanic* Leizarragak erabili zuen: «*Eta Pierris iarreiquiten çayon vrrundanic*» (*Mat.* XXVI, 58), eta geroztik Etxeberri Ziburukoa eta Oihenarten idazlanetan agertzen da.

Hiru fidagarritasun maila bereiz daitezke «aipu txikiak» multzoaren azpimultzo hauetan gutztietan:

Fidagarritasun maila handikoak (FHL):

«Lekukotasun bakarra» azpimultzokoak.

«Gainerako erabiltzaileak» ondoko azpimultzokoak: a) Pouvreau gainerako erabiltzaile bakar gisa agertzen denean, b) Pouvreau eta 1666az geroztikoak, c) 1666az geroztikoak. Esate baterako, *Bada eta ezpada* lokuzioa Axularrez gain (Ax. 197), Pouvreau agertzen da gainerako erabiltzaile bakar gisa. Berriz, *Arboladia* Etxeberri Ziburukoaz landa (*Manual* I, 80) Erkiaga, Arana, eta Antiak erabili dute.

Fidagarritasun maila ertainekoak (FEL):

«Erabiltzaile bakarra» azpimultzokoak. Adibidez, *Iaurgoa* azterketa denbora tartean soilik Leizarragak (*Othoitz*, 1288) erabili zuen.

Fidagarritasun maila apalekoak (FAL):

«Gainerako erabiltzaileak» azpimultzokoak lehendabiziko autoreaz gain azterketaren denbora tarteko beste autore batzuk aurkitzen direnean gainerako erabiltzaileen artean. Esate baterako, *Egundainoticacoa* Etxeberri Ziburukoaz gain (*Manual* II, 14) Argainaratzek eta Duvoisinek erabili zuten.

«Ondorengo erabiltzaileak» azpimultzoko lekukotasun guztiak. Adibidez, *Aihercundea* Leizarragaz gain (*Regueri*, 1356) Etxeberri Ziburukoak, Haranburuk, eta Axularrek baliatu zuten.

Banaketa hauek agerian uzten dute delako lekukotasun bat iturri anitzetan izan ahal izateak dakarren arazoa. Horrelakoetan, eta lekukotasunen corpora antolatzeke, delako lekukotasun hori kronologikoki lehenbiziko iturria denaren taulan jarri dugu, aipatuz ondorengo erabiltzaileak. Adibidez, *Çure favorearequin batean*, Materren taulan agertzen da, eta aldi berean aipatzen dira lekukotasun honen ondorengo iturriak: Etxeberri Ziburukoa, Haranburu, eta Axular.

Haatik, zenbait irizpide proposatu dugu iturri anitzen arteko bati nolabaiteko ziurtasunez esleitzeko delako lekukotasun hori:

— *Iturriekiko koherentzia*

Pouvreauk sarrerak bere iturrien lekukotasunen sortez betetzeko zuen jaiduran oinarritzen da, hau da, lekukotasunak autorez autore biltzen zituela irakurketaren hurrenkeraren arabera. Esate baterako, *Berretcea* sarreran agertzen dira «*Berretura A*», «*Berrexapena H*», «*Berretçapena O*» eta FHL-ak diren *Berretçaillea* (Etxeberri Z.) eta *Berretasuna* (Argainaratz). Berriz, *Çucia*, *Haroa* sarrera Etxeberriren lekukotasunez bete zuen. Izan ere, *Fedearen çucia* (*Noelac*), *Leinhurutsu çucia* (*Manual*) eta *Haroa* (*Eliçara*), FHL-ak dira.

Irizpide hau eraginkorra bide da hainbat lekukotasun esleitzerakoan. Adibidez, *Aldea* sarrera Axular eta Haranbururenak bide diren erreferentziarik gabeko lokuzioz osatua da: Axularrenak: *Aitcin aldea* (FHL); *Aldez damu, aldez atseguin* (FHL); *Alde çaquitça* (FHL); *Etsaiari alderatcea* (FHL); eta *Alde guztiz complitua* (FAL). Haranbururenak: *aldez edo moldez* (FAL). Haranbururen ondoren, kronologikoki, Axularrek erabili zuen. Kontuan hartuz, zazpi lokuzio Axularrenak direla, eta gainerakoa Haranburuz gain Axularrek erabili zuela, errazena eta logikoena guztiak Axularri esleitzea izango litzateke.

— *Lekukotasunen arteko hurbiltasunaren irizpidea*

Askotan, Pouvreauk literatur testu batetik pasarte bereko edo testuan hurbil diren erreferentziadun lekukotasunak jasotzeko zuen joeran oinarritzen gara, eta erreferentziarik gabeko balizko lekukotasunen iturrien identifikaziorako extrapolatu egin dugu. Adibidez, Pouvreauk *Errementa* sarrerako *Errementaldeguia*, eta *Harotza* sarreran *Harotzaren suteguia* Axularrengandik hartu zituen: «*Erremental deguian, harotzaren suteguian*» (Ax. 325, 10.l.). Halaber, *Edalea* sarrerako *Edateco* eta *Kurtea* sarrerako *Edateco kurca guztietan*, «*Bertce hegaztinac edateco curca guztietan*» pasarteari legezkiok (Ax. 342, 12.l.).

Irizpide hau aurrekoaren kasu berezitat har daiteke eta bere eraginkortasuna frogatuta suertatu bide da zenbait kasutan. Esate baterako, *Naguitasuna* (FAL) Mate-

rez gain Etxeberrik, Haranburuk eta Axularrek erabili zuten; *Naguiqui* (FHL) Axularrez gain Duhaldeak eta Duvoisinek erabilia izan da. Gertatzen dena da, Axularren ondoko aipuan biak batera agertzen direla: *Hasuiñac significatcen du naguitasun, baldin malguqui, leunqui, emequi, naguiqui eta balacuz beçala hazcatcen* (Ax. 41). Hortik, errazena izango litzateke bi eratorriak Axularrengandik etortzea.

— *Erraztasun maila iturrien testuen erabileran*

Pouvreau euskaldunberri zelarik, erraztasunez, hiztegia prestatzen hasi zenean eskura ahal izan zituen euskal testuen artean berarentzat ulerterrazena zirenak lehenetsi bide zituen, hots, itzulpenak. Ikuspuntu horretatik Leizarragaren *Testamentu Berria*, Beriainen testuan, Oihenarten *Les Proverbes basques* eta Harizmendiren *Officioac* izango lirateke erraztasun maila gorena zutenak. Haranbururen, Axularren, eta Tartasen testuak bigarren maila batean kokatu beharko lirateke zenbait latinezko aipu edo atal dituztelako, etab.

Irizpide hori erabilgarria izan daiteke zenbaitetan lekukotasunak esleitzerakoan. Adibidez, «*Espata magna. fourreau d'épée*» aipua Leizarragak (*Io*, XVIII, 11) eta Axularrek erabili zuten (Ax. 540, 570). Axularren lekukotasunak diren pasarteak ez dira latinezko aipuen itzulpenak, berriz, Leizarragaren kasuan: *Erran cieçon bada Iesussec Pierrisi, Eçarrac cure ezpatá maguinán* (*Testamentu Berria*); «Jesus donc dit à Pierre, Remets ton épée au fourreau» (*Bible de Geneve*); «Dixit ergo Jesus Petro: Mitte gladium tuum in vaginam» (*Vulgata*). Ondorioz, arrazoizkoa da Leizarragak esleitzea.

— *Lekukotasunen erabileraren maiztasuna*

Zenbaitetan baliagarria izan daiteke. Hala ere, bere eraginkortasuna aldakorra gertatu denez, soilik aurreneko hiru irizpideen osagarritzat hartu dugu. Esate baterako, *Sacramendua, sagaramendua* sarreran, Materrek berrogeitabat aldiz erabili zuen *Sagaramendua*, berriz, termino honen gainerako erabiltzaile bakarra izan den Axularrengan aldi batez aurkitzen da. Horrenbestez, Pouvreauren iturria izateko probabilitate gehien duena Materre da.

Irizpide horiez gain, autoreen grafia edota *usus scribendi* delakoa baliagarriak dira, puntualki bada ere, kontuan hartuz, Pouvreauren grafiak, oro har, ez zaizkiela jatorrizkoei egokitzen. Esate baterako, *Lana* sarrerako *Lanhabeça* azpisarrerara esleitzeke aurkitzen dugu Etxeberrik *Lanabesa*, eta Axularrek *Lanhabesa* idatzi zutela. Beraz, ematen du Axular izan zela Pouvreauren iturria.

Horrela jokatzuz, 3700 literatur lekukotasun inguru lukeen corpus bat eratu dugu. (ik. § 3.2.1, § 4.3.) Horietatik ~%40 dira erreferentziadunak, eta ~%60 dira erreferentzia gabeko balizko lekukotasunak. Azken hauen artean ere asko eta asko Leizarraga, Etxeberri Ziburukoa, Axular, Harizmendi eta Oihenarti legezkieke. Ez hori bakarrik, Etxepare, Materre, Beriain, Haranburu, eta Argainaratzek bide diren franko ere azaleratu ditugu.

Corpus horretatik kanpo utzi ditugu identifikatzeke geratu zaizkigun erlijio kutsuko 91 aipu eta 61 errefrau.

Iturriko lekukotasunen kopuruaren arabera, bi iturri mota bereiz dezakegu: iturri nagusietakoa, eta iturri txikiagoetakoa. Lehendabizikoen artean aurkitzen dira Axular ~%24z, Leizarraga ~%22z eta Etxeberri Ziburukoa ~%21ez, eta Oihenart ~%20z. Bigarren taldean Haranburu ~%5ez, Materre ~%4z, Etxepare ~%1ez, eta %1 baino gutxiagoz Harizmendi, Tartas, Beriain, eta Argainaratz.



Iturriak banan-banan aztertuz, erreferentziadun lekukotasun eta erreferentziarik gabeko arteko banaketari buruz, Pouvreauk erabilitako edizioei buruz, eta beste zenbait gauzari buruz hainbat datu interesgarri azaleratu ditugu (Etxagibel 2010) eta orain prestatzen ari naizen lanetan zabalduko ditugu.

### 5.1.3. Hiztegi gintzaz

Hiztegi gintzaren arloan Pouvreauren soslai biltzailea nabarmendu dugu. Izan ere, batez beste, sarreraren ~%92k literatur lekukotasunen bat dute, nahiz erreferentziaduna, nahiz erreferentziarik gabekoa.

Pouvreauren bilketan hiru ezaugarri nabarmentzen dira: lekukotasunak egiaztatzea zailtzen duen parafasiaren erabilera, gramatika jokabide bereziak iturrien lekukotasunak hiztegiaren islatzerakoan eta iturrien jatorrizko grafien aldaketa. Horietaz gain, tartean behin bada ere, halako garbizaletasunerako joera.

Dagoeneko frogatua zen Pouvreauren joera sortzailearen erakusgarri, euskal literaturaren historian berak bakarrik erabilitakoak eta horrexegatik, —gure lanabesen mugak ahaztu gabe— ziurrenik, berak sortutako 250 bat aipu txiki bildu ditugu.

Pouvreauren euskararen ezagutzari buruz zalantzak sortzen dituzten itzulpen akatsak hainbat urrats ezberdin adieraz litzakete bere euskararen ezagutzan, eta ondorioz, bere hiztegi gintzan ere.

Laburbilduz, modu orokorrean esan daiteke lan honen bitartez Pouvreauren iturrien eta hiztegi gintzaren ezagutzan urrats bat aurreratu dugula. Ekarpenean artean nabarmentzekoak dira Pouvreauk bere hiztegiaren egituraketan egin duen Voltoireren hiztegiaren erabilera (cf. Etxagibel 2010 eta 2011), literatur lekukotasun guztien %60a diren erreferentzia gabeko lekukotasunen agerpena, eta, Etxepare, Beriain, Materre, Haranburu, Argainaratz, eta Tartas azaleratzea balizko iturri gisa (cf. Etxagibel 2010 eta prestatzen ari naizen zenbait lan).

Nolanahi ere, ekarpenekin batera galdera berriak ere azaltzen dira, esate baterako, zergatik jaso zituen Pouvreauk hainbeste literatur lekukotasun iturri aipamenik gabe, edo, zergatik utzi zituen isilpean Materre eta Haranburu —biak frantziskotarrak, hain zuzen—.

Berriz, ikerketa lanean zehar agertu diren zenbait puntu argitu gabe, edota bukatzeke geratu dira. Izan ere, Pouvreauren grafia aldaketak ikerketa sakon baterako gai ditugu. Halaber, literatur lekukotasunak identifikatzeko proposatutako irizpide berrien eraginkortasunaren helmena aztertu behar da. Horiez bestalde, XVI. eta XVII. mendeetako errefraue bildumetan aurkitu ez ditugun errefrauen paremiologia iturri ezezagunek eta Oudinen hiztegiaren erabileraren hedadurak ikerketa zorrotzak eskatzen dituzte.

Beraz, hiztegi eta literatur iturrien ezagutzan zerbait aurreratu badugu ere esan daiteke oraindik lan asko egin beharko dela iturrien auzia askatzeko, ahaztu gabe, halaber, ahozkoak izan litezkeen lekukotasunen arloa jorratu gabe dela oraingoz.

## 6. Bibliografia

Altuna, P., 1981, *Manual Devotionezcoa (Lehen zatia): Edizio kritikoa*. Euskaltzaindia, Ediciones Mensajero, Bilbo.

- Argainaratz, 1665, *Devoten Breviarioa*, Bosc, Baiona. J. Vinsonek argit. 1910, [on-line] Klasikoen gordailua <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/A/ArgainaratzDeboten.htm>>
- Aulestia, G. (arg.), 1996, *Los escritores. Hitos de la literatura clásica euskérica*, Gasteiz. Antso Jakituna Fundazioa.
- Axular, P., 1643, *Gvero bi partetan partitua eta berecia*, Bordele, G. Milanges. Berrarg. faksim. Euskaltzaindia, Bilbo, 1988.
- Azkue, R. M.<sup>a</sup>, 1906, *Diccionario vasco-español-francés*, Bilbo-Paris. Bigarren arg. faksim. LGEV, Bilbo, 1969.
- Beryain, J., 1621, *Tratado de como se ha de oyr missa escrito en romance y bascuence*. Labayen, Iruña. Berrarg. faksim., Hordago, Donostia, 1980 [on-line] Klasikoen gordailua <<http://klasikoak.armiarma.com/faksimileak/17/BeriainMeza.pdf>>
- , 1626, *Doctrina Cristiana escrita en Romance y Bascuence*, Labayen, Iruña.
- Bilbao, G., 1992, «Pouvreuren hiztegi laukoitza», *ASJU* XXVI-2, 341-389.
- Daranatz, J. B., 1910, «Sylvain Pouvreau valet de l'abbé de Saint Cyran, protégé de Saint Vincent de Paul», *RIEV* IV, 206-216.
- , 1912, «Silvain Pouvreau en villégiature a Bidart», *RIEV* VI, 200.
- Detxepare, B., 1545, *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordeaux, F. Morpain. Berrarg. faksim. Orain, Donostia, 1995.
- Dubarat, V., 1908, «Sylvain Pouvreau curé de Bidart», *RIEV* II, 104-110.
- , 1914-1917, «Le Dictionnaire Basque et Les Rudiments du P. Dominique Bidégaray, Franciscain du Couvent de Pau», *RIEV* VIII.
- & Daranatz, J. B., 1929, «Sylvain Pouvreau prêtre de Bourges, écrivain basque, curé de Bidart de 1640-1644», *RIEV* XX, 96-101.
- Etcheberri I., *Manual Devotionezcoa edo ezperen oren oro escuetan erabiltceco liburutchoa*, 1627, Milanges, Bordele. Berrarg. 1669, Mongiron, Bordele. [on-line] *Klasikoen gordailua*. <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxebZibuManual.htm>>
- , -1630, *Noelac eta bertce canta espiritual berriac*, Milanges, Bordele. Berrarg. 1697, Maffre, Baiona. [on-line] *Klasikoen gordailua*. <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxebZibNoelak.htm>>
- , 1636, *Eliçara erabiltceco liburua*, Milanges, Bordele. Berrarg. 1665, Mongiron, Bordele [on-line] *Klasikoen gordailua*. <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/E/EtxebZibElizara.htm>>
- Ettxagibel, J., 2010, «Silvain Pouvreuren hiztegiaren iturriak eta testukritikaren metodologia», UPV/EHU-ko DEA-ko lan argitaragabea.
- , 2011, «Voltaire Pouvreuren hiztegiaren». *ASJU*-n argitatzeko lana.
- Elzevier argitar., 1669, *Bible de Geneve*, [on-line] <<http://www.biblegeneve.com/>>
- Godeffroy, 1982, *Dictionnaire de l'ancienne langue française du IX au XV siecle*, Slaktine, Geneve- Paris.
- Granada de, Fr. Luis, 1536, «*De Imitatione Christi*». Berrarg. in *El menosprecio del mundo e Imitación de Cristo obra compuesta en latín por el V. Tomás de Kempis traducida al castellano por el V.P.M. Fray Luis de Granada*, Madrid, Oficina Tipográfica del Hospicio, 1871.
- Haranburu, I., 1635, *Debocino escuarra*, De La Court, Bordele. [on-line] *Klasikoen gordailua*. <<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/H/HaranburuDebozino001.htm>>
- , Haranburu /Harizmendi, -1660, *Debocino escuarra*. Berrarg. 1690 (Lazkaoko Beneditarren liburutegian gordetzen den edizioako faksimilaren kopia).

- Harizmendi, C., 1660, *Ama Virginaren Officia*. Vinsonek argitar., 1901. Berrarg. faksimil. Hordago, Donostia, 1978.
- Kerejeta, M. J., 1991, «Oihenart Silvain Pouvreuren hiztegi», *ASJU* XXV-3, 865-899.
- , 2003, *S. Pouvreuren Hiztegiaren edizioa* (argitaratu gabe).
- Kortazar, J., 1996, «Arnault Oihenart (1592-1667)». In Aulestia (arg.), 211-231.
- Lafitte, P., 1967, «L'art poétique basque d'Arnaud d'Oyhenart (1665), avec une introduction de Pierre Laffite», *Gure Herria*.
- Lafon, R., 1955 «Notes pour une édition critique et une traduction française des poésies d'Oihenart», *BAP* XI, 135-173.
- Lakarra, J. A., 1994, «Harrieten Gramatikako hiztegiak», *ASJU* XXVIII-I, 1-178.
- , 1995, «Pouvreuren hiztegiez eta hiztegi-intzaren historiaz», *ASJU* XXIX, I, 1-52.
- , 1996a, «Refrancos antiguos vascos anteriores a Oihenart». In Aulestia (arg.), 141-175.
- , 1996b, *Refranes y Sentencias: Ikerketak eta Edizioa*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- , 1997, «Hizkuntz eskuliburuen tradizioa Euskal Herrian: I. *L'interpréter ou traduction du français, espagnol & basque* (~ 1620)», *ASJU* XXXI, I, 1-66.
- , 1999, «*L'interpréter ou traduction du français, espagnol & basque* (~ 1620): II. Elkarrizketak», *ASJU* XXIII, 2, 493-568.
- Leizarraga, I., 1571, *IesVs Christ Gvre Iaunaren testamentv Berria*, Rochela, P. Hautin, 1900ean Strassburg-en Linschmann-Schuchardten argitalpen ia faksimilaren berrarg. Euskaltzaindia, 1990, Bilbo.
- Materre, E., 1617, *Dotrina Christiana*, De La Court, Bordele. Berrarg. 1623, Milanges, Bordele [on-line] *Klasikoen gordailua*. <<http://klasikoak.armiarma.com/MI/MaterreDotrina.htm>.>
- Mitxelena, K., 1960, *Historia de la literatura vasca*, Madril, Minotauro. 2. argit. Donostia, Erein, 2001.
- , 1961, «Euskal iztegi-gilleak XVII-XVIIIgarren mendeetan», *Euskera* 6, 7-22.
- , 1964, *Textos arcaicos vascos*, 2. arg. *ASJU*-ren Gehigarriak 111, Donostia, 1990.
- , 1987, *Diccionario General Vasco. Orotariko Euskal Hiztegia [OEH]*, Desclée De Brouwer-Mensajero, Bilbo. [on-line] *Euskaltzaindia* <<http://www.euskaltzaindia.net/oeh>>
A pesar del celo que Fréret ponía en toda aquella tarea que emprendía, era inevitable, sobre todo a la vista del método utilizado para la elaboración de su vocabulario vasco, que cometiese errores en su trabajo. Por ello es perfectamente entendible el nacimiento de *çainana* como *ghost word*. Como igualmente comprensible es que Bullet, absoluto desconocedor del euskara, confiase en sus fuentes vascas y, por ende, reprodujese en su diccionario celta tal voz fantasma.

Aún desconocemos quién y por qué decidió compilar todos los vocablos vascos de la obra de Bullet, e ignoramos cómo llegó tal vocabulario manuscrito a manos de Bonaparte. Parece difícil creer que fuese un trabajo hecho por encargo del príncipe,

<sup>33</sup> Etxebarria (1994: 48) dividió en dos entradas diferentes lo que para Bullet, y con él su anónimo copista, era una sola. Así, creyó que *calcaerazo* era el correspondiente francés de *calcaeraguin*, mientras que *forcer* y *contraindre* lo eran de *calcaraci*.

<sup>34</sup> Etxebarria (1994: 48) leyó *çaldiceo*.

puesto que éste, cuando en 1847 publicó su primera obra de carácter lingüístico (el *Specimen lexic comparativi omnium linguarum europaearum*), ya tenía a su disposición tanto el *Diccionario Trilingüe* de Larramendi como el vocabulario vasco que Humboldt (1817: 15-34) incluyó en su *Berichtigungen und Zusätze*. Pocos años después, tras su primer viaje a Euskal Herria en 1856, Bonaparte ya estaba en vías de convertirse en uno de los más eminentes dialectólogos vascos de todos los tiempos.<sup>35</sup> No acaba de entenderse, en definitiva, qué interés podía tener para Bonaparte un vocabulario tan deficiente, mezcla indiscriminada de términos vascos de diversos siglos y dialectos. Tal vez, como le ocurriese a Etxebarria, llegase a su poder sin que alcanzara a percatarse de su auténtica naturaleza de *codex descriptus*.

No hay que descartar tal posibilidad, porque ya dijo el profesor Lakarra (2001: 603) que “a pesar de constituir un corpus escaso y fácilmente abarcable [...], la lexicografía vasca antigua es insuficientemente conocida”. Nosotros creemos que, desafortunadamente, la afirmación de Lakarra tiene aún plena vigencia. No conocemos autor alguno que haya abordado, ni siquiera tangencialmente, el estudio del *Vocabulaire Basque* de Fréret. Y en cuanto al elemento vasco del diccionario de Bullet, poco o nada se ha escrito tras el estudio que Aquesolo realizara en el año 1967. Por ello, las posibles carencias de trabajos como el de Etxebarria al editar el vocabulario bonapartiano, debieran, en realidad, ser entendidas como las carencias de la vascología en su conjunto. De tal manera, no podemos sino concluir con una cita del Evangelio de S. Juan (8, 7) que, en palabras de Leizarraga (1571: 177r), suena así: “çuetaric bekatu gabe denac, lehenic horren contra harria aurdigui beça”.

## Bibliografía

- Abbott, Th. K., 1906, «On an early Latin-English-Basque dictionary», *Hermathena* 14: 32, 55-105.
- [Anónimo] (trad.), 1563, *Le Nouveau Testament, c'est à dire, la nouvelle alliance de nostre Seigneur Iesus Christ*, Geneve: I. Bonne-Foy.
- [Anónimo] (trad.), 1673, *Le Nouveau Testament de nostre Seigneur Iesus Christ, traduit en François avec le Grec, & le Latin de la Vulgate*, Mons: G. Migeot.
- [Anónimo], [*Vocabulario Vasco-Francés*], [ca. 1860], Ms. del Archivo Real y General de Navarra, Fondo Bonaparte, carpeta 8 (Caja 33, 123). Editado en Etxebarria 1994, 18-140.
- Aquesolo, L., 1967, «Un Diccionario vasco inserto en *Mémoires de la langue celtique*, de Bullet (1755-1760)», *BAP* 23: 2, 141-147.
- Azkue, R. M., 1905-1906, *Diccionario Vasco-Español-Francés* (2 vols.), Bilbao / Paris: P. Geuthner [etc.].
- , 1925, «Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlín, de los manuscritos de Guillermo Humboldt», *Euskera* 6, 60-66.
- Baldinger, K., 1974, «Les gaffes des lexicographes», en E. de Bustos (ed.), *Studia hispanica in honorem R. Lapesa* (3 vols.), Madrid: Gredos, vol. II, 81-87.

<sup>35</sup> Tengamos presente que, en 1857, Bonaparte ya había publicado tanto la *Parabola de Seminatore ex Evangelio Matthaei*, como el *Prodomus Evangelii Matthaei octupli*, obras ambas en las que ya distinguía entre seis dialectos vascos (con el paso del tiempo iría perfeccionando esta primera división dialectal).

- Bonaparte, L.-L., 1847, *Specimen lexici comparativi omnium linguarum europaeorum*, Florentiae: [s.n.].
- , 1857, *Parabola de Seminatore ex Evangelio Matthaei*, in *LXXII europaeas linguas ac dialectos versa*, Londini: [s.n.].
- , 1857, *Prodomus Evangelii Matthaei Octupli, seu Oratio Dominica, hispanice, gallice et omnibus vasconicae linguae dialectis reddita*, Londini: [s.n.].
- Bruzen de la Martinière, A., 1726-1739, *Le Grand Dictionnaire géographique et critique* (9 ts. en 10 vols.), La Haye: P. Gosse [etc.].
- Bullet, J.-B., 1754-1760, *Mémoires sur la langue celtique* (3 vols.), Besançon: C. J. Daclin.
- Delort, J., 1829, *Histoire de la détention des philosophes et des gens de lettres à la Bastille et à Vincennes* (3 vols.), Paris: F. Didot.
- Dodgson, E. S., 1912, *The baskish verb: a parsing synopsis of the 788 forms of the verb in St. Lukes gospel, from Leizarragas New Testament of the year 1571*, London: H. Frowde.
- Etxebarria, J. M., 1990, «XVIII eta XIX gizaldietako sei hiztegi argitaragaberen berri», en P. Urkizu (ed.), *Patxi Altunari Omenaldia*, Donostia: Deustuko Unibertsitatea, 63-83.
- , 1994, «Vocabulario Vasco-Francés izeneko XIX mendeko hiztegia», *Oihenart* 12, 9-140.
- Francisque-Michel, X. (ed.), 1847, *Proverbes basques recueillis par Arnauld Oihenart, suivis des poésies basques du même auteur*, Bordeaux: P. Faye.
- , 1857, *Le Pays basque: sa population, sa langue, ses moeurs, sa littérature et sa musique*, Paris: F. Didot.
- Fréret, N., [ca. 1714a], *Vocabulaire Basque tiré de la traduction du Nouveau Testament par Leizarraga*, Ms. inédito de la Biblioteka Jagiellońska, Coll. ling. fol. 73, 217-245.
- , [ca. 1714b], *Essay d'une grammaire de la Langue Basque*. Editado en Hurch 2002, 81-110.
- , [1714a], *Recherches sur le dieu Endovellicus, et sur quelques autres antiquités ibériques*. Editado parcialmente en Septchènes 1796, vol. XVIII, 285-298.
- , [1714b], *De l'origine des Français, et de leur établissement dans la Gaule*. Editado en Septchènes 1796, vol. V, 155-367 y vol. VI, 1-227.
- , [1744], *Vues générales sur l'origine et le mélange des anciennes Nations, et sur la maniere d'en étudier l'Histoire*. Editado en Septchènes 1796, vol. I, 215-266.
- Gárate, J., 1933, *G. de Humboldt: Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*, Bilbao: Imprenta Provincial.
- Gómez, R., 1997, «Euskalaritzaren historia eta historiografia: ikerketa-arloaren egoeraz», *ASJU* 31: 2, 363-391.
- , 2007, *XIX. mendeko euskal gramatikagintzari buruzko ikerketak*, [Bilbo]: Servicio editorial de la Universidad del País Vasco.
- , 2008, «Euskal gramatikagintza zaharraren historia laburra: XVII-XVIII. mendeak», *Anejos de ASJU* 51, 329-349.
- González Echegaray, C., 1984, «Catálogo de los manuscritos reunidos por el príncipe Luis-Luciano Bonaparte que se hallan en el País Vasco», *Euskera* 29: 1, 23-184.
- Grell, Ch., 1994, «Étude chronologique des recherches historiques de N. Fréret», en C. Grell et al. (eds.), *Nicolas Fréret, légende et vérité*, Oxford: Voltaire Foundation, 21-48.
- Humboldt, W. von, 1817, *Berichtigungen und Zusätze zum ersten Abschnitte des zweyten Bandes des Mithridates über die Cantabrische oder Baskische Sprache*, Berlin: Vossischen.
- , 1821, *Prüfung der Untersuchungen über die Urbewohner Hispaniens vermittelt der Vaskischen Sprache*, Berlin: F. Dümmler.

- Hurch, B., 2002, *Die baskischen Materialien aus dem Nachlass Wilhelm von Humboldts*, Paderborn: F. Schöningh.
- , 2003, «El programa de recopilación vascológica de Wilhelm von Humboldt», *RIEV* 48: 1, 73-90.
- Irigoyen, A. (ed.), 1957, «Del epistolario de Azkue», *Euskera* 2, 261-393.
- Kintana, X., 2007, «Gure Testamentu Berriaren aurretiko zaharrak», en Leizarraga 2007, vol. II, 49-132.
- Labourt, L. A., 1854, *Recherches sur l'origine des ladreries, maladreries et léproseries*, Paris: Guillaumin.
- Lakarra, J. A., 1992, «Larramendirekin aurreko hiztegi-intzaren historia: aztergai eta go-goeta», en J. A. Lakarra (ed.), *Manuel Larramendi hirugarren mendeurrena 1690-1990*, Andoain: Andoaingo Udala [etc.], 279-312.
- , 1997, «Hizkuntz eskuliburuen tradizioa Euskal Herrian: I. *L'interprète*. Gramatika eta Hiztegia», *ASJU* 31: 1, 1-66.
- , 2001, «Práctica lexicográfica y teoría lingüística en el País Vasco (siglos XVII-XVIII)», en M. A. Maquieira et al. (eds.), *Actas del II Congreso Internacional de la Sociedad Española de Historiografía Lingüística*, Madrid: Arco Libros, 603-621.
- Larramendi, M. de, 1745, *Diccionario trilingüe del Castellano, Bascuence y Latin* (2 vols.), San Sebastián: B. Riesgo.
- Leizarraga, I. (trad.), 1571, *Jesus Christ Gure Jaunaren Testamentu Berria*, Rochellan: P. Hautin. Ed. facsímil en 2 vols. (el segundo con estudios de Xabier Kintana et al.) en [Iruñea]: Caja de Ahorros de Navarra, 2007.
- Lhuyd, E., [ca. 1703], *Bascuence Lingua sive Cantabria [Dictionarium Latinum-Anglicum-Cantabricum]*, Ms. del Trinity College of Dublin, 1320. Editado parcialmente en Abbott 1906, 59-105.
- , 1707, *Archaeologia Britannica, giving some account of the Languages, Histories and Customs of the Original Inhabitants of Great Britain*, Oxford: Theater.
- Mueller-Vollmer, Kurt, 1993, *Wilhelm von Humboldts Sprachwissenschaft: Ein kommentiertes Verzeichnis des sprachwissenschaftlichen Nachlasses*, Paderborn: F. Schöningh.
- Oihenart, A., 1638, *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae*, Parisiis: S. Cramoisy. Segunda edición, ampliada, 1656, Parisiis: S. et G. Cramoisy.
- Olivétan, P.-R. (trad.), 1535, *La Bible, qui est toute la Sainte escripture, en laquelle sont contenus le Vieil Testament & le Nouveau*, Neufchastel: P. de Wingle.
- Oroz, F. J., 1981, «Lucubración sobre un glosario vasco-latino: El *Parergon* de Vulcanius (1597)», en H. Geckeler (ed.), *Logos semantikos: Studia linguistica in honorem Eugenio Coseriu* (5 vols.), Madrid: Gredos, vol. I, 339-357.
- Pouvreau, S. [ca. 1665], *Dictionnaire Basque-François[-Espagnol-Latin]*, Ms. inédito de la Bibliothèque nationale de France, Fonds Basque et Celtique, BNP 7 y 8.
- Reinesius, Th., 1637, *De Deo Endovellico*, Altenburgi: O. Michaellem.
- Septchènes, L. de (ed.), 1796, *Oeuvres complètes de Fréret* (20 vols.), Paris: Dandré.
- Unamuno, M. de [1884], *Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca*. Tesis doctoral editada en *La raza vasca y el vascuence*, Madrid: Espasa-Calpe, 1974, 11-52.
- Urgell, B., 1997, «Estudios en torno a la historia de la lexicografía vasca», *ASJU* 31: 2, 643-685.
- , 2001, «Euskal hiztegien azterketaz, Odriozola-Bonaparte hiztegiaren aitzakian», *ASJU* 35: 2, 531-572.

- Vinson, J., 1891-1898, *Essay d'une bibliographie de la langue basque* (2 vols.), Paris: J. Maisonneuve.
- Voltaire, [ca. 1620], *L'Interpret ou Traduction du François, Espagnol & Basque*, Lyon: A. Rouyer.
- [Voltaire], 1642, *Tresora hirour lenguaietaqua, francesa, espagnola, eta hasquara*, Bayona: F. Bourdot.
- Vulcanius, B., 1597, *De Literis et Lingua Getarum, sive Gothorum*, Lugduni Batavorum: Officina Plantiniana.
- Zulaika, J. M., 2009a, «El euskara en la obra de Edward Lhuyd (1660-1709)», *Oihenart* 24, 291-334.
- , 2009b, «Nuevos datos sobre las obras vascas de Pierre d'Urte», *Estudios de Lingüística Universidad de Alicante* 23, 315-350.
- , 2010, «Leibniz y la lengua vasca», *FLV* 112 (en prensa).



# *EUSKERAZKO DOKTRINIA ANZUELAKO BERBA MODUAN* (1825)\*

Oxel Uribe-Etxebarria Lete  
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

## **Laburpena**

*Lan honetan 1825eko eskuizkribu argitaragabe bat aurkezten dugu, mendebaleko euskararen barruan kokapen berezia duen Antzuolako hizkeran idatzia.*

*Edizio honetan, batetik hizkuntz azterketa eta hiztegia dakartzagu eta bestetik, testuaren transkripzioa beharrezko zuzenketa eta oharrekin.*

*Kristau-ikasbide honek eta herri bereko XVII. mendeko Amiletarenak aukera ematen digute, bi garaitan jasotzen den hizkera gaur egungoarekin alderatzeko.*

*Argitalpena mikrodialektologiaren ikuspuntutik interesgarria iruditzen zaigu eta mendebaleko hizkeren eraketa prozesuaz ere datu batzuk eman litzake.*

Giltz hitzak: *Antzuola-dotrina-XIX. mendea-mendebaleko euskara-edizioa.*

## **Abstract**

*The aim of this paper is to present a nineteenth-century manuscript containing previously unpublished material in a particular variety of the western Basque, which was spoken in the village of Antzuola (Deba Valley).*

*This catechism together with the Amileta's one, written in the same village in the 17th century, enable us to compare the local dialects of two different periods with that of today.*

*The edition offers some remarks on the language data, a vocabulary and the transcription of the text with the corresponding corrections and additional notes. This brief analysis and the data provided by the edition may be of particular interest for the study of micro-dialect variation and language change on western Basque.*

Keywords: *Antzuola-catechism-19<sup>th</sup> century-western Basque-edition.*

## **0. Sarrera**

### **0.1. Testuaz**

Jarraian aurkezten dugun testu hau ezin esan orain arte erabat ezezaguna zenik. Besteak beste, Lakarrak Bizkaiera Zaharreko lekukotasunekin alderatzeko erabili

---

\* Lan hau Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren ikertzaileak prestatzeko programako dirulaguntzari esker burutu da. Eskerrak eman nahi nizkieke Euskaltzaindiari eta Pruden Gartzinari eskuizkribuaren kopia digitala nire eskura jartzeagatik. Nire esker ona, baita ere, Joseba Lakarrari artikulua zirriborroari egindako ohar eta zuzenketengatik eta Ricardo Gómez eta Julen Manterolari zalantza batzuk argitzen laguntzeagatik.

zuen (1986: 663), Larrañagak ere Antzuolako hizkera aztertzerakoan eskuizkribu honen berri eman zigun (1998: 9) eta *OEHN* bertan ere jasotzen da; bertan *CatAnz2* laburduraren bidez aipatzen dira testu honetatik jasotako aldaerak. Hala ere, ale bakarreko dotrina honek ez du oihartzun handirik izan. Neurri batean, hori ikerlari askorentzat oraindik ezezaguna edo eskuragaitza zelako izan liteke.<sup>1</sup> Horregatik, espero dugu lan honen bitartez guztiengana hurbiltzea eta erabilterrazago egitea.

Eskuizkribua egileak berak sinatuta dagoen arren, haren izenaren inzialak bakarrik dakartza: *Por el Dr. P. A.Y. Dena dela*, izenburuan bertan beste bi datu interesgarri ematen zaizkigu: dotrina Antzuolako berba moduan idatzita dagoela bata, eta 1825eko data bestea. 73 orrialdek osatzen dute, 14.5 × 21.5 formatukoak: lehenengo orrialdea azala da eta azken hiru orrialdeetan *Maria Santisimen Letañia* izenburupean latinezko otoitzok jasotzen dira; tarteko orrialdeetan dator edizio honetan aztergai dugun testua. Orrialdeak zenbakitu barik daude eta, beraz, edizio honetarako zenbakitu ditugu. Oro har testua oso erraz irakurtzen da, baina orrialde batzuetako beheko eskuineko ertza urratua dagoelako testu zati batzuk galdu dira.

Testuaren edukari dagokionez, kristau ikasbidearean ohiko parteak biltzen ditu. Dena den, testuaren interes nagusia guretzat darabilen hizkuntz aldaeran datza. XIX. mendeko Antzuolako euskararen lekukotasuna da. Mendebaleko hizkeren artean kokapen berezia du berorrek, bazter batean eta erdialdeko hizkerekin mugan aurkitzen baita. Kronologiari dagokionez, Lehen Euskara Modernoa bezala ezagutzen dugun garaikoa da. Garai hartan errotu ziren Literatur Gipuzkera eta Bizkaiera eta, ondorioz, Hego Euskal Herriko euskarazko produkzioa nabarmen hazi zen, baina haiengandik urrun samar geratu zen eremu honetako euskara. Literatur hizkera haien indarrak hizkera txikiak edo hizkuntz fenomeno lokalagoak lausotu dizkigu eta horiek kontuan hartzen dituzten ikerketak ere gutxiago dira gure artean. Herri-hizkeretan idatzitako testuak asko ez badira ere, apurka-apurka ari dira azaltzen eta komeni da hizkuntzaren historia eta dialektologiaren esparrutik ikerlarietako testu zaharroi arretaz erreparatzea. Euskalki historikoen sorrera eta eboluzioa ezagutzeko aurrerapauso izango direla sinetsita gaude.

## 0.2. Gure edizioaz

Edizio honetarako Azkue Bibliotekako arduradunei esker eskuratu genuen eskuizkribuaren kopia digitala erabili dugu.

Gure edizioan oro har jatorrizko testuaren grafia mantendu dugu, ohiko aldaketa txiki batzuekin: puntuazioa eta letra larri edo xeheen erabilera egokitu egin ditugu, zenbait hitzen banaketa ere gaurkotu egin dugu —egokitzapenak hots-aldaketaren bat eragingo lukeen kasuetan izan ezik— eta laburdurak osatu egin ditugu. Bestelako aldaketa guztiak nolabait markatu ditugu edo oin oharretan azaldu.

Testu nagusian irakur daitekeena azken bertsioa edo zuzendutakoa da eta [ ] kako zuzenek ohi bezala testuko hutsuneak osatzeko guk egin ditugun eransketak adierazten dituzte. [...] kakoen barruan hiru puntuak ezarri ditugu material urratua edo irakurgaitza osatu ezin izan dugun kasuetan. Letra etzana erabili dugu eskuizkribuan azpimarratuta datozen pasarteetarako eta letra lodiz eman ditugu izenburu itxurakoak.

<sup>1</sup> Eskuizkribua Azkue Bibliotekan zaintzen da: [Antzuolako dotrina] [ABA-HIS, KEH-13, 16]. Artikulu honen amaieran, erakuskari gisa, eskuizkribuaren orrialde batzuen argazkiak gehitu ditugu.

Testuko orrialde banaketa markatzeko <> gezi-erako kakoen barruan ezarri ditugu zenbakiak (orri zenbakia eta r = aurrealdea, v = atzealdea).

Lehen atalean aurkezten ditugu testuaren hizkuntz-ezaugarri nagusiak. Antzuolako hizkeraren bilakaera hobeto ezagutzeko bertako beste lekukotasunekin alderatzen saiatu gara: horretarako, 1678 aldeko Amiletaren doktrinaren edizioa (Arejita 1988) eta gaur egungo Antzuolako hizkera aztertzen duten lanak (Larrañaga 1998, Zuazo 2006b) erabili ditugu.

## I. Grafia eta hotsak

1. Bi grafema erabiltzen ditu /b/ hotsa adierazteko: <b> eta <v>. Maileguetan erabiltzen da batez ere <v> grafema, jatorrizko grafia mantenduz, hau da, erabilera etimologikoa da: *verba, virgina, virtute, avaricia, vicio* etab.

Euskal etorkikoen artean ere ezagunak dira tradizioz <v>z idatzi izan diren hitzak: *vici, vizitza, viotz, viztu* etab. Hala ere, badaude zalantzak eta bi eratara idatzitako hitzak ere: *vacarric/bacarric, bidar/vidar, vorondate/borondatia* etab.

Aipagarriak dira *dave* 'dute' eta *daven* 'duen' bezalako aldaerak ere, kasu horietan pentsa genezakeelako <v> grafema bokalerdia adierazteko erabili zela, baina ez dugu uste horrela denik, izan ere, gehienetan <b> erabiltzen baitu *dabe, daben, dabenak* eta horrelakoetan. Gainera, *egon*-en adizkietan <u> erabiltzen du beharbada bokalerdia irakurri beharko genukeen kasuetan: *dauala*...

2. Hegoaldeko tradizioari jarraituz, <h> erdal jatorriko hitzetan bakarrik erabiltzen da, oro har: *honratzia, humanidadien, haciendeen, heredero, hostian* etab. Tartean <ch> eta <th> digrafoak ere ageri dira: *Christo, theologalac* etab. Salbuespen bat aurkitu dugu: *han* (1v) hitza. Hala ere, *an* idazten du beste sei aldiz eta *andic* behin.

3. Nabarmentzekoa da <tz> eta <ts> grafemak gaur egun bezalaxe erabiltzen direla, salbuespenik gabe, Larramendik proposatu bezala (Lakarra 1985: 243, Urgell 1987: 359).

Kontsonante ozenen ondorengo posizioan badirudi txistukari afrikatuaren aldeko neutraltzea gertatzen dela: *esperantza, alcantzatzia* etab. Hala ere, ez dira gutxi posizio horretan <s>/<z> grafiak ageri dituzten hitzak ere: *Anzuela, enzutia, esperanzia, quenzeco, pensatzia* etab. Biak bereizteko baliabideak dituela kontuan izanda, pentsa genezake egoera desberdinetan daudela hitzok.

Erdaratiko maileguetan frikariaren grafia agertzen da nagusiki: *templanza, enceratzen, reverencia, pensamentu, consolatzia, alcanzaucó* etab. Salbuespen bakarrak *esperantza* eta *alcantzatzia* dira.

Aditizienetan <tz> da nagusi (*jantzitzia, aguintzen, itantzen, quentzeia*), baina *quenzeco* eta *ezconzeco* ere badira.

4. Testuak ez du txistukari apikari eta lepokariaren arteko neutraltzerik erakusten. Oposaketa mantentzen da, beraz, grafikoki behintzat.

Frikari lepokaria, /s/, <c> nahiz <z> grafemen bidez adierazten da *e* edo *i* bokalen aurreko posizioan eta <z> grafemaz beste posizio guztietan: *guztiac* (1v), *cergatic* (1v), *izenian* (2r), *obraz* (3r), *viciac* (3r)...

Afrikatueta jatorrizko /ts/ apikaria zenbait hitzetan sabaikaritu egin dela ikus daiteke: *echaietatic* (2r), *jachi* (3r), *eracuchi* (3v), *dechut* 'dizut' (8v), *dechudan* (8v), *uchetic* (14r), *euchan* 'zion' (15r), *ichusi* (32v). Gaur egun Soraluzen eta Bergarako Osintxu auzoan jasotzen da ahoskera hori (Zuazo 2006b: 63), baina Antzuolako

lan, mendebaleko joera orokorrarekin bat, lepokariaren aldeko neutraltzea gertatu da (salbu *atxo* ‘atso’ hitzean) (Larrañaga 1998: 43). Hala ere, testuan bertan, <ts> ageri da beste hitz batzuetan: *etsay* (1v, 11v), *etsayac* (9r), *etsayetatic* (10v), *lotsaz* (32r, 32v). Beraz, badirudi oraindik bi hotsen arteko oposaketa mantentzen zela edo ez zirela guztiz neutraldu eta antzinako oposaketa horren arrastoak omen daude gaur egun oraindik Lizarraga auzoan (Larrañaga 1998: 43).

/j/ bokalerdiak eragindako sabaikaritze automatikorik ez dago, nahiz eta bizkaierazko beste hizkeretan erregularra izan den: *nayzen* (8v), *gaitzic* (24v), *noyz* (28v)... Gainera, *eliza* (3r) eta *deritzo* (14v) aldaerak ditugu, txistukariari eta bokalismoari erreparatzen badiegu, bietan erdi-ekialdeko aldaerekin bat egiten dutelako (vs. mend. *elixa*, *deretxo*). Dirudenez, txistukariaren palatalizaziorik ez da inoiz izan Antzuolan, eta beraz, arkaismoa gorde da. Amiletaren dotrinan ere *eliza*, *noiz*, *naiz* eta *bacoziz*, *gaiz* aldaerak daude eta gaur egun oraindik sabaikari gabeko formak dira nagusi Bergara, Antzuola eta Oñati aldean. Alboko Leintz eta Aramaio ibarretan, berriz, aldaera bustiak entzuten dira.

5. Kontsonante ozenei dagokienez, *i* bokalak eragindako sabaikariak bazituen Antzuolako hizkerak: *ill*, *billatuco*, *virgiña*, *ciquiñen*, etab. Dena dela, beti ez ditu <ll> eta <ñ> grafiak erabiltzen eta beraz, zaila da palatalizazioa testuinguru guztietan eta sistematikoki betetzen zen edo ez erabakitzea.

Badakigu bokal aurreko ingurunea dela asimilazio bustidura jazotzeko oparoena (Oñederra 1990: 52). Hain zuzen ere, testu honetan silaba bukaerako posizioan —kontsonante aurrean edo hitz azkenean—, <il>, <in> eta <yn> grafiak dira ohikoenak: *guinducen* (1v), *eguín* (2r), *zurequin* (2v), *iltia* (4r), *ilteco* (6v), *humildadia* (9r), *usain* (9v), *ceyn* (13v, 14v, 19r, 20r etab.), *il* (17r), *ilten* (17v), etab.; baina, *ill* (17v) eta *ceyñ* (24r, 24v) ere badaude.

Bokal aurrean, albokariari dagokionez <il> idazten du batzuetan: *ila* (3r), *ilac* (3r), *ilen* (5v), *deila* (20r), etab., baina <ill> dago *deilla*, *billatuco* hitzetan eta <ll> soila *libratzallia*, *faborezizalliac* hitzetan. Sudurkarietan ez da erregulartasunik ikusten: <in>, <iñ>, <yn>, <yñ> eta <ñ> soila darabiltza; azken hirurak /Vjn/ testuinguruan bakarrik. Hona adibide batzuk: *Erreñua* (2r), *tentacinuan* (2v), *Virgiña* (3v), *premina* (7r), *ocasiño* (8v), *fna* (13v), *Erreynua* (20r), etab.

#### 6. Hiatoetatako bilakaerak

- a) Mendebaleko hizkera modernoetan ezagunak dira hiatoek izan dituzten bilakaera desberdinak, Bonapartek bereziki nabarmendu zituenak (Hualde & Gaminde 1997). Hizkera batzuetan *o* eta *e* bokalak itxi egiten dira bokal ireki baten aurrean, disimilazioz, eta doktrina honetan dagoeneko erabat betetzen da bilakaera: *devocinua* (1v), *gaiztuetatic* (1v), *Jaungoicua* (2r), *poderiuen* (3r), *fedecuac* (4v), *osua* (6r), *daguana* (7r)... eta *curutzia* (1v), *bularrian* (1v), *libratziagatic* (1v), *beriala* (2r), *semiaren* (2r), *guria* (2r), *batyatu* (10r)... Amiletaren doktrinan, berriz, ez zegoen oraindik honen arrastorik.
- b) Mendebal zabaleko bereizgarria da *-a + a > -ea* (> *-ia*, *-ie*) egitea: Bizkaian, Araban, Nafarroako Burundan, Gipuzkoako Deba ibarrean, Goierri eta Urolaldeko hizkera batzuetan betetzen da. Testu zaharrenetatik hasita lekukotzen da bilakaera hau gainera. Doktrina honetan *-ia* ageri da, aurreko puntuan azaldu dugun bilakaeraren ondorioz: *doctrinia* (1v), *sarrerria* (1v), *aitiaren* (2r), *eriotzia* (5v)... eta *doyazen* (17r), *doyan* (30r)...

Arau horren ondorioz *-e > -a* egin da hitz batzuetan eta hemen zalantzak daude: *altaraco* (35r) baina *altareco* (16v, 29v) eta *altareqüen* (29v) adibidez. Arauaren salbuespenak dira inesibo singularra eta absolutibo plurala. Kasu bi horietan bokal geminatua gordetzen zen Amiletaren doktrinan (*obraak, santaan, prophetaak...*), baina bokal bakarra ageri da 1825eko doktrina honetan: *promesac* (3v), *Gaizuman* (6r), *santac* (6v), *flaquezac* (7r), *obrac* (8v), *animac* (17r), *acaberan* (18v)...

## II. Morfologia

### 1. Izenordainak

#### 1.1. Pertsona izenordainak

		arruntak	indartuak
1.	sg	<i>ni, nic, niri, nigatic</i>	
	pl	<i>gu, guc, guri, gurekin, gugatic, gugandic, gugana/guregana</i>	
2.	sg	<i>zu, zuc, zuri, zurekin, zugana, zuretzat</i>	
3.	sg	<i>aura, arec, aetan</i>	<i>bera, berac, beragan</i>
	pl	<i>arec, aekin, aetan</i>	<i>erac, erequin</i>

Deigarria da testuan ez dela 1. eta 2. pertsoako izenordain indarturik ageri, genitibo kasuan izan ezik:

		arruntak	indartuak
1.	sg	<i>nere</i>	
	pl	<i>gure</i>	<i>gere/geure</i>
2.	sg	<i>zure</i>	
3	sg	<i>aren</i>	<i>bere</i>
	pl	<i>aren</i>	<i>eren</i>

Lehenengo pertsona singularrean *nere* da testuko forma bakarra. Erdialdeko bilakaera izan zen *neure > nere, eure > ere* etab. baina Antzuolan gaur egun *nere* forma arrunt bezala eta *neure* forma indartu bezala erabiltzen dira. Izenordain arruntaren *ene* forma zaharra inguruko beste testu batzuetan lekukotzen da oraindik XIX. mendean: Umerez oñatiarraren eskuizkribuetan<sup>2</sup> eta Gatzagako doktrinan (1862)<sup>3</sup> ere bai.

Pluralean berriz hiru forma daude: *gure, gere* eta *geure*. Forma “indartuak” bihurtari gisa erabiltzen dira gehienetan, salbuespenen batekin, baina alderantzizko salbuespenak gehiago dira, hau da, sarriago erabiltzen da *gure* forma arrunta bihurtaria-

<sup>2</sup> Umerezen berri Elortza (1996) lanean.

<sup>3</sup> Ikus Uribe-Etxebarria (prestatzen)

ren ordez: *barcatu deigula Jaungoicu[a]c GURE becatuac* (21r), *Salbadu guinducen GURE becatuetatic* (1v). Bestalde, *Jaungoico gure Jauna* izen sintagman beti forma arrunta darabil.

Bigarren pertsonan ere *zure* forma bakarrik agertzen da: *itzuli eguizu guregana ZURE begui misericordioso orrec* (3v), *ZURE curutze santuequin redimidu cinduan mundua* (11v)

Hirugarren pertsonan ere bi forma bereizten dira: *aren* da forma arrunta singular nahiz pluralerako eta *bereleren* posesibo bihurkariak edo indartuak dira.

## 2. Determinatzaileak

### 2.1. Erakusleak

		abs	erg	dat	gen	leku-kasuak	beste
1. grad	sg	<i>au</i>	<i>onek</i>		<i>onen</i>	<i>onetan, onetatik</i>	
	pl	<i>onek</i>		<i>onei</i>	<i>onen</i>		<i>onekin</i>
2. grad	sg	<i>ori</i>				<i>orretan</i>	
	pl	<i>orrek</i>			<i>orren</i>	<i>orretan</i>	
3. grad	sg	<i>aura</i>	<i>arek</i>		<i>aren</i>	<i>a(r)etan</i>	
	pl	<i>arek</i>			<i>aren</i>	<i>aetan</i>	

Erakusleak erro berekoak dira singular nahiz pluralerako (*on-*, *or-*, *ar-*) eta hirugarren graduko erakusleetan ‘-r- + herskari’ kontsonante multzoa saihestu egiten da: *arek*, *aretan*, etab.<sup>4</sup> Bi ezaugarri horiek ohikoak dira mendebalean.

Hirugarren graduko erakuslearen absolutiboko forma aldendu egiten da mendebaleko ohiko formatik: *aura* (vs. *a*). Gaur egun ere *aura* forma erabiltzen da, baina Amiletaren doktrinan *ura* zegoen.

Hirugarren graduko erakusle indartua (*ber-*) ere erabiltzen da: *Da Jaungoicua BERA, Aita, Semia, eta Espiritu Santua* (13v), *Uniduric Divinidadiequin BERAREQUIN* (17v), *izan cituen gorputzequin eta animequin EREQUIN* (18v).

### 2.2. Artikuluak

#### 2.2.1. Mugagabea

Alde batetik, ohikoa da izena mugagabean agertzea *juramentu egin, bekatu egin, damu izan, egarri izan...* bezalako esapideetan: *JURAMENTU alperric ez eguitia* (4r), baina *Ceyñec eguiten dau JURAMENTUA alperric?* (23v).

Bestetik, *Seme* eta *Espiritu Santu* izenak mugagabean ageri dira behin subjektu funtzioan, izen bereziak izango balira bezala: *Irugarrena sinistia SEME Jaungoicua*

<sup>4</sup> Galdetzaileetan berriz mantendu egiten da -rC- kontsonante multzoa: *certara, certaraco, cergatic, norgandic...*

*dala. Laugarrena sinistia ESPIRITU SANTU Jaungoicua dala* (5r), baina aurrerago *SEMIA Jaungoicua da?*, *ESPIRITU SANTUA Jaungoicua da?* (13v).

*Aita* eta *ama* izenak ere normalean mugagabeen erabiltzen dira, Jainkoari edo Ama Birjinari erreferentzia egiten diotenean ere. Hala ere, birritan ageri da *Aitia- ren* (2r, 11r). Amiletarenean, berriz, *aitea* eta *amea* aurkitzen ditugu (Arejita 1988: 111).

### 2.2.2. *Gradu hurbilekoak*

Gradu hurbileko artikulurik bada, zaila izaten da horiek erakusleetatik bereiztea. Singularrean, autoreak beti bereiz idazten ditu eta guk erakusle irakurketa eman diegu, zalantzazko adibideren bat badagoen arren. Kasu hauetan adibidez, *fedea* eta *izen* hitzek aurretik erreferentzia dutenez, *ori* eta *au* erakusle anaforikoak direla uste dugu:

- (1) *I. Christaua bazara? E. Bay, Jaungoicuen graziaz.*  
—*Christauaren ICEN ORI norgandic izan dozu?* (10r)
- (2) *Ceyñec compondu eban Credua? E. Apostoluac.*  
—*Certaraco?* —*Guri Fede Santuco gauzac eracusteco.*  
—*Eta zuc certaraco esaten dozu?* —*Christauac dogun FEDE AU confesatzeco.* (12v)

Pluralean *-ok*, gradu hurbileko artikulua erabiltzen da: *gu becatariOC* (5v, 35r); *gu becatariOgatic* (2v); *zure deyez gade Evaren ume desterraduOC* (3v); *Eguin daigula Jaungoicuen borondatia lurrian gadenOC* (20v).

### 2.2.3. *bat artikulua indefinitua*

	mugagabea	plurala
abs	<i>bat</i>	<i>batzuek</i>
erg	<i>batec</i>	
dat	<i>bati</i>	
gen	<i>baten</i>	
soz	<i>batekin</i>	
ines	<i>batian</i>	
abl	<i>batetic</i>	

Bizkaieratik aldentzen diren formak dira inesibo singularreko *batian* (B *baten*) eta absolutibo pluraleko *batzuek* (B *batzuk*).

## 3. Deklinabide kasuak

3.1. Datibo singularrean *-ari* eta pluralean *-ai* dira ohiko atzizkiak, baina kasu batzuetan *-ai* marka erabiltzen da singularrean ere. Hiru adibide daude: *animiay* (28r), *batay* (31r), *bestiay* (31r).

-ai singularraren adibideak ageri dira jada Arabako lehenengo testuetan, baina berrikuntza hori ez zen hedatuko. Amiletaren testuan esaterako oraindik *-ari* singularra eta *-ai* plurala besterik ez dugu aurkitzen.

3.2. Ablatiboa eta prosekutibo kasuak ez dira morfologikoki bereizten eta *-tik* da forma bakarra: *becatuetatic* (1v), *alde escumatic* (3r), *becoquitic* (11r), *oetic* (11r), *gaitzetic* (21r), etab. Badirudi inguru honetako euskara bereziki berritzailea izan zela ezaugarri honetan, Amiletaren doktrinan jada *-tikl-etatik* direlako ablatiboko forma nagusiak. Hala ere, testu hartan bazen mugagabeko *-tarik* bat eta oraindik bizidunekin *-ganik* gordetzen zen. 1825eko doktrina honetan, berriz, *-gandik* ageri da bizidunekin: *Jaunagandic* (10r), *gugandic* (29v) etab.

Motibatiboan ere *-gatic* da testuan aurkitu dugun forma bakarra. Amiletarenean bada *-gati* amaierako adibiderik ere. Bestalde, *-k* gabeko formak, bai ablatiboan eta bai motibatiboan gaur egun oraindik bizirik omen daude Antzuola aldean (cf. Larrañaga 1998).

3.3. Bizidunen leku-kasuetan *-gan* erabiltzen da oro har absolutiboaren gainean: *Jaunagan* (2v), *Virginagandic* (3r), *norgandic* (10r), *gugana* (20r), *araguiagandic* (29r) etab. Hala ere, *guregana* (3v) ageri da behin genitiboaren gainean eraikia.

3.4. Edutezko genitiboa: singularrean *-aren* eta *-en* formak lehian ageri dira. Bi forma horiek testu berean aurkitzea ohikoa da Bizkaiera Zaharreko testuetatik hasita eta dirudienez *-r-dun* forma zaharrak Elizaren tradizioan mantendu izan ziren, bereziki testuari errespetu handiagoa zor zitzaion zatietan (cf. Castaños 1957).<sup>5</sup>

Testu honen bereizgarrietako bat da autoreak *-aren* atzizkia erabili ondoren, hainbat hitz zuzendu egin zituela eta *-en* formarekin utzi: *Espiritu Santuaren* > *Espiritu Santuen* (3r), *araguiaren* > *araguien* (3r), *Jaungoicuaren* > *Jaungoicuen* (14v)... Hala ere, badaude hasieratik *-en* formarekin idatzi zituen hitz batzuk: *poderiuen* (3r), *Jaungoico Aita guztiz poderosuen* (3r, 6r), *Soberbien* (9r), *Naguitasunen* (9r), *gorputzen* (9v)...; eta *-aren* daramaten arren zuzendu ez zituenak ere ugari dira: *Curutze santuaren* (2r), *Aitiaren*, *Semiaren eta Espiritu Santuaren* (2r), *Ceruaren eta lurraren* (2v), *progimuaeren* (4r)...

Pluralean *-en* da forma bakarra, baina Amiletak *-aen* edo *-een* darabil. Mugagabeen, bokalez amaitutako hitzetan *-ren* nahiz *-en* erako adibideak aurkitzen ditugu.

Genitiboaren gainean eraikitako beste atzizkietan ere bikoiztasun bera ageri da. Soziatibo singularrean, adibidez, *-arekin* nahiz *-ekin*. Badira soziatiboan ere zuzendutako hitzak: *Eriotziequin* (11v), lehen *Eriotziarequin* zegoen lekuan, etab. Destinatiboan bi adibide besterik ez daude, baina biak singularrekoak dira eta *-entzat* forma dute.

3.5. Soziatiboa egiteko bi aukera zeuden Amiletaren doktrinan: *-gaz* eta *-kin*. Testu honetan, berriz, *-kin* besterik ez dugu aurkitzen —*zurequin* (2v), *atzarequin* (10v), *odol garbiequin* (15r), *Divinidadiequin berarequin* (17v), *norequin* (22r), *obre-*

<sup>5</sup> Antzuolatik hurbileko, Leintz bailarako dotrina batean *Aitien, semien, Espiritu Santuen izenian* irakurrita Dogsonek esan omen zuen «que ese pueblo cultiva la más grande herejía que se ha conocido, suponiendo en la Trinidad varios Padres, Hijos y Espiritus Santos». Ez dakigu zehazki zein den Azkuek kontaktutako pasadizo horretan aipatzen den dotrina; baina, Gatzagako dotrinaren (1862) hitzaurrean espresuki esaten du idazleak *-r-* gabeko forma horiek baztertu egingo dituela singularrerako eta luze auzalten du ahoz erabiltzen ziren genitibo formen eta idatzizkoen arteko aldea (ik. Uribe-Etxebarria, prestatzen).



*quin* (33r), etab.— eta gaur egun ere horixe da Antzuolako hizkeran erabiltzen den atzizki bakarra.

3.6. Destinatiboan ere bimorfismoa dago Amiletarenean: *guztioenzat* eta *zerentzat*, baina *ereendako* eta *guretako*. Gaur egun Antzuolan *-endako* da sarrien erabiltzen den atzizkia, baina 1825eko testu honetan *-tzat* baino ez da ageri: *zuretztat* (19v), *Gorputzentztat* (20v), *Animentztat* (20v).

3.7. Motibatiboan darabilen atzizkia *-gatik* da. Singularrean *-agatik* eta *-atik* aldaera fonologikoak ageri dira. Pluralean, berriz, *-akgatik* eta *-ogatik* absolutiboaren gainean, baina, *-egatik* ere bai.

	Amileta		1825		gaur egun		
	sg	pl	mugg	sg	pl	sg	pl
dat	<i>-ari</i>	<i>-ai</i>		<i>-ari/-ai</i>	<i>-ai</i>	<i>-ái</i>	<i>-ei</i>
abl	<i>-tik</i>	<i>-etatik</i>	<i>-tarik</i>	<i>-tik</i>	<i>-etatik</i>	<i>-ti(k)/-tikan</i>	<i>-(e)tati(k)</i>
bizid leku-kasu	<i>-agan</i>			<i>-agan</i>	<i>-etan?</i>		
	<i>-aganik</i>	<i>-etatik</i>		<i>-agandik</i>	<i>-etatik</i>	<i>-á(g)andi(k)</i> <i>-ána</i>	<i>-eandi(k)</i> <i>-ena</i>
gen	<i>-aren</i>	<i>-aen/-een</i>		<i>-aren/-en</i>	<i>-en</i>	<i>-án</i>	<i>-en</i>
sozi	<i>-agaz/</i>	<i>-ekin,</i>		<i>-arekin/</i>	<i>-ekin</i>	<i>-ákin</i>	<i>-ekin</i>
	<i>-arekin</i>	<i>-oekin</i>		<i>-ekin</i>			
dest		<i>-entzat,</i> <i>-endako (izenord)</i>		<i>-entzat</i>		<i>-andáko</i>	<i>-endako</i>
mot	<i>-agati(k)</i>	<i>-akgatik/</i> <i>-egatik</i>	<i>-gati</i>	<i>-a(ga)tik</i>	<i>-akgatik/</i> <i>-egatik,</i> <i>-ogatik</i>	<i>-áati(k)</i>	<i>-eati(k)</i>

## 4. Aditzak

### 4.1. Aditz jokatugabeak

4.1.1. Erromantzetik mailegatutako aditz berrien partizipioetan *-adu/-idu* atzizkiak dira nagusi, mendebalde zabalean ohikoa den bezala: *salbadu* (1v), *libradu* (2v), *concebidu* (2v), *recibidu* (5v), *pensadu* (13v)...

*-gi/-ki* amaierako partizipioa duten aditzetan *jagi* mendebaleko forma aurkitzen dugu, baina *euki*, literatur bizkaieraz bezala. Amiletarenean *edugi* aldaera ageri zen oraindik. Gaur egun *jaiki/jeiki*.

4.1.2. Aditzizenak egiteko *-te* eta *-tze(e)* dira Antzuolako hizkeran erabiltzen diren forma bakarrak eta horien erabilera bat dator, oro har, erdialdeko ereduarekin.

Erdialdeko eremu horretako joera, gainera, *-tze* orokortzearena izan da (Urgell 2006) eta alde batetik nahiko gordetzaila izan da Antzuolako hizkera, oraindik ozeenez amaitzen diren erroekin *-te* ageri delako (*ilten* 12v, *ecarteco* 30v, *ifinteco* 26v). Gipuzkera zaharrean eta berriagoan ere *etorte*, *ekarte*, *erorte* bezalakoak aurkitzen ditugu, baina *iltze* (Altuna 1995: 629). Bestalde, berritzailea da *-itze*, *-tutze* erako aditzizenak

ere badituelako: *asitzen* (11r), *ausitzen* (25r), *vicitzeco* (28r), *itzitzen* (32v), *jantzitzia* (7v) eta *aztutzen* (32r), *ostutzia* (4r). Amiletaren testuan *-tze* hartzen zuten txistukariz amaitutakoek ere (*sinistzen*, *sinitzen*), baina honetan *sinisten* forma erabiltzen da. Bokalez amaitutakoetan *-tze* dago oro har, baina *-gi/-ki* amaierakoetan zalantza (*jagite*, baina *eukitze*). Amiletarenean *jagitzen* zegoen.

4.1.3. Hiru aldiz darabil aditzoina autoreak, indikatiboaz kanpoko egitura perifrastikoetan: *libra gaitzatzu* (2r, 10v) eta *reyna dayala* (20v). Aitatzekoa da *libra gaitzatzu* egitura \**ezan* laguntzailearekin egiten duen bakarra dela, bestalde. Horien ondoan, *libradu gaitzu* (2v, 21r), *libradu gayzen* (10v, 11r), *libradu gaizala* (21r) daude adibidez.

Oso arkaikoak dira \**ezan* laguntzailea eta aditzoinaren erabilera, batez ere *egin*-ekin, garai honetan mendebaldean (cf. Mounole 2007). Hala ere, fosildutako esapideak izango ziren segur aski. Amiletaren doktrinan ere *Geure etsaietatik libra gaitzazu* perpausean bakarrik ageri da.

## 4.2. Aditz jokatuak

4.2.1. Fonetikaren atalean azaldutako bilakaera batzuk Antzuolaraino iritsi ez zirelako, *izan*-en adizki batzuek mendebalean ohikoak ez diren formak erakusten dituzte:

- a) *naiz* forma ageri da beti (inoiz ez bizkaieraz nagusi diren *nax*, *nas* bezalakorik). Gogoratu behar da Araban bi eratako formak agertzen direla txandaka.
- b) *-an* edo *-ala* atzizkiak hartzerakoan ez da disimilaziorik gertatzen: *dian*, *diala*, *garala*, *garan*, *zarana*... Amiletak ere horrelakoak erabili zituen: esan bezala bizkaiera zaharrean zabaldu erabiltzen diren *direan*, *garean* bezalako formak bilakaera fonologiko baten (disimilazio baten) ondorio dira, baina kontuan izan behar da, Antzuolako testuetan ere betetzen dela disimilazio hori bera (*-a + -a > -ea*), adibidez izen morfologian edo *joan*-en adizkietan. Beraz, hau salbuespena dela esan genezake. Gainera, Deba Ibarreko beste alderdi batzuetako testuetan badira *direan*... bezalako formak (Zuazo 2006a).

4.2.2. \**Edun*-en paradigma bat dator bizkaierazkoarekin. Orainaldiko formetan *-au-* erroa eta *-o-* erro monoptongatua ageri dira: *dot*, *dau*, *dogu*, *dozu*, *dabe*. Ez dago Araban bezalako erro aniztasunik (*-eu-*, *-e-*, *-u-*, *-au-* eta *-o-*). Iraganaldian eta alegiazkoan, berriz, *-eu-* erroa daukagu: *eban*, *balebe*, *neuke*.

4.2.3. \**Edin* laguntzailea erabiltzen da indikatiboaz kanpoko egitura iragangaitzetan. Amiletaren doktrinaren gramatika-oharretan *geindezkean* adizkia aipatzen zuen Arejitak: “bizkaierazko «geindez/geintekez» eta gipuzkerazko «gindezke»ren arteko erdibidean, eta iraganean” (Arejita 1988: 118); beste testu honetan *gindezkean* forma jaso dugu.

4.2.4. BZn eta GZn bezala asimilatutako formak daude \**edin*-en paradigmaman: *bidi* ‘bedi’ eta *dein* ‘dadin’.

4.2.5. *egin* laguntzailea dago indikatiboaz kanpoko egitura iragankorretan. Amiletaren doktrinan bezalaxe *libra gaitzazu* esapidean aurkitzen dugu \**ezan* laguntzailearekin osatutako perifrasi bakarra.

4.2.6. NOR-NORI-NORK saileko indikatibozko adizkietan *eutsi* laguntzailea erabiltzen da nagusiki mendebalean. Hala ere, Antzuolako testuetan *jaot* ‘diot’ bezalako adizki bereziak lekukotzen dira, *eutsi* erroko adizkiekin batera. Era horretako adizkiak gaur egun ere ezagunak dira Bergara eta Oñati aldean (cf. Zuazo 2006b: 82). Antzuolan bertan erabiltzen direnak Larrañagak jaso zituen (1998: 123).

Hauek dira testuetan jaso izan diren adibideak: Lazarraga (*jagot* ‘diot’ A23: 1, *jago* ‘dio’ A24: 99), Amileta (*jague* ‘die’ 3) eta batez ere aztergai dugun testuan (*jaot* ‘diot’ 8r, *jao* ‘dio’ 19r, 32v, *jagu* ‘diogu’ 27v, *jaozu* ‘diozu’ 21v, *jae* ‘die’ 24r, *jaegu* ‘diegu’ 22v). Ikusten den moduan, betiere datibo komunztadura 3. pertsonakoa denean eta orainaldian erabiltzen dira forma horiek.

Gaur egun, Antzuola eta Bergaran nagusi dira baldintza horietan (*jat* ‘diot’...), nahiz eta *eutsi* errokoak ere ez diren guztiz desagertu. Gainera, alokutiboan eta iraganaldian *eutsi* besterik ez dago. Oñatin ere erabiltzen dira (*xa(a)t* ‘diot’...), baina murriztapena handiagoa da: datiboa 3. pertsona eta singularra denean bakarrik. Umerezen testuetan ez dugu aurkitu.

Bestalde, bi aldaerak (*jaot/deutsat*, etab.) bizirik daudela kontuan izanda —inoiz hitzund berarengan ere bai—, zaila da testuetatik abiatuz garai bakoitzean maiztasun handiena zein aldaerak izan duen erabakitzea. Gainera, ahozko erabilera gorabehera idatzizko testuetan forma bat nagusi daiteke. Hain zuzen, Atxotegik ere (Umerezek bezala) *eutsi* erroko adizkiak bakarrik erabili zituen Bonaparterentzat Bergarako hizkeran idatzitako doktrinan (in Pagola et al. 1992: 795-838) eta Bonapartek Zabala-ren *El verbo regular vascongado* irakurri ondoren zalantzak izan zituen eta Etxenikeri idatzitako eskutitz batean horrela adierazi zizkion:

(...) je voudrais le prier par votre moyen de vouloir bien s’informer. aupres de D. Julian [Atxotegi], si l’assertion suivante du Padre Zabala dans l’ouvrage intitulé: *El Verbo Regular Vascongado del Dialecto Vizcaino* est exacte. Voila ce que Zabala dit à la page 57. “En las villas de Oñate, Vergara y sus alrededores tienen una conjugación muy particular para la activa de recipiente de 3ª persona de singular de los tenso perfectos columna 1ª, y en lugar de *deutsa*, *deutse*, *deutsazu*, *deutsazue*, *deutsat*, *deutsagu*, dicen *jao*, *jaoe*, *jaozu*, *jaozue*, *jaot*, *jaogu*.”

Si ce que dit le P. Zabala est exact par rapport a Vergara, comme le catechisme doit représenter le basque propre a Vergara, a l’exclusion de tout autre, il me paraît qu’il faudrait toujours substituer *jaot* etc. a *deutsat* etc. Or je trouve toujours *deutsat* dans le catechisme et jamais *jaot*. (Urquijo 1910 : 294-295)

4.2.7. Iraganaldiko 3. pertsonetan Ø- da absolutiboko argumentuari dagokion marka mendebalde zabalean eta antzina ere antzekoa zen egoera. Antzuolako testu honetan, adibidez, *eban* ‘zuen’ (3r), *eutxan* ‘zion’ (15r), *eden* ‘zeuden’ (5v), etab. ditugu. Hala ere, gaur egun *-z*- ari da nagusitzen Bergara alde horretan.

#### 4.2.8. Pluralgileak:

- it*- pluralgile zaharra ageri da \**edun*-en adizkietan: *balitu* (32v), *ditu* (12r), *ditue* ‘dituzte’ (17r), *dituzu* (21v), *gaituen* ‘gaituzten’ (11v); eta \**ezan*-en fosil bakarrean: *gaitzatzu* (2r, 10v).
- z* pluralgilea erabiltzen da zenbait adizkietan, baina erabilera hori ez da bizkaieraz bezain hedatua eta morfemaren kokapena ez da beti adizkiaren azken posizioakoa. Esaterako, \**edun*-en adizkietara ez da *-z* hedatu eta horren

ordez *-it-* zaharra dago, iraganaldian izan ezik (erdialdeko hainbat hizkeratan bezala): *ginduzen* ‘gintuen’ (1v, 10r, 14v). *Egin* eta \**edinek* ere hartzen dute batzuetan pluralgile hau eta erroaren ostean, *-ke-* morfemaren edo pertsona marken aurretik kokatzen da: *daizten* ‘ditzaten’ (22v), *gaizen* ‘gaitzan’ (10v), *egizkuzu* (2r) / *egizguzu* (21r) ‘iezazkiguzu’, *gindezkian* (31r) vs. *zaite* ‘zaitez’ (1v) eta *gaitian* ‘gaitezen’ (22r). *Eduki* aditzean, berriz, *dauzka* (27r), *dauzkazu* (13r) ditugu (mendebaldera jotzen badugu *daukaz*, *daukazuz...* bezalakoak erabiltzen dira eta hegoaldeko hizkeretan berriz *dauka*, *daukazu...* pluralleko komunztadurarik gabeko formak).

- c) *egon* aditzarekin *-de* morfema erabiltzen da Antzuolan: *zadena* ‘zaudena’ (2r), *gade* ‘gaude’ (3v), *dade* ‘daude’ (1v), *eden* ‘zeuden’ (5v). Landucciren hiztegian agertzen den *daode* aldaera izan zen, besteak beste, Mitxelenak hizkera hura beregaina zela arrazoitzeko erabili zuen ezaugarrietako bat.
- d) Ergatibo komunztadurari dagokion pluralgilea *-e* da: *dabe* ‘dute’ (25r), *ditue* ‘dituzte’ (17r), *gaituen* ‘gaituzten’ (11v), *daien* ‘dezaten’ (22v) baina *daizten* ‘ditzaten’ (22v), *deskuenai* ‘digutenei’ (21r), *daukenak* ‘daukatenak’ (34r).
- e) Datiboaren pluralgilea *-te* da *izan* eta *eutsi* erroko adizkietan: *jate* ‘zaie’ (25r), *deustegun* ‘diegun’ (21r)... baina *-e* da *jae* ‘die’ (24r) eta *jaegu* ‘diegu’ (22v) bezalakoetan.

### 4.3. Aditzaren morfosintaxia

#### 4.3.1. Objektu pluralarekiko komunztadura falta

Zenbait adizkitan absolutibo pluralari dagokion komunztadura marka falta da:

IZAN: *Lenengo irurac perteneitzen jaco Jaungoicuaeren honriari* (4r), *Humanidade Santuari perteneitzen jaconac dira onec* (5r)

EUTSI: *barcatuco deustazula nere becatuac* (8v), *barcatzen descun becatuac* (14r), *Barcatu eguizguzu guere zorrac, guc guere zordunai barcatzen deustegun leguez* (21r)

EGIN: *itzuli eguizu guregana zure begui misericordioso orrec* (3v), *barcatu deigula Jaungoicu[a]c gure becatuac* (21r)

Arabatik hedatutako ezaugarritzat jotzen da numero komunztadura galtzea. Aspaldi konturatu ziren euskalariak fenomeno honetaz eta berrikuntza honen hedadura berezia ere sarritan aipatu izan da, Arabaz gain, Debagoienean eta Goierriko hizkera batzuetan ere ageri delako. Testu zaharrenetan aurkitzen dira dagoeneko horrelako adibideak: Landucci, Barrutia, Amileta (Lakarra 1996: 189). Orain, Lazarragaren eskuizkribuan ere adibide ugari ageri dira. Goierri aldeko lehenengo lekukotasunetan ere bai (Lakarra 1996: 190). Hala ere, ezaugarri orokor hau ez da gauzatzen berdin garai eta leku guztietan: Testu honetan komunztadura falta duten adizki ia guztiak datiboazko adizkiak dira. Goierriin ere komunztadura eza datiboazko adizkietan baka-riik gertatzen da (cf. Hurtado 2001: 103, Lasa 2004).

Absolutiboko pluralgilea duten adizki horietako batzuk: *barcatu eguizcuzu guere zorrac*; *curutzian redimidu guinducen*; *dauzka*; *dauzkazu*; *gindezkian*; *daizten* ‘ditzaten’; *gaizen*.

Lazarragaren testuetan eta Leintz, Oñati aldeko lekukoetan, berriz, NOR-NORK erako adizkietan ere komunztadura falta da, baina inguru horietan ere salbuespenak daude (Uribe-Etxebarria 2010). Oro har, lau eratako egiturak sailka ditzakegu, hurrenez hurren, absolutibo pluraleko komunztadura falta izateko aukera gehien dituztenetik hasita:

1. Datibozko egiturak.
2. NOR-NORK saileko adizki trinkoak eta *egin* erroaz osatutako laguntzaileak.
3. \**edun*-en absolutibo 1. edo 2. pertsonako adizkiak.
4. \**edun*-en absolutibo 3. pertsonako adizkiak.

Aipatzekoa da, bestalde, lehenengo bi multzoetako adizkiek, izatekotan, *-z* pluralgileaz markatzen dutela komunztadura; eta, azken bi multzoetakoek, berriz, *-it-* pluralgile zaharra daramatela. Beraz, komunztaduradunak izateko aukera gehien dituzten adizkiak itxuraz arkaikoenak ere badira. Gainera, \**ezan*-en adizki arkaiko bat ere ageri da testuan eta hori ere pluralgileduna da.

### III. Sintaxia

#### 3.1. Hitz ordena

Erlatibozko perpausak eta genitiboko sintagmak izen ardatzaren eskuin aldean ageri dira sarritan: *Esperantza guria* (3v), *Abogada guria* (3v), *Articulo Fedecua* (4v), *Obra Misericordiazcuac* (7r), *Eliza Ama Santa Erromacuac* (13r), *becatu eguin dituan guztiaz* (30v), *mantenimentu conveni jacona* (20v), *pena becatuegatic zor dana* (33r), etab.

Ezeztapenaren partikula aditz nagusia eta laguntzailearen artean koka daiteke: *cerren gorde ez cituen* (6r).

#### 3.2. Aditzizena adlatiboan

Bizkaierazko hizkera gehienetan aditzizena inesiboan erabiltzen da mugimenduzko aditzekin-eta. Hemen adlatiboan ageri dira: *Andic etorrigo da viciac eta ilac juzgatzera* (3r), *Cer recibitzera doyan* (30r), etab.

#### 3.3. Mendeko perpausak

Ohikoak dira, eredu erromanikoan bezala, galdera-izenordain bat (*zeña, nun, nora...*) baliatuz eratutako mendeko perpausak. Horrelakoak dira, esate baterako, erlatibozko perpaus batzuk —*Bigarrena, CEÑA dan semia* (14v)—, konparazio perpausak —*NOLA urtetzen dabEN Euzquien arguiac Christal batetic* (15v)— edo kausazkoak: *CERREN gorde cituen aren mandamentu santuac* (6r), *CERGATIC dan espiritu purua* (14v).

Horietan ikusten denez, *-n* menderagailua erabiltzen da, eta inoiz ez ekialderago agertzen den *bait-*. Hala ere, *-n* atzizkirik gabekoak ere ageri dira: *Christau fiel guztien Congregacinua, CEÑAREN burua DA Erromaco Aita Santua* (19r).

Perpaus osagarriak, berriz, *-la* atzizkiaren bidez osatzen dira: *Irugarrena sinistia recibidu ebaLA eriotzia eta Pasinua gu becatarioc salvatziagatic* (5v). Atzizki hori bera

moduzko perpausak eratzeko ere erabiltzen da: *Eguizu bada, beriala, esaten dozuLA onela* (2r). Beste aukera batzuk ere ageri dira moduzko perpausak egiteko: *-n legez, -la mediante, -ekin konforme, -ik (bera virgina izanic)*.

Denborazko perpausetan *jateracuan* (11v) nahiz *jayotzian* (35r) bezalakoak ageritzen dira.

- Gipuzkoako Foru Aldundia. 2004. *Juan Perez de Lazarraga Larrea Dorretzeko jaunaren eskuizkribua (1564-1567)* [on-line]. <<http://lazarraga.gipuzkoakultura.net>> [Kontsulta: 2011-03-08].
- Hualde, J. I. & I. Gaminde, 1997, «Vowel interaction in basque: a nearly exhaustive catalogue», *ASJU* XXXI: 1, 211-246.
- Hurtado, I., 2001, *Goierriko eta Tolosalde hegoaldeko hizkerak*. Lazkao: IX. Goierriko Ikerlan Sariketa.
- Izagirre, K., 1970, *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes*. L. Villasante (arg.), *ASJU*ren Gehigarriak-VII. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia. 1994.
- Knörr, H. & K. Zuazo (arg.), 1998, *Arabako Euskararen lekukoak: ikerketa eta testuak*. Gasteiz: Eusko Legebiltzara.
- Lakarra, J. A., 1985, «Literatur gipuzkerarantz: Larramendiren Azkoitiko sermoia (1737)», *ASJU* XIX: 1, 235-281.
- , 1986, «Bizkaiera zaharra euskalkien artean», *ASJU* XX: 3, 639-682.
- , 1996, *Refranes y Sentencias: ikerketa eta edizioa*. Bilbo: Euskaltzaindia-Bizkaiko Diputazioa.
- & J. I. Hualde (arg.), 2006, *Studies in Basque and Historical Linguistics in Memory of R. L. Trask. R. L. Trasken oroitzenetan ikerketak euskalaritzaz eta hizkuntzalaritza historikoaz*. (= *ASJU* XL: 1-2).
- Larrañaga, J., 1998, *Antzuolako hizkera*. Antzuola: Antzuolako Udala.
- Lasa, X., 2004, *Urretxu eta Zumarragako euskara*. Urretxu eta Zumarraga: Zintzo-Mintzo Euskaltzale Elkarte. Interneten eskuragarri: <[http://www.otamotz.com/component/option,com\\_wrapper/Itemid,955/](http://www.otamotz.com/component/option,com_wrapper/Itemid,955/)> [Kontsulta: 2011-03-08].

- Mitxelena, K., 1958, «Introducción al vocabulario de Landuchio». Berrarg. in Knörr, H. & K. Zuazo (arg.), 1998, 21-48.
- *et al.*, 1987-2005, *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- OEH = Mitxelena *et al.*, 1987-2005.
- Oñatiko Bedita Larrakoetxea udal euskaltegia. 2005. *Oñatiko aditz-taulak*. Oñati: Badihardugu. Interneten eskuragarri: <[http://www.badihardugu.com/argitalpenak/aditz\\_taulak/oinatiko\\_aditza.pdf](http://www.badihardugu.com/argitalpenak/aditz_taulak/oinatiko_aditza.pdf)> [Kontsulta: 2011-03-08].
- Oñederra, M. L., 1990, *Euskal fonologia, palatalizazioa: asimilazioa eta hots sinbolismoa*. Leioa: UPV/EHU.
- Pagola, R. M. *et al.*, 1992, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak: Bizkaiera*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea-Euskal Ikaskuntzen Institutua.
- Umerez, M. [XIX. mende hasiera]. *Errectore Jaun baten instruccinuac ezconduric vizi dan Adisquide batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicuaren Legue santubagaz conforme*. (Eskuizkribu argitaragabea).
- , 1805, *Osaba baten instruccinuac bere Illoba Ezcondu eta Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobiernu oneraco Jaungoicuaren Legue santubagaz conforme*. (Eskuizkribu argitaragabea).
- Urgell, B., 1987, «*Escu-liburuaren grafi aldaketak (1802-1821)*», *ASJU* XXI: 2, 357-387.
- , 2006, «Para la historia del sustantivo verbal en vasco». In Lakarra, J. A. & J. I. Hualde (arg.), 921-948.
- Uribe-Etxebarria, O., 2010, *Oñatiko euskara zaharra: mendebaleko dialektologia diakronikoko ikerbidea*. Master-tesi argitaragabea, UPV/EHU.
- , (prestatzen), «Gatzagako *Cristau-doctrinia*».
- Urquijo, J., 1910, «Cartas escritas por el Príncipe L.-L. Bonaparte a alguno de sus colaboradores (1) (Continuación)», *RIEV* 4: 2, 233-297.
- Zuazo, K., 2006a, «Deba ibarreko euskara zaharra». In Lakarra & Hualde (arg.), 1005-1029.
- , 2006b, *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta Tokiko batua*. Badihardugu Euskara Elkartea.

&lt; 1r &gt;

**Eusquerazco doctrinia Anzuelaco verba moduan.****Año de 1825.**

Azkue Biblioteka [Antzuolako dotrina] [ABA-HIS, KEH-13, 16].

**Por el Dr. P. A. Y.**

&lt; 1v &gt;

**Doctrina Christianaren Sarrerria**

Christau fiel guztiac  
 dade obligaduric  
 Curutzia adoratzera  
 eta devocinua izatera,  
 cergatic Jesu Christoc han salbadu guinducen,  
 gure becatuetatic  
 eta etsay guztien mendetic.  
 Orregatic jarri zaitte  
 santiguatzera sarri,  
 baita ere signatzera,  
 iru curutze eguitera:

becoquian lenena,  
 au[a]n bigarrena  
 eta bularrian irugarrena.  
 Becoquian, libratziagatic  
 pensamentu gaitzuetatic;



Azkue Biblioteka [Antzuolako dotrina] [ABA-HIS, KEH-13, 16].

< 2r >

auan, libratziagatic  
 berba gaitzuetatic;  
 eta bularrian, libratziagatic  
 obra eta deseo gaitzuetatic.  
 Eguizu bada beriala,  
 esaten dozula onela:  
 Curutze Santuaren señaliagatic, gueure echaietatic libra gaitzatu, guere  
 Jauna eta Jaungoicua. Amen, Jesus.  
 Aitiaren eta Semiaren eta Espiritu Santuaren izenian. Amen Jesus.

### **Pater noster**

Aita guria, ceruetan zadena, santificadua izan bidi zure izena, betor gugana zure  
 Erreñua, eguin bidi zure borondatia, nola Zeruan, ala lurrian.

Emon iguzu guere eguniango oguia eta barcatu eguizcuzu guere zorrac, < 2v > guc guere zordunai barcatzen deustegun leguez; eta ez itzi<sup>1</sup> tentacinuan jausten, baña libradu gaitzu gai[tz]etic.<sup>2</sup> Amen Jesus.

### Ave Maria

Ave Maria, graziaz betia, Jauna da zurequin; bedecatia zara zu andra guztien artian, eta bedecatua da zure sabeleco frutua, Jesus.

Santa Maria, Jaungoicuaen Ama, erregutu eguizu gu becatariogatic, orain eta beti, eta guere eriotzaco orduan. Amen, Jesus.

### Credua

Nic sinisten dot Jaungoicuaan, Aita guztiz Poderosuagan, Ceruaren eta lurraren Criadoriagan eta aren Seme bacar Jesu Christo gure Jaunagan; ceña concebidu zan < 3r > Espiritu Santuen<sup>3</sup> obraz, eta virtu[tez], jayo zan Santa Maria Virginagandic; padecidu eban Poncio Pilatosen poderiuen azpian; izan zan crucificadua, ila eta sepultadua; jachi zan Infarnuetara eta resucitadu zan irugarren egunian ilen artetic; igo zan Ceruetara eta an dago jarriric Jaungoico Aita guztiz Poderosuen alde escumatic. Andic etorrigo da viciac eta ilac juzgatzer. Nic sinisten dot Espiritu Santuagan, Eliza Ama Santa Catolican, Santuen Comuniuan, becatuen barcacinuan, araguien<sup>4</sup> resurreccinuan eta vizitza seculacuan. Amen.

### Salvia

Salve Regina, misericordiaren Ama, < 3v > vizitza eta dulzura, esperantza guria. Salve, zure deyez gade Evaren ume desterraduoc. Zugana gade suspirioz, sentimentuz eta negarrez, negarrezco valle onetan. Ea, bada, Abogada guria, itzuli eguizu guregana zure begui misericordioso orrec. Eta destierro onetatic urtetzen dogunian, eracuchi eguiguzu, Jesus, zure sabeleco frutu bedecatua. O Clementisima! O Piadosa! O Dulce Virgíña Maria! Erregutu eguizu gugatic, Jaungoicuaen Ama Santa, mercei daigun alcantatzia Jesu Christoren promesac. Amen.

### Jaungoicuaen Legueco Mandamentuac dira amar.

< 4r > Lenengo irurac perteneitzen jaco Jaungoicuaen honriari eta beste zazpirac progimuaen provechuari:

<sup>1</sup> ez itzi: tartean gaitzu ageri da ezabatuta.

<sup>2</sup> gai[tz]etic: gaitzetic eskuizkribuan.

<sup>3</sup> Santuen: Lehen Santuaren zegoen, baina -ar- ezabatuta ageri da. Horrelako adibide ugari daude testu osoan zehar (Ik. 4., 6., 9., 10., 12., 13. eta 14. oh.). Hala ere, ez zituen genitibo singularreko -aren guzti-guztiak -en formarekin ordezkatu. Beste adibide batzuetan, berriz, -en idatzi zuen hasieratik.

Badirudi autoreak barneratua zuela literatur hizkeran ohikoa zen -aren (sg.) / -en (pl.) bereizketa —Kardaberazek, esaterako, hitz egiten du bereizketa horren beharraz, 1764ko bizkaierazko debozio-liburuaren «Iracurle bizcattarrari» hitzaurrean—, baina testua zuzendu zuenean, singularrean ere -en erabilteza hobetsi zuen, herriko hizkeran hurbiltze aldera beharbada.

<sup>4</sup> araguien: Lehen araguiaren. Ik. 3. oh.

Lenengua, Jaungoicua amatzia gauza guztien gañian.  
 Bigarrena, juramentu alperric ez eguitia.  
 Irugarrena, Jayegunac santificatzia.  
 Laugarrena, Aita eta Ama honratzia.  
 Bostgarrena, iñor ez iltia.  
 Seigarrena, Lujuriaco becuric ez eguitia.  
 Zazpigarrena, ez ostutzia.  
 Zortzigarrena, falso testimonioric ez jasotzia eta guizurric ez esatia.  
 Bederatzigarrena, Progimuaren < 4v > andraric ez deseatzia.  
 Amargarrena, besteren gauzaric ez deseatzia.

Amar Mandamentu onec encerraten dira bitan: serbitzian eta amatzian Jaungoicua gauza guztien gañian, eta Progimua gure buruac leguez. Amen.

### Articulo Fedecuaac dira amalau.

Lenengo zazpirac pertenezitzen jaco Divinidadiari eta beste zazpirac Jesu Christo gure Jaunaren Humanidade santuari, Jaungoico eta guizon eguiazquari.  
 Divinidadiari pertenezitzen jaco- < 5r > nac dira onec:

Lenengua, sinistia Jaungoico guztiz poderoso bacar batian.  
 Bigarrena, sinistia Aita Jaungoicua dala.  
 Irugarrena, sinistia Seme Jaungoicua dala.  
 Laugarrena, sinistia Espiritu santu Jaungoicua dala.  
 Bostgarrena, sinistia Criadoria dala.  
 Seigarrena, sinistia Salvadoria dala.  
 Zazpigarrena, sinistia Glorificadoria dala.

Humanidade Santuari pertenezitzen jaconac dira onec:

Lenengua, sinistia Jesu Christo gure Jauna, guizon < 5v > dan partez, concebida izan zala Espiritu Santuen<sup>5</sup> obraz eta virtutez.  
 Bigarrena, si[ni]stia jayo zala Santa Maria Virgiñagandic,<sup>6</sup> bera Virgiña izanic, Jesu Christo jayo baño len, jayotzian eta jayo ezquero.  
 Irugarrena, sinistia recibidu ebala eriotzia eta pasinua gu becatarioc salvatziagatic.  
 Laugarrena, sinistia jachi zala Infarnuetara eta libradu cituala an ichoten eden anima justuac.  
 Bostgarrena, sinistia resucitadu zala ilen artetic irugarren egunian.  
 Seigarrena, sinistia igo zala < 6r > Ceruetara, eta an dau[a]la jarriric Jaungoico Aita guztiz Poderosuen alde escumatic.  
 Zazpigarrena, sinistia etorrico dala juzgatzera viciac eta ilac; au da, onay emotera Gloria, cerren gorde cituen aren Mandamentu santuac, eta gaiztuay pena seculacua, cerren gorde ez cituen. Amen.

<sup>5</sup> *Santuen*: Lehen *Santuaren* zegoen. Ik. 3. oh.

<sup>6</sup> *Virgiñagandic*: -r- gainean erantsia.

**Eliza Ama Santaren Mandamentuac dira bost:**

Lenengua, Domequetan eta beste Jaiegunetan Meza osua enzutia.  
Bigarrena, urtian guichianaz Gaizuman confesatzia; < 6v > lenago, ilteco peligruan aguertzen bada.

Irugarrena, Pazcua Resurrecinocuetan comulgatzia.  
Laugarrena, Eliza Ama Santac aguintzen dabenian baru eguitia.  
Bostgarrena, Amarrenac eta Primiciac Eliciari pagatzia.

**Eliza Ama Santaren Sacramentuac dira Zazpi:**

Lenengo bostac dira necesariuac, edo recibidu biar dianac obraz edo deseoz; eta onec bague ezin salbadu liteque guizona, itzitzen baditu menosprecioz. Beste biac dia borondatezcuac. Lenengua da Bau- < 7r > tismua, bigarrena Confirmacinua, irugarrena Penitencia, laugarrena Comuniua, bostgarrena Estrema-uncinua, Seigarrena orden Sacerdotala, Zazpigarrena Matrimoniua.

**Obra misericordiazcuac dira amalau: zazpi espiritualac, eta zazpi corporalac.**

Espiritualac dira onec:

Lenengua, ez daquianari eracustia. Bigarrena, premina dabenari conseju ona emotia. Irugarrena, gaizqui eguiten dabenari corregitzia. Laugarrena, injuriac barcatzia. Bostgarrena, triste daguana consolatzia. Seigarrena, gure Proгимuen miseria eta flaquezac pacienciequin sufri[tzia]. < 7v > Zazpigarrena, viciacgatic eta ilacgatic Jaungoicuari erregutzia.

**Zazpi corporalac dira onec:**

Lenengua, gaysuac visitatzia. Bigarrena, gosiaz dagu[a]nari jaten emotia. Irugarrena, egarri danari edaten emotia. Laugarrena, cautibuac errescatatzia. Bostgarrena, narrugorrian daguana<sup>7</sup> jantzitzia. Seigarrena Peregrinuay ostatua emotia. Zazpigarrena ilac enterratzia.

**Confesino Generala**

Ni, Becataria, confesatzen naiz Jaungoico guztiz poderosuari, Santa Maria beti virgiñari, San Miguel Ayngueruari, San Juan Bautistari, San Pedro eta San Pablo Apostolu[a]y eta Santu guz- < 8r > tiay; eta zuri, Ayta espirituala;<sup>8</sup> eguin dodala becatu, pensamentuz, berbaz, eta obraz, nere culpaz, nere culpaz, nere culpa andiaz. Orregatic erregutzen jaot<sup>9</sup> Santa Maria beti Virgiñari, San Miguel Ayngueruari, San Juan Bautistari, San Pedro eta San Pablo Apostoluay eta santu guztia; eta zuri, Ayta espirituala, erregutu dayzun<sup>10</sup> nigatic Jaungoico gure Jaunari. Amen.

<sup>7</sup> *daguana*: Aurretik *daguna* idatzi eta ondoren *-a*- gainean erantsia.

<sup>8</sup> *espirituala*: Aurretik *espiritula* idatzi eta ondoren *-a*- gainean erantsia.

<sup>9</sup> *jaot*: 'diot'. Aurretik idatzi eta ezabatutako *dechut* 'dizut' adizkia ordezkatzen du.

<sup>10</sup> *dayzun*: *deyzun*-en gainean zuzenduta.



**Acto contricinocua.**

Jesu Christo nere Jauna, Jaungoico eta guizon eguiaczua, nere Criadoria eta Redemptoria, zu zarana<sup>11</sup> izanagatic, eta c[er]gatic amatzen zaitudan gauza guzti[ac] < 8v > baño gueiago, damu dot, Jauna, nere viotz guztitic zu ofendidua. Proponitzen dechut firmemente ez gueiago becuric eguitia, eta confesatzia, eta cumplitzia penitenciac, eta apartatzia zure ofensaco ocasiño guztietatic. Ofrecitzen dechut nere vizi-tzia, obrac eta trabajuac, nere becatuen satisfaccinoraco; eta nola suplicatzen dechudan, ala daucat confiancia zure Misericordia infinituagan, barcatuco deustazula nere becatuac, zure odol precioso, pasino eta eriotzien merecimentuegatic; eta emongo deustazula gracia, emendatzeco eta perseberatzeco zure servicio santuan vici nayzen artian. Amen Jesus.

**Becatu Capitalac dira zazpi:**

Lenengua, Soberbia. Bigarre- < 9r > na, Avaricia. Irugarrena, Lujuria. Laugarrena, Ira. Bostgarrena, Gula. Seigarrena, Embidia. Zazpigarrena, Naguitasuna.

**Zazpi vicio onen contra dira zazpi virtute:**

Soberbien contra, Humildadia. Abaricien contra, Liberalidadia. Lujurien contra, Castidadia. Iraren contra, Paciencia. Gularen contra, Templanza. Embidien contra, Caridadia. Naguitasunen contra, Diligencia.

**Gure Animen Potenciac dira iru:**

Memoria, Entendimentua eta Vorondatia.

**Gure Animen etsayac ere iru:**

mundua, demoniua eta araguaia.

< 9v > **Virtute Teologalac dira iru:** Fedia, Esperancia eta Caridadia.

**Virtute cardinalac dia lau:** Lenengua Prudencia, bigarrena Justicia, irugarrena Fortalecia eta laugarrena Templanza.

**Gure Gorputzen sentiduac dia bost:** beguiac, belarriac, aua, surrac eta escuac.

Beguiac icusteco, belarriac entzuteco, aua gustatzeco, surrac usain eguiteco eta escuac icutzeco.

**Doctrina Christianaren declaraciuac, Itantzen edo Galdetzen eta Erantzuten dala.**

< 10r > **I.** Christaua bazara? **E.** Bay, Jaungoicuen<sup>12</sup> graziaz.

—Christauaren icen ori norgandic izan dozu? —Jesu Christo gure Jaunagandic.

—Cer esan nai dau Christauac? —Christoren guizona.

<sup>11</sup> zarana: -na- gainean erantsia.

<sup>12</sup> Jaungoicuen: Tartearen letra bat ezabatuta: badirudi lehen Jaungoicuren zegoela. Ik. 3. oh.

—Cer aitzen dozu<sup>13</sup> Christoren guizonagatic? —Christoren fedia daven guizona, ceña recibidu eban batyatu zanian, eta daguana ofreciduric aren servicio santura.

—Ceyn da Christauaren señalía? —Curutze Santua.

—Cergatic? —Cergatic dan Christo crucificaduen<sup>14</sup> figuria; bada, Curutzian redimidu guinduzen.

—Cembat modutan da Christau[a]ren señale au? —Modu bitan

< 10v > —Ceynzuec dira? —signatzia eta santiguatzia.

—Cer gauza da signatzia? —Iru curutze eguitia escumaco escuaren aurrenengo atzarequin: lenengua becoquian, bigarrena auan, irugarrena bularrían; verba eguiten dogula Jaungoico gure Jaunarequin.

—Eguin eguizu nola? —Curutze Santuaren señaliagatic + gueure etsayetatic + libra gaitzatzu<sup>15</sup> guere Jauna eta Jaungoicua + Amen, Jesus.

—Cergatic signatzen zara becoquian? —Jaungoicuac libradu gayzen pensamentu gaiztuetatic.

< 11r > —Cergatic auan? —Jayncuac libradu gaizen verba gaiztuetatic.

—Cergatic bularrían? —Jaincuac libradu gayzen obra eta deseo gaiztuetatic.

—Cer da santiguatzia? —Eguitia curutze bat escumaco escuaren atz birequin, becoquitic bularreraño eta ezquerreco sorbaldatic escumacoraño, izentazen dogula Trinidadé santisimua.

—Eguin eguizu nola? —Aitiaren, eta Semiaren, eta Espiritu Santuaren ize-nian + Amen, Jesus.

—Noiz eguin biar dozu señale ori? —Obra onen bat asitzen dodanian edo aguer-tzen naicenian necesidade, tentacino, edo peligroren batian; principalmente oetic ja-guiten naize[ni]an, echetic urtetzen dodanian, Eliza[...] < 11v > sartzen naizenian, jateracuan eta lo eguiteracuan.

—Cergatic orrembeste vidar? —Cergatic dempora eta lecu guztietan gure Etsayac perseguitzen gaituen.

—Ce etsay dia orrec? —Mundua, demoniua eta araguaia.

—Curutzia badau virtuteríc etsay orren contra? —bai, Jauna.

—Nundic izan eban Curutzia virtute ori? —Cergatic Curutzian vencidu cituan Jesu Christoc gure etsayac bere eriotziequin.<sup>16</sup>

—Curutzia adoratzen dozunian cer esaten dozu? —Adoratzen eta bedeincatzen zaitut, Christo, cergatic Zure curutze santuequin<sup>17</sup> redimidu cinduan mundua.

< 12r > **I.** Cembat gauza jaquin biar ditu Christauac uso razoezcora eltzen da-nian? **E.** Lau gauza, Jauna.

—Ceinzuec dia? —Cer sinistu biar daben, ce oracino eguin biar daben, cer obradu biar daben eta cer recibidu biar daben.

—Nola jaquingo dau cer sinistu biar daben? —Jaquin ezquero credua eta Arti-culo fedecuac.

<sup>13</sup> *dozu*: Gainean erantsia.

<sup>14</sup> *Crucificaduen*: Lehen *Crucificaduren* zegoen. Ik. 3. oh.

<sup>15</sup> *gaitzatzu*: Eskuizkribuan *gaitztatzu*.

<sup>16</sup> *Eriotziequin*: Lehen *Eriotziarequin* zegoen. Ik. 3. oh.

<sup>17</sup> *santuequin*: Lehen *santuarequin* zegoen. Ik. 3. oh.

—Nola Jaquingo dau cer oracino eguin biar daben? —Jaquin ezquero Pater nostra eta beste Elizaco oracinuac.

—Nola Jaquingo dau cer obradu biar daben? —Jaquin ezquero Jaungoicuen Legueco Mandamentuac, eta Eliza Ama Santarenac, eta obra misericordiazcuac.

< 12v > —Nola Jaquingo dau cer recibidu biar daben? —Jaquin ezquero Eliza Ama Santaren Sacramentuac.

### **Creduen eta Articulo fedecuen Declaracinua.**

**I.** Ceyñec compoundu eban Credua? **E.** Apostoluac.

—Cetaraco? —Guri Fede Santuco gauzac eracusteco.

—Eta zuc certaraco esaten dozu? —Christauac dogun Fede au confesatzeco.

—Cer gauza da Fedia? —Icusi ez doguna sinistia.

—Icusi cinduan zuc Christo jayotzen? —Ez, Jauna.

—Icusi cinduan ilten edo Cerura < 13r > igotzen? —Ez, Jauna.

—Eta sinisten dozu? —Bay, Jauna, sinisten dot.

—Cergatic sinisten dozu? —Cergatic Jaungoicua rebeladu daben, eta Eliza Ama Santiac onela eracusten descun.

—Cer gauza dira Christauac leguez dauzczunac, eta sinisten dituzunac? —Gure Eliza Ama Santa Erromacuac dauzcanac eta sinisten dituanac.

—Certzuec dira orrec? —Articulo Fedecuac principalmente, Creduan daden leguez.

—Cer gauza dira Articulo Fedecuac? —Dira Fedeco Misteriuen principalenac.

—Cetaraco dia Articulo Fedecuac? < 13v > —Trinidad santisimuen ezaueria emoteco, eta Jesu Christo gure Redentoriena.

—Ceyn da Jaungoicua? —Da Espiritu perfectisimo bat, edo da Gauza bat, esan eta pensadu al ditequian baño escelentiaua eta admirabiliaua; Jaun bat infinitamente poderosua, sabiuua, justua, principiua eta fina gauza guztiena.

—Eta Trinidad Santisimua ceyn da? —Da Jaungoicua bera, Aita, Semia, eta Espiritu Santua. Iru persona diferentiac, baña iruretan Jaungoico eguiazco bat.

—Ayta Jaungoicua da? —bai, Jauna.

—Semia Jaungoicua da? —bai, Jauna.

—Espiritu Santua Jaungoicua da? —bay, Jauna.

—Iru Jaungoico dira? —Ez, Jauna, < 14r > ez da Jaungoico eguiazco bat baño.

—Ayta Semia da? —Ez, Jauna.

—Espiritu Santua, Ayta edo Semia? —Ez, Jauna.

—Cergatic? —Cergatic dian diferentiac personac, Jaungoico eguiazco batian.

—Nola da Jaungoicua guztiz poderosua? —Cergatic berac nai izanequin bacarric, eguiten daben nay daben guztia.

—Nola da Criadoria? —Cergatic eguiten dituan gauza guztiac uchetic.

—Nola da Salvadoria? —Cergatic emoten descun gracia, eta barcatzen descun becatuac.

—Nola da Jaungoicua Glorificadoria? —Cergatic emoten daben gloria, bere gracian irauten dabenari.

< 14v > —Jaungoicua badau gorputzen figuraric guc leguez? —Ez, Jauna; Jaungoicua dan partetic, cergatic dan espiritu purua.

- Iru Personetatic ceyn eguin zan guizon? —Bigarrena, ceña dan Semia.  
 —Ayta eguin zan guizon? —Ez, Jauna.  
 —Espiritu Santua eguin zan guizon? —Ez, Jauna.  
 —Ceyn bada eguin zan guizon? —Semia bacarric, ceña guizon eguinic deritzo Jesu Christo.  
 —Bada orrela, nor da Jesu Christo? —Da Jaungoicuen<sup>18</sup> Semia guizon eguiña, gu salvatziagatic eta nola vici eracustiagatic.  
 —Cer esan nay dau Jesusec? —Salbadoria edo Libratzallia.  
 —Nundic salvadu edo libradu guinducen? < 15r > —Gure becatuetatic, eta Demoniuen mendetic.  
 —Cer esan nay dau Christoc? —Ungidua.  
 —Nundic izan zan ungidua? —Espiritu santuen graciaz eta donez.  
 —Nola obradu zan Jesu Christoren Concecinoco edo Encarnacinoco Misteriua?  
 —Formadu eban Espiritu Santuac, Maria Santisimen entrañetaco odol garbiequin, Jesu Christo gure Jaunaren gorputza, entero perfectua; criadu eta unidu euchan anima bat, guttiz perfectua; eta, instante aretan bertan, unidu zan aequin Seme Divinua; eta onela, bere Divinidadia itzi bague, aguertu zan guizon eguinic; eta deritzo Jesu Christo.  
 < 15v > —Eta nola jayo zan Maria virginagandic? —Nola urtetzen daben euzquien arguiac christal batetic.  
 —Orrela, Jesu Christoren Ama, beti guelditu zan Virgiña? —Bay, Jauna, beti guelditu zan virgiña.  
 —Obra marabiloso onec, Aitac eta Semiac ez cituen eguin, Espiritu Santuac le-guez? —Bay, Jauna, irurac eguin cituen.  
 —Cergatic bada esaten da, izan zala Espiritu Santuen<sup>19</sup> obraz? —Cergatic izan zan amoriozco obría, eta amoriua atribuitzen jaco Espiritu santuari, nola Aytari Poderiua eta Semiari Sabiduria, irurac badira ere guttiz bardinac.  
 < 16r > —Cembat naturaleza ditu Jesu Christoc? —bi, Jauna: bata Divinua, eta bestia Humanua.  
 —Cembat Entendimentu? —bi, Jauna: bata Divinua, eta bestia Humanua.  
 —Cembat Vorondate? —bi, Jauna: bata Divinua, eta bestia Humanua.  
 —Eta Cembat Memoria? —bat, Jauna eta aura<sup>20</sup> da<sup>21</sup> Humanua edo guizona dan partetic; cergatic Jaungoicua dan partetic ez dau biar Memoriaric, gauza guztiac presente dauzcanatic.  
 —Cembat Persona dade Jesu Christogan? —bat bacarra, eta aura da Persona Divinua, ceña dan Jaungoicuaren Semia, naturaleza bien perfeccinua, eta gobiernua.  
 < 16v > —Jesu Christoc badau Aytaric edo Amaric? —Jaungoicua dan partetic badau Ayta, ceña dan Ayta eternua eta ez dau Amaric; eta guizona dan partetic badau Ama, ceña dan Maria Santisimia, eta ez dau Aytaric, cergatic izan zan concebidua Espiritu Santuen obraz vacarric.

<sup>18</sup> *Jaungoicuen*: Lehen *Jaungoicuaren* zegoen. Ik. 3. oh.

<sup>19</sup> *Espiritu Santuen*: Lehenengo *Espirituen* idatzi eta ondoren *Santu-* gainean erantsi zuen.

<sup>20</sup> *aura*: 'hura'.

<sup>21</sup> *da*: gainean erantsia.

—Eta nola izan zan lenago? Jaungoicua dan partetic ala guizona dan partetic? —Jaungoicua dan partetic ascoz lenago, cergatic dan eternua; baña guizona dan partetic ez da eternua, ezpada Encarnacinoco instantetic.

—Nun dago Jesu Christo? —Ceruan eta Altareco Sacramentu Santuan.

< 17r > —Jesu Christoc cergatic nay izan eban il Curutzian? —gu libratziagatic becatutic eta eriotzatic.

—Cer aytzen dozu esaten dozunian jachi zala Jesu Christo Infarnuetara? —Ez dot aytzen Condenauen lecura, ezpada Limbora edo Abranen senora, nun eden Justuen Animac Jesu Christori ichoten.

—Badago Infarnu bat baño gueyago? —Bay, Jauna, dia lau lurraren centruan, eta deyzte onela: Condenauen Infarnua, Purgatoriuua, Umien Limbua, eta Justuen Limbua edo Abranen Senua.

—Cer gauza dia Infarnuac? —Conden[a]uen Infarnua da parage bat, nora doya-zen becatu mortalien ilten dian guztiac, eta an padeciduco ditue betico tormentuac. < 17v > Purgatoriuua da lecu bat, nora doya-zen Jayncuen gracion ilten dianen Anima justuac, eta an purgadic tormentu andiequin, pasatzen dia guero Cerura. Limbua da Lecua, nora doya-zen Bautismua errecibidu baño lenago ume ilten dianen Animac. Eta, Abranen Senua da parage bat, nora juaten cian Justuen Animac, Jesu Christoren Redempcinua baño lenagocuc; eta au izan zan paragia, nora jachi zan Jesu Christoren Animia, guizona dan partez ill zanian.

—Nola jachi zan? —Jesu Christoren Animia uniduric Divinidadiequin.

—Eta Gorputza nola guelditu zan? —Uniduric Divinidadiequin berarequin.

< 18r ><sup>22</sup> —Nola resucitadu zan irugarren egunian? —Biurtzen ciala juntatzera Gorputza eta anima gloriosuac, ez berriz ilteco.

< 18v > —Nola igo zan Ceruetara? —bere virtute propiuequin.

—Cer da egotia jarriric Aita Jaungoicuen alde escumatic? —Euquitzia Jesu Christoc, Jaungoicua dan partetic, Aitac aña gloria; eta, guizona dan partetic, Santu guztiac baño gueyago.

—Noiz etorrico da Jesu Christo viciac eta ilac juzgatzera? —Munduen azquenian, edo acaban.

—Eta orduan il guztiac vitzuco dia? —Bai, Jauna,<sup>23</sup> izan cituen gorputzequin eta Animequin erequin.

—Cer sinisten dozu esaten dozunian: “sinisten dot Santuen Comuniuan<sup>24</sup>”? —Christau fiel guztiac dauque- < 19r > la parte bestien ondasun espiritualetan, Gorputz baten miembruac leguez, ceña dan Elizia.

—Cer da Elizia? —Da Christau fiel guztien Congregacinua, ceñaren burua da Erromaco Aita Santua.

—Ceyn da Aita Santua? —Da Christoren vicariua lurrian, ceñari guztioc gaden obligaduric obedecitzera.

<sup>22</sup> Orrialde honetako lehenengo lerroak ezabatuta daude. 17r eta 17v orrialdeetan datorren testuaren lehenengo bertsioa edo zirriborroa da ezabatutako zatia.

<sup>23</sup> *Jauna*: Eskuizkribuan *Jauana*.

<sup>24</sup> *Comuniuan*: -a- gainean erantsia.

—Creduen eta Articuluena gañera, sinisten dozu beste gauzaric? —Bai, Jauna, Escritura sagraduan daguana eta Jaungoicuac Elizari rebeladu jaon<sup>25</sup> guztian.

—Cer gauza dia orrec? —Ez eguidazu ori itandu niri, cergatic nayzen ignorantia. Baditu Eliziac Doctoriac jaquingo dabenac er[ant]zuten.

< 19v > **M.** Ondo esaten dozu. Zuretzat asco da contu emotia Articuluena, Creduan daden leguez.

### **Doctrina Christianaren bigarren partia, nun declaratzen dan cer escatu biar dan eta Eliza Ama Santaren Oracinuac**

—Ceynec formadu eban *Pater-nosterra*? —Jesu Christoc vere aotic.

—Ceraraco? —Guri oracino eguiten eracusteco.

—Cer da oracino eguitia? —Da jasotzia animia Jaungoicuagana eta escatzia mediac.

—Aita guria esaten dozunian, norequin verba eguiten dozu? —Jaungoico gure Jaunarequin.

< 20r > —Nun dago Jaungoico gure Jauna? —Lecu guztian, baña especialmente Ceruan.

—Ceyn da oracino guztien artian onena? —*Aita guria*.

—Cergatic? **E.** Cergatic esan eban Jesu Christoc bere aotic, Apostoluac escatuta.

—Cergatic gueyago? —Cergatic dauzcan *Aita guriac* zazpi peticino, caridade guztian fundauric.

—Ceinzuec dia? —Lenengua da “santificadua izan bidi zure izena”.

—Cer escatzen dozu peticino orretan? —Jaungoicuen izena izan deila ezagutua, eta honradua mundu guztian.

—Ceyn da bigarrena? —“Betor gugana zure Erreynua”.

—Cer escatzen dozu peticino orretan? < 20v > —Reyna dayala Jaungoicuac gure animetan, emen lurrian graciaz, eta guero emon deigula gloria.

—Ceyn da irugarrena? —“Eguin bidi Zure borondatia, nola Ceruan, ala lurrian”.

—Cer escatzen dozu peticino orretan? —Eguin daigula Jaungoicuen borondatia lurrian gadenoc, nola eguiten daben Bienabenturaduac ceruan.

—Ceyn da laugarrena? —“Emon iguzu guere eguniango oguia”.

—Cer escatzen dozu peticino orretan? —Emon deygula Jaungoicuac gorputzentzat mantenimentu conveni jacona eta Animentzat Gracia Espiritualac eta Sacramentuac.

< 21r > —Ceyn da<sup>26</sup> bostgarrena? —“Barcatu eguizguzu guere zorrac, guc guere zordunai barcatzen deustegun leguez”.

—Cer escatzen dozu peticino orretan? —Barcatu deigula Jaungoicu[a]c gure beca tuac, guc agrabiadu gaituenay, eta gaizqui eguin descuenay barcatzen deustegun leguez.

—Ceyn da seigarrena? —“ez itzi<sup>27</sup> tentacinuan jausten”.

—Cer escatzen dozu peticino orretan? —Ez deygula itzi Jaungoico gure Jaunac jausten, edo consentitzen, pensamentu eta tentacino gaiztuetan.

<sup>25</sup> *jaon*: *jao* ‘dio’.

<sup>26</sup> *da*: gainean erantsia.

<sup>27</sup> *ez itzi*: hitz bat zegoen ezabatuta tartean eta ez da ondo irakurtzen, baina *g-* letraz hasten da eta testuinguruak aditz bat eskatzen du: beharbada *gaitzu* izan zitekeen.

—Cein da zazpigarrena? —“Baña libradu gaitzu gaitzetic”.

—Cer escatzen dozu peticino orretan? —Libradu gaizala Jaungoico gure Jaunac, Animaco < 21v > eta gorputzeco gaitz, eta peligro guztietatic.

—Cergatic esaten dituzu lenengo verba onec: “*Aita guria, Ceruetan zadena*”? —Jasotzeco viotza Jaungoicuagana, eta escatzeco mesediac humildadiequin, eta confianziequin.

—Cer esan nai dau *Amen*, azquenian añaditzen dozun arec? —“Ala izan deilla”.

—Cer oracino esaten jaozu<sup>28</sup> principalmente Maria Santisimari? —Ave Maria edo Salvia.

—Ceyñec esan eban *Ave Maria*? —Ayngueru San Gabrieleac, Maria Virginia visitzera etorri zanian.

—Ceyñec esan eban *Salvia*? < 22r > —Eliza Ama Santiac, ceyñec daucan recibiduric.

—Ceraraco? —Faboriac escatzeco Maria Santisimari.

—Ave Maria edo Salvia esaten dozunian, norequin verba eguiten dozu? —Gure Señora Maria Virgiñarequin.

—Nor da gure Señora Maria Virgiña? —Da Señora bat graciaz eta virtutez betia, ceña dan Jaungoicuen Ama, eta daguana Ceruan.

—Eta Altarian dauana ceyn da? —Da Ceruan dauanen Imagiña, eta Semejanza bat.

—Ceraraco dago an? —Aura icusi eta acordau gaitian Ceruan dauanaz; eta, nola dan aren imagiña bat, reberenciadu daigun. Lomismo eguin biar dogu beste Sa[n-tuen] < 22v > Imagiñequin.

—Eguin biar jaegu<sup>29</sup> oracino Santuay ere? —Bay, Jauna, gure Medianeruac eta faborezizalliac dian lez.

—Cer gauza dia Ayngueruac? —Dia Espiritu Bienabenturadu batzuec, dadenac Ceruan Jaungoicua gozaten.

—Ceraraco criadu cituan Jaungoico gure Jaunac? —Eternidade guztian alabadu eta bedeyncatu dayen.

—Ceraraco gueyago? —Bere Ministruac leguez, gobernadu dayen Elizia eta gorde dayzten<sup>30</sup> guizonac.

—Orrela, badozu zuc Ayngueru Guardacua? —Bay, Jauna, badot, eta Christau guztia, edo baicotzac,<sup>31</sup> dau bere Ayngueru Guardacua, erregutzeco egunero falta bague.

< 23r >

### Doctrina Christianaren Irugarren partia, nun declaratzen dan cer obradu biar dan.

I. Ceyn da Jaungoicuen Legueco lenengo Mandamentua? E. Jaungoicua amatzia gauza guztien gañian.

—Ceyñec amatzen dau Jaungoicua? —Bere Mandamentuac cumplitzen dituanac.

<sup>28</sup> *jaozu*: ‘diozu’.

<sup>29</sup> *jaegu*: ‘diegu’.

<sup>30</sup> *dayzten*: ‘ditzaten’.

<sup>31</sup> *baicotzac*: ‘bakoitzak’. Metatesidun *baikotz* aldaera *OEHN* agertzen da Gipuzkoako Bz jasotako aldaera bezala, Izagirrerren Oñati aldeko hiztegiak ere badakar eta Elexpururen Bergara aldeko hiztegiak, hain zuzen, Antzuolako aldaeratzat aipatzen da.

—Cer da Jaungoicua gauza guztien gañian amatzia? —Nayago izatia galdu vicia, Jaungoicua ofendidu baño.

—Certara gueyago obligatzen dau Mandamentu onec? —Jaungoicua bacarric adoratzera gorputzeco eta Animaco reverencia guztiequin, sinisten eta esperatzen dala beragan fede osuequin.

< 23v > —Ceyñec eguiten dau becatu Mandamentu onen contra? —Idoluac edo Jaungoico falsuac adoratzen dituenac eta aetan sinisten dabenac.

—Eta ceyñec gueyago? —Sorguinquierietan edo supersticiuetan<sup>32</sup> sinisten dabenac.


—Ceyn da bigarren Mandamentua? —Juramentu alperric ez eguitia.

—Ceyñec eguiten dau Juramentua alperric? —Eguiten dabenac eguia bague, justicia bague eta necesidade bague.

—Becatu da Juramentu alperra eguitia Criaturacgatic? —Bay, Jauna, cergatic aetan eguiten jaco Juramentua Criadoriari.

—Cer remedio dago ez < 24r > eguiteco Juramentu alperric? —Acostumbratzia esatera bay edo ez, Jesu Christoc eracusten descun lez.

—Ceyñ da irugarrena? —Jayegunac santificatzia.



Azkue Biblioteka [Antzuolako dotrina] [ABA-HIS, KEH-13, 16].

<sup>32</sup> *supersticiuetan*: Horrela dator eskuizkribuan, baina beharbada *superstici[n]uetan* beharko luke. Testuko beste adibide guztietan -zino da atzizki horren forma.



—Ceñec santificatzen ditu Jayegunac? —Meza osua entzuten dabenac, eta premina bague aetan biarric eguiten ez dabenac.

—Ceyñ da laugarrena? —Ayta eta Ama honratzia.

—Ceñec honratzen ditu gurasuac? —Obedecitzen jaenac,<sup>33</sup> socorritzen dituanac eta reverenciatzen dituanac.

—Ceynzuec besteric aditzen dia Gurasotzat? —Andiaguac, o Nausiaguac edadian, Dignidadian eta goviernuan.

—Ceyñ da bostgarrena? < 24v > —Iñor ez iltia.

—Cer aguintzen da Mandamentu onetan? —Ez eguitia iñori gaitzic, ez obraz, ez berbaz, eta ez deseoz.

—Ceyñ da seigarrena? —Lujuriaco becuric ez eguitia.

—Cer aguintzen da Ma[n]damentu onetan? —Izan gaytiala garbiac, eta castuac, pensamentuetan, verbetan eta obr[e]tan.

—Ceyñ da zazpigarrena? —Ez ostutzi[a.]

—Cer aguintzen da Mandamentu onetan? —Ez quentzeia, ez euquitzia eta ez nayizatia besteren gauzaric jabien vorondatien contra.

—Ceyñ da zortzigarrena? —Testimonio falsoric ez jasotzia, eta guizurric ez esatia.

—Cer aguintzen da Mandamentu onetan? —ez eguitia progimuen contra juicio gaiztoric, ez esatia eta ez aytzia [...]ren faltaric.

< 25r > —Ceyñec ausitzen dau Mandamentu au? —Razoyaren contra juzgaten dabenac, Famia quentzen davenac edo guizurra esaten dabenac.

—Cer Eragozten da bederatzigarren eta amargarren Mandamentuan? —Deshonestidadien eta Haciendeen deseo desordenaduac.

### **Elizaco Mandamentuen declaracinua.**

—Certaraco dia Elizaco bost Mandamentuac? —Obeto gordetzeco Jaincuen Legueco amar Mandamentu santuac.

### **Obra Misericordiazquen declaracinua.**

—Cergatic deitzen jate obra misericordiazquai onela? —Cergatic eztian zor Justiciaz.

—Noiz obligatzen dave becatu mortalen pian? —Necesidade grabecuac dianian<sup>34</sup> g[uizon] discretuen Juiciuan.

< 25v >

### **Doctrina Christianaren Laugarren partia, nun declaratzen dian Sacramentu recividu biar dianac.**

—Cer gauza dia Sacramentuac? —Dia Señale batzuec, instituidu edo eguin cituanac Jesu Christo gure Jaunac, guri onequin emoteco bere gracia eta virtutiac.

<sup>33</sup> *jaenac*: *jae* 'die'.

<sup>34</sup> *dianian*: *-ian*- bat goian erantsia.

—Cer gauza da Gracia? —Da Izate Divino bat, eguiten davena guizona Jaungoicuen Seme eta Ceruco heredero.

—Cer virtute emoten ditue Sacramentuac graciequin batian? < 26r > —Principalmente iru, Theologalac eta Divinuac.

—Ceynzuec dia? —Fedia, Esperanzia, eta Caridadia.

—Cer gauza da Fedia? —Icusi ez doguna sinistia.

—Cer gauza da Esperanzia? —Esperatzia Ceruco Gloria, Jaungoicuen gracion eguindaco obren medioz.

—Cer gauza da Caridadia? —Amatzia Jaungoicua gauza guztien gañian eta gure progimuac guere buruac leguez, portatzen garala aequin, erac gurequin portatzia nay guinduquian leguez.

—Cetaraco izan zan instituidua Sacramentu Santu Bautismocu[a?] —Quenzeco Becatu originala, eta b[es]te edoceyn, batiatzian aguertzen b[...]

< 26v > —Cer gauza da becatu originala? —Da Becatu aura, ceñequin jayotzen garan, dacarguna guere lenengo Gurasuetatic.

—Cetaraco da Sacramentu santu Confirmacinocua? —Confirmatzeco edo firme ifinteco, Bautismuan recibidu guinduan fedian.

—Cetaraco da sacramentu santu Penitenciacua? —Batyatu ezquero eguindaco becatuac barcatzeco.

—Ce Becatu dia orrec? —Becatu mortalac principalmente, baita benialac ere.

—Cer gauza da becatu mortala? —Da esatia, edo eguitia, pensatzia, edo deseatzia, gauza graberen bat Jaungoicuen Leguien contra.

—Cergatic deritzo mortala? —Cergatic ilten daben animia.

< 27r > —Cembar parte dauzca Sacramentu Penitenciacua becatu mortala quenzeco? —Iru, Jauna.

—Ceynzuec dia? —Viotzeco contricinua, aozco confesinua eta satisfaccinuen proposito firmia.

—Becadari batec, becatu mortalian jausten dan guztian, biar dau confesadu beriala becatua, barcatzeco? —Ondo izango lizateque, baña ez da precisua beriala.

—Cer eguin biar dau bada? —Euqui dolore eguiazcua, confesatzeco proposituequin, Eliza Ama Santyac aguintzen dabenian.

—Cer da Becatu veniala? —Da becatu mortalen disposicino bat.

—Cergatic deritzo veniala? —Cergatic errez jausten dan persona bat aetan eta errez barcatzen jacon.

—Cembar gauzagatic barcatzen da? —Bederatzigatic.

—Ceynzuec dia? —Lenengua, < 27v > Mezia enzutiagatic; bigarrena, comulgatzigatic; irugarrena, confesino generala esatiagatic; laugarrena, Obispuen bendicinuatic; bostgarrena, Ur bedeincatuatic; seigarrena, ogui Vedeincatuatic; sazpigarrena, Aita guria esatiagatic; zorzigarrena, sermoya enzutiagatic; bederatzigarrena, bularreco golpiagatic, escatzen jagula<sup>35</sup> barcacino Jaungoico gure Jaunari.

—Cetaraco da Sacramentu santu Comuniocua? —Recibidu ezquero biar dan disposicinuequin, izan dein gure Animen mantenimentua eta aumentau deyoun Gracia.

<sup>35</sup> *jagula*: *jagu* 'diogu'.

—Cer recibitzen dozu Sacramentu santu onetan? —Jesu Christo gure Jauna, Jaungoico eta Guizon eguiazcua, Ceruan dauan leguez.

—Certaraco da Sacramentu Santu Extrema-uncinocua? —Iru gau- < 28r > zataraco.

—Ceynzuec<sup>36</sup> dia? —Lenengua, vicitza gaizto pasaduen arrastuac eta reliquiatic quenzeco; bigarrena, Animiay indarrac emoteco, Diabruen tentacinuen contra; irugarrena, Gorputzari osasuna emoteco, conveni bajaco.

—Certaraco da Sacramentu Santu Ordenacua? —Consagratzeco eta ordenatzeco Elizaco Ministro dignuac, nola dian Obispuac, Sacerdotiac, Diaconuac eta beste Gradudunac.

—Certaraco da Sacramentu Santu Matrimoniocua? —Ezconzeco eta ezconduay emoteco gracia, baque andian vicitzeco eta criadu daizten semiac ceruraco.

### Becatu Capitalen declaracinua

—Cergatic izentatzen < 28v > dia Capitalac? —Cergatic dian beste vicio ascoren buruac, eta mortalac izentatzia ez dator ondo, cergatic ascotan ez dia venialac baño.

—Noiz dia mortalac? —Jaungoicuen eta progimuen caridadien contra dianian.

—Noyz dia caridadien contra? —Aequin ausitzen danian Jaungoicuen edo Elizien Mandamentuen bat, gauza grabian.

—Cer da Soberbia? —Bestiac baño gueyaguan<sup>37</sup> egoteco apetitu desordenadu bat.

—Cer da Avaricia?<sup>38</sup> —Ondasunen apetitu desordenadu bat.

—Cer da Lujuria? —Gorputzeco gustu ciquiñen deseo desordenadu bat.

—Cer da Ira? —Vengancien deseo bat.

—Cer da Gula? —Jateco < 29r > edo erateco deseo gueyegui bat.

—Cer da Embidia? —Progimuen gauza onen damutasuna.

—Cer da Naguitasuna? —obra onac eguiteco animuen faltia.

### Animen Echayen declaracinua

—Nola igues eguiten da Munduagandic? —Despreciatzen diala bere ponpac eta vanidadiac.

—Nola Demoniuagandic? —oracinuequin, eta baita, humildadeco gauzequin.

—Eta Nola Araguiaandic? —mortificacinuequin, imaginacinuac edo veitancino ciquinac apartatziequin; Curutze santuequin, ur bedeyncatuequin eta baruequin. Au da < 29v > echayric<sup>39</sup> andiena, cergatic araguaia ecin apartau dogu gugandic, baña mundua eta Demoniu bay.

### Santisimo Sacramentu Altareqüen Esplicacinua.

—Ceyn dago Altareco Sacramentu santuan? —Jesu Christo gure Jauna, Jaungoico eta guizon eguiazcua, Ceruan dauan leguez.

<sup>36</sup> *Ceynzuec*: Eskuizkribuan *Ceynzuec*.

<sup>37</sup> *gueyaguan*: Eskuizkribuan *gueyaoguan*.

<sup>38</sup> *Avaricia*: -ci- gero erantsia.

<sup>39</sup> *echayric*: -a- gero erantsia.

—Cer dago Hostian, consagrau baño lenago? —Ogui pusca bat.

—Eta consagrau ezquero? —Jesu Christo gure Jaunaren Gorputza. Eta nola dauan viciric, dago vere odolequin, animiequin eta Divinidadiequin, ceruan leguez.

—Cer dago Calizan, consagracinoco verbac esan baño lenago? —Ardao pusca bat ur tanta batequin.

< 30r > —Eta consag[r]au ezquero? —Jesu Christo gure Jaunaren odola eta, nola dauan viciric, dago bere Gorputzequin, Animiequin eta Divinidadiequin, Ceruan lez. Eta lomismo dago Jesu Christo sacramentaua, Especie bietaco particula chiquienian, nola andienian, cergatic guztietan dago osoric, Ceruan leguez.

—Icusten da Jesu Christo Sacramentu santu onetan? —ez, Jauna. Bacarric icusten dia accidentiac, nola dian coloria, tamaña, etc.

—Cembat gauza biar dia ondo comulgatzeco? —Iru, Jauna.

—Ceynzuec dia? —Lenengua jaquitia cer recibitzera doyan. Bigarrena baru naturalian egotia. Irugarrena Jaungoicuen gracion ustez egotia.

### **Confesino on bat eguiteco esplicacina.**

—C[...] < 30v > confesino on bat eguiteco condicinuac? —Bost, Jauna.

—Ceynzuec dia? —Lenengua Examinia, bigarrena Doloria, irugarrena Propositua, laugarrena Confesinua, bostgarrena Satisfaccina.

—Cer gauza da Examinia? —Becatu eguin dituan guztia memoriara ecartia, confesatzeco.

—Cembat dempora biar da becatuac memoriara ecarteco? —Ez dago señalauric demporaric, ezpada bere capacidadiequin conforme; eta, confesau bague egon dan demporiequin conforme, artu biar dau biar daben guztia eta ifini cuidadua, importancia andi bateco gauzan ifinten dana; cergatic au da eguiteco bat valio andieneta-cua.

—Nundic ecarrico ditu becatuac memoriara? —Jaungoicuen eta Elizaco Mandamentuetatic, considera[...]bela ce mandamenturen contra < 31r > eguin daben becatu, eta cembat bidar; presente daucala bere estadua, officua edo empleua; etaratzeco, onela, contu garbia bere becatu guztiena: consentimentuzcuac, berbazcuac eta obrazcuac.

—Cer gauza da doloria? —Jaungoicua ofendiutaco damutasuna.

—Cembat modutan da doloria? —modu bitan: batay deytzo contricinua eta bestia atricinua.

—Cer gauza da contricinua? —da Jaungoicua ofendiutaco damutasuna, izanagatic aren divina Magestadia ayn ona, santua, eta amabilia.

—Cer gauza da atricinua? —da Jaungoicua ofendiutaco damutasuna, becatuen ichitasunagatic; edo, cergatic, becatua dala mediante, galdu gueynguan ceruco gloria, eta castig[auac] izan guindezquian Infarnuco penequin.

< 31v > —Ceyn da dolore onen artian onena? —Contricinua da ascoz obiaua atricinua baño; cergatic, acto contricinozco eguiacua eguiten dabenari, confesatzeco proposituequin, barcatzen jaco becatuac confesau baño lenago, eta, eguiten daben instantian, guelditzen da Jaungoicuen gracion; baña atricinozco actua eguiten dabenari ez jaco barcatzen becatuac Confesinoco Sacramentua recibidu artian. Eta, orregatic, balijuaz confesatzera persona bi, bata contricinuequin eta bestia atricinuequin,

eta biac ilgo balira confesau baño lenago, contricinuequin doiana salbaucó lizateque, baña<sup>40</sup> ez, atricinuequin doiana.

—Becatu mortalian daguan bat, aurquituco baliz ilteco peligruan eta confesore bague, nola libraduco lizateque becatutic? —acto contrizinozco batequin.

< 32r > —Cer gauza da propositua? —Da determinacino firme bat, ez becuric eguitemo bere vicitza guztian, eta apartatzeco becatuen ocasinó guztietatic.


—Apartatzen ez dana becatu eguitemo ocasinotic, apartau al ditequiala, badauca proposito eguiaczua? —Ez, Jauna, ez dauca, ezpada falsua.

—Cer aditzen dozu confesinuagatic? —Confesatzia becatu mortal guztiac, batere itzi bague, ez lotsaz eta ez bildurrez.

—Badago obligacinoric becatu venialac confesatzeco? —Ez, Jauna, ez dago obligacinoric, baña obiagua da confesatzia.

—Becatu mortal bat confesatzia, aztutzen bajaco bati, eguingo dau confesino ona? —Bay, Jauna, eguingo dau confesino ona, ezpajaco aztutzen Ex- < 32v > aminien faltaz; baña izango dau obligacinua confesatzeco becatu aztua urrengo Confesinuán.

—Becatu mortal bat itzitzen badau batec confesadu bague, lotsaz, salbadu liteque beste penitenciazco obrequin? —Ez, Jauna, ezin salbadu liteque; eguingo balitu ere penitencia gueyago, santu guztiac eguin dituenac baño.



Azkue Biblioteka [Antzuolako dotrina] [ABA-HIS, KEH-13, 16].

<sup>40</sup> baña: Eskuizkribuan bana.

—Arquitzen bada becatari bat becatu entero andi edo ichusi batequin, edo ascorequin, billatuco dau erremediua Erromara juan bague? —Ba[y,] Jauna, edoceyn confesorec billatuco jao<sup>41</sup> erremediua, Erromara juan bague.

—Acusau leyque Confesore batec penitente bat Inquisicinora? —Ez, Jauna, ecin acusadu leique ino[...] ere, erre nai balebe bere.

< 33r > —Orrela ez dago escusaric batere itzitzeco becatuac confesadu bague? —Ez, Jauna; eta confesatzen ez dituanac bere becatu mortal guztiac, bere concien-  
cian ezautzen dituan lez, condenauc da bere culpaz, remedio bague.

—Cer gauza da Satisfaccinua? —pagatzia penitenciazco obrequin pena becatue-  
gatic zor dana.

—Certan consistitzen da Satisfaccino au? —Aceptatzian, eta cumplitzian peniten-  
ciac, confesoriac emoten dituanac.

—Penitenciac aceptatzen dituanac, cumplitzeco intencinuequin, eguiten dau confesino ona cumplitzen ezpaditu? —Bay, Jauna, eguiten dau confesino ona; baña itzitzen daben penitencia cumplidu bague, baldin bada grabia, eguiten dau becatu barria; eta guel- < 33v > ditzen da obligacinuequin becatu au confesatzeco urrengo confesinuan.

### **Espiritu Santuen Doyac dia Zazpi:**

Lenengua, Jaquinduriacua; bigarrena, Entendimentucua; irugarrena, Consejucua; laugarrena, Fortalezacua; bostgarrena, Cienciacua; seigarrena, Piedadecua; zazpigarrena, Jaungoicuen bildurtasunecua.

### **Espiritu Santuen Frutuac dia amabi:**

Lenengua, caridadia; bigarrena, Gozo espirituala; irugarrena, Baquia; laugarrena, Paciencia; bostgarrena, Longanimidadia; seigarrena, Benignidadia; zazpigarrena, Mansedumbria; zortzigarrena, Fedia; < 34r > bederatzigarrena, Modestia; amargarrena, Ontasuna; amaicagarrena, Continencia; eta amabigarrena, Castidadia.

### **Bienabenturanzac dia Zortzi:**

1.<sup>a</sup> Bienabenturaduac pobrezia escogitzen dabenac, cergatic arena da Ceruco Erreyña.

2.<sup>a</sup> Bienabenturaduac mansuac, cergatic arec izango<sup>42</sup> dia lurraren jabiac.

3.<sup>a</sup> Bienabenturaduac negar eguiten dabenac, cergatic arec izango dia consola-  
duac.

4.<sup>a</sup> Bienabenturaduac justicien gosia eta egarria dauquenac, cergatic erac izango  
dia satisfaciduac.

5.<sup>a</sup> Bienabenturaduac misericordiosuac, cergatic erac alcanzauc dabe misericor-  
dia.

<sup>41</sup> *jao*: 'dio'.

<sup>42</sup> *izango*: -go gainean erantsia.

6.<sup>a</sup> Bienabenturaduac viotz garbia dabenac, cergatic erac [...] < 34v > dabe Jaungoicua.

7.<sup>a</sup> Bienabenturaduac baqueosuac, cergatic erac izango dia deituac Jaungoicuen semiac.

8.<sup>a</sup> Bienabenturaduac persecucinua padezitzen dabenac Justiciagatic, cergatic erena izango da Ceruetaco Erreyñua.

—Cergatic esaten jate<sup>43</sup> oney Bienabenturanzac?

—Cergatic onetan consistitzen dan munduco Bienabenturanzia, eta Ceruraco Esperanzia.

### Acto Fedecua

Sinisten dot Jaungoico eguiazco batian eta Jaungoico eguiazco onetan dabela iru persona distintuac: Aita, Semia, eta Espiritu santua. Sinisten dot Trinidad Santisimuco bigarren personia eguin zala guizon, Maria Santisimen < 35r > entraña garbietan, Espiritu Santuen obraz, eta virtutez; guelditzen zala Señora au beti Virgiña, Semia jayo baño len, jayotzian eta jayo ezquero; eta, Semia guizon eguinic, dala Jesu Christo.

Sinisten dot padecidu ebala Jesu Christoc eriotzia eta pasinua, gu becatarioc salbatziagatic, resucitadu zala irugarren egunian ilen artetic, igo zala Ceruetara eta etorri dala juzgatzer a viciac eta ilac: onac Ceruequin premiaztera, eta gaiztuac Infarnuequin<sup>44</sup> castigaztera.

Sinisten dot Altaraco Sacramentu santuan dauala Jesu Christo gure Jauna, Jaungoico eta guizon eguiazcua, nola Ceruan.

Sinisten dot Eliza Ama Santa Catolica Erromacuac sinisten daben guztia; eta fede onetan nay dot vici eta il.

### Acto Esperanzacua

Daucat Esperanza [fir]mia Jaungoicuagan, barcatuco deusta[la] < 35v > becatu guztia eta emongo deustala bere gracia eta Gloria, bere Misericordia infinituagatic, Jesu Christo gure Jaunaren Merecimentuegatic eta bere Ama Santisimen erreaguagatic, eguiten badot penitencia eguiazcua nere partetic.

### Acto Caridadecua

Amatzen dot Jaungoicua beste gauza guztia baño gueyago eta nayago dot galdu gauza guztia, aren Divina Magestadia baño; eta nay neuque amadu, munduco Justu guztia eta Ceruco Bienabenturaduac amatzen daben lez; eta posible baliz, nai neuque amadu bere Amac, eta gure Señora Maria Santisimiac amatzen daben leguez. Munduac ez amatzia eta munduac agrabiatzia gure Jaungoicuen bondadia damu dot viotz guztitic; eta propo[ni]tzen dot desagrabiatzia nere par[...] bere grazia dala mediante. Amen, Jesus.

<sup>43</sup> *jate*: 'zaie'.

<sup>44</sup> *Infarnuequin*: bigarren *-n-* ganean erantsia.





# ILUSTRAZIOA ETA EUSKAL LITERATURA

Iñaki Aldekoa Beitia

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea

## Abstract

*This article deals with the influence of the Enlightenment on Basque literature. I have approached the issue putting together different research perspectives from the history of ideas to the comparative and intertextual one. I have revisited some textual production of the second half of the XVIII century and the first quarter of the XIX, focusing my interest on its historical dimension, mainly in the institutional, political, intellectual and moral sense of such textual production. And its development throughout the dialectic between ancien régime / modernity. Finally, I raise a few questions about the historiography of Basque literature to be solved. Peñaflores and «Caballeritos of Azcoitia», Manuel Larramendi and Juan Antonio Moguel are some of the major authors who have an important protagonism in this article.*

## 0. Sarrera

Elizak eta doktrinak inoiz izan badute pisia euskal munduan, honako hiru aldio-tan izan da: Trentoko Kontzilioaren ondoren, Frantziako Iraultzaren ondoren eta Espainiako Gerra Zibilaren ondoren. Garai horietan apenas argitaratu zen doktrina edo katixima ez zen beste libururik.

Saio honek XVIII. mendearen bigarren zatia izango du aztergai, aipatu hiru aldi horietako bigarrenetik oso gertu, beraz. 1750-1808 bitartean ibiliko gara, gutxi gorabehera. Hala ere, nahiago dut malgu jokatu epeekin, izan ere, ibilbide honetarako bazterrezinak gertatzen zaizkit zenbait erreferentzia: alde batetik, Manuel Larramendiren (1690-1766) Gramatika (1729) eta Hiztegi Hirukoitza (1745) —aurrerantzean euskaraz txukunago predikatzeko eta idazteko tresnak—<sup>1</sup> eta *Corografía* (1754, 1882), eta bestetik, Espainiako Independentzia Gerra (1808-1812). 1808an itxi zen Euskal Herriaren Adiskideen Batzarrak 1776an abian jarritako Bergarako Erret Mintegia, nahiz eta honek ez zuen bururik altxa 1794tik aurrera, Konbentzio Gerraren (1793-1795) ondorioz soldadu frantsesak Gipuzkoan sartu zirenetik. Bergarako Erret

---

<sup>1</sup> “A lo menos, están viendo que después acá se predica la palabra de Dios con fruto, limpieza y decencia, y es lo que no había antes” (Tellechea Idígoras 1973: 28).

Larramendiren lanek ondorengo egileengan izan zuten eraginari buruz, ikus Lakarra (1985), Sarasola (1986) eta Urgell (1991).

Seminario Patriotiko horrek Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen sorrera-helburuen muina biltzen zuen.<sup>2</sup>

Tartean dugu XVIII. mendearen bigarren zatiko eta XIX.eko lehen urteetako sermolari askoren ekoizpena: Sebastian Mendiburu (1708-1782), Agustin Kardaberaz (1703-1770), Francisco Antonio Palacios (1727-1804), Juan Antonio Mogel (1745-1804), Pedro Antonio Añibarro (1748-1830), Juan Bautista Agirre (1742-1823). Tartean dira Mogelen *Peru Abarca* (1802, 1880) eta, Independentzia Gerra medio, argitaratu ezinean geratu ziren sermoi bildumak, esate baterako, Agirre Asteasukoarenak. Tartean, baita ere, Xavier María de Munibe, Peñafloredako kondearen *El borracho burlado* (1765) zartzuela, Pedro Ignacio Barrutiaren *Gabonetako Ikuskizuna* (ezin honi datarik jarri) eta Altxabar anaien antzerkitxoak (1772, 2008). Hau guztia Frantziako Iraultzaren (1789) lurrikararen aurreko eta ondorengo emaitza batzuk hona biltzearren.

Ez da lan honen asmoa testu horien azterketa filologiko zein literariorik egitea,<sup>3</sup> testuen oinarriaren dauden baldintza sozio-historikoei buruz gogoeta egitea baizik. Beraz, artikulua izenburua hona ekarriz, Ilustrazioaren eraginaren (edo eragin ezaren) ahulezia eta frakasuz jardungo dut.

Antzerkiari buruzko Peñafloredaren praktika eta gogoeta bete-betean sartzen dira Espainiako neoklasizismoan, non nagusi den Frantziako prezeptiba klasikoaren eragina (Horazio, Boileau, Batteux abatea). “*Prodesse et delectare*” horaziarra eta Batteux abatearen “*Imitation de la Belle Nature*” XVIII. mendeak helburu duen “gustu ona”ren oinarri sendoak izango dira, zentzuzko eta baliagarri izateari inoiz huts egin gabe. Barrokkoa eta antzerki popularra dituzte kontrairudi. Hala gure Adiskideen Elkarteak ki-deek nola Espainiako antzerkigile neoklasikoek, estu-estuan betetzen dituzte frantses prezeptibak agintzen dituen arauak.<sup>4</sup>

Modu berean egongo gara adi gizartearen baitan susmatzen den bilakaeraren aurrean. Esate baterako, Frantziako Iraultza baino urte gutxi lehenago, Samuel Johnson doktoreak (Boswell 2007: 128) Frantziar barrena bidaiatu zuen, eta hauxe konstatzen du han ikusitakoaz: “Frantziako handikiak aberaskeria arranditsuan bizi dira,

<sup>2</sup> “El objeto de esta Sociedad es el de cultivar la inclinación y el gusto de la Nación Bascongada hacia las Ciencias, Bellas Letras y Artes: corregir y pulir sus costumbres. Desterrar el ocio, la ignorancia y sus funestas consecuencias...”, in Areta (1976: 15).

G. Humboldték Euskalerrian barrena egin zuen lehen bidaia (1799-1800) Bergarako seminarioa bisitatu zuen, eta hango hezkuntzaren antolamendu eta egoerak desengainatu egin zuten. “Diario del viaje a España”, in Garate (1933: 22-23).

<sup>3</sup> Aipatu Lakarra, Urgell edo Altxabarrengan (1992) aurkituko du interesatuak halakorik. Eta beste hainbeste Barrutiaren edo Peñafloredaren azterketa literarioei dagokienez: Lakarra (1983), Juaristi (1987) eta Lasagabaster (2004).

<sup>4</sup> Emilio Ollivier-ek adierazi zuen moduan, XVII. mendean bi gobernu absolutu finkatu ziren Frantziar: Luis XIV.aren gobernu politikoa eta Boileau-ren (*Art poétique*, 1674) gustuarena. Boileau, leku, denbora eta ekintzaren arauen defendatzaile sutsuaren ustetan, lehen gertaera Korinton gertatzen bazen eta hurrengo Erroman, ikusleak ez zuten halakorik sinesten (Peres 1982: 470). Tradizio ingelestetik zera erantzun zion, zentzu handiz, Samuel Johnson idazle eta kritikariak: ikusleak ez duela sinesten eszenatokian gertatzen den egian, badakielako antzerki saio baten aurrean dagoela, non aktoreek egiten duten lana, eta konbentzio bat dela, beraz, bata edo bestea —Korinto edo Erroma— agertu, igual zaiola. Esan beharrik ez dago prezeptiba kontuetan Ingalaterrako antzerkia askoz ere askeagoa zela, frantsesaren aldean. Alde horretatik, gure ilustratuek frantses kulturarekiko zuten morrontza erabatekoa zen.

baina gainerakoak mixeria sakonean. Ez dago Ingalaterran bezala erdiko klase zoriotsurik”. Jakina, baieztapen horren mamia “zoriontsu” adjektiboan dago, izan ere, ez digu esaten Frantzia ez zegoela erdiko klaserik, bai baitzegoen, baizik eta Frantziako erdiko klase horrek ez zuela aurkitzen modurik bere negozio eta burubideak gizarteratzeko.

Etor gaitezen Espainiako XVIII. mende amaierako burgesiari neurria hartzera, eta ikusiko dugu Espainian burgesia ez zegoela, ezta hurrik eman ere, aipatu berri ditugun Europako nazio horien burgesien tamainan garaturik; horixe izango du Espainiak XIX. mendeko gabeziarik sakonena: burujabe izateko eta Estatuaren burubideak gobernatzeko izaera epela, eta bere buruaz kontzientzia eta konfiantza eskasa. Eta gu-rean, Donostiako eta Bilboko merkatariak zeuden, baina, mende amaiera aldera, Foruak eragozpen bihurtu ziren haien negozio eta hazkunderako. Artean Frantziako Iraultzaren aurretik mantendu zitekeen oreka zaila gaiztotu egin zen handik aurrera, XIX. mendeko gerretan amaitu arte. Zein murgildurik bizi izan zuten Larramendik, Adiskideen Elkartek edo Mogeldarrek (eta euskaraz idatzi zuten beste euskal idazle gogaide askok ere) gertaeren bilakaera hori! Beren testuetako hitzaurreei (cf. Mogel 1800: v) erreparatzea nahikoa da ikusteko nondik ari ziren idazten eta zein leku hartzen zuten garai hartako Historiaren joko-zelaian. Egia esan, aipatu ditugun idazlelekuko horiek guztiek egiten zuten lan —batzuk erosoago, beste batzuk, Adiskideen Elkarteko kideen kasuan bezala, ezinbestean— Frantziako Iraultzak irauli eta hankaz gora jarri zuen gizarte sistema eta balio zaharren alde (Erregimen Zaharraren alde, bezaz). Baina baziren aldeak beren artean: Erregimen Zaharraren mugetatik barrura jardun arren, Adiskideen Elkarteko kideek ez zuten Mendibururekin hasi eta Agirre As-teasukoarekin amaituko dugun sermolarien familiarekin zerikusi intelektual handirik; balirudike baietz Larramendirekin, baina jakinik elkarren arteko diferentziak ere erabatekoak zirela, muturrera eraman ahala, “potentzialki” salbaezinak. Ez litzateke zaila imajinatzen Larramendiren ahalegina —euskararen eta Foruen apologia (eta defentsa) sutua eginez Foruak Gipuzkoako antolamendu juridikoaren eta izatearen muin bihurtzeraino; edo sermolarien (eta bidenabar laikoan) euskara maila hobetzeko tresnak emanez hurrengo (hauen artean, dantzen ohiturak direla-eta, Mendibururekin liskar gogorak izan arren: Larramendik “energumeno”tzat<sup>5</sup> hartu zuen hura); edo bertako “jauntxo” eta “handiki”en aurka jardunez Gipuzkoarenak ziren betiko usadio eta ohituretan aldaketak sartu nahi zituztenean, bertako eredu sozio-ekonomikoaren oreka bortxatuz<sup>6</sup>—, ez zen, ez, zaila imajinatzen hura, ezinbestean gainera zetorkion betiko nahi eta hauskor baino begitantzen ez zitzaion probintziaren (begi-ninietako maiorazgotxo) eredu orekatu ezindu horri, Atlante baten borondate eta pasioz, eutsi ezinean. Larramendi hil eta berehala hasi zen printzatzan mundu hura: 1766ko matxinada, jesuiten kanporaketa (1767) eta mendearen azken hereneko krisi sakona, non gizarterako estamentu guztiek muturrera jo zuten eta XIX. mendeko Gerra Karlis-

<sup>5</sup> “Censura del P. Larramendi sobre el Cristau dotrin edo catecismo luca del P. S. De Mendiburu”, in Tellechea Idígoras (1990: 368 eta 399).

<sup>6</sup> Pablo Fernández Albadalejok dioen moduan: “Creo que, básicamente, toda la formulación larramendiana se reduce a la defensa de lo que podríamos llamar un modelo estacionario de sociedad provincial”. Inoiz ez zen Larramendi komertzioaren aurka mintzatu, nahiz eta hiriarren eta nekazaritzaren arteko tentsioa bizirik egon: “Larramendi no es un ruralista” (1975: 360).

ten bidea irekita geratu zen. Tartean, Frantziako Iraultza. Ordurako, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak ere emanak zituen bere onenak, betiere merkataritza askearen eta Foruen tartean, uzkur eta bateratzaile.

Horrekin batera, euskal literaturaren historiografiaren ikuspegitik Juan Antonio Mogelen *Peru Abarca* testuak planteatu ohi dituen periodizazio arazoei erreparatuko zaie. Hori bai, betiere darabilkigun historizazio tresnak maila konparatibo batean erabiliz, inguruko beste hizkuntza eta literaturetan tresnok izan duten zentzu betearekin erabiliko dira, eta ez gurean (baita ere Espainian) ilustrazioaz,<sup>7</sup> erromantizismoaz edo errealismoaz maiz egin izan diren erabilera mehetuak eginez. Mendebaleko historia-ren baitan lan egin arren, handik hartu eta geureganatutako kategoriek ez bakarrik baliaagarriak, esanguratsuak ere izan behar dute ikerlearentzat, bestela ez dute balio.

## 1. Zientziaren eragina mundu modernoaren garapenean

### 1.1. Ilustrazioaren eragina

Tarte izugarria dago gorago aipatu ditugun sermolariengan irudikatzen den nekazari bizimoduaren (non erlijioaz haragoko ilustraziorik kalterako ikusten den) eta haien egoera eta talentuak hobetu nahiko lituzketenen artean. Azken hauen artekoa dugu, esate baterako, Jerónimo Feijoo (1676-1764) poligrafo beneditar espainiarra, *Teatro crítico universal* handiaren egilea. Haren atal batean, «Honra y provecho de la Agricultura» izeneko idatzia aurkezten zaigu. Eta nekazaritzaren balioa juzkatzeko orduan, artean XVIII. mende osoan zehar ohi zen moduan, Antzinatearen ereduari begira mintzatuko zaigu Feijoo, izan ere, hura baitzen oraindik ere, nahiz eta zientzia modernoak gero eta indartsuago azaldu, erreferentzia izaten jarraitzen zuen eredia. Honela mintzo zaigu Feijoo nekazaritzari eskainitako gorazarrean:

¿Qué arte puede competir en antigüedad con la Agricultura? Ninguna, sin duda, pues es ésta tan antigua como el hombre. Luego que Dios crió a Adán, le colocó en el Paraíso para que le cultivase y guardase: *Ut operaretur, et custodiret illum*. Cultivar la tierra fué la primera ocupación y el primer oficio del hombre.

A esta incontestable antigüedad añaden un grande lustre dos gloriosas circunstancias. La primera, que la Agricultura fue la única entre las artes, que tuvo su origen en el estado de la inocencia; todas las demás nacieron estando ya la tierra envilecida con la culpa. La segunda, que de todas las demás artes fueron autores los hombres; de la Agricultura lo fue Dios. Consta del Sagrado Texto, pues Adán no por designio propio se dedicó a cultivar la tierra, sino por destino y orden del Altísimo (*Teatro crítico universal*, III, 209-252).

Jarraituko du gero nekazari izan diren gizon ohoretsuen zerrendarekin. Baina halako batean, begien aurrean duen nekazariaren bizimodu gordinari lotuko zaio, eta honela mintzatuko da:

<sup>7</sup> Maiz aipatu izan da Ilustrazioak gurean (eta Espainian) izan zuen eragin makala: “Hay que llegar al turbio —y para nosotros, oscuro— período que empieza en 1789, cuando la burguesía española (entonces tímida entonces y después) se alía por interés a la Inquisición, para encontrar lo que prácticamente equivale a una prohibición, o al menos una restricción severísima, de la publicación de libros en vasculencia” (Mitxelena 1985: 159). Ikus baita Jüttner (1989) ere.

Pero ¿hay hoy gente más infeliz que los pobres labradores? ¿Qué especie de calamidad hay que aquéllos no padezcan? (...) Pero yo me lamento de los pobres que trabajan y hambread, debiendo con más razón lamentarme de los ricos que comen y engullen lo que aquéllos trabajan (Ibid).

Eta handikien begirune errukitsua inbokatu ondoren, erakundeetako arduradunengana joko du haien egoera hobetzeko soluzio bila. Zentzu handiko jakintsua izaki, politikari begira jarriko da Feijoo fededuna. Larramendiren kasuan ere, orduko giza antolamenduaren baitan, edo gutxienez hura bortxatzeke, eta eskura zeuden tresnen bidez, eman beharko zitzaion soluzioa. Gaspar Melchor Jovellanos (1744-1811), orde, ez da jada dagoenarekin konformatzen, eta erreformak eskatuko ditu bere *Informe sobre la Ley Agraria* (1795) famatuan. Tartean daude Adiskideen Elkarteko saioak, betiere Foruen mugen barruan erreformak saiatuz (zientzia aplikatuaren bidez nola atera lurrari etekin onuragarrienak). Ikusi dugun bezala, kristau moralean oinarritutako begirune errukitsuaren inbokazio hutsetik, despotismo ilustratuaren espiritu erreformistaraino luzatzen den ibilbidea marraztu dugu. Ikusi dugu Feijoo ez dela errukiaren inbokazio hutsean geratzen eta harantzago doala, mandatarien eta politikarien esku hartzea eskatzeraino. Larramendi ere joko-zelai horretantxe moldatuko da, mandatariei probintziaren legeek agintzen dutena errespetatu eta bete dezaten eskatuz.

Feijooen<sup>8</sup> eta Jovellanosen (honentzat erreferentzia bazterrezina zen Bergarako Erret Seminarioa) artean daude Peñafloidako kondea eta Adiskideen Elkartea. Jada 1753an idatzitako gutun batean garbi erakusten du Peñafloidak nondik nora saiatu nahiko lukeen aberriari laguntzeko:

Sabe usted mejor que nadie, mi Reverendo Padre, el estado lamentable en que se encuentra nuestra nación en punto a Ciencias y Bellas Artes: pero sobre todo en cuanto a la Física, de la que apenas se conoce más que el nombre (...). Ha aparecido, no obstante hace algunos años una obra excelente, sobre todo para una nación en la que las Ciencias se hallan en la cuna: hablo del Teatro Crítico de R. P. Feijóo, Benedictino, cuyo objeto es librar a la nación de todos esos prejuicios (Urquijo 1996: 80).

Ez dago zalantzarik zein norabidetan egin nahi zuen lan Peñafloida gazteak, Adiskideen Elkartea sortzeko hamabi urte falta zirelarik. Eta Feijooengan aurkitu zuen Espainia aldean bere gogaide eta akuilu izan zitekeen idazle bakana. Haren *Teatro Crítico Universal* bilduma estimu handian izan zuen.

J. Francisco Islaren *La historia de Fray Gerundio de Campazas* (1758) nobela satirikoaren argitarapena zela-eta, Azkoitiko Zalduntxoek saio kritiko bat idatzi zuten:

<sup>8</sup> Feijooen jakinduria, zentzu ona eta zientziekiko ikuspegi aurrerakoi eta ausarta oso estimatua izan zen Peñafloidako kondearen eta Adiskideen Elkarteko kideen artean. Hara zein adeitsu mintzo diren “Los aldeanos críticos” (1758) saioan Feijoori buruz: “¿Le parece que es poco para un Beneficiado saber que hay Systémas, y que ha habido Newton y Descartes? Pues gracias al Reverendísimo Padre Maestro Fr. Benito Feyjoó (sic), que sino, tan en ayunas estaría, como el primer día que se dexó ver en su lugar (...) valiéndome para esto de algunos Autores, dignos de que se les crea sobre su palabra (a lo menos mientras no nos hiciesen ver lo contrario), como son nuestro sapientísimo Feyjoó, el gran Moréri [Louis Moréri (1643-1680), *Le Grand Dictionnaire historique, ou le mélange curieux de l'histoire sacrée et profane* (1674), xviii. mendeko egile eta idazleen artean oso ezaguna eta erabilia. 1753an itzuli zen gaztelarara], el profundo Saverien, el juiciosísimo y eruditísimo Rollin, y varios filósofos, así Ingleses, como Franceses, que tengo en mi librería.”

*Los aldeanos críticos*<sup>9</sup> (1758). Ez dago dudarik espiritu «kritiko» horrek aurrerakoia izan nahi zuela zientziaren bidetik, justu zientzien bizitza hain geldoa zen Espainian. Feijooen lanaren izenburua ere *Teatro Crítico* zen. Metafisika eta eskolastika baizik irakasten ez ziren XVIII. mendeko Espainiako unibertsitateak (ez matematikarik, ez fisika modernorik) ezer gutxi eskain diezaiokeen Adiskideen Elkarteko lagunartean jakingose modernoari. Feijook “Honra y provecho de la Agricultura” idatzian Espainiaren egoera deitoratzen du: “El desarrollo de España lloro, porque el descuido de España me duele”. Gauza bera errepikatzen dute Peñafloidak eta bere lagunek *Los aldeanos críticos* saioan: “Contentémonos, pues, con llorar la suerte de nuestra Nación” (139. or.). Horra nondik Frantziarekiko lilura zientzietan eta arteen dagokienez. Alde horretatik, aipagarria da, jada urte asko geroago, Joaquín de Eguíak Condorcet pentsalari ilustratuaren ideiekiko erakusten duen atxikimendua (Elorza 1968): zenbat eta handiagoa egien ondarea, orduan eta hurbilago naturaren ezagutza. Argiek okerraren desagertzea ekarriko duela eta horrela giza-arrazoimena indartu egingo dela, zeinaren perfektibilitateak ez duen izango, agian, mugarik.

Honaino Narrosko markesak Condorcet-i maileguan hartu eta Godoy-rekin izan zuen gutun trukaketan erabilitako ideien egiaztapena. Progresoaren espiritua eta giza-perfektibilitatea eskutik zihoazen filosofo ilustratuentzat. XVIII. mendeko pentsalari eta zientzialariek uste itsua zuten zientzian eta arrazoimenean (Deskartes eta Locke-ren ondarea), gizakiaren bizimodua goitik behera hoberako alda zezakeetelako uste utopikoan fede berri bat indartzera ino.<sup>10</sup>

<sup>9</sup> *Los aldeanos críticos, ó cartas críticas sobre lo que se verá. Dadas á luz por D. Roque Antonio de Cogollor: Quien las dedica al príncipe de los peripatéticos D. Aristóteles de Estagira*. Impresa por Pantaleón Aznar, 78-81. or. Nik erabili dudana argitarapena J. F. Islaren izenean dator, eta ez dakar argitarapenaren datarik: “Es obra del P. José Francisco de Isla, de la extinguida Compañía de Jesus.” (sic) Bai Aita Islaren *La historia de Fray Gerundio de Campazas*, bai Adiskideen Elkarteko kideen *Los aldeanos críticos*, debekupean jarri zituen Inkisizioak. Aurreko oinohar batean aipatu dugun Moreiren hiztegia ere debekupeko *Indicean* zegoen, eta baita Jovellanosen *Informe sobre la Ley Agraria* ere.

<sup>10</sup> Hala ere, uste dut ez dela nahastu behar Eliza fedearrekin, eta, are gutxiago, azken hau zientziarekin. Eta horixe da katolizismo ortodoxoak etengabe egin ohi duena. Alde horretatik, dakarren dokumentazioarengatik mirezgarria gertatu arren, Julio Urkijoren *Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azkoitia* (1925, 1996) liburua planteamendua akats berean erortzen da. Euskalerraren Adiskideen Elkartearen (eta bere kide fundatzaile eta nagusien) kristautasuna justifikatzeko orduan, Urkijoren ahalegin agonikoa desenfokatu da, nire irudiko. Europako ilustratu eta zientzialarien artean ere aldeak zeuden, eta askok egin zuten lan Elizarekin eta Estatuarekin harreman estuan, eta erlijio kontuetan oso orekatuak ziren: Montesquieu, Newton, Locke edo Jefferson. Gainera, haietako asko eliz-gizonak ziren. Ez litzateke zuzena esatea Ilustrazioa erlijioaren aurkaria izan zela. Hala ere, egia da, oro har, Elizarekin gorabehera asko izan zituela, baina ez fede faltagatik edo hura auzitan jarri zuelako. Deismoa (arrazoimenean eta ez erlijio dogmetan oinarritutako sinismena) bihurtu zen haien erlijio. (Jainkoa ukatzea delitu zen Europa osoan.) Julio Urkijok honako hau gainera zezakeen bere liburuan: xvii. mendetik aurrera, zientziaren eraginez Europak jasan zuen bilakaeran (esan gabe doa Espainia bilakaera horretatik kanpo geratu zela, eta hortik Elizaren eta Inkisizioaren indar neurrigabearen arrazoia) mundua, natura eta gizakia ikusteko modua goitik behera eraberritu zela; zientziaren espiritu berriak zen oro blaitzen zuela; eta mende pare batean garatuz joan zen espiritu hori egoera mental bat bihurtuko zela; eta bilakaera horretan, Deskartesengandik abiatu ondoren —haren guztiarekiko zalantzaren haziak dena zipriztindu zuen—, bilakaera horren emaitzarik umoenak xviii. mendean gertatu zirela ilustratuen eskuetan. Haienzat, gure Adiskideen Elkarteko kideentzat bezala, hil ala biziko garrantzia zutela matematikak eta fisikak, aurrerapen tresna gisa. Eta orduantxe inauguratzen zen modernitatearekin batera, erlijioa eta fedearen norbere baitakoak izaten hasiko zirela. Gizartea kristaua izaten jarraitu arren, Frantzian edo Ingalaterran, adibidez,

Aitortu, dena den, zein zuhur ibili ziren gure ilustratuak zientziaren alde zuten grina eta ortodoxia erlijioso buruz-buru ibil ez zitezen, nahiz eta ezin eutsizko gainezkaldi batzuk gertatu aldian behin: Joaquín María Eguíak, Félix Samaniegok, Valentín Forondak edo Bergarako Erret Mintegiko Proust irakasle eta zientzialari famatuak, besteak beste, Inkisizioarekin gorabeherak izan zituzten. Izan ere, Blanco Whitek (1999: 67) esan zuen bezala, Espainiako zorigaiztorik galgarrienaren ardura-duna izan zen Inkisizioa. Hura izan baitzen ezein aurrerapen intelektualen aurkako eragozpena. Eta honako hau erantsi zuen: garai haietan, liburutegi on bat osatu nahi zuenak, soilik Inkisizioaren debekupeko *Indicetik* hartutakoez hornitu beharko zukeela (Blanco White 1974: 395).

## 1.2. Larramendi eta Adiskideen Elkartea

Gorago aipatzen genuen joko-zelai horren baitan nondik ari ote zitzaigun mintzatzen Larramendi eta nondik Adiskideen Elkarteko kideak. Aipatu ditudan ikerleei esker, ez da gutxi Larramendiren Gramatikak eta Hiztegiak izan zuten eraginaz daki-guna. Inoiz hitz egin da, baita ere, ondorengo ilustratuengan Larramendik izan zuen balizko eraginaz.<sup>11</sup> Baina gaitoen ikustera zertan gauzatzen zen (pentsamenduaren al-

---

erlijioak ez duela jada herri iritzian aginduko, bai ordea Espainian (eta zer esanik ez Euskal Herrian). Horixe da gurean falta izan zena: herri iritzia lekuan, parrokiako sermoia egon zen.

Halakoa da, ordea, Elizaren atzaparren eragina gizartean, non harekin borrokan zabaldu behar, nahi eta nahi ez, zientziaren eta arrazoimenaren espiritua. Eta jakintza zaharren (Antzinate klasiko-kristauaren) aurrean, zientzia modernoaren bidetik deskubritutako berriak hasiko dira pilatzen. Azken batean, “Querelles des Anciens et des Modernes” hura xvii. mendean hasi zen, baina xix. menderaino luzatu zen (gurean xx. mendearen bigarren aldiraino). Bere eraginez, erudizio zahar asko baliogabetuta geratu zen mundu modernorako, eta Ernazimendutik hona, erreferentzia eta egile berri askok erudizio klasiko-kristau zaharragoaren lekua hartu zuten. Urkijok ez zuen jakin ikusten jakintza berriak Eliza katolikoaren dogmen kuestionamendua zekarrela, bata bestea blaitzeraino. Horregatik ez da nahikoa dokumentazio miresgarria mahaigaineratzea —1996ko edizioako “Apéndice”etan dakar Quadra-Salcedoren kontra-artikuluak— gero pentsamenduaren eta modernitatearen bilakaeraren testuinguruaz baliatzen ez bagara hura ulertzeko.

Aipagarriak dira auzi honi buruz Jean Serrailh-ek (1957: 247), errespetu handiz, Julio Urkijori —bere liburutegia hain eskuzabalki zabaldu zionari—, “al gran católico Julio de Urquijo” (1957: 246) hari jartzen dizkion “baina” elokuentek: “Menéndez Pelayo queda fuera de combate por los argumentos de su contrincante. Pero por su libertad de espíritu, por su conocimiento de la Francia contemporánea y su afán de difundir el progreso a su alrededor, Peñaflores es igualmente un hombre muy del siglo xviii, y se nos presenta, si no como un “filósofo”, sí, por lo menos, como un verdadero “reformador”. Edo Bergarako Mintegiko dokumentazioa (213) dela-eta, Mintegiaren ortodoxia frogatu nahian, ez du Urkijok hango irakaskuntzako atalen informazioa erabiltzen, non irakaskuntzaren espiritu praktikoa eta utilitariora nabarmentzen zaion berak nahiko lukeen izaera erlijiosoari. Ukaezina da zientzia modernoaren espirituak bizitzako alderdi guztiak blaitzen zituela: “Liberados por la ciencia moderna del yugo de las autoridades consagradas.” (572) Julio Caro Barojak ere, nahiz eta garbi ikusi Urkijok ezeztatu egin zuela Menéndez Pelayoren heterodoxia salaketa, zera erantsiko du: “Queda claro, sin embargo, que varios miembros de la alta sociedad vasca de la época eran poco creyentes, como el fabulista Samaniego, que fue objeto de un proceso inquisitorial.” (1971: 202) Julio Urkijok, bere katolizismo ortodoxoaren altzotik, ez zuen espiritu hori ulertu nahi izan.

<sup>11</sup> Koldo Mitxelena hala zioen bere *Historia de la literatura vasca* (2001: 96) liburuan: “En Vasconia fue en cierto modo precursor de la ‘ilustración’ de los Amigos del País y de su Real Seminario de Vergara.” Ildo beretik ari zaigu Lasagabaster (2004: 3), baita (1984: 251-27) eta (2002: 23-72) lanetan ere.

“Andoaindarraren eraginak, dena den, hiru eratakoak-edo izan ziren: berak sortarazitako konfiantza giroaren bidezkoa, batetik, ondorio gisa literatura liburuen ugalketa ekarriko zuena; bigarrenik, lexiko

detik), bataren eta bestearen arteko gogaidetasun falta edo desadostasun sakona. Eta horretarako zein dokumentu aproposagorik gorago aipatu ditugun Xavier María de Munibe eta Joaquín de Eguíak, Adiskideen Elkarteko kideek, idatzitako *Los aldeanos críticos* saioa baino. José Francisco Isla jesuitak argitaratutako satirak sermolaritzaren egoera penagarria zuen muin eta xede. Hala ere, *La historia de Fray Gerundio de Campazas* nobelak ederki erakusten du zenbaterainokoa zen garai hartan Espainia aldean zientziari eta filosofia modernoari jartzen zitzairen arreta. Honela mintzo zaigu egilea nobelako pertsonaia baten (Benefiziaduren) ahotik:

Porque si le dieran lugar para saber lo que pasa por acá sus estrechas correspondencias con ciertos amigos de Francia, y su aplicación infatigable a entender mal o a interpretar peor las bulas y breves pontificios sobre las misiones del Oriente, tendría sin duda noticia de que ha más de treinta años se publicó en España el Curso filosófico del sabio padre Luis de Losada, cuya admirable física comienza por un largo y docto discurso preliminar en que se exponen, se examinan y se baten en brecha casi todos los sistemas filosóficos que se llaman modernos por mal nombre, representándolos todos con sus pelos y señales. Aunque esta impugnación, como imparcial y como verdaderamente sabia, no es tan en cerro ni tan a destajo, que en el discurso de la obra no se abracen algunas opiniones de la filosofía experimentales,<sup>12</sup> desamparando la de los aristotélicos, a cuyo jefe, por lo demás, se sigue con juicio y sin empeño (1960: 107-108).

Luis de Losada (1681-1748), Salamancako Unibertsitatean Testu Sakratuetan katedradun, Aita Islaren maisu izan zen, eta baita Larramendirena ere. Batak zein bes-teak estimu intelektual handian zuten hura. (Aurrerago ikusiko dugun bezala, ez da faltako Larramendiren idatzietan Losadaren izena, guztizko miresmenez ekarria.)

*La historia de Fray Gerundio de Campazaseko* pasarte horixe izan zen *Los aldeanos críticos* bezalako erantzun gartsua piztu zuen txinparta. Honela mintzo dira Adiskide azkoitiarrak Roque Antonio de Cogollor-en ahotik (ezizenez sinatua, beraz):

¿Qué quiere Vmd. que diga un pobre Clerizonte despues de haber leído el Discurso Preliminar de la Física del Padre Luis de Losada, *en que*, está muy creído (...)

Qué quiere Vmd., pues, que diga, y qué juicio quiere Vmd. que forme de unos Filósofos, y de una Filosofía, que un hombre tan sabio como el Padre Losada, (que sin duda fué uno de los mayores ingenios que ha producido nuestra España) llama *Filosofía de Capa y Espada, Filosofía de Estrados, &c?* Esto no solo lo creerá él, sino tambien todos aquellos que tengan á este Padre por tan gran Físico, como fué profundo Teólogo, crítico delicadísimo, excelente Poéta, y en fin, hombre erudito á todas luces, y uno de aquellos entendimientos, que de tarde en tarde se dexan ver en el Mundo. Bien es verdad, que cualquiera Físico les podrá desengañar, haciendoles ver lo contrario por su misma Obra; pues empeñandose en el celebrado Discurso en impugnar á Descartes, se divierte en defender formas, accidentes, &c. y no toca ni aun de mil

---

arloko eragina, hiztegiaren bidez zuzenean burututakoa; eta hirugarrenik, lausoagoa agian, preilustrazioko intelektual gisa, inguru ilustratuan izango zuena (Zalduntxo eta EHAE/RSBAP elkartekide zenbaiten ere ongi irakurria eta bereganatua zuten jesuitaren obra; ik. Larrañaga 1991: 175, 363 oharra)" (Salaberri Muñoa 2002: 119).

<sup>12</sup> Aita Islaren nobelako hitz horiek J. Feijoo-k bere "Lo que sobra y falta en la física"ren amaieran Losadaren liburu argitaratu berriaz adierazitakoaren zordun dira (cf. Feijoo 1958: 451-466).



leguas á los *Tourbillones*, que es el fuerte de Descartes, inaccesible sin duda, al gran Jesuíta, por la falta de Geometría y Astronomía: Ciencias que no se aprenden en *Estrados*, ni andando por ahí con *Capa y Espada*, sino quemandose las cejas en el rincón del Gavineté, y oyendo a Maestros, que saben aclarar sus obscuridades.

Lo mismo inferirá de toda su admirable (así la llama el Beneficiado) Física, donde, prescindiendo del tal qual especie, que apenas merece el nombre simple de Física, sin que le preceda el *Metha*; todo lo que trata S. Rma. es Gerigonza: es Metha-Física

(...)

No entenderá este lenguaje. Pues esto es Física, y de esto habla Descartes, y da reglas para saber todas estas questões, que son las únicas interesantes para la Sociedad, y no las de Bilocaciones, que solo son para admiradas en el Flos Sanctorum

(...)

Ahora pregunto: ¿Se ofendería el P. Losada de que yo le dixese, que no sabía mas de Física, que Newton de Teología? Ya se ve que no, porque así como en las Escuelas de Matemáticas de Cambriga no se explican los DD. de la Iglesia, ni los Santos Padres, &c. tampoco se enseñan en Salamanca y en Valladolid la Geometría, la Ciencia del Cálculo, &c. que son precisas (como ya he dicho) para entender á Descartes, y consiguientemente tambien para impugnarle (*Los aldeanos críticos*, ibid., 76-81. or.).

Larramendiren zerumuga intelektualak ezin zuen Descartesen maisutza onartu, eta are gutxiago hori Aristotelesen eta eskolastikaren espekulazio hutsaren truke baldin bazen, ze filosofo frantsesak irekitako bideak, alegia, metodoak —ordu arteko guztia zaharra bihurtuz eta handik aurrerakoa berria—, izan zituen ondorioak mingarriak izan ziren Larramendik hain gustura eta eroso bizi zuen filosofia eskolastikoa-arentzat. Ordura arte nagusi izan zen metafisikaren tenpluan Descartesez zabaldutako arrakala hartatik ari zen ezinbestean odolusten filosofia espekulatibo zaharra, Pirinioetatik hona hainbeste eta hainbeste partaide sutsu izan zituena. Eta horietako bat genuen Larramendi, horixe izan zuen hark eskola. Haren «Réplica del P. Larramendi a los Diaristas de Madrid» zela-eta, honela idatzi zuen J. I. Tellechea Idígorasek:

Larramendi arremete contra las páginas dedicadas a la Filosofía, comentando diversas frases literales de la publicación. Las nuevas teorías científicas inducían al menosprecio del Aristotelismo imperante. Larramendi arremete contra los atomistas y experimentales para defender los fueros de la pura filosofía especulativa, concediendo un rayo limitado a lo experimental (1990: 17).<sup>13</sup>

<sup>13</sup> Madrilgo “diarista” haien aurka idatzitako erantzunean, Larramendik Luis de Losadaren laudoriorik kunplituena eskaintzen du (119), eta A. Berthier-i idatzitako gutuna bere maisuari eskainitako gorazarre eta omenaldi beroena da. Alde horretatik, harrigarria gertatzen da *Los aldeanos críticos* saioan Peñafloidak Losadaren filosofia liburuari emandako jipoiaren ondoren, Larramendiren isiltasun potoloa, guztiz gogoko baitzuen haren liburua, eta egilea, zer esanik ez.

Bide batez, esan dezadan, José Malaxechevarriak *La compañía de Jesús por la instrucción del Pueblo Vasco en los siglos XVII y XVIII* (Donostia, 1926) liburuan dioena Losadari buruz: “La opinión de este gran maestro refleja el sentir de casi todas las aulas de Euskal-erría (sic), en las que o tenían de texto, o al menos asiduamente consultaban el célebre y para su tiempo excelente *Cursus Philosophicus del eminente catedrático salmantino*.” (425) Kuriosoena, ordea, honako hau da, nola kritikatzan duen Larramendik Feijoo aipatu dugun lehen idatzian, nonbait bere aurkariaren ahotan ere aipatua, eta laudatzeko gainera: “Dice que alienta a esto el Maestro Feijòo, moderno Colón de la naturaleza. Lo echa a perder queriéndolo alabar. No necesita de lisonjas Feijòo. Diga ¿qué descubrimientos ha hecho de la naturaleza?” (118) Feijoo-ren ekarria ez dago aurkikuntza zientifiko konkretuan, baizik eta bere jaidura intelektual eta kritikoa, eta berrikuntza orenen aurrean jakin-gose asezeinean, edo ikergai den esparrura hurbiltzeko metodoan.

Garbi dago non dagoen Larramendiren indargunea filosofiari dagokionez, eta ez da hori justu Descartesengandik aurrera filosofia eta zientzia esperimentalak hartu zuten bidea. Ez zion Larramendik iruzurrik egin maisuari, izan ere Larramendi bera izan baitzen, Tellechea Idígorasen esanetan, Losadaren ikasle kuttuna («alumno predilecto del gran escolástico P. Losada»)<sup>14</sup> Bi mundu, beraz, Adiskideen Elkartearena eta Larramendirena. Intelektualki mundu kontrajarritan bizi izan ziren. Eztabaida hartan Descartes eta Aristoteles erabat ziren kontrajarriak. Larramendiren errutina eskolastikoaren aurrean Adiskideen Elkartekideek baliagarri eta erabilgarri izango ziren zientzietan jarri zuten beren ahalegina.<sup>15</sup> Azken batean, zientzia praktikoa eta zientzia aplikatuen bidea saiatu zuten. Diferentziak alde batera utziz, pentsa liteke Larramendiren *Corografía* (Tellechea Idígoras 1977) bezalako liburu baten inguruan aurki zezaketela, irakurketaz gozatzeko abagunerik. Baina ez. Izan ere, Larramendiren liburu gogoangarri horretako proposamen batek baino gehiagok egingo luke talka “handikien” interesekin, adibidez, handikien ondasun ziren elizetako hamarrenen ordainketari buruzko iritzian, edo haien aristokraziaren ohorearen sorburuari buruzkoan.

### 1.3. Euskalerriko Adiskideen Elkartea eta antzerkia

Honaino iritsi ondoren, hau da hurrengo galdera: Ze indar eta eragin izan zezakeen Ilustrazioak gurean? Jakin badakigu jende mordoxka batek irakurri zuela *L'Encyclopedie*, tartean hainbat apaizek ere. Nahiz eta zenbait irakurketa debekuekin egin, badirudi gure ilustratu ospetsuak oso esaneko zirela erlijio kontutan, edo hala ziren bederen beren jauregi-ataritik kanpo. Badirudi halako *laissez-faire* tolerante bat egon zela Elizaren aldetik handiki horienganako, Iraultzaren eta Konbentzio Gerraren ondoren gauzak larritu ziren arte. Orduan, gorago aipatu dugun bezala, Inkisizioak bere trepetak indartu zituen berriz, José María Eguía,<sup>16</sup> Narrosko markesari, penitentzia larria jarritz bere bekatu ilustratutik senda zedin. Félix María Samaniego ere, bere osabak, Peñafloidako kondeak eskatuta Bergarako Erret Mintegiko ikasleentzat *Alegia moralak* (1781) argitaratu zuen alegiagile ospetsua ere ez zen libratu Inkisizioaren jazarpenetik.

Beste hainbeste haien antzerkiari dagokionez: halako tolerantzia erne bat izan zen haien dibertimendu aristokratikoekiko. Eta, egia da antzerkiarekiko Adiskideen Elkartek erakutsi zuen hasierako entusiasmo hura epeltzen joan zela urteekin, ia-ia emanaldiak desagertzera. 1765eko Estatutueta haxe esaten da antzerkiari buruz: «Las noches se destinarán a cultivar la música o la poesía dramática, logrando por este medio el que ni aun en las diversiones se distraigan los amigos del Instituto.»

<sup>14</sup> Ibidem, 112. or. Horrela dio A. Ludwig Koch jesuitak bere “*Léxico de los Jesuitas*” (1934) lanean. Nahiz eta filosofia berriaz ere erudizio handiz jardun, iraganeko filosofian geratu zen mentalitatekotzat du Luis Losada. Egile honen nortasun intelektuala gehiago sakontzeko, ikus Cortina Ireta (1981).

<sup>15</sup> Unibertitateen erreforma bultzatzeko Jovellanosen erregeari helarazitako memorian zera dio, zientzia erabilgarriekiko utzikeria eta eskolastikaren abusua zirela ezjakintasun nazionalaren arrazoi nagusiak.

<sup>16</sup> Entziklopedisten lanak irakurtzeagatik Narrosko markesak Inkisizioarekin izan zituen ika-mikak 1768an hasi ziren. Arantzazuko komentua bisitatuz bete behar izan zuen bere zigorra, zortzi eguneko barne-gogoetak eta aitortza orokor bat egin. (Areta 1976: 65) Leandro Silván-ek, berriz, dio partikularren aldetik Inkisizioari egindako salaketarik ez zitzaioala falta izan Eguía jaunari aurrerantzean ere (1788, 1790, 1791), baina erakundearekin izan zuen hurrengo topaketa 1798an gertatu zela (1967: 369-404).

Exordio horaziar<sup>17</sup> baten gainean eraikitako gomendioa da hori, non esaten den aisialdiak ere alferkeria saihestea izan behar duela helburu. Horazio —«el gran príncipe del buen gusto», Peñafloredaren esanetan— estimu handian izan zuten, Boileau eta Luzan-en poetikekin batera (Areta 1976 : 29). Haren “*prodesse et delectare*” (irakatsi atsegina izanez), Boileau-ren poetikako hiru arauekin batera, prezeptiba neoklasikoaren muina da. Heziketa eta didaktismoa beti daude presente XVIII. mendeko kultur helburuetan, eta antzerkiak ere bere zeregina izango du egitarau zabal horretan: “Que por tanto debía ser uno de los objetos de la Sociedad corregir el teatro de modo que fuese escuela de virtud y no de vicio” (Ibid, 139).

Baina halako helburu didaktiko eta filantropikoetan ezin zuen parte hartu herri xeheak, behar handiena zuenak, inondik ere, ze besteak jende ikasiak ziren. Ilustrazioaren emanaldi horietan aristokraziak hartzen zuen parte, edo herriko jauntxoek, handikiek eta apaizek (Bergaran). Gauza bera gertatuko da Joaquín Altzibarren antzerkitxoarekin (2008): protagonista nagusiak ezjakinak eta erdi arlosteak izan arren, horietan emango diote, Peñafloredaren *El borracho burlado*-n (1764) gertatzen den bezala, antzerkiari darion komizitatea. Etxe on eta handikien gustu eta atseginerako taularatu ziren. (Hala ere, bi lanak ez dira alderagarri, ez egitura ez kalitatearen aldetik). Badakigu eliteen ardura zela herri xehearen ohitura baldarrak eta gustua zuzendu eta heztea, eta hori goitik beherako norabidean gauzatu behar zela erreformen bidez. Alde horretatik, edateko grina zuzentzearekin batera, *El borracho burlado*-ko Chanton Garrote pertsonaia nagusiak ikasi beharreko irakasgaia hauze izango da: “que enseñe a respetar las clases que componen un estado, que inspire a cada uno el amor a los deberes...” (Samaniego 1898: 87).

Iritzi berekoa da José Cadalso idazle espainiarra bere *Cartas marruecas* liburuan:

Mira, Gazel: los que pretenden disuadir al pueblo de muchas cosas que cree buenamente, de cuya creencia resultan efectos útiles al estado, no se hacen cargo de lo que sucedería si el vulgo se metiese a filósofo y quisiera indagar la razón de cada establecimiento (1983: 293-294).

Ez zuen lehenago Larramendik besterik esan bere *Corografía*n, modu gordinago batean egin bazuen ere:

En aquellos sermones cuyos asuntos miran a los que mandan, dirigen y gobiernan, y no son para el común de los oyentes, ni éstos es razón que sepan cuán mal gobernados están y qué pecados cometen en su gobierno los que mandan (289).

Ez dago esan beharrik gomendio horien guztien helburua gizartearen *status quo*-ari eustea zela. Helburu didaktiko-moralak eta elitismoa eskutik helduta ibili ziren neoklasizismoaren garaian; azken batean, huraxe zen Erregimen Zaharrak utzitako azken mugimendu estetikoak. Eta bere ondare dugu, hurrengo mendeko hamarraldi luzeetan euskal literaturan nagusi izango den generoa: alegigintza.<sup>18</sup>

<sup>17</sup> Horacio, *Sátiras*, II, iii, 15. Ikus baita Curtius (1974: 135).

<sup>18</sup> Alegigintzak garapen berezia izan zuen gurean (iraupenarengatik), eta genero profano bat izan arren, modernitatearen kutsaduraren aurkako harresi lana egin zuen. Alegiak, funtsean, bi hanka izango ditu: neoklasizismoaren espirituari zor dion didaktismo utilitariora izango da bata, non irakurketak ez duen zentzurik bizitzarako irakasbiderik ez duen artean (hori, betiere, “atsegin izanez erakutsi” agindu neoklasikoari jarraituta egingo da); eta bigarrenak espiritu erlijiosoaren edo arimazaintzarekin luke lo-

[Jada xx. mendean barrena sartuxea ere, alegia izango du generorik gustukoena Jules Moulier «Oxobi»k (*Alegiak*, 1926)]. Adiskideen Elkarteko helburu hezitzaile horren muina, beraz, goikoekin begiratuaz itatean zetzan. Ez herri xehearekiko mespretxuagatik, ez, goitik beherako gizartearen ilustrazioan, aurrenekoak eliteak zirelako baizik; geroago, edo beste maila batean, etorriko zen herri xehearen ohitura eta bertuteaz arduratzeko ordua, hori bai, betiere harreman paternalistetan oinarrituz eta gizatalde bakoitzaren lekua zein zen ondo irakatsiz. Jakina, Historiak erakutsi zuen bezala, oreka zail eta kontraesankor hori mantentzea ez zen erraza gertatu, eta gora zetorren burgesiak leherrarazi zuenean ordura arteko eredu soziala, aurrekoen heziketa eta ilustrazioa gizatalde zabalago batek bereganatu nahiko zuen. Ordu arte, Bergarako Erret Mintegiko ikasleria aristokraziaren eta jauntxoaren semeek osatzen zuten, Adiskideen Elkartean eta despotismo ilustratuaren ikuspegitik, horien esku egon behar zuelako gizartearen gobernuaz; elitearen eskuetan, beraz. Borja Aguinagaldekin ezin hobeki laburbiltzen du Adiskideen Elkarteko lagunartean espiritua:

La Bascongada nace para promover y defender los intereses económicos y comerciales de la clase de *mayorazgos* propietarios del País, por el medio de incentivar la investigación científica y la educación de los hijos de estas familias. Para ello se fundará el Real Seminario.<sup>19</sup>

tura: generoak ez zion kalterik egiten arimaren osasunari. Beraz, kristau arimaren osasunerako kalterik ez eta gomendagarria bestalde bere irakasbide garbi eta errazagatik. Eta literaturaren (eta bizitzaren) ikuspegi horixe izan zuten J. A. Mogel eta Bizenta Mogelengandik, arimazaintza literatura generoen gainetik jarriko duten Azkue aita-seme eta enparauenganaino. Hara nola ikuspegi neoklasikoak markatu ohi duen herri xehearekiko distantzia: “Egoten gachacoz aoac zabalik enzuten, ume chicarrac Peru ta Marijaren ipuin gatz bagaac enzun daruezan garrac” (J. A. Mogel, *Peru Abarca*, 95); “Umeago nintzanean berriz enzun oi nituen, zoro zororic, ta pozez erotuta, atso ipuiac. Sinisten nituen eguia andi batzuec becela, Peru ta Mariaren ipui farragarri ta sustrai gaviac (...) Au da aur gucien gaitza, edo zorasuna.” (B. Mogel, *Ipuin onac*, 1804). Hauxe besterik ez da Txomin Agirreraren ikuspegia. Eta hara zer idatzi zuen 1901ean haren lagun handia izan zen Karmelo Etxegarai historiagile eta idazleak *Apéndice a la obra Noticia de las cosas memorables de Guipúzcoa, de D. Pablo de Gorosábel* saioan bertso-paperean aurka: “Los sucesos más triviales, los accidentes más prosáicos se ponían en verso... Murmuraciones de aldea, rivalidades de campesino... La mayor parte se olvidaba el nombre de los autores de semejantes engendros, y más vale para su buena memoria que se olvidara, pues de este modo no se perpetúa la fama de su incapacidad artística... Si pudieran reunirse todas las hojas volantes que, por espacio de tres cuartos de siglo, se hayan difundido, con nombre de versos vascongados, por los hogares de la región euskara, se formaría una colección enorme de simplezas y groserías...”, VI. alea, Tolosa, Imprenta de E. López, 1901, 34-34. or.

Ez zuen besterik esaten Meléndez Valdés ilustratu eta neoklasikoak XVIII. mende amaiera aldera: “No son muchos los que leen libros. En cambio, el pueblo da muestras de una afición vivísima a los romances, no a los romances viejos que celebran los elogios de España, sino a composiciones contemporáneas, sin valor literario ni moral, obras necias y torpes, reprobables por el “indecoro chabacano de sus indecentes argumentos”, escritos por poetastros famélicos que llenan con ellos “los puestos de ferias de todo el reino... ¡Pero qué afrenta para la razón y para el buen gusto!” (*Discursos forenses*). Haien debekua eskatzen zion Estatuari. Beste hainbeste egin zuten garai bertsuari Samaniegok eta Jovellanosek antzerki popularraren aurka.

<sup>19</sup> “¿Por qué los archivos de la Bascongada son complicados?”, in Risco & Urkia (2000: 27). Hara zer dioen Agustín Ibáñez de Renteriak Bergarako Mintegiko ikasleak zirela-eta Lagunartean bilkuretan aurkeztutako txosten batean: “Cuando digo educación general no pretendo por eso que se hayan de enviar al colegio los artesanos ni los labradores. Aquellos institutos se reservan en todas las naciones a las gentes distinguidas por nacimiento o riqueza”, in Bagüés (1991).

Eta, hori bai, horiei eskainitako heziketak ez zuen Espainia aldeko jesuiten heziketa eskolastiko zaharrarekin zerikusirik. Gorago aipatu dugunaren ildotik, zientzia esperimentalek hartuko diote erreleboa filosofia zaharrari. Errelebo hori, paradoxikoki, jesuiten kanporaketa zela-eta (1767), hutsik geratu zen Bergarako jesuiten egoitzan bertan gertatu zen.<sup>20</sup> Esan dugun bezala, Frantziako Iraultzarekin batera hondoratu egin zen mundu zahar hori, eta burgesiaren hegalean hezitako hiritargo berri batek ere parte hartu nahiko zuen aurrerantzean gizartearen eraikitze eta gobernu lanetan. Horrela gertatu zen Europako Estatu aurreratuenetan —Ingalaterran, Frantzia, Holandan...—. Baina gurean ez zegoen artean (ezta XIX. mendean ere) haiek utzitako lekukoa hartuko zuen burgesia euskaldunik,<sup>21</sup> asmo berriekin gizartearen ardua bere gain hartuko zuenik. Horren faltan, gure apaizek betiko heziketa lanetan jarraitu zuten, hau da, arimazaintzan, eta ahalegin horretan, herri xehea,<sup>22</sup> ezinbestean, aurrera baino, atzera begira geratu zen.

Beti agertu ohi zuten Peñafloredaren lagunek halako errespetu interesatu bat Elizarekiko; hala beharko, elkarren babesaren beharrean baitzeuden pribilegioei eutsiko bazieten. Ez ziren hemen Frantziako aristokraziak zuen portaeratik asko aldentzen: han eta hemen “mezatan kristau eta operan pagano” voltairearra litzateke bizitarako

<sup>20</sup> Orain arte ezagutzen den dokumentazioaren arabera, badirudi Real Sociedad Bascongadoako lagunartean eta jesuiten arteko harremanak ez zirela oso sendoak izan: 1767ko matxinada lekuko, batetik (ikus Gurruchaga 1933: 373-392); eta bestetik, jesuiten kanporatzearen ondoren, Loiola bera aukeratu izana Elkarteko zereginetarako eta horretarako baimena Carlos III.ari eskatu izana, hain justu kanporatzearen agindua eman zuen erregeari.

<sup>21</sup> Esan beharra dago, XVIII. mendean burgesia merkataria oso ahula zela oraindik eta biztanle gehienak nekazariak zirela. J. Caro Barojari (*Muga* 6, 1980) hartutako datu hau esandakoaren erakusgarri: Bilbok 11.000 biztanle zituen XVIII. mende amaiera aldera, eta hura zen Euskal Herriko industria eta merkataritza hiri nagusia. Ezin zitekeen konparatu, beraz, ez tamainaz ez aberastasun mailan, garai hartako Europako hiri handiekin —Londres, Amsterdam, Hanburgo—, 100.000tik gora biztanle baitzituzten denek. Azken hauek bere unibertsitate, laborategi eta bestelako probetxu handiko zerbitzuekin hornituak. Lekutan dago gurea! Beraz, gure burgesia eta ilustrazioaz hitz egiten denean, ondo legoke, Caro Barojak artikulu berean aholkatzen duen bezala, kalitatearen eta kopuruaren auzia ere aintzat hartzea, ze, historikoki, hemen apalagoa gertatzen baitzen guztia.

<sup>22</sup> Hara zer dioen Mogelek beren predikuen hartzaileari buruz: “Eguia esan bear bada, Euscalerrietaco Apaiz, Fraila, ta Anima-zai guciac esan dezaquegu bidaldia (sic) edo autuac guerala berri on animaren gañeoac emateco, ez Erreguei beren Jauregietan, ez Andiqui goratu, edo Jaun urre-cillarra ugari darabiltenai, ez jaquituria lurrecoz beren ustez beteric dauden guizon arrotzaarrai, ta bai nequezale, bearguin, archulari, olaguizon, icazquin, emacume gorula, eula, jostun, ta onelaco gende mé ta becoquico icerdi larriarequin oguia billatu bear dutenai. Ez degu Pablo Apostoluac becela aguertu bear Athenasco Bilcui, ta Eracasteguan, eranzuteco Jaquitun gaizto-asmariari beren galdetze gucietara. Aguertu bear degu enzula viotz oneco ta samurer (sic) racen aurrera; ceintuzec (sic) enzungo gaituzten gucienez ao, ta viotz zabalequin, ta beti isillic. *Evangelizare pauperious miscit me Dominus.*” *Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac*, Iruñea, 1800: iv. Ez dago dudarik erlijioaren indar hertsgarriaz: “Puede decirse, sin miedo a cometer error, que es la fuerza coercitiva más considerable de cuantas informan a la sociedad vasca actual y la que la ha movido desde fechas bastante remotas en momentos decisivos” (Caro Baroja, 268). Eta *Muga* aldizkariako erreportajearen hala dio: “Porque, claro, el esquema ese clásico del campesinado que se siente, como decía Menéndez Pelayo, en una especie de democracia frailuna, es, con perdón de todos estos jóvenes (historialari marxistez ari da), muy importante. Es decir, que el campesinado, con una idea teocrática de la vida y una interpretación religiosa de la sociedad, pues ha tenido mucha fuerza en Europa, y no hay por qué querer convertir todo en un problema de lucha de clases en términos laicos.” (Ibid., 50). Nekazaritza eta apaizgoa ogi eta jaki izan ziren gurean.

lema. Starobinskik (2000: 274) azaldu bezala, antzerkia dibertimendu profano eta moderno bat baino ez zen Elizarentzat, azken finean, balio estetiko hutsetik harago joango ez zena, egia inoiz —egia beti erlijio eta Elizarena baita— kuestionatu gabe. Hemen ere ildo horretatik ibili ziren gauzak, bai Peñafloidaren *El borracho burlado* famatuarekin edo frantsesetik itzuli eta taularaturako beste antzerkiekin. Hona Peñafloidaren hitzak:

Cuando un verdadero sabio siempre más sumiso cuanto más ilustrado descansa sólo en la verdad, y firmemente persuadido a la limitación de sus alcances, venera las decisiones de la Iglesia con tanto rendimiento que tiene por culpa aún el hablar de ellas si no ha de ser para respetarlas (Urquijo 1996: 198).

Frantziako Iraultzak ekarri zuen astinaldiarekin batera, mundutxo hori guztiz desagertu zen. Zientzia, teknika eta ekonomia kontuetan oso aurreratuta ibili zen gure Adiskideen lagunartea, baina oso otzan gizartearen bestelako arazoan aurrean. Ez zen behin ere auzitan jarri garaiko monarkia. Erlijioaren eta moral zibilaren aldetik ere ez zen egon espiritu kritikorik. Gure ilustrazioa erabat mehea zen inguruko nazioetako espiritu kritikotik begiratzuz gero. Julio Urkijori (ibid, 101) kasu egitera, bilkurretan parte hartu aurretik mezatara joaten omen zen gure Adiskideen lagunartea, eta Mallorcako Adiskideen Elkartekideek, berriz, “Salve Regina” kantatzen omen zuten batzarraren ondoren. Gure ilustrazioaren mengeltasunaren adibide elokumenteak dira horiek, eta hark gurean utzitako arrasto kaxkarrarena. Baina horretan guztian, ezin ahaztu gure burgesiaren ahultasuna eta, sermolaritza sistematikoaren bitartez, herri xehearengan Elizak izan zuen eragin ezin txarragoa.

## 2. *Los aldeanos criticosetik Peru Abarcara*

### 2.1. Euskara, baserria eta erlijioa

Baina euskal testuetara ez zen tamaina horretako eztabaida jasorik heldu, baururik igaro genuen bilakaera hori guztia, eta erlijioarekin batera, euskara eta baserria bihurtu ziren gure Hirutasun Santua. Esan beharrik ez dago nekazari eta beste jende xehearen gainean eraikitako jardunak berritasun apalenaren eraginetik babestea izan zuela helburu. Gauzak horrela, Belen Altunaren *Euskaldun fededun* liburuak XVIII. mendearen bigarren erdialdiko eta XIX.eko lehenengoko herri-misiolaritzako zenbait sermolarien lanak aztertzea izan du helburu, eta bertan nagusi izan diren jardun eta mundu ikuspegiak azaleratzea. *Topos* horien artean —gorago ikusi dugun Feijooarengan bezala— baserritarraren gorazarreak hartuko luke lekurik behinenetako:

Eta araztasun horren guztiaren zaindari nagusiak baserritarrak izan dira, beraiena baita lanbiderik zaharrena eta duinena, Jainkoak Adani emana, eta behar den bezalako bizimodu kristaua eramateko egokiena. Jatorrizko egoera hartatik hurbilen daudenak izanik, baserritarrei zuzenduko diete esentzia horiek garbi atxikitzeko betebeharra, inguratzen dituen ustelkeria eta endekatzearen aurrean (Altuna 2002: 23.).

Hasi Joakin Lizarraga (1748-1835), Elkanoko bikarioaren 1780ko «Praxis vivendi agricolarum edo nekazarien bizitza praktikoaz» idatziarekin, eta jarraitu J. A. Mogen *Peru Abarcarekin* —edo 1805eko Manuel Umerez (1757-1818), Oñatiko apaiz

benefiziaduren «Osaba baten instruccinuac bere iloba ezcondu eta necazari baten-tzat...» izeneko idatziarekin—, guztietan da nekazaritza lanbiderik onena. Aurre-rago, «Jainkoaren ogibide maiteenaren dekalogo» (Altuna 2002: 171-179) deritzan atalean, baserritarraren bizimodu kristau paregabe hori zertan datzan aurkezten digu Belen Altunak. Sermoi horien artean bada baserritarraren bizimoduaren gazi-gezak erakusten dituenik ere, baina ez horregatik utziko dio baserritarraren bizimoduak sal-baziorako aiposena izateari. Are gehiago, hark jasan beharreko miseria eta gabeziak baserritarraren salbaziorako lagungarri gertatuko dira.

Gure sermolariek ideia berrien zirkulazioaren aurkako gotorleku bihurtu zuten baserria. Gure arimazainek irudikatzen duten baserritarra harresituta bizi da bere ez-jakintasun eta konformidadean, munduko edozein berrikuntza edo aldaketatik salbu. Halakoei ez zaie liburuetatik datozen notiziarik komeni, aztoratzeko baino ez baitira. Eta Oñatiko apaiz benefiziaduren testuak dioen moduan (Elortza 1977), «Osaba baten instruccinuac...» (1805) zera dio, nekazariari irakurtzen ikastea komeni arren, doktrina eta elizako liburuekin nahikoa lukeela. Idazteak, ordea, ez omen du halako garrantzirik. Agirre Asteasuok, berriz, hala dio:

Onetaraco mutillai eman bear zate, albada, escola ona (...) Nescachentzat ere chit gauza ona da escola, era bada, icasi deceen dotrina, goiz-arratsetaco jayera, Sacramen-tuac ongui artzeko prestaera, Elizan modestiarequin egotea, eta Meza entzuteco mo-dua. Asco da au nescachentzat, bada escribitzen jaquitea, batzuentzat ona izan arren, gueyententzat caltetsu izan liteque (J. B. Aguirre, *Eracusaldiac*, 2. alea, Donostia, Hordago, 1978: 82).<sup>23</sup>

Eta konformidadean bizi, ze halaxe nahi du Jainkoak: «Jangoicoac ifini cituan munduan aberatsac eta pobreac: oneec euren umiltasuna, ta limosna escatu bearraz, eta aberatsac limosna emonic, salba citezen.»<sup>24</sup> Ez dago dudarik konformidadean eta

<sup>23</sup> L. Villasantek (1979: 251) dioen moduan, mutilen heziketan neskenean baino arreta gehiago jartzearen aurrejuzkua oso garai haietako zen. Jatorrian 1746an argitaratu arren, 1760an gazteleratu-tako L. A. Verney-ren (Barbadiñoa) *Verdadeiro metodo de Estudar* liburuan gogor erasotzen dira garaiko umei ortografia, latina, erretorika eta filosofia irakasteko orduko metodoak. Eta, bide batez, Aristote-lesen autoritatea eta eskolastika gogor salatzen ditu. Garai hartan oso liburu aurrerakoia zen eta gogor kritikatu zuten Espainian: “Nunca cita escritor hereje sin elogio, ni católico sin censura.” (Codorníu) Liburu berean, Fenelon eta Rollin abateari jarraituz, kultura orokorra baino mugatua proposatzen da nesken heziketarako, hori bai, etxeko gobernu, eskulan eta dantzetan iaiozarekin osatuz haien heziketa. Bai Fenelon eta bai Rollin abatea, biak ziren popularrak Adiskideen Elkartekideen artean. *La historia de Fray Gerundio*-n, berriz, Aita Islak gogor kritikatu zuen Barbadiñoaren liburua, aurreregi joatearren. (Ikus Sarrailh 1957: 199-202).

Adiskideen lehen bilkuretan Montehermosoko markesak aurkeztutako txostenean hauxe esaten zuen emakumearen heziketari buruz: “La educación debe corresponder al sexo y a los fines de su institución desviándola de estudios impropios y dedicándola a una lectura ligera, a las lenguas más usuales en el comercio civil, al baile, a la música y al diseño...” (Portillo 1991: 150).

Gurean Añibarrok ere antzeko zerbait gomendatzen du umeen heziketarako, jakina, betiere, progra-matik dantzak ezabatuz: “Iracasi eguiezue iracurten guztiai: escribietan ta contuac ateraten semeai, eta alabai josten, galtzerdia eguiten, goruetan, ta oguia eguiten.” (Añibarro, *Misionari euscalduna Cristiñau-dotrina, ta Sermoiac Bizkai-errietan iracasten*. (2. alea), Belen Altunari jaso).

<sup>24</sup> P. Antonio Añibarro, *Misionari euscalduna Cristiñau-dotrina, ta Sermoiac Bizkai-errietan iracasten* (lehen alea). Eskuizkribu txukuna Arantzazuko komentuan. Erreferentzia hau Belen Altunaren “La tradición ‘Euskaldun fededun’”, in *Misiones y moral integrista (1789-1839)*, Filosofía Fakultatea, UPV/EHU, 2001. Tesi argitaratugabea. Ikus egile beraren (2002: 231).

Jainkoaren beldur bizitzeko aholkuak bizimodu tradizionalaren (Erregimen Zahararren) egonkortasunaren alde jokatzan zuenik.

Beste muturrean Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteko kideen helburua, sinakerien eta ezjakintasunaren ilunpetatik atera eta zientziari eta ekonomiari bultzada eman asmoz jokatu zutenena.

## 2.2. J. A. Mogel eta J. J. Rousseau

Euskal literaturaren historiografian maiz aipatu izan da Basarteko Unibertsitateko katedradun den Peru Landetakoaren, hau da, *Peru Abarcaren* eta Rousseauren “*bon sauvage*”aren artean egon zitekeen harremana. Egia esan, liburuaren lehen argitarape-neko hitzaurreak, Mogelek berak idatzitakoak, ez zuen askorik lagundu erromantizismoaren bidez ordurako Europa osora zabaldua zegoen ideia eta XIX. mendetik hona jada oso estereotipatua zegoen irudi horri ihes egiteko. Izan ere, predikariei buruz ari delarik, eta euskararen aldeko apologian bete-betean murgildurik, zera dio liburuaren hitzaurrean Mogelek: “Y con todo, no sabían el idioma en que escribían, con aquella perfección original que tenía entre los rústicos o salvajes”.

Mogelek ere, Rousseauk bezala, jatorrira jotzen du eta ez du enpatxurik esateko Adan —lehen gizona— ere aitzurlaria eta baserritarra zela. Beraz, lehen gizonagandik datorkiola Peruri<sup>25</sup> izaera eta hizkuntzaren sen hori; eta hark bezala, ez duela galdu natura izendatzeko pribilegioa, izan ere asabengandik belaunaldiz belaunaldi iritsi baitzaio jatorrizko baserritar eta aitzurlari haren hizkuntzaren sena eta, horrekin batera, era banaezin batean, aldazina edo betierekoa gertatuko litzatekeen bizimodu bat, “Jainkoaren beldurrean bizi” agindura biltzen dena. Hala ere, “*bon sauvage*”aren formulazioak Rousseauenean duen esanahiak eta Mogelenean duenak izenean baino ez dute antzik. Gizarteak hankapean harturik, norbere bihotzera isilduak izan diren zinezko sentimenduez ari zaigu idazle frantsesa “naturaren legera” itzultzea aldarrikatzen duenean. Gainera, zinezko sentiera bihozko hori, egiaren eta gezurraren arteko langa hutsik gabe asmatzen duen egoera eredugarri hori, berreskura daitekeela dio Rousseauk, gizakiaren eta gizartearen onerako. Horretarako idatzi zuen *Emilio* (1762) tratatu pedagogikoa: ezagutu zuen gizartea gor da bihotz isil eta on horren jarduna entzuteko, baina hezkuntzaren bidez —pedagogiaren bidez, alegia— lortuko da egoera hori aldatzea. Gizarte hobetza baten esperantzari inoiz ez zion uko egin idazle ilustratuak. Beraz, tratatu honek zubi-lana egingo du “naturara itzuli” iragar-

<sup>25</sup> Mogelek ez du esango lehen gurasoek hitz egin zuten hizkuntza euskara izan zenik; hebraierari lehenetasuna kentzeko balentria Pablo Pedro Astarloarena izan zen. Hala ere, ordu arteko euskararen apologista kate luzearen katebegi bat gehiago zen horretan Mogel. Babelgo nahasmenduko hizkuntzetarik bat izatearen pribilegioa zuen euskarak Mogelentzat, eta hortik euskara ere Jainkoaren isurizko hizkuntzetakoen artean kokatzea, eta haren perfekzio eta guztizko jakituriaz partekatzea: “El idioma que trajeron era original y uno de los de la confusión de la Torre de Babel, infundido por Dios y no fraguado por los hombres” (1976: 372) eta “Prólogo al lector vizcaíno”n halaxe dio: “En esto imita al lenguaje del primer hombre, ciertamente inspirado por Dios”, *Peru Abarca*, ibid., 22. or. Astarloak, berriz, Court de Gábelin-en (1728-1784) mundu primitiboari buruzko ideietan oinarrituz, bere aurretik Europako beste zenbait hizkuntzalarik egin zuten bezala, euskarak imitatuko du Babel aurreko hizkuntza primitiboa. Paradisuan hitz egin zen hizkuntza hau ez zen Jainkoarengandik isuria, baizik eta naturaren neurria sortua. Astarloaren planteamenduak Errok jarraitu zituen, eta geroago, Sabino Aranak.



tzen zuen “Gizakien arteko desberdintasunaren jatorri eta oinarriari buruzko mintzaldia” (1754) izeneko saioaren eta *Kontratu sozialaren* (1762) artean.

Eta hortxe dago Rousseuren eta Mogelen asmoak parekatu direnean egin den hutsa. Rousseuren gizakia antzaldatze sakon baten premian zegoen; Mogelen *Peru Abarca* perfekzio betiereko edo eternal batean bizi da. Ez du gure Peruk ezezagun zaion inongo heziketaren beharrik, izan ere, berak aitortu bezala, heziketa hori lehen gizonagandik datorkio belaunaldiz belaunaldi, asaben ohitura eta bizimoduaren katean, fedearen eta hizkuntzaren altzoan etorri ere. Naturara itzultzearen aldarriak bakardadera, basoko bakardadera, eramango du Rousseau, eta bakardade hori gizakiaren askatasun betearen oinarri da, oinezko gizaki arruntaren —Iraultzaren ondoren “hiritar” deituraz ezagutuko da— baldintza bazterrezina. Mogelen Peru, berriz, Elizak azkeneko bi mila urtean sustraitutako predikuen *corpusera* errenditzen da erabat, komunitatera, beraz, norbanakoaren askatasuna ukatuz, haren bizkarretik mintzo den Elizaren magalera. Ez dago bigarrenan isiltasun eta askatasunik; Elizaren marmarra entzuten da Peruren ahoan. Ez dago subjektu moralik; izan ere, askatasunik ezean, Mogelen paternalismo katolikoa da nagusi. Elkarrengandik, beraz, zein urruti: gizarte degradatuaren aurrean, gizabanakoaren egiazko (bihotzeko) sentimendu askeez oldartuko zaio gizarteari Rousseau. Peruren jakinduria hizkuntzara mugatzen da; hortik aurrerakoa Elizaren mintzoa da. Bere jardunean ez dago, bada, ez gizabanakorik ez askatasunik.

Hori bai, ingurukoak liluraturik dauzkan hizkuntza erudizioak —ahozkoa beti, ez idatzizkoa, hau beti ere arriskutsua— tradizio/erlijio binomioan du ondo sustraitutako oinarria. Rousseurengandik gertu ez, harenaren muturrean dago Mogelen baserritarra; izan ere, Peruri Mogelen hitza isildu orduko, bere *Confesio ta Comunioco Sacramentuen gañean Eracasteac* (1800) liburuan agertzen den “ume” bihurtuko da hura. Hala zioen Mogelek liburu hartan:

Orain bada, nolaco eracaste edo doctrina eman bear zaie onelaco gende argui laburrecoai? (...) Aurcho chiqui indar gabeai ematen badiezu ogui oso ta azaltsua, illico ditu goseac beste jan gabe (...) Ala bada gure euscal-errietaco guizon ta andra, nescach ta mutilliac gueien gueienac dira jaquituriaren aldetic, aurchoac becela ta eman bear diegu animaco oguia ceatu ta puscatura (1800: iv).

Zein urrun gauden, Ilustrazioaren muina atzeman nahian, Kantek formulatutako definizio hartatik: “Ilustrazioa gizakiaren haurtzarora atzean uztea edo gizakiaren heldutasuna atzematea da.” Eta hori gabe ez dago ez modernitatea ez erromantizismoa ulertzerik, zeren Ilustrazioaren eta Frantziako Iraultzaren erasan eta desmasien aurka matxinatu baitziren erromantikoak, eta Kanten gizaki burujabe eta aske harengandik abiatu ziren inondik ere. Aurrenekorik gabe ezin ulertu hurrengorik.

Zalantzarik gabe, Mogel gertuago dago Kardaberazek *Eusquenaren berri onac*-en (1761) erakusten duen mundu ikuskeratik, erromantizismoaren ingurumariarekin batera gure baserritarrek jasan behar izan zuten desplazamendu interesatutik baino. Kardaberazek zioenak Peruri ere balio dio:

...euskarac burua jasotcea Jaincoac nai du; (14. or.)

Beste izkunde edo lengoageac, norc daqui nastu ta batera ta bestera nola ibilli diran; eusquera Jaincoac nai ta menditarte oietan, beti nasgabe, beti garbi, beti seguru beregan gorde izandu da. (...) 21. or.

gure baserrietan gende prestuac dirauten artean, euscarac iraungo du. (24. or.)

Beraz, bat: Jainkoaren borondatea da euskarak irautea. Eta bi: hori horrela gerta dadin, euskaldunak bete behar duen baldintza “prestu” izatean datza. Jakina, “prestu” horrek kategoria moral katoliko bat besarkatzen du, tradizioa eta erlijioaren legitimitasio osoan iraun duen Ancien Régime delakoa babestuz. Ikusi besterik ez dago zein errespetuoso agertzen zaigun Peru apaizekin eta handikiekin ari denean. Gizarte in-mobilista baten defentsan idatzitako lanak dira Kardaberazek zein Mogelenak, *Peru Abarca* bera ere barne. “Prestua” izateko —pertsonea sendoa, alegia— Jainkoaren beldur (apaizen beldur) eta handikien aurrean mendeko agertu beharra dago:

..., beeragocoac obeditzea goragocoai, pagatzea zorrac, honra, lotsa, ta pechuac. Erregue, ta beste Aguintariac gaiztoac badira ere, aguintzen ez dutenean Jangoicoaren contraco gauzaric, bear dute honra ta obediencia (1994: 264).

Helburu hori soilik modu batera irits daiteke: euskara bera hezi eta harresi iza-nik. Euskara bera baita apaizen eskuetan ideia berritzaileen aurrean harresirik sendoena.

### 2.3. J. A. Mogelen humanismoa dela-eta

Koldo Mitxelena (1978-1979) Mogelen humanismoa aipatzen zuen artikulu ba-tean: Mogel humanista zela zioen, baina ez zientzia moderno zalea. Bigarrena garbi dago; lehenengoari zerbait erantsi beharko litzaioke, ordea, zeren Ernazimenduko Erasmorengandik XVIII. mendeko ilustratuengana jaitsi, eta horiengandik, Frantziako Iraultzaren ondoren, humanismo modernora —Kant, Humboldt eta Goetherengana, esate baterako—, ezer gutxi luke ikustekorik haienarekin Mogelen Antzinate klasikotik datorren humanismo katolizatu dogmatikoak. Ez da nahikoa, inondik ere, *Peru Abarcaren* elkarriketaren (*Instrucción de la mujer cristiana* liburuan) iturria Luis Vives humanistarengan egon izana aitortzea Mogel humanista bihurtzeko. Lekutan dago Mogel, Feijoo batekin konparatuz gero. Azken honengan badago humanismo zaharrarekiko eraberriketarik, Mogelenean ez. Denbora ez da alferrik pasatzen. Al-daezina eta betierekoa izan nahi zuen arrazoimenaren ildo da Mogelena. Honetan ere Kardaberaz batengandik —edo Larramendirengandik, noski— hurbilago Hum-boldt eta Goetherengandik, edo Feijoo-rengandik baino. Hau zioen Kardaberazek *Eusqueraren berri onac* liburuan:

...baldin Quintilianoc, Marcelo bere adisquide cutunagatic (...) munduraco ondo acitceagatic, amabi liburu, aimbeste erregla ta lecio banaca arguituaz atera bacituen, guc gure Jaungoico gucien Aita maiteangatic ta animen salvacioagatic, cer ez degu eguin bear? (...) Gure intencioaren aldean arenac cer icusi etzuen. Arc lurreraco, guc ceruraco; arc guiza arteraco, guc aingueru arteraco umeac ondo acitcea nai degu; eta gucia ez guretzat, baicic Jaincoaran (sic) gloriaraco izan dedin (A. Kardaberaz, *ibid.*, 20-21. or.).

Bistan da, Historiak aurrera egin ahala, humanismoaren espirituak jasaten duen bilakaera. Baina Koperniko, Galileo, Deskartes eta Newtonen ondoren, hau da, XVII. mende erditik aurrera, zientziaren eraginez zabaldutako ikuspegi eta esperan-tza berrien aurrean, ezin itsu eta gor jarraitu, ezer gertatu ez balitz bezala. Eta horixe da Mogelek egin zuena. Zeren eta Deskartes ondoengoko zalantza-egoera aterga-bean murgildurik, gizakiak kanpotik zetozen dogmak poliki-poliki neutralizatu eta

norbere baitan bahetuko ditu, eta handik eraikiko du ezagutza berria. Teozentrismo-tik antropozentrismora pasatuko gara. Arrazoiak gaina hartuko dio errebelazioari, eta etorkizunak, iraganari. Eta bilakaera horretan hazi egingo da europarren kontzientzia historikoa; ondorioz, betikotasunak eta unibertsalismoak izugarri erlatibizatuko dira. Horregatik gertatuko litzaioke barregarri humanista moderno bati XVIII. mendetik XIX. erako bidegurutzeko hiritarrei beren heziketarako Gaspar Astete jesuitaren (1537-1601) *Kristau dotrina* (1599) jarriko balitzaie manual gisa, esanez bere garaian humanitateetako eta filosofia moraleko irakasle izan zela. Eta badakigu zenbaterainoko estimuan izan zuten Kardaberazek eta Mogelek kristau dotrina hura: biek itzuli zuten Asteteren doktrina euskarara, arrakasta handiz itzuli ere.

Mogel ez da kontrairaultzaile bat, izan ere, halakorik izateko potentzialki iraultzaile izan beharra baitago lehenago. Antoine Compagnon-ek *Les antimodernes* liburu argigarrian erakutsi digun bezala, iraultza eta kontrairaultza sekuentzia bereko urratsak ziren, kontrairaultzaile izateko moderno izan beharra baitzegoen lehenago. Mogel, Kardaberaz eta XIX. mendeko lehen hereneko apaiz-idazle gehientsuenak bezala (Fray Bartolomé, Añibarro edo Agirre Asteasukoa), tradizionalista bat zen. Tradizionalista izan zen Mogel, Frantziako Iraultzaren aurretik eta ondoren.<sup>26</sup> Hori bai, anti-ilustratua bai izan zen. Urte bertsuetan idatzitako eskuizkribu batean, gorago aipatu dugun “Osaba baten...” aldaera batean —“Erretore jaun baten instrucción...» (1805)— zera esaten da, matxinoak salatu egin behar direla konfesoarearen aurrean, eta Inkisizioaren beharra aldarrikatzen da. Mogelek ere jarri bide zuen Inkisizioaren eskuetan zirkulazioan atzemandako liburu eta aldizkari debekatuz izan zezakeen aztarnarik.<sup>27</sup>

### 3. Periodizazio literarioaren arazoak

Tradizionalismoa eta absolutismoa eskutik helduta zebiltzan giro hartan (1795-1808), Humboldtten bisitaldiak gertatu ziren, eta baita ere Foruen aurkako Madrilgo erasoaldi gogorrak, Mogel eta Astarloa erdi-erdian harrapatuko zituztenak. Urte horietantxe ikusi nahi izan dira euskal erromantizismoaren lehen aztarnak. [Gárate (1936), Basurto (1986), Altzibar (1986), Juaristi (1987), Apalategi (2004)]. Eta esan

<sup>26</sup> *Peru Abarcako* lehenengo kapitulutik uzten du garbi: “Euscaldunac bagara benetan, vici bihar dogu gueure aasabac eracatsi deuscubezan eandubacaz”, *ibid.*, 55. or. Jakina, “tradizionalista” Frantziako Iraultza baino lehen izan edo Iraultzaren ondoren izan, ez zen gauza bat eta bera. Bigarrenean adiera eta balio politiko erantsi bat hartuko du ezinbestean, eta erreakzio hori areagotu egingo da Independentzia Gerrarekin eta liberalen politikagintzarekin, Fray Bartolomé de Santa Teresa, Agirre Asteasukoarekin edo Juan José Mogelek. Eta bilakaera honek bete-betean ekarriko gintuzke XIX. mendeko Karlituden bidera.

<sup>27</sup> Eta ez zen ez ulerbera agertu Diego de Lazcanok, Tolosako Presbiteroak, 1792ean Inkisizioarekin izan zuen aferaren aurrean. Aitzitik, Vargas Ponceren aurrean gogor gaitzetsiko du hura herexetzat hartuz: “Otros más sabios que Lazcano han abusado de su talento y han naufragado en la fe, y me avergüenzo de que tengamos un vascongado de tales doctrinas” in Arocena (1952: 87-88).

Humboldt ere erregistratu zuten Gasteizen Inkisizioaren sikarioek. Rousseuren *Emilio* eskuetan izan zuten, baina hain ziren ezjakinak, non ez ziren ohartu ere egin liburu hari eman beharreko atarramentuz. Nahiz eta Mogelek ere halako liburuak salatu, Humboldtren lagun ibili zen, haren euskara eta euskal folklorearekiko eskakizunak asetzen. *Diario del viaje a España*, 28-29. or.

izan da Mogelen *Peru Abarca* dela erromantizismo horren ernamuinak agertzen dituen lehen euskal liburua.<sup>28</sup>

1770etik 1830erako bitarte horretan gertatutako sentsibilitate aldaketa hartu ohi du erromantizismoak bere leku historikotzat. Oso konplexuak gertatu arren aldi historiko horrek erromantizismoaren izenpean besarkatzen dituen jarrera desberdinak, bada bat saihestezina gertatzen dena: ordu arte balio zuen arrazoimenaren unibertsaltasunak ez du jada kontatuko. Isaiah Berlin-ek, *Las raíces del romanticismo* liburu paregabearen, zera dio, ordu arte bazegoela gauzen izaera ezagutzeko moduren bat, edo, artean ezagutzen ez bazen ere, egunen batean aurkituko zuela gizakiak hura ezagutzeko bidea. Rousseauk berak, norbanakoaren bihotzeraino proposatutako bidaian, ez dio hura (gauzen egia) —naturarena, izakiarena— aurkitzeko esperantzari uko egin, bai ordea erromantikoeak. Handik aurrera, balioak ez dira aurkitzen, eraikitzen baizik, ez dira lanaren bidez aurkitzen edo deskubritzen, sortu egiten dira (Schlegel anaiak). Novalis-ek dioen moduan, ez gara jada bizi balio unibertsalak berez onartzen ditugun sasoiak.

Ba al dago gurean —Mogelen *Peru Abarcan*, alegia— halakoren susmorik? Mogel sendo agertzen zaigu Eliza katolikoaren unibertsaltasunaren esanetara. Ez zitzaion inola ere burutik pasako egia eternoak erlatiboak izan zitezkeenik. Bere igurikipen zerumugan irudika ezina zen halakorik. Eliza katolikoarenak ez ziren soilik ideiak, egia absolutuak baino, dogmak. Bere mundu ikuspegia balio absolutu eta unibertsaltan sendo errotutako ikuspegia zen. Horregatik agertzen zaigu Peru “prestua” Maisu Juanen aldean sendo, asaba zaharren tradizioan hezitako gizona zelako, “Jainkoaren beldurrean”, eta kutsatu gabeko hizkuntza zeruratu batean, gainera. Ez da harrizkoa izango garaiko ilustratuen ahotan ironiarik ere falta ez izana, zeru eta paradisuako kontu hondagabeetan Mogel eta enparauek erakutsi zuten kompetentzia ikusi ondoren. Hara Samaniegoren pasarte ezagun hau:

Marquina, cuyos habitantes creen que no hay más mundo que el exiguo terreno que rodea sus montañas, mundo dirigido por Astarloas y Mogueles. Al bendito D. Pablo Pedro dígame V. que para una obra que pienso escribir de antigüedades antediluvianas me diga (puesto que él debe saberlo) cómo se llamaban en el Paraíso terrenal los escribanos, sastres y zapateros (Garate 1936: 29).

Pozarekin batera abian jarri eta XVIII. mendeko bigarren erdialdi eta XIX.aren lehen herena artean indarrean jarraitu zuen hizkuntzaren apologista andanaren kate-begi bat besterik ez zen izango Mogel *Peru Abarca* idatzi izan ez balu. Eta, mendeetako tradizio horretan, ez zion aurretik zetorren tradizio apologistari ezer orijinalik erantsi. Bete-betean txertatzen zuen berea aurrekoen ildoan, eta Larramendiren ondarea —etimologia batzuen gehiegikeriak salbu— guztiz berea egin zuen. Ez da, baina, besterik gertatuko *Peru Abarcan* ere, non Larramendiren ahaleginak zein ondareak bizi-bizirik zeuden, andoaindarraren *Corografiako* hainbat eta hainbat pasadizo eta irakaspen lekuko (sermolarien euskara eskasa, hidalgia orokorra, Foruak, ardandegietatik datozen kalteak eta Nafarroa eta Errioxa aldera ihesean doazen diruak, Jainkoaren beldu-

<sup>28</sup> Jon Juaristik halaxe dio: “Moguel hubiera podido convertirse en el padre del romanticismo vasco si su libro no hubiera dormido el sueño de los justos durante casi ochenta años en la biblioteca del convento de Zarauz” (1987: 97).

rrean heztea, osasunerako nekazarien bizi-ohituren abantaila handikienean aldean,<sup>29</sup> eta abar). Jada eraldatze urte amorratuan sartuxea, Mogelek artean bere mundu zaharrak eskaintzen zion zerumugan jardun zuen:

Con el objeto de vindicar al idioma de la acusación de pobreza, he trabajado una obra de Diálogos vascongados entre un rústico casero y un cirujano callejero (...) Así se demuestra prácticamente que el vascuence es fecundo en todas y aptísimo para la poesía (...). Para prueba de que el vascuence es lengua de toda elocuencia.<sup>30</sup>

Gorago ikusi dugunez, ordurako egina zegoen baserritarraren aldeko hautua, esate baterako, Kardaberaz baten aldetik. Ez dago mundu ikuskeraren aldetik ez pentsamenduarenetik inongo aldaketarik, baserritarraren *toposak Peru Abarcan* hartzen duen birkalkifikazio idealizatuagatik<sup>31</sup> ez bada. Eta Peru baserritarrarengan haragitzen den mundu idealizatu horrek aurrerago emango ditu bere emaitzak, jada erromantizismoz blaitutako mende luze baten igurtziak bereganatu duenean. Foruzaletasunaren, integritismoaren, karlismoaren eta nazionalismoaren imajinarioan (A. Campion, R. M. Azkue, T. Agirre, S. Arana) *topos* nagusia baserritarra izango da. Tradizio luze horren baitan aipagarri dira bi argitarapen: Sabino Aranaren “Baserritarra” astekaria eta Engrazio Aranzadi, *Kizkitzaren La casa solar vasca* (1932) liburua.

Paradoxikoki, Mogelek egin ez zuena garaiak egin zuen: XIX. mendean zehar, zaharra eta berria katramilatu egin ziren, eta erromantizismoaren oreak dena antzaldatu zuen. Bestela, nahikoa al da Humboldtten ahotik Herder-en berri eduki zezaketelako ustea Mogel (1745-1804) eta Astarloa (1752-1806) Europako erromantizismoaren ildoa jartzeko? “Vasco-iberismoa” edo “Leloren kanta” direla-eta, Humboldt bi idazle bizkaitarren ideia nagusien jarraitzaile agertu arren, bere lanetan euskaldunen magma mistiko-erlijiosorik ez da ageri. Hizkuntzalari alemanak planteamendu zientifikoetan oinarritutako hipotesiak saiatu zituen. Beste kontu bat da planteamendu horiek desegokiak gertatu izana. Bibliaren ondarea ilustrazioaren galbahe kritikotik iragazita zegoen jada Herder eta Humboldtengana iritsi zenerako, aurrenekoak nazioen ikuspegi kulturala formulatu zuenerako. Baina, egia esan, Hum-

<sup>29</sup> Honetan ere Larramendirengan eta literatura aszetikoaren tradizioan hain usu erabili ohi zen Likurgo eta espartarren modarik eta ahuleriarik gabeko heziketa zorrotzaren “exemplum”aren jarraitzaile.

<sup>30</sup> “Correspondencia epistolar entre D. José Vargas y Poce y D. Juan Antonio Moguel sobre etimologías Vascongadas”, *Euskal-erria*, 1911, 2. seihilabetea, 322-518, Julio Urkijoren Liburutegian.

*Peru Abarcanen* paratestuari erreparatzen badiogu, garbi geratzen da egileak jende kultuari begira idatzi zuela liburua: “Todos los eclesiásticos, y sujetos tenidos por cultos”. Honetan ere Larramendiren lekukoa hartzen zuen Mogelek.

<sup>31</sup> Baserritarren egoera tamalgarria zen garai hartan. Hara zer idazten duen M. M. Aguirrek, lagun bati erantzunez, “Respuesta de un viajante a un Amigo que le pidió Noticias del Seminario Patriótico y del País Bascongado” (1780) eskuizkribuan: “Como los territorios y pertenencias de las casas habían de lindar unas con otras, y como era forzoso que el terreno más pingüe y mejor colocado o la mayor industria en su cultivo diera superioridad al que la poseía, precisamente se había de fomentar la ambición del uno, y de aquí el deseo de sojuzgar al menos faborezido de la fortuna, que menesteroso o servido de su desigual y mala suerte acudiría a las puertas del mas dotado, resultando del altibo trato, que este le daría en algun tiempo, la colera, encono y la venganza del ofendido. Vease como fué ya indispensable el que se nombrara en la comarca o en aquel paraje una persona caracterizada con las facultades de reprimir los orgulosos procedimientos de la ambición.” Biblioteca Digital de la Fundación Sancho el Sabio.

boldten irakatsiak gorabehera, ez zuen Mogelen eta Astarloaren mundu finkoak ikara handirik bizi. Ez dezagun ahaztu besteengandik jasotakoa hartzailearen zerumugara egokitu ohi dugula beti.<sup>32</sup> Gauzak horrela, inongo arazorik gabe barneratu zuten harrena gure betikoan, nahiz eta Herderen ideien espirituak gure apaizen zerumugaz harago begiratu. Ze hizkuntzaren eta folkloreakaren inguruko peskizetan Herderekin egindako ekarria iraultzailea gertatu zen Mendebalde osorako (gureak ere dantzan jarriz: “Leloren kanta”). Gauza bera esan genezake ilustratuen “Arrazoi” jainkotuaren aurka Hamman erromantiko aleman aurreratuak 1780 inguruan jaurti zuen iraina (“Putarrazaioa”) eta Asteasuko Agirrek 1814 aldera jaurtitakoa (“emakume zikin limuri”) erkatzen baditugu. Bigarrenarengan ez da egon katolizismo ortodoxo eta dogmatikoarekiko inongo hausturarik, bai ordea lehenengoarengan. Beraz, biak arrazoiak ziritzan “putaren” aurka egon arren, ez ziren mintzo leku beretik. Geroago arte ez zuen gure munduak erromantizismoak errotik eraginako dinamismorik ezagutu bere giro intelektual eta estetikoan. Ez da gure XIX. mendean “naturaren” mimesi arautu eta orekatutik ezein mugaz haragoko arau hauslerik ezagutuko. Ez dago halako irakurketarik egiterik 1802ko *Peru Abarcaz*, baina bai liburua argitaratu zen sasoiko ataririk, 1880tik, alegia. Ez zen alferrik mende erromantiko ia oso bat igaro tartean, bere ikuskera eta sentiberatasunean jada barreiatuak hartzaile berriengan eragite-raino. Ukaezina da XVIII. mendearen azken urteak eta XIX.aren lehenak eraldatze urteak izan zirela Europa osoan. Eta eraldaketa horrek posizioak hartzera bultzatu zuen luma jendea. Gure apaizek euskara, baserria eta erlijioa aukeratu zuten, eta hortxe go-tortu ziren. Non dago Mogel, Astarloa eta Erroren<sup>33</sup> gainerik euskal erromantizismo herabeari Chahok txertatu zion hazia? Bada, mundu eta imajinario zahararen seku-larizazioan: aurrerantzean, Bibliako dogmak eta ortodoxia zaharrak imajinazio eta fantasia askearen zerbitzura jarriko dira. Egia da garai hartan erromantizismoa kris-tautasunari begira jarri zela, baina biraje hori ez zen dogmaren, ortodoxiaren edo bes-telako unibertsaltasunaren izenean egin, imajinazio askearen izenean baizik. Hau da, imajinario zaharra berri batekin ordezkatu zen.

Erromantizismoa modernitatearekin batera dator, baina gurean motel eta soseguz, eta sosegu horrek XIX. mende osoa igaro eta gerra aurreko poeten belaunaldiraino ja-rraituko du.

#### 4. Azkena

Zer da, bada, gertatzen zaiona gaurko eguneko irakurle bati garai hartan (XVIII. eta XIX. mende horietan) idatzi eta argitaratu ziren sermoi bildumekin, bata Jesusen Bihotzaren debozioari eskainia, eta hurrengo bere Erakusaldietan murgildua? Sebastian Mendiburuk, Agustin Kardaberazek, Pedro Antonio Añibarrok, Juan Antonio Mogelek, Juan Bautista Agirrek, F. Antonio Palacios-ek, Fray Bartolomé Santa Teresak, edo Joakin Lizarragak ez dute interes filologikotik harago aparteko baliorik, ez literariorik, ez intelektualik, ukatu gabe, hori bai, garaiko giro sozio-historiko edo etnografikoari buruz eman dezaketen informazio baliagarria. Izan ere, ez baitziren

<sup>32</sup> Ikus Jauss (1978) eta Burke (2006: 36 eta 42).

<sup>33</sup> Basileako Bake Itunetik Independentzia Gerra (1795-1808) bitarte horretan irudikatzen du Jon Juaristik euskal erromantizismoaren sorrera. Ikus (1987: ibid).

helburu literario batetik idatziak izan, eta jakina, ez ziren haien predikuak literatur edo bestelako helburu intelektual edo filosofikorekin jaso. Beren egitekoa beste bat zen: arimazaintza. Hortaz, ze leizea Sebastian Mendiburu jesuitari «Zizeron bera ere ez zela hobeto mintzatuko» aitortu zion azkoitiar haren (bere zerumuga kulturaleran egin ziezaiokeen laudoriorik sutsuena egin bazion ere; ez ahaztu Zizeron eta Kintilianok oratoriaren egilerik ospetsu eta handienak izaten jarraitzen zutela Erretorika heziketa klasikoan)<sup>34</sup> eta Europako beste literatura eta esparru intelektualetan hedatzen ari ziren jakintza berrien artean. Artean XVIII. mendean, Samuel Johnson kontserbadoreak ez du arazorik sermoiei literatura ingelesaren barruan leku bat atontzeko (frantsesek ere ez, XVII. mendeko Bossuet handiari berea emateko), baina XIX. mendetik aurrerako irakurlea beste iritzi batekoa izango da: zaharra (berearekin zer ikusirik ez duen mundu batekoa) irudituko zaio hura guztia erromantizismoari. Eta honekin batera eman zuen epaia modernitate osoak.

## Bibliografia

- Agirre, J. B., 1978, *Eracusaldiac* (3 ale), Donostia, Hordago.
- Aguinagalde, B., 2000, «¿Por qué los archivos de la Bascongada son complicados?», in A. Risco & J. M. Urkia (arg.), *Amistades y sociedades en el siglo XVIII*. Real Sociedad Amigos del País, I Seminario Peñaflorida, Toulouse.
- Altona, B., 2003, *Euskaldun fededun*, Irun, Alberdania.
- Altzibar, X., 1986, «Euskaldunen nazio eta hizkuntza (1770-1830)», *Euskera* XXXI, 17-45.
- , 1992, *Bizkaierazko idazle klasikoak*, Bizkaiko Foru Aldundia.
- , 2005, «Dotrina, erretorika eta erudizioa Mogelen erlijio liburuetan», *Lapurdum* IX, 23-38.
- Apalategi, U., 2005, «Heziketa literarioaren kezka, Peñafloridatik Mogelera», *Lapurdum* IX, 39-47.
- Areta, L. M., 1976, *Obra literaria de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, Institución «Sancho el Sabio», Caja de Ahorros Municipal de la Ciudad de Vitoria.
- Astarloa, P. P., 1883, *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*, Bilbo.
- Astigarraga, J., 2003, *Los ilustrados vascos*, Crítica, Bartzelona.
- Bagüés, J., 1990, *Ilustración musical en el País Vasco. La música en la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, Donostia, Colección Ilustración Vasca, II. Alea.
- Basurto, R., 1986, «Elementos neoclásicos y prerrománticos en la historiografía vasca del principio del siglo XIX: J. A. de Zamácola», *RIEV, Homenaje a D. Julio Caro Baroja*.
- Berlin, I., 2000, *Las raíces del romanticismo*, Taurus, Madril.
- Blanco White, J. M.<sup>a</sup>, 1999, *Escritos autobiográficos*, Universidad de Huelva.
- , 1974, *Obra inglesa*, Bartzelona, Seix Barral.

<sup>34</sup> Aristotelesengandik XVIII. mende amaieraraino erretorika izan zen heziketaren eredu, eta grekera eta latinezko maisuak izaten ziren irakurgai. Klasikoen testu horietan landuko zituen ikasleak ahozko eta idatzizko gaitasunak eta, horrekin batera, testu horiez baliatuz sendotuko zuen ikasleak bere hezibide morala. Eta norbere diskurtsoetan txertatzeko autoritatezko zita eta “exempla” en erreperitorioa berritzen zuten haietatik. Auditorioaren persuasioa zuen helburu heziketa eredu horrek. Esan gabe doa gure sermolarik eredu horretan zailduak izan zirela. Hori horrela gertatu zen XIX. mende sartutetik aurrera nazio bakoitzaren literaturaren historien ereduez ordezkatu ziren arte.

- Boswell, J., 2007, *La vida del doctor Samuel Johnson*, Madril, Espasa-Calpe.
- Caro Baroja, J., 1971, *Los vascos*, Madril, Istmo.
- Chaho, A., 1976, *Viaje a Navarra durante la insurrección de los vascos (1830-1835)*, Donostia, Txertoa.
- Compagnon, A., 2005, *Les antimodernes*, Gallimard, Paris.
- Cortina Iceta, J. L., 1981, *El siglo XVIII en la Preilustración salmantina. Vida y pensamiento de Luis de Losada, 1681-1748*, Madril, CSIC.
- Elorza, A., 1968, «Un proyecto editorial del marqués de Narros en los años finales de la Sociedad Bascongada», *BAP* 24, 155-159.
- Elorza, G., 1976, «Oinatiko Arrazola etxeko manuskritoak», *Euskera* XXII, 179-197.
- Feijoo, J., 1958, *Teatro crítico universal*, Madril, Espasa-Calpe.
- Fernández Albadalejo, P., 1975, *La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa 1766-1833*, Madril, Akal.
- Fernández Sebastián, J., 1991, *La génesis del fuerismo*, Siglo XXI, Madril.
- Garate, J., 1936, *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel*, Bilbao, Diputación de Vizcaya.
- Gurruchaga, I., 1933, «La machinada de 1766 en Azpeitia. Sus causas y desarrollo», *Yakintza* 5, 373-392.
- Hazard, P., 1958, *El pensamiento europeo en el siglo XVIII*, Madril, Guadarrama.
- Humboldt, G., 1933, «Diario del viaje a España», in J. Garate, *G. Humboldt. Estudio de sus trabajos sobre Vasconia*, Bilbo, Imprenta Provincial de Vizcaya.
- Juaristi, J., 1987, *Literatura vasca*, Taurus.
- , 1987, «Las fuentes ocultas del romanticismo vasco», *Cuadernos de Alzate* 7, 86-105.
- Kardaberaz, A., 2004, *Eusqueraren Berri onac*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Lakarra, J. A., 1983, «Barrutiaren Acto para la Nochebuena eta teatro erlijioso erromanikoa», in P. Barrutia, *Gabonetako ikuskizuna*, Arabako Foru Aldundia: Gasteiz.
- , 1985, «Larramendiren hiztegegintzaren inguruan», *ASJU* 19, 11-48.
- Larramendi, M., 1728, *De la antigüedad y universalidad del Bascuenze en España*, Salamanca.
- , 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua Bascongada*. Salamanca.
- , 1984, *Diccionario trilingüe castellano, bascuence y latín (1745)*, Donostia, La Gran Enciclopedia Vasca.
- , 1973, *Autobiografía y otros escritos*, Ed. Tellechea Idígoras, Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- , 1983, *Sobre los Fueros de Guipúzcoa*, Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- , 1990, *Escritos breves*, Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- Larrañaga, L. F., 1969, «Actitud del clero vasco frente a los empeños renovadores de la RSBAP», *BAP* 25, 149-157.
- Lasagabaster, J. M., «La ilustración en la vida literaria vasca del siglo XVIII», *Lapurdum* IX.
- , 2002, *Las literaturas de los vascos*, Donostia, Deustuko Unibertsitatea.
- Lázaro Carreter, F., 1985, *Las ideas lingüísticas en España durante el siglo XVIII*, Madril, Crítica.
- Malaxechevarría, J., 1926, *La Compañía de Jesús por la instrucción del Pueblo Vasco en los siglos XVII y XVIII*, Donostia.
- Mañaricúa, A., 1971, *Historiografía de Vizcaya*, Bilbo, La Gran Enciclopedia Vasca.
- Mitxelena, K., 1978-1979, «El texto de *Peru Abarca*», *ASJU* XII-XIII, 203-224.
- , 1985, *Lengua e historia*, Paraninfo, Madril.



- Mogel, J. A., 1800, *Confesio eta comunioco sacramentuen gañean eracusteac*, Iruñea, Imprenta Ezquerro.
- , 1976, «La Historia y Geografía de España», in La Gran Enciclopedia Vasca IX, Bilbo.
- , 1981, *Peru Abarca*, Bilbo, Gerediaga Elkartea.
- , 1994, *El catecismo vascongado. Cristau eracastle euscalduna*, Bilbo, Labayru.
- Mugartegi, P. V., 2000, «Memoria de todas mis caminatas, andanzas y boberías y de algunos pasajes memorables acaecidos en la gran Villa de Marquina desde el año de 1732», in A. Riscal & J. M. Urkia (arg.), *Amistades y sociedades en el siglo XVIII*, Real Sociedad de los Amigos del País, I. Seminario Peñaflorida, Toulouse.
- Portillo, J. M.<sup>a</sup>, 1989, «El País Vasco: El Antiguo Régimen y la Revolución», in J.-R. Aymes (arg.) *España y la Revolución Francesa*, Crítica, Bartzelona.
- , 1991, *Monarquía y gobierno provincial*, Centro de Estudios Constitucionales, Madril.
- Salaberri Muñoa, P., 2002, *Iraupena eta lekukotasuna*, Donostia, Elkar.
- Samaniego, F. M.<sup>a</sup>, 1898, «Carta sobre el teatro. El Censor», in Apraiz, J., *Obras críticas de Don Félix María de Samaniego...*, Bilbo, Imprenta de Andrés P. Cardenal.
- Sarasola, I., 1986, «Larramendiren eraginaz eta», *ASJU* XX-1, 203-215.
- Sarrailh, J., 1957, *La España ilustrada de la segunda mitad del siglo XVIII*, F.C.E., Mexiko.
- Sebold, R., 1985, *Descubrimiento y fronteras del neoclasicismo español*, Madril, Fundación Juan March, Cátedra.
- Shorto, R., 2009, *Los huesos de Descartes*, Bartzelona, Duomo Ediciones.
- Silván, L., 1967, «Noticia biográfica de d. Joaquín de Eguía, tercer Marqués de Narros», *BAP* 23, 369-404.
- Starobinski, J., 1971, *Jean-Jacques Rousseau, La transparence et l'obstacle*, Gallimard, Paris.
- , 2000, *Remedio en el mal*, Madril, Antonio Machado Libros, La Balsa de Medusa.
- Tellechea Idígoras, I., 1983, «Introducción», in M. Larramendi: *Escritos breves*, Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones.
- , 1977, «Por qué no se publicó en el siglo XVIII la *Corografía* del P. Larramendi», in *Lekuona'tar Manuel Jaunaren omenezko idazki bilduma*, 19, 271-287.
- , 1987, *La ilustración vasca*. Vitoria, Eusko Legebiltzarra / Parlamento Vasco.
- Toledo, A., 2004, «Juan Antonio Mogelen *Peru Abarca*: marko narratibo marko zientifikokoaren mugak hautsiz», *Lapurdum* IX, 283-297.
- Tovar, A., 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Madril, Alianza.
- Urgell, B., 1991, «Axular eta Larramendi», *ASJU* XXV-3, 901-928.
- Urquijo, J., 1996, *Un juicio sujeto a revisión. Menéndez Pelayo y los Caballeritos de Azkoitia*, Donostia, Colección Ilustración Vasca, X. alea.
- Villasante, L., 1979, *Historia de la literatura vasca*, Oñati, Aránzazu.



# C. C. UHLENBECK'S WORK ON THE BASQUE LANGUAGE (In memory of Rudolf P. G. de Rijk, 1937-2003)

Peter Bakker

Linguistics, AAL, Aarhus University

## 1. Introduction\*

C. C. Uhlenbeck worked on a wide variety of languages, but Basque is probably the language that was the most stable research interest throughout his career.

In recent years, many unknown facts about Uhlenbeck's life have been unearthed, especially in Eggermont-Molenaar (2005) and Genee and Hinrichs (2009) (see also Josselin de Jong 1953). Cornelius Christiaan Uhlenbeck (CCU) was born in Voorburg near The Hague in the Netherlands in 1866. His ancestors had emigrated from Germany in the 1700s and, after a period in Dutch colonies in Asia, settled in the Netherlands. CCU went to school in Haarlem and published a book of poems in that period. After graduation he went to Leyden to study Dutch, where he defended his dissertation in 1888, at age 21. He spent a year in Russia studying Russian documents relevant for the study of the history of the Netherlands. He taught at a high school, in the meantime working on linguistic issues, and he collaborated on the voluminous *Woordenboek der Nederlandsche Taal* ("Dictionary of the Dutch language"). In 1892 he was appointed professor in Sanskrit at the University of Amsterdam. In 1899 he became a professor of Old Germanic languages in Leyden, where he worked until his early retirement in 1926, at age 60, mostly for medical reasons. The summers of 1910 and 1911 he spent doing fieldwork on the Blackfoot language in Montana, USA, but for the most part Uhlenbeck was an armchair linguist, and avid reader who got most of his information from books. In 1936 he moved to

---

\* This paper is a revised, expanded and updated version of Bakker (2009). I am grateful to Inge Genee and Jan Paul Hinrichs for their permission to update that paper for a Bascoling audience in *ASJU*.

French and Spanish translations of Uhlenbeck's works are not listed here. They can be found elsewhere in this volume, and also in the bibliography of Uhlenbeck's writings (Bakker & Hinrichs 2009).

All translations in this paper of quotes from Dutch, French and German are mine.

I am grateful to Inge Genee, Jan Paul Hinrichs, Henrike Knörr (†) and Hein van der Voort for their critical comments on an earlier version. Jan Noordegraaf kindly sent some materials that otherwise would have been inaccessible. Further I would like to thank Mary Eggermont-Molenaar for her tremendous work of collecting Uhlenbeck's correspondence and Pruden Gartzia Isasti, director of the Azkue Biblioteka (Bilbao) for making correspondence by Uhlenbeck available from the collection Lacombe, owned by the Olaso Dorrea Foundation. This paper is dedicated to my teacher of Basque Rudolf de Rijk. Virginia de Rijk-Chan donated his library of Basque books to UPV / EHU's Bizkaia Aretoa, where they are now in the *Rudolf de Rijk Liburutegia*.

Lugano, Switzerland, with his wife, where he died in 1951 at age 84. He had kept on writing and publishing on linguistics until the year of his death. His nearly 500 publications (Bakker & Hinrichs 2009) reveal a broad range of interests: genealogy, mythology, history and, within linguistics, Eskimo languages, Algonquian languages, Basque, Sanskrit, Old Germanic languages, and etymology, typology, language contact, morphology and language change.

## 2. Uhlenbeck's interest in Basque

Uhlenbeck's first linguistic publication, his 1888 dissertation, defended when he was only 21 years old, dealt with connections between the Germanic and Baltic languages, but in the loose-leaf *stellingen* 'statements', which are often added to Dutch dissertations, he also added six statements on Basque (see the appendix). His first article devoted to Basque dates from two years later (Uhlenbeck 1890), and his last publication on Basque—and also the last one printed during his lifetime—was a review of Karl Bouda's book on possible parallels between Basque and Caucasian languages, published in the year of his death in 1951. In a career spanning more than 60 years, Uhlenbeck devoted dozens of minor and major papers to Basque. Almost all of his work on Basque was based on published sources, apart from some material collected in the field in the summer of 1903 (Uhlenbeck 1905a). During Uhlenbeck's second and last visit to the Basque country in 1922 for attending a conference, he does not seem to have done fieldwork.

In a letter to the Dutch bascologist Van Eys, dated October 17 1892, Uhlenbeck described how he became interested in Basque. Matthias de Vries, professor in Dutch Studies in Leyden, mentioned similarities between Basque and languages of the Americas languages in his classes in Leyden. This aroused Uhlenbeck's interest, and he decided to learn Basque. He even wanted to write his dissertation on Basque, but this was not judged appropriate by his supervisors as a subject within Dutch studies. One of the reasons for Uhlenbeck to continue the study of Basque when he became professor in Germanic, was the favorable judgment of his works by Van Eys (see Noordegraaf 2008).

